

Jakintza-arloa: Politika

# Estatu espainiarra eta Euskal Herriaren arteko gatazka politikoak eragindako bortxak duen zentzuaren bila

Egilea: MIKEL ZABALETA URKIOLA  
Urtea: 1997  
Zuzendaria: SABINO AIESTARAN ETXEBERRIA  
Unibertsitatea: UPV-EHU  
ISBN: 978-84-8428-272-0

## Hitzaurrea

Bortxa politikoa eman deneko urte luzeak ezagutu dira gure Euskal Herrian. Espainiar estatuan izandako azkeneko gerrate zibilaren ondoren esate baterako, eta areago joan gabe, bi bortxa politiko nabarmendu dira. Bortxa instituzionala alde batetik, eta herritar talde errebindikatiboena bestetik.

Kronologikoki aipatuz, lehena, bortxa instituzionala litzateke. Hau da, Espainiar estatuak Euskal Herrian mantendu duen menperakuntza harremanak bere horretan iraun dezan, nahiz herri honekiko duen gain boterea gal ez dadin gauzatzen den “bidezko bortxa”. Gogoratu, urte oso latzak iragan direla herri honetan, non espainiar gobernuak ezarri duen errepresioa eta bidegabekeria gailendu diren eta euskaldunen eskubideak ez errespetatzeaz gain, debekua, mehatxua, atxiloketa, salbuespen egoera, atzerria, tortura, “parapolizialak”, Gal, hilketak, etab., ohiko kontuak bilakatu diren. Urte luzeak diogun bezala, non gatazka politikoaren aurrean, elkarrikeria bideak alboratuaz, herritarren errebindikazioei entzungor egingo zaien eta metodo militar zein paramilitarrez baliatu.

Bestetik, aipatu bortxa instituzional horren aurka herritar talde errebindikatibo ezberdinek, eta bereziki, ETA talde armatuak eragin duen “erantzun”ezko bortxa genuke. Hots, Euskal Herriaren asmo, nahikunde eta eskubide historikoak eskuratzearen emango litzatekeena eragileen hitzetan, eta “defentsa bortxa” izendatuko dutena. Besteak beste, euskaldun identitatea aipatuko da borroka horren arrazoiak, galtzear dagoen euskara, lurraldetasuna, autodeterminazioa, independentzia, etab.

1987. urtean, eskuartean dugun tesi edo ikerketari ekin nionean, Euskal Herrian ematen zen norabide bikoitzeko bortxa politiko honen zergatiak eta zantzuak aztertu nahi izan nituen, beroriek hobeto ulertu eta irtenbideetan murgiltzeko. Asmo horri biraka jardutean, honako galderak nituen, besteak beste, buruan eta denak ere aztergai. Esate baterako, zergatik inposatu nahi izan da “gazteleratze” prozesua Madriletik? Edo, Euskal Herriak bizi duen errepresio gehiegikeria herri osoari ezarri nahi zaion zigor kolektiboa al da? Bortxa instituzionalaren ondorioz sortu al da talde errebindikatiboen “defentsa bortxa”. Hots, injustizia baten ondorioz?

Eta honako beste hauek ere, guztiz kezkatzen ninduten. Hala nola, Espainiar gobernuak bakezalea ala bortxazalea zen? Espainiar gobernuak, zergatik baliatzen zen arma eta metodo militarrez arazo politiko baten aurrean, eta ez herri horri zegozkion eskubideak errespetatu eta justizia ezarri? Zergatik ETAkide zein ezker abertzaleak torturatu eta hiltzeagatik dominak eta garaikurrak ipintzen zitzaizkien horretan ziharduten polizia eta guardia zibilei?

Galdera zurrumbilo horren aurrean, hala ere, gauza bat nuen garbi. Hau da, Euskal Herrian gatazka politikoa gertatzeko, arrazoi ezberdin eta korapilatsu ugari daude eta ezin ditugu hauek guztiak arrazoi gutxi batzuetara edo batera bakarrik mugatu. Beraz, ezingo da esan, “Euskal Herriko bortxa politikoa talde terrorista batek sortua besterik ez da”. Horretan arituz, arrazoi txepel eta

interesatuak eman eta egia ezkututzen jardungo genuke. Aldiz, arrazoiak anitzak direla ulertu behar da. Besteak beste, historikoak, sozialak, geografikoak, antropologiakoak, politikoak, psikologikoak, etab.

Asmo horretan aritu naiz ikerketa honetan. Euskal Herrian ematen den gatazka politikoaren zioak alderdi anitzetik aztertzen. Hau guztia hezurmamitzean hala ere, ez ditut ahaztu Weber eta bere jarraitzaileen gogoeta esanguratsuak. Herriarena den edozein borroka txartzat jotzea, astakeria da, esango digute, zeren herri bat ez baita bere gustuz aritzen borrokan, galduak eta galtzear dituen eskubideak berreskuratzearen baizik. Eta gauza bera diot ondoko hausnarketaz ere: Ez da gauza berdina, diote, botere osoa izanik edo botere gabeziatik hitz egitea, goitik inposatzea edo behetik jardutea, menperatzailearen ikuspegitik edo menperatuarenetik. Hortaz, eta murrizkerian erortzeko beldur handirik gabe, tesiaren muina adierazten duen honakoa idatziz amaitzen dut aurkezpena: Ez da berdina Estatuaren bortxa edo zapaldurik dagoen herriaren bortxa; bortxa errepresiboa edo defentsarako egiten dena.

Hau da nire ekarpena, Euskal Herri aske eta bakezale baten alde egiten dudana.

Mikel Zabaleta  
2009

**EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**  
**GIZARTE-SIKOLOGIA ETA PORTAERA-ZIENTZIEN METODOLOGIA**  
**SAILA**

**ESTATU ESPAINIARRA ETA**  
**EUSKAL HERRIAREN ARTEKO**  
**GATAZKA POLITIKOAK ERAGINDAKO**  
**BORTXAK DUEN ZENTZUAREN BILA**

*MIKEL ZABALETA URKIOLA*

**DOKTORE-TESIA**

*ZUZENDARIA: SABINO AIESTARAN ETXEBERRIA Dre.*

*JAUNA*

Donostian, 1996ko Irailean



## DOKTORE -TESIA

**IZENBURUA:** Estatu espainiarra eta Euskal Herriaren arteko gatazka politikoak eragindako bortxak duen zentzuaren bila.

**ZUZENDARIA:** Sabino Aiestaran Etxeberria, doktore jauna, EHUko Gizarte-Psikologiako katedraduna.

**EGILEA ETA DEFENDATZAILEA:** Mikel Zabaleta Urkiola jauna.

**LORTUTAKO EMAITZA:** Cum Laude

**DEFENTSA EGUNA:** 1997ko martxoak 20. EHUko Donostiako Psikologia Fakultatea.

### **EPAIMAHAIA:**

**Joxe Azurmendi Otegi** doktore jauna (mahaiburua), EHUko Donostiako Pedagogiako katedraduna.

**Jose Valencia Garate** doktore jauna (idazkaria), EHUko Gizarte-Psikologiako irakasle titularra.

**Lourdes Munduate Jaca**, doktore andrea, Sevillako Unibertsitateko Gizarte-Psikologiako katedraduna.

**Xarles Videgain**, ----- doktore jauna, Baionako Unibertsitateko irakaslea

**Joseba Zulaika Irureta**, doktore jauna, Nevada-Renoko Unibertsitateko irakaslea.

Euskara hutsean idatzi eta defendaturiko tesia izan da.

## ESKERRONA

Aurkezten dudan doktorego tesia aurrera eramateko bidelagun izan zaituztedan guztioi nire eskerrona eman eta lan hau gauzatzeko garaian zuengandik jasotako laguntza ezinbestekoa izan zaidala adierazi nahi dizuet. Hemen, ezingo ditut ahantzi nigandik hain gertu eta eguneroko ekitearen lekuko izan zareten nire emazte eta alabak: **JONE, AINHOA ETA MAIDER.**

Eskertza hau dela medio, doktorego tesi honetan zuzendari izan dudan **SABINO Aiestaran** Gizarte-sikologiako katedratiko jaunaren aipamen berezia egin nahi nuke eta ondoko bertsoon bidez adierazi nire estimua:

BUKA BERRIA DEN TESIAK  
EMAN DIGU KEZKA FRANKO,  
ZENBAT MOTIBU, ZENBAT MINTZAGAI  
BIDE OROK ARGITZEKO;  
HAU, HORI, HURA TA BESTEA  
DENAK DIRA AZTERTZEKO,  
JAKITUN BATEN BABESA IZAN DUT  
LAN HORRETAN EKITEKO.  
SABINO ZURE ITZALIK GABE  
AMAIA EZ ZEN OSPATUKO.

GOGOETA GAI IZAN DITUGU  
EGUNGO EZIN ULERTZEA,  
EUSKADI ETA MADRIL ARTEKO  
GATAZKAREN OINAZEA,  
GUTXIENGOEN ESKUBIDEA,  
TA HIZKETATZE FASEA...  
BETOR GUGANA BAKEA ETA  
ALDE BORTXA ESPIRALEA,  
HERRI HONENTZAT OPA DEZAGUN  
GURE ELKAR-KONPONTZEA.

# AURKIBIDEA

<b>0. AURKEZPENA</b> .....	16
<b>1. ZER DA BORTXA?</b> .....	19
1.1. Bortxa, nonnahiko leloa .....	19
1.2. Bortxari buruz zenbait definizio .....	20
1.2.1. Hiztegietan .....	21
1.2.2. R.Khan-en arabera .....	21
1.2.3. Giulio Girardi-ren arabera .....	22
1.2.4. V. P. Shupilov-en arabera .....	22
1.2.5. Guillermo Mugicaren arabera .....	23
1.2.6. "Pertur"en arabera.....	24
1.2.7. Unesco-ren arabera.....	24
1.2.8. Johan Galtung-en arabera .....	25
1.2.9. Max Weber-en arabera.....	25
<b>2. BORTXA SOZIO-POLITIKO MOETAK</b> .....	28
2.1. Juan J. Linz-en iritziz.....	28
2.2. Javier Elzo Imazen iritziz.....	29
2.3. Bortxa politiko moetarik garrantzitsuenak .....	30
2.3.1. Herriaren borroka.....	30
2.3.2. Bortxa instituzionala.....	31
2.3.2.1. Lehen borroka edota bortxa moeta.....	32
A- Herri borrokaren aldetik .....	32
B- Bortxa instituzionalaren aldetik.....	32
2.3.2.2. Bigarren borroka edota bortxa moeta.....	33
A- Herri borrokaren aldetik .....	33
B- Bortxa instituzionalaren aldetik.....	33

2.3.2.3. Hirugarren borroka edota bortxa moeta.....	34
A- Herri borrokaren aldetik.....	34
B- Bortxa instituzionalaren aldetik.....	34
2.3.2.4. Laugarren borroka edota bortxa moeta.....	34
A- Herri borrokaren aldetik.....	35
B- Bortxa instituzionalaren aldetik.....	35
2.3.2.5. Bosgarren borroka edota bortxa moeta.....	35
A- Herri borrokaren aldetik.....	35
B- Bortxa instituzionalaren aldetik.....	35
2.4. "Txikia" komandoaren iritzia .....	35
2.4.1. Defentsa-bortxa .....	36
2.4.2. Errepresalia-bortxa .....	36
2.4.3. Ofentsiba-bortxa.....	37

### **3. EUSKAL HERRIKO BORTXA POLITIKOARI BURUZKO ZENBAIT DATU**

<b>ESTATISTIKO.....</b>	<b>39</b>
3.1. Errepresio orokorra Euskal Herrian .....	39
3.2. Euskal Herriko bortxa politikoaren ondorioz hilak .....	43
3.2.1. Euskal talde armatu ezberdinek hilak .....	43
3.2.2. Polizia eta goardia zibilen bidezko bortxa instituzionalak eraginiko hildakoen kopurua .....	46
3.2.3. Talde inkontrolatu parapolizial nahiz mertzenarioek hildakoak .....	48
3.3. Euskal Herriko bortxa politikoaren ondorioz izandako zaurituak.....	54
3.3.1. Polizia eta goardia zibilen bidezko bortxa instituzionalak eragindako zauritu kopurua .....	54
3.3.2. Talde "inkontrolatu" parapolizial nahiz mertzenarioek zauritutakoak.....	54
3.4. ETA taldeari nahiz "laguntzaile"ei dagozkien beste zenbait ekintza edota gertaera .....	55
3.4.1. ETA talde armatuaren ekintzak, egindako erasoen arabera.....	55
3.4.2. "Laguntzaile"en ekintzak lurraldeka.....	56
3.4.3. ETA talde eta "laguntzaile"en ekintzak 1987tik 1995era arte .....	56
3.4.4. ETA talde armatuari kendutako zenbait arma eta lehegailu.....	57
3.4.5. Deuseztatuak izan diren ETako zenbait komando .....	58
3.5. Bortxa instituzionalari buruzko beste zenbait gertaera.....	58

3.5.1. Bortxa instituzionalak, manifestazio eta asanblada erreibindikatiboen aurka eginiko erasoaldiak.....	58
3.5.2. Arrazoi politiko eta erreibindikatiboak direla eta, izandako atxilotuak.....	59
3.5.3. Polizia eta goardia zibilen bidezko bortxa instituzionalak eragindako torturak.....	62
3.5.4. Euskal preso politikoak.....	71
3.6. Ondorio gisa .....	76
A- Euskal talde armatu ezberdinek buruturiko borroka politikoa.....	76
B- Bortxa instituzionalak buruturiko bortxa politikoa.....	77

#### **4. EUSKAL HERRIKO GATAZKA ETA BORTXA POLITIKOA GERTATZEKO**

<b>ZENBAIT ARRAZOI .....</b>	<b>80</b>
4.1. ETA talde armatuko kideen gaisotasun sikiko, ahalmen intelektualik eza, etab .....	81
4.2. Euskal nazionalismoa .....	84
4.2.1. Euskal nazionalismoaren irakurketa ezberdinak.....	84
4.2.2. Euskal nazionalismoaren sorrera .....	85
4.2.3. Euskal nazionalismoaren garapena.....	88
4.3. Iragandako gerrate zibila eta ondorengo diktadura .....	93
4.4. Bortxa instituzional politikoa.....	101
4.4.1. Euskal Herrian gehiegikeriak eta zapalkuntza orokorrak izan dira .....	101
4.4.2. Euskal Herriko bortxa politikoa gertatzeko arrazoiak, Linz-en ikerketaren baitan.....	108
4.4.3. Euskal Herrian bortxa politikoa gertatzeko arrazoiak, C.I.S. taldeak egindako ikerketaren baitan.....	109
4.4.4. Euskal Herrian bortxa politikoa gertatzeko arrazoiak, E.D.I.S. taldeak egindako ikerketaren baitan.....	110
4.4.5. Euskal Herrian bortxa politikoa gertatzeko arrazoiak, "Lanbide" k egindako ikerketaren baitan .....	111
4.4.6. Euskal Herrian bortxa politikoa gertatzeko arrazoiak, Ruiz Olabuenagak egindako ikerketaren baitan.....	112
4.5. Euskal Herriko gatazka politikoa gertatzeko arrazoi bakarra? .....	115

## 5. EUSKAL HERRIKO BORTXA POLITIKOAREN BIDEZKOTASUN

<b>NAHIZ JUSTIFIKAZIOA</b> .....	118
5.1. Bidezkotasun eta justifikazioaren esanahia .....	118
5.2. Legitimaziorik badu ETAK?.....	119
5.3. Bi moetatako sostengua jasotzen du ETA taldeak .....	123
5.4. Euskal Herriko bortxa politikoaren bidezkotasun edota justifikazioa Linz-en ikerketa-ren baitan.....	128
5.5. Euskal Herriko bortxa politikoaren bidezkotasun edota justifikazioa, J. Elzo eta J.F. Valenciaren ikerketen baitan.....	135

## 6. EUSKAL GAZTERIAK BORTXA POLITIKO ETA SOZIAL

<b>EZBERDINEI BURUZ EGINDAKO BALORAZIOAK (1987. urtea)</b> .....	141
6.1. Helburuak .....	141
6.2. Metodologia .....	142
6.2.1. Oro har .....	142
6.2.2. Hipotesiarik garrantzitsuenak.....	143
6.2.3. Lagina.....	144
6.2.4. Tresna.....	144
6.2.4.1. ETA taldearen borroka adierazten duten irudiak:.....	145
6.2.4.2. Poliziaren bortxa adieraziko duten irudiak:.....	145
6.2.4.3. Herriaren erreibindikazio nahiz protestek eragindako borroka adierazten duten irudiak:.....	145
6.2.4.4. Lapurretek eragindako bortxa adierazten duten irudiak: .....	146
6.2.4.5. Biolazioek eragindako bortxa adierazten duten irudiak:.....	146
6.2.4.6. Babesgabeenganako bortxa adierazten duten irudiak:.....	146
6.2.4.7. Liskarrek eragindako bortxa adierazten duten irudiak:.....	146
6.2.4.8. Drogek eragindako bortxa adierazten duten irudiak: .....	146
6.2.5. Neurketa tresna edo diferentzial semantikoa .....	148
6.2.6. Galdetegia .....	148

6.2.7. Galdetegiaren aplikazioa .....	150
6.2.8. Datu estatistikoaren analisiak.....	151
6.2.8.1. Datuen kodifikazioa.....	151
6.2.8.2. Ikerketen prozedurak .....	151
6.3. Ondorioak.....	152
6.3.1. Batzbesteko orokorra eta bortxa politiko nahiz sozial bakoitzaren batzbestekoak .....	152
6.3.1.1. Bortxa politikoaren multzoa (ETA, Herriaren borroka eta polizia).....	152
6.3.1.2. Bortxa politiko eta sozialaren multzoa.....	154
6.3.2. T-test delakoaren ikerketak .....	155
6.3.2.1. Batzbesteko orokorrak eta herriaren erreibindikazioen batzbestekoak (T-TESTA).....	155
6.3.2.2. Batzbesteko orokorrak eta "ETA" talde armatuaren erreibindikazioen batzbestekoak (T-TESTA).....	155
6.3.2.3. Batzbesteko orokorrak eta poliziaren bortxaren batzbestekoak (T-TESTA).....	155
6.3.3. Diskriminanteen ikerketak (ikastetxe, sexu eta adina).....	156
6.3.3.1. Herriaren borroka adierazten duten estimuloen buruzko emaitzak, ikastetxearen arabera.....	156
6.3.3.2. Herriaren borroka adierazten duten estimuloen buruzko emaitzak, sexuaren arabera.....	157
6.3.3.3. Herriaren borroka adierazten duten estimuloen buruzko emaitzak, adinaren arabera.....	158
6.3.3.4. "ETA"ren borroka adierazten duten estimuloen buruzko emaitzak, ikastetxearen arabera.....	159
6.3.3.5. "ETA"ren borroka adierazten duten estimuloen buruzko emaitzak, sexuaren arabera.....	160
6.3.3.6. "ETA"ren borroka adierazten duten estimuloen buruzko emaitzak, adinaren arabera.....	161
6.3.3.7. Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloen buruzko emaitzak, ikastetxearen arabera.....	162
6.3.3.8. Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloen buruzko emaitzak, sexuaren arabera.....	163
6.3.3.9. Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloen buruzko emaitzak, adinaren arabera.....	164
6.3.4. Laburpen gisa.....	165
6.3.4.1. T-Test delakoaren arabera .....	165
6.3.4.2. Diskriminanteen arabera .....	165

## **6 (bis). EUSKAL GAZTERIAK BORTXA POLITIKO ETA SOCIAL EZBERDINEI**

### **BURUZ EGINDAKO BALORAZIOAK (1997. urtea).....167**

6.1(bis). Metodologia.....	167
6.1.2 (bis). Lagina .....	167

6.1.3(bis).	Tresna.....	168
6.1.3.8.	Ertzaintzaren bortxa adierazten duten irudiak.....	168
6.1.4(bis).	Neurketa tresna edo diferentzial semantikoa.....	168
6.1.5(bis).	Galdetegia.....	168
6.1.6(bis).	Galdetegiaren aplikazioa.....	168
6.1.7(bis).	Datu estatistikoaren ikerketa .....	169
6.1.7.2(bis).	Ikerketen prozedurak .....	169
6.2(bis).	Ondorioak .....	170
6.2.1(bis).	Batazbesteko orokorra eta bortxa politiko nahiz sozial bakoitzaren batazbestekoak .....	170
6.2.1.1(bis).	Bortxa politikoaren multzoa (Herriaren borroka, ETA, ertzaintza eta polizia) .....	170
6.2.1.2(bis).	Bortxa politiko eta sozialen multzoa .....	171
6.2.2(bis).	T-test delakoaren ikerketak .....	172
6.2.2.1(bis).	Batazbesteko orokorrak eta herriaren erreibindikazioen batazbestekoak (T-TESTA).....	172
6.2.2.2(bis).	Batazbesteko orokorrak eta "ETA" talde armatuaren erreibindikazioen batazbestekoak (T-TESTA) .....	172
6.2.2.3(bis).	Batazbesteko orokorrak eta poliziaren bortxaren batazbestekoak (T-TESTA).....	173
6.2.2.4(bis).	Batazbesteko orokorrak eta Ertzaintzaren bortxaren batazbestekoak (T-TESTA).....	173
6.2.3(bis).	Diskriminanteen ikerketak (ikastetxe, sexu eta adina).....	173
6.2.3.1(bis).	Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, ikastetxearen arabera.....	173
6.2.3.2(bis).	Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, sexuaren arabera.....	174
6.2.3.3(bis).	Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, adinaren arabera.....	175
6.2.3.4(bis).	"ETA"ren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, ikastetxearen arabera.....	176
6.2.3.5(bis).	"ETA"ren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, sexuaren arabera.....	177
6.2.3.6(bis).	"ETA"ren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, adinaren arabera.....	178
6.2.3.7(bis).	Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, ikastetxearen arabera.....	179
6.2.3.8(bis).	Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, sexuaren arabera.....	180
6.2.3.9(bis).	Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, adinaren arabera.....	181
6.2.3.10(bis).	Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, ikastetxearen arabera.....	181
6.2.3.11(bis).	Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, sexuaren arabera .....	182
6.2.3.12(bis).	"Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, adinaren arabera .....	183
6.2.4(bis).	Laburpen gisa.....	184
6.2.4.1.	T-testa delakoaren arabera .....	184
6.2.4.2.	Diskriminanteen arabera.....	184



<b>7. EUSKAL HERRIKO BORROKA ARMATUAREKIN KONPROMETITURIK DAUDEN ZENBAIT LAGUNEN TESTIGANTZAK .....</b>	<b>186</b>
7.1. Galdetegia .....	186
7.2. Lehen testigantza.....	188
7.3. Bigarren testigantza.....	189
7.4. Hirugarren testigantza.....	190
7.5. Laugarren testigantza.....	192
7.6. Bosgarren testigantza .....	194
7.7. Seigarren testigantza.....	196
7.8. Lapurpena eta ondorioak .....	198
<b>8. ONDORIOA.....</b>	<b>202</b>
8.1. ENAMeko aktoreen mezua.....	202
8.2. ENAMen mezuaeren interpretazioa gatazkaren teoria sikosozialaren ikuspegitik.....	204
8.2.1. Bortxa espirala.....	204
8.2.1.1. Gatazka taldeen arteko antagonismo eta sinergia maila.....	207
A- Antagonismo moetak.....	207
B- Sinergia moetak.....	207
8.2.1.2. Gatazka taldeen arteko botere erlazioa.....	208
8.2.1.3. Negoziazioa lantzeko borondatea eta konpromezuaren bilatzea.....	208
8.2.2. Ikuspegi soziokognitiboa gatazken konponbidean.....	210
8.2.3. Identitate nazionalaren auzia .....	214
8.2.4. Nazionalismoa mugimendu kolektibista gisa.....	216
8.2.5. Helmuga-interdependentziaren kontzientzia.....	217
8.3. Gatazkan partaide zuzenak diren aldeei egiten diedan proposamena (ENAM, Estatu espainiar eta frantsesa).....	218
8.3.1. Ikuspegi prozesualaren arabera .....	218
8.3.2. Baloreen ikuspegiaren arabera .....	219

<b>BIBLIOGRAFIA</b> .....	221
<b>I. ERANSKINA: Estimuloak</b> .....	237
1. estimuloa: ETA taldeak eragindako bortxa.....	239
2. estimuloa: ETA taldeak eragindako bortxa.....	241
3. estimuloa: Poliziak eragindako bortxa.....	243
4. estimuloa: Poliziak eragindako bortxa.....	245
5. estimuloa: Herriaren erreibindikazioek eragindako bortxa.....	247
6. estimuloa: Herriaren erreibindikazioek eragindako bortxa.....	249
7. estimuloa: Lapurretek eragindako bortxa.....	251
8. estimuloa: Biolazioek eragindako bortxa.....	253
9. estimuloa: Biolazioek eragindako bortxa.....	255
10. estimuloa: Babesgabeenganako bortxa.....	257
11. estimuloa: Babesgabeenganako bortxa.....	259
12. estimuloa: Liskarrek eragindako bortxa.....	261
13. estimuloa: Drogek eragindako bortxa.....	263
14. estimuloa: Ertzaintzak eragindako bortxa.....	265
15. estimuloa: Ertzaintzak eragindako bortxa.....	267
<b>II. ERANSKINA: Galdetegia</b> .....	269
A orrialdea: Galdetegiaren aurkezpena.....	271
B orrialdea: Estimulo bakoitzari buruzko iritzia azaltzeko lehen orrialdea.....	273
C orrialdea: Estimulo bakoitzari buruzko iritzia azaltzeko bigarren orrialdea.....	275

<b>III. ERANSKINA: Taulak</b> .....	<b>277</b>
1. taula: Euskal talde armatu ezberdinek hil dituztenen egoera zibila edota zegokien gorputz armatua.....	279
2. taula: Euskal talde armatu ezberdinek hil dituztenen egoera zibila edota zegokien gorputz armatua.....	281
3. taula: Euskal talde armatu ezberdinek hil dituztenen egoera zibila edota zegokien gorputz armatua.....	282
4. taula: Euskal talde armatu ezberdinek hil dituztenen egoera zibila edota zegokien gorputz armatua.....	283
5. taula: Euskal talde armatu ezberdinek hil dituztenak lurraldeka.....	284
6. taula: Euskal talde armatu ezberdinek hil dituztenak lurraldeka.....	285
7. taula: Euskal talde armatu ezberdinek hil dituztenak lurraldeka.....	286
8. taula: Polizia eta inkontrolatuek hildakoak.....	287
9. taula: Polizia eta inkontrolatuek zaurituak.....	289
10. taula: ETA talde armatuaren ekintzak, egindako erasoen arabera.....	290
11. taula: ETA talde armatuaren ekintzak, egindako erasoen arabera.....	291
12. taula: ETA talde armatuaren ekintzak, egindako erasoen arabera.....	292
13. taula: ETA talde armatuak egindako ekintzak lurraldeka.....	293
14. taula: ETA talde armatuak egindako ekintza moetak.....	294
15. taula: "Laguntzaile"en ekintzak lurraldeka.....	295
16. taula: "Laguntzaile"en ekintzak erasoetan izandako helburuen arabera.....	296
17. taula: "Laguntzaile"en ekintza moetak.....	296
18. taula: ETA talde eta "laguntzaile"en ekintzak 1987tik 1994 arte.....	297
19. taula: ETA talde eta "laguntzaile"en ekintzak 1987tik 1994 arte.....	298
20. taula: ETA talde armatuari kendutako zenbait arma eta lehergailu.....	299
21. taula: ETA taldeak izandako lehergai kopurua.....	300
22. taula: Deuseztatuak izan diren ETako zenbait komando.....	301
23. taula: Bortxa instituzionalak, manifestazio eta asanblada erreibindikatiboen aurka eginiko erasoaldiak.....	302
24. taula: Arrazoi politiko eta erreibindikatiboak direla eta, izandako atxilotuak.....	303
25. taula: Euskal preso politikoak.....	305
26. taula: Gaisotasun mentalen indizeak.....	306
A. Alta eman zaien gaiso mentalak.....	306
B. Gaisoak 1.000 biztanleko.....	307

## 27. taula:

A- Euskal Elkarte Autonomoan eta Estatu Espainiarrean buruturiko hilketa politiko eta bere burua hil dutenen kopuruak.....	307
B- Sikiatrikoetan ingresatutako gaisoak.....	308
C- Zirrosiak jota hildakoak (aldiko 100.000).....	308
28. taula: Independentziarako jokabideetan egoera ekonomikoak duen eragina.....	309
29. taula: Lau herrialdeetako biztanleria nazionalitate edo jaioterriaren arabera 1970. urtean (zifra absolutuak).....	310
30. taula: Lau herrialdetako biztanleria nazionalitate edo jaioterriaren arabera 1970. urtean (ehunekotan).....	311
31. taula: Euskadiko natibo eta inmigranteen identitatea.....	312
32. taula: Espainola edo Euskalduna sentitzen zara? .....	312
33. taula: Adina, sexua, bizilekua eta identitate nazionala .....	313
34. taula: Independentisten bilakaera.....	314
35. taula: Akort zaude Euskal Herrirako independentziarekin? .....	314
36. taula: Autodeterminazioaren aldekoa zara?.....	315
37. taula: Terrorismoaren arduradunak.....	315
38. taula: Poliziaren irudi publikoa (b).....	316
39. taula: Poliziaren irudi publikoa (b).....	318
40. taula: Terrorismoarekiko jokabidea.....	319
41. taula: Euskal biztanleriaren identitate nazionala eta 1979. urria-azaroan terroristetaz jasotako datuak.....	319
42. taula: 1979. urtean hauteskudeetara aurkeztu ziren alderdi politikoak eta beroriek bortxagileez eman zituzten iritziak .....	320
43. taula: 1979. urtean hauteskudeetara aurkeztu ziren alderdi politikoak eta beroriek bortxagileez eman zituzten iritziak.....	320
44. taula: 1979. urteko botoen arabera terroristak abertzale edo hiltzailatzat jotzen zireneko proportzioa.....	321
45. taula: Nafarroako merindade ezberdinetan terrorismoari buruz izandako jokabideak (A) .....	321
46. taula: Nafarroako merindade ezberdinetan terrorismoari buruz izandako jokabideak (B).....	322
47. Taula: Frantses euskaldunek Hego Euskal Herriko gatazkaz duten pertzepzioa identitate nazionalaren rabea.....	322
48. taula: Terrorismoaren bidezotasuna, lurralde eta une historiko ezberdinen arabera (% horizontalak).....	323
<b>Euskal gazteriak bortxa politiko eta sozial ezberdinei buruz egindako balorazioak 1987. urtean .....</b>	<b>325</b>
49. taula: Lagina.....	327

50. taula: Estimulo ezberdinei buruz aurretetan 5 aldiz edo gehiagotan errepikatu diren hitzak eta dituzten maiztasunak ondoko parentesia barruan.....	329
51. taula: Estimulo ezberdinei buruz aurretetan 5 aldiz edo gehiagotan errepikatu diren hitz positibo, neutral eta negatiboen kopuruak.....	331
52. taula: Batazbesteko orokorra eta bortxa politiko bakoitzaren batazbestekoak .....	333
53. taula: Batazbesteko orokorra eta bortxa sozial bakoitzaren batazbestekoak.....	335
54. taula: Bortxa politiko nahiz sozial bakoitzak diferentzial semantikoan jasotako balorazio positibo eta negatiboen kopuruak.....	337
55. taula: Batazbesteko orokorrak eta herriaren erreibindikazioen batazbestekoak (T-Testa).....	339
56. taula: Batazbesteko orokorrak eta "ETA" talde armatuaren batazbestekoak (T-Testa).....	341
57. taula: Batazbesteko orokorrak eta poliziaren bortxaren batazbestekoak (T-Testa).....	343
58. taula: Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, ikastetxeen arabera .....	345
59. taula: Bortxa politiko bakoitzak diskriminanteen (ikastetxea, sexua eta adina) arabera jasotako balorazio positibo eta negatiboen kopuruak .....	347
60. taula: Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, sexuaren arabera .....	349
61. taula: Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, adinaren arabera.....	351
62. taula: "ETA"ren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, ikastetxeen arabera.....	353
63. taula: "ETA"ren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, sexuaren arabera.....	355
64. taula: "ETA"ren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, adinaren arabera.....	357
65. taula: Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, ikastetxeen arabera.....	359
66. taula: Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, sexuaren arabera.....	361
67. taula: Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, adinaren arabera .....	363
68. taula: Euskal Herriko borroka armatuarekin konprometiturik dauden lagunen testigantzetan jasotako erantzunak eta dituzten maiztasunak ondoko parentesia barruan.....	365
<b>Euskal gazteriak bortxa politiko eta sozial ezberdinei buruz egindako balorazioak 1997. urtean .....</b>	<b>367</b>
49(bis). taula: Lagina.....	369
52(bis). taula: Batazbesteko orokorra eta bortxa politiko bakoitzaren batazbestekoak .....	371
53(bis). taula: Batazbesteko orokorra eta bortxa sozial bakoitzaren batazbestekoak.....	373
54(bis). taula: Bortxa politiko nahiz sozial bakoitzak diferentzial semantikoan jasotako balorazio positibo eta negatiboen kopuruak.....	375
55(bis). taula: Batazbesteko orokorrak eta herriaren erreibindikazioen batazbestekoak (T-Testa).....	377
56(bis). taula: Batazbesteko orokorrak eta "ETA" talde armatuaren batazbestekoak (T-Testa).....	379

57(bis). taula: Batazbesteko orokorrak eta poliziaren bortxaren batazbestekoak (T-Testa).....	381
58(bis). taula: Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, ikastetxeen arabera.....	383
59(bis). taula: Bortxa politiko bakoitzak diskriminanteen (ikastetxea, sexua eta adina) arabera jasotako balorazio positibo eta negatiboen kopuruak.....	385
60(bis). taula: Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, sexuaren arabera.....	387
61(bis). taula: Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, adinaren arabera.....	389
62(bis). taula: "ETA"ren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, ikastetxeen arabera.....	391
63(bis). taula: "ETA"ren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, sexuaren arabera.....	393
64(bis). taula: "ETA"ren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, adinaren arabera.....	395
65(bis). taula: Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, ikastetxeen arabera.....	397
66(bis). taula: Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, sexuaren arabera.....	399
67(bis). taula: Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, adinaren arabera.....	401
69. Batazbesteko orokorrak eta Ertzantzaren batazbestekoak (T-TESTA) .....	403
70. taula: Ertzantzaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, ikastetxeen arabera.....	405
71. taula: Ertzantzaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, sexuaren arabera.....	407
72. taula: Ertzantzaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, adinaren arabera .....	409
<b>IV. ERANSKINA: Grafika</b> .....	<b>411</b>
1. Grafika: Batazbesteko orokorra eta bortxa politiko bakoitzaren batazbestekoak(1987. urtea).....	413
1. (bis) Grafika: Batazbesteko orokorra eta bortxa politiko bakoitzaren batazbestekoak(1997. urtea) .....	415

## AURKEZPENA

Gogoan dut Jokin Apalategi nire irakasleari entzun izana gaur egungo gizarte-mugimenduek beraiek izan nahi dutela beren izatearen egile eta jabe. Ez dute onartzen intelektualek, gizarte-ekintzaren kanpotik -naturaren edota baloreen mundutik- gizarte-ekintza honen zentzua interpreta dezaten. Honek gizarte-ikertzailea gizarte-mugimendu baten sorrera adierazten duten kanpo arrazoiak ezezik gizarte-ekintzaileen intenzionalitatea ere aztertzea behartzen du, azken batean beti, egile sozialok beren ekintzaz egiten duten irakurketa eta gizarte-egitura menperatzaileak aldatzeko borondata era eraman gaitu horrek guztiak. Gizarte-mugimenduak egoera sozialaren irakurketa bat du eta gizarte-egitura aldatzeko borondatea eta nahia. Orain dela berrogeita hamar urte esan zuen K. Lewin-ek "Ekintza-Ikerkuntza" teoria formulatu zuenean eta berriro azpimarratu berri dute J. Ibañez-ek bezala A. Touraine-k ere: Gizarte ikertzaileak lehenik, entzun egiten die gizarte-ekintzaileei; ondoren, neutraltasunetik, ikertzaile-behatzaileak formulatu egiten du hipotesia gisa, gizarte-ekintzaileen taldeak eratu duen zentzua, izatea; azkenik, taldeak baieztatu, baztertu edota eraldatu egiten du ikertzaileak formulaturiko hipotesia.

Hauxe da ETAk azken hogeita hamar urteotan gure herrian daraman gizarte-ekintzaren azterketarako erabili nahi izango nukeen metodologia. Baina ezkutuki ari den edozein gizarte-talde aztertzeko dauden zailtasunengatik ezin aurrera eraman izan dut azterketa honetarako erabili nahi izango nukeen metodologia.

ETAren proiektuaren barne asmoaz jabetzen, ohartzen saiatu naiz batetik, Euskal Herriko errealitateaz zer nolako interpretazioa egiten duen, eta bestetik, gure herrian dauden menperakuntza-harremanak aldatzeko borondatearen ildo jarraitzen.

Lan luze honetan zehar honako bi galdera hauei erantzuten ahalegindu naiz:

- Zer nolako interpretazioa egiten du ETAk Euskal Herriko egoera sozial eta politikoaz?
- Zein aldaketa egin nahi du ETAk Euskal Herriko errealitate sozial eta politikoan?

ETAk daraman bortxaren zilegitasunaren auzia planteatzen dut, ETAk Euskal Herriaren atzoko eta gaurko historiari buruz egiten duen irakurketaren ondorioz, lortu nahi duen aldaketa sozial eta politikorako proiektuaren barnetik.

ETAren proiektuaren azterketari ondoko bost ikuspegi desberdinetatik heldu diot:

- 1- Bortxaz eman diren definizio batzuk eta Euskal Herriko bortxa politikoari buruz idatzi dutenen zenbait ideia biltzen dituzten intelektuaren ikuspegia. Lanaren lehenengo bi atalak daude ikuspegi horretatik landuak, gure herrian dagoen bortxa moeta definitzeko garaian.
- 2- III. atalean behatzailearen jokabidea hartu dut eta bertan, ETAREN aldetik nahiz Estatuaren aldetik ere egindako bortxa ekintzei buruzko estatistikako datuak jasotzen dira, neutraltasun haundienaz. Datu estatistiko horiek argibide hobezina eskaintzen digute "bortxaren gurpilaz", zeina nire iritziz ezinbestekoa baita ENAM eta ETAREN jarraipena ulertzeko. Idazle desberdinen iritzi eta interpretazioak biltzen saiatu naiz datuei buruz nire balorazioa egiteko orduan.
- 3- IV. atalean ikuspegi historikoari lotu natzai. ETAREN bortxa Euskal Herriaren eskubide historikoen aldetik ulertzeko. Eskubide horiek, besteren artean, euskal abertzale guztiek eta zenbait eznazionalistek ere aldarrikatzen dituzte eta aipatu erakundeak armaz defendatzen.
- 4- Gizarte-ikertzaile klasikoaren ikuspegia erabili dut V eta VI. ataletan, ETAREN fenomenoak Euskal Herrian duen gizarte-babesaren haritik aztertuz. ETAREN zilegitasunaren gaia ETAK Euskal Herrian duen gizarte-babesaren eta onarpenaren ikuspegitik planteatu dut.  
Beste egile batzuen ikerketa soziologiko eta sikosozialetara jo dut eta ikerketa berria dakart, nik neuk egina, bortxa politikoari buruzko irudi ezberdinen aurrean (ETA, herri borroka erreibindikatioa eta Estatu polizia) euskal gazteek dituzten sentimenduak aztertzeko.
- 5- VII. atalean hurbiltzen naiz gehien lan honetarako erabili nahi izango nuen metodologiara: Euskadiko borroka armatuarekin konprometiturik dauden zenbait lagunentzako jaso ditut Euskal Herriko errealitateaz egiten duten interpretazioa eta erdietsi nahi duten aldaketa sozial eta politikoa konprenitzeko.

Nire asmoa ez da ETA mugimenduari buruzko balorazioa egitea, ez zuzenbidearen aldetik, naturala edo positiboa izan berau, ezta moralaren aldetik ere. Hasieran planteatu ditudan bi galderei erantzuna ematea besterik ez da nire xedea:

- **Nola interpretatzen du ETAK Euskal Herriko errealitate sozial eta politikoa?**
- **Zein aldaketa sartu nahi du ETAK Euskal Herriko errealitate sozial eta politikoa?**



Berritro diot, lan honen zazpi atalak ETA mugimendua osatzen duten gizarte-ekintzaileen erantzunetara hurbiltzeko saioak dira.

Ondorioen atalean gizarte-mugimenduak aztertzeo erabilienak diren teoria sikosozialetatik abiatuta, ETAkideek beren ekintza sozial eta politikoari ematen dioten zentzua formulatzen ahaleginduko naiz maila teorikoan.

Ikertzaile-behatzaile naizen aldetik ETAREN jardueraren izateari buruz egiten dudan formulazioa da hau, mugimenduaren kide aktiboari proposatzen diedana. Beraiek izango dira beren ekintzaren izatea definituko dutenak nire proposamena onartu, baztertu edota ñabartuz, zehaztuz.

# 1. ZER DA BORTXA?

## 1.1. Bortxa, nonnahiko leloa

Bortxa, zalantzarik gabe, ohiko eta nonnahiko leloa da. Ez da gaur egun soilik edota Euskal Herrian bakarrik gertatzen den zerbait, aldiz, munduan gizakia sortu zenetik dagoen gertakizun sozio-politiko eta korapilatsua litzateke. Zenbaiten ustez gainera, eta Otto Klinerberg (1981) horien artean, gure garaia da munduan bortxarik gehien gertatzen ari denekoa. Ruiz de Olabuenaga soziologiariaren (1985) ustetan bestetik, gutxik edota inork ez omen du dudarik Euskal Herrian inoiz ez bezalako bortxa girorik gogorrenetakoa gaur egun izaten ari dena dela aitortzeko.

Lurralde guztietan egon edota egoten den fenomeno delako esan badugu, gure Euskal Herria ez da arazo honetatik kanpo geratzen ongi dakigun bezala. Euskal Herrian ere bortxa izan da eta norabide bikoitzeko bortxa gainera. Bata, herriak berak sortua dena, hots, ETA talde armatukide, "laguntzaile" nahiz beste mugimendu erreibindikatiboen borrokak eragina eta bestea, kanpotik datorrena edo bortxa instituzionaleko erakunde nahiz taldeek eragina (polizia, goardia zibila, GAL, etab.).

Euskal Herrian gertatzen den bortxa giro hau ordea, euskal gizartea bortxazalea delako ote da?, hau da, euskal gizarteak berak eragiten ote du bortxa hori edo kanpotik datorkion bortxari erantzuten ote dio? Beste elkarte autonomoak baino bortitzagoa al da Euskal Herria? Esate batera kataluindarra baino gehiago? Edota galiziarrena baino? Galdera hauek eta ondorengoak ere egingo ditu Ruiz de Olabuenagak (1985, 13-14.or.):

- *"Euskadi gizarte bortxa-jasalea al da? alegia, Euskadin ba al dago bortxarik?*
- *Baldin badago, zein moetatako bortxa dago Euskadin?*
- *Zer nolako gizarte-zabalkunde dute bortxa moeta desberdinok?*
- *Bortxa bidezkoztat jotzen al da? Zein modutan, zein eratakoa, zenbateraino eta zeinek jotzen du zilegitzat bortxa?*
- *Euskadi gizarte bortxa-jasalea al da?, beste hitzetan esanda, Euskadin bortxarik jasaten al da?*
- *Euskadi gizarte bortxagilea al da? alegia, bortxaren praktika eta erabilpena bidezkoztat jotzen al da Euskadin?"*

Ikusten dugunez, badago aztergai mordoan esparru honetan. Bortxaren alor honetan aurrera egin aurretik, abia gaituzen BORTXARI buruz ematen diren zenbait definizio eta iritzi ezberdin aztertuz. Zer da bortxa? Zer sartzen da gai zabal edota eremu handi honetan?

## 1.2. Bortxari buruz zenbait definizio

Bortxaren gaia aztertzerakoan, gertaera sozial honek esanahi zabalegia duela konturatzen gara, Khan-ek (Galtung 1981, 191-192. or.) dioen modura, hots, moeta anitzetako gertakizun ezberdinak "BORTXA" hitzaz izendatzen dira, halatan, ikus ditzagun adibide batzuk honetaz hobeto jabetzeko:

- 1- Arma erabiliz egiten diren bortxak.  
Gerrateak, hilketak, bonba leherketak, iraultzak, polizi erasoak, lapurreak,...
- 2- Arma erabiliz burutzen den bigarren bortxa moeta.  
(Alain Joxek "ogibideak" deiturikoak) Militarren bortxa, poliziarena, hiltzaileena, iraultzaileena, eta era ezberdin batetan sendagileena....
- 3- Arma bidez edo gabe egin daitekeen bortxa.  
Probokazioak, manifestazioak, mehatxuak, grebak...
- 4- Norberaren kontrako bortxak.  
Alkoholismoa, toxikomania, suizidioa...
- 5- Errepideetan gertatu ohi direnak.  
Istripuak, zapalketak, kolpeak,...
- 6- Komunikabideak.  
Apropos esandako gezurrak egitezko berriak bailiran ematea; erdizkako egiak esatea,...
- 7- "Indarkeriarik gabeko bortxa".  
Kalte sikikoak eragiten dituztenak...
- 8- Zenbait eskuindar edota ezkertiar indartaldereen bortxa.

- 9- Bortxa instituzionala.
- 10- Herriak onar dezakeen bortxa.
- 11- Herriak onartzen ez duen bortxa.
- 12- Bortxa politikoa.
- 13- Delinkuentzia bortxa.

Gertakizunok eta aipatu ez ditugun beste franko ere bortxa direnik ez dago ezpairik, bortxa guztiz ezberdinak direnok ostera izen berdinez izendatu behar al dira? Denak zorro berean sartu?

### 1.2.1. Hiztegieta

Bortxaren esanahiar buruz, definitzeko eragozpenak baditugu ere, hiztegieta ematen den definizioarik erabilieta honako hauxe litzateke: zerbaiten edo norbaiten kontra indarrez aritzea. Honen antzeko beste bat berriz, beste honako hau: zerbaiten edo norbaiten kontra joketzea indarrez baliaturik. Bortxa, hortaz, definizioetan aurkitzen dugunez, helburu bat lortzeko bortxabideari edo indarbideari ekitea litzateke.

Bortxaren definizioan, indarraren erabilera besterik ez aipatzea halaz ere, nahikoa motz daiteke, zeren eta lehenago aipatu bezala, bortxa moeta ezberdin guztiak zaku berean sartzen jarraitzea izango bailitzateke. Akats hau zuzentzearen, bortxaren definizioari buruzko zenbait aspektu gehiago aipatzen dituztenen beste iritzi batzuk agertuko ditugu, hala nola Khan-ek (Galtung 1981, 193. or.) ematen diguna:

### 1.2.2. R. Khan-en arabera

*" Pertsona edo jabetzaren kaltetan izan edo min egiteko xedez indarra erabiltzea; ezaugarri horietan dituen ekintza edo portaera; gorputz-kalte eragiteko edo norberaren askatasuna indarrez ebaste joera bultzatzen duen tratua edo erabilera."*

Khan-ek, bortxa pertsona edo gauzei min edo kalteak eragiteko erabiltzen den indarra dela aipatzen jarraitzen badu ere, gizakiaren askatasuna murrizteko erabiltzen den indarra ere badela agertzen du. Norbaiten kontra indarrez aritzea orain arteko definizioek zioten bezala edo pertsona baten askatasunaren aurka aritzeko erabiltzen den indarkeria dela esatea, Klan-ek dioen eran, gauza berdina errepikatzen ihardutea dela esaten da eta nahikoa egia izan arren, onartu behar da ikuspegi zabal eta sakonagoa ematea lortzen duela bortxaren definizioari. Ez da indarkeria erabiliz egiten den bortxara soilik mugatzen.

### 1.2.3. Giulio Girardi-ren arabera

Girardi-ren (1978, 20. or.) iritziz, ez da bortxa egiteko moduari izugarri begiratu beharrik, baizik eta pertsona edo talde batek bere nahia betetzearren egiten duen zapalkuntzari:

*"Badakigu hitz hau adiera ezberdinak agertzeko erabiltzen dela. Gure ustetan, gizaki orok edo gizatalde batek bestea menperatzeko indarra erabiltzera jotzea litzateke.*

*Ondorioz, gure iritzian, bortxaren adiera horrek ez du esan nahi indarra edo armak erabiltzera jotzea horrela direla direlako soilik, baizik eta gizakiak gizakia bera menperatzea, hots, bestea berak dituen xedeetara menperatu, tresnatzat hartzeko borondatea, makurreraztea. Bortxa bortxaketa da."*

Giulio Girardi jaunaren ustetan, garrantzitsuena ez da delako bortxa arma, mehatxu edota beste modu batez egitea, bere ustetan, indarra erabiliz pertsona bat norberaren nahietara behartzea litzateke bortxa.

### 1.2.4. V.P.Shupilov-en arabera

Shupilov-ek (Galtung 1981, 161. or.) indar fisikoari garrantzia kendu gabe, eta gizartean gerta ohi diren gatazkak kontutan hartuz, bi bortxa ezberdin bereizi nahiko lituzke definitzerakoan. Delinkuentzia-bortxa alde batetik eta talde sozial batek bere interesak defendatzearen sorturikoa (helburu ekonomiko, politiko edota ideologikoagatik)

bestetik:

*"Zuzenbide arrunteko bortxa eta bortxa soziala bereizteak, bortxa klase borrokaren eta borroka politikoaren armatzat erabiltzea eta pertsonaren joerak adierazten duten bortxazko ekintzak bereiztea dakar, azken honek helburu pertsonalak baititu eta delinkuentziaren bidez ebatzi nahi baititu gizartearen eta bere interesen arteko kontraesanak. Bestela esanda, klase eta talde sozialek beren interesen alde jotzearen egiten dituzten ahaleginek borroka eragiten dute, nagusiki hiru eratan adierazita: ekonomikoa, politikoa eta ideologikoa. Borroka honetako bitarteko bat da bortxa eta sarri askotan gizarte-mugimendu batek bidea egiteko tresna izango da, era politiko fosildu eta hilak apurtuko dituelarik."*

Bortxaren ikuspegi sozial honetan delinkuentzia-bortxari gaizki baderitzo Shupilov-ek, ez du iritzi berdina agertzen langileria klaseen arteko bortxari eta bortxa politikoari dagokionean. Ikus daitekeenez, zenbait aginte politiko aldrebesean politika hausteko modu egokia da klase sozialen arteko borroka eta politikoa dena, borroka sozial eta politiko batzuk, negatiboak izan ezezik, positiboak eta beharrezkoak ere badirelako.

### 1.2.5. Guillermo Mugicaren arabera

Mugicak (1978, 7. or.) bortxa politikoaren gainean agertuko digun balorapena ongi datorkigu, Shupilov-ek delinkuentzia eta bortxa sozial nahiz politikoari buruz egindako sailkapenaren osagarri gisa:

*"Bortxa orok ez du zeinu edo izaera berdina; ezin baloratu dira parez pare, modu berdinean, bortxa estrukturala, defentsiboa eta errepresiboa."*

Ez da bidezkoa dio, bortxa estrukturala, defentsiboa eta errepresiboa modu berean baloratuak izatea.

Bortxa instituzionala eta zapaldurik dagoen herriaren bortxa ez dira berdinak idazle honen iritzian, zeren eta ez baita berdina, esaten digu, bakeaz botere osoa izanik edo botererik eza dagoen egoeratik hitz egitea, goitik ihardutea edo behetik ihardutea, menderatzailearen ikuspegitik edo menderatuarenetik. ETA talde armatuaren eta herriaren borroka ez dira bortxa instituzionalaren pareko kontsideratu behar.

Valenciak (1994), Mugicaren ildotik jarraituz, eta geroago bosgarren atalean ikusiko dugunez zera dio, ez dela berdina "behe"tik zuzendurikoa edo garaian garaiko estatuaren aurkako bortxa politikoa eta herriari "goi"tik inposatu edota Estatutik zuzendurikoa.

Eta bere definizioa eman ondoren, honela jarraitzen du Mugicak:

*"...ez gaude bake faltan bortxa lehertu delako baizik eta, bakerik ez dugulako lehertu da bortxa."*

### 1.2.6. "Pertur"en arabera

Amigok (1978, 9. or.) ETA erakunde armatuko kidea eta pentsalaria izandako "Pertur"en eta bera bezala borroka armatuan ihardundako beste zenbait ETAkideren iritziak dakarzki:

*"ETAkide askorentzat borroka armatua bazen -eta batzuentzat oraindik ere bada- arerioaren aurka iharduteko erarik gorena eta argiena, erdizka ibiltzea ezinezkoa den eremua... Borroka armatuaren izana beraz, aurka egite horren erradikaltasun bera da, "berez" klase menperatzaileak ezin bereganatu duen modua izatea alegia. Beste batzurenzat aldiz, borroka armatuak ez du momentu jakin eta orotan masa borrokari lagundu beharko liokeen eginkizuna betetzen. Perturren ustetan, borroka armatua, politikan iharduteko beste era bat besterik ez da. Jakina, klase borrokaren dinamika globalera makurtu beharra du, horrek ordea ez du esan nahi berezko berezitasunik ez duenik eta bere zereginak eragin- esparru haundiagoa ez duenik masa borrokaren lagungarri soila izatea baino."*

"Pertur" (Eduardo Moreno Bergaretxe) eta zenbait ETAkideren iritziz, Euskal Herriko interesen kontrakoa eta etsaitzat jotzen duten Espainiako gobernua erasotzeko eta, bere indar errepresiboen aurka iharduteko erarik gorenena litzateke borroka armatua. Beste batzuen iduriz, herriak daraman borrokaren euskarria edo indar garantia izango litzateke. "Pertur" jaunaren ustez azkenik, politika egiteko beste modu bat izango da.

Borroka armatua esaten digute hortaz, egokia dela Espainiako gobernuaren eta bere indar errepresiboen aurka aritzeko. Borroka armatua, egokia da Euskal Herriak aurrera daraman borroka politikoaren euskarri izateko.

Hau guztia jakina da, egungo gatazka bideratzeko beste irtenbiderik ikusten ez denean onartuko da.

### 1.2.7. UNESCOren arabera

UNESCO erakundeak (Galtung 1981, 289. or.), eskaintzen duen definizioa ere interesgarria da, nahiz eta gauza handirik eransten ez dien lehenago ikusitako definizioei:

*"Bortxa ezin da aztertu fenomeno erabat negatibotzat, erasozko portaera gisa soilik ulertuta, baita ere ulertu beharra dago beste baliokide batzuk erabiliz interes positiboak lortzeko balioko lukeen*

*moduan, edota gizartearen egituraren baitan dagoen, baina gutxiago ikusten den bortxa negatiboari erreaziozko erantzuna ematea ere badela."*

Zenbait borrokaren positibotasuna adierazi digu Shupilov-ek lehenago eta UNESCOk dioenez ere, bortxa ez da beti negatiboa izaten, beharrezkoa edo positiboa ere izan ohi da hobekuntza lortzearen edota ikusteko zaila izan daitekeen beste bortxa okerragoaren aurka iharduteko.

### 1.2.8. Johan Galtung-en arabera

Galtung-ek (Galtung 1981, 97-98. or.), bortxa egiten dela dio, indarrak edota berori gertatzeko mehatxuek (egitea beharrezkoa izan gabe) gizakiaren norberaren garapena oztopatzen dutenean.

*"Bortxa indarra erabiltzea da (edo berari erabiltzeko mehatxua egitea) ebitagarria denean eta horrela, gizakiaren norbere garapenari traba eragitea."*

Galtung ere ez da indarkeria erabiliz egiten den bortxara soilik mugatzen. Definizio honen arabera, ez dago pertsona bati tratatu txarrak egin edota jo beharrik bortxa izateko. Bortxa, torturak edo tratatu ezegokiak nozitzerakoan soilik ez dela egiten esan nahi da, eraso fisikorik nozitu ez duen pertsona bat eta jipoitu ez dena kaltetua izan baitaiteke, bere autoerrealizazioa mehatxuen bidez eragotzi bada esate batera.

### 1.2.9. Max Weber-en arabera

Max Weber, azkenik (1969, 82-84. or.), ez zaigu bortxari buruz zuzenean ari, baina honako tankera honetan mintzo da estatuari buruz ari denean:

*"(...) Aipatu Estatua definitzea daukagu soziologikoki soilik bitarteko berezi batek markatuta dagoenean, elkarte politiko orok bezala, berak ere duena hain zuzen: bortxa fisikoa (...). Estatua, lurralde jakin baten ("lurraldea" elementu bereizgarria da) barruan bere buruarentzako bidezko bortxa fisikoaren monopolioa erreklamatzeko duen (arrakastaz) giza-erkidego oro da. Gure garaiok*



*bereizten dutena zera da, gainerako elkarte eta norbanakoei bortxa fisikoaren eskubidea ematen zaiela bakarrik Estatuak permititzen duen heinean. Estatu bortxa eskubidearen iturri bakarra da."*

Estatua beraz, Weber-en baitan, lurralde jakin baten barruan "bidezko bortxa fisikoaren monopolioa" duelako bereizten da, beste zenbait ezaugarri berezi baditu ere. Estatuak bere buruarentzako, lurraldea bere menpe izateko eskubidea erreklamatzeko du, beharrezko balitz indarra edo bidezko bortxa erabiltzeko aukera izanik, era horretan, bortxa horren bidez aipatutako lurralde horren gain boterea izateko. "Bidezko bortxa" erabiltzeko eskubidea hortaz, Estatuari dagokio soilik, gainerako herritarrek horretarako eskubiderik ez dutelarik.

Estatutik zuzendu eta herritarrei inposatzen zaien bortxa honetaz dio Valenciak (1994) miseria eta giza-hondamenaren lagungarririk haundiena dela.

Beraz, bortxa, ikusi ditugun definizioen arabera, kalte material eta pertsonalak eragiteko erabiltzen den indarkeria izateaz gain:

- 1- **Khan**-en iritziz, gizakiaren askatasuna murrizteko erabiltzen den indarkeria ere bada.
- 2- **Girardi**-ren iritziz, pertsona edo talde batek bere nahia betetzearren egiten duen zapalkuntza da.
- 3- **Shupilov**-en iritziz, "delinkuentzia" bortxa edo bortxa negatiboa eta talde sozial batek beren interesak defendatzearen aurrera eramaten duen borroka edo bortxa positiboa bereizi behar dira.
- 4- "**Pertur**" eta beste zenbait ETAKideren iritziz, arerioaren aurka iharduteko erarik gorena izango da, herria burutzen ari den borrokaren euskarria edota politika egiteko beste modu bat izanik.
- 5- **UNESCO**-ren ustez, negatiboa ezezik, beharrezkoa eta positiboa ere izan ohi da.
- 6- **Galtung**-en iritziz, bortxa ere egiten da, indarra erabiliz edota berori erabiltzeko mehatxuak daudenean, izan ere, mehatxuek gizakiaren norberaren garapena oztopatzen baitu, horrek.
- 7- **Weber**-en iritziz, Estatuak "bidezko bortxa" erabiliz lurralde jakin baten menpekotasuna lortzen du.

Bortxari buruzko definizioetan azaldu diren ideia ezberdinen artean bi besterik ez nituzke nabarmendu nahiko, behin eta berriro agertuko baitira ondorengo orrialdeotan:

- A) Zenbait bortxaren positibotasuna. Bortxa batzuk, esatebaterako, negatiboak ezezik positiboak eta beharrezkoak ere badira.
- B) "Bidezko bortxa"ren erabilera Estatuaren ezaugarrietako bat da lurraldeen menpekotasunari eutsi ahal izateko.

Nire aldetik bukatzeko, eman diren definizioak bildu eta aztertu ondoren, honako era honetan definituko nuke gure herrian gertatzen den bortxa: Euskal Herriaren identitate adierazgarriak definitu eta defendatzeko (alderdi kulturala) zein Estatuarekiko bizi diren menpekotasun-erlazioak aldatuz, botere oreka haundiagora iritsi eta etorkizunaz libreki erabakitzeko ahalmena izateko aurrera eramaten den borroka politiko-erreibindikatiboa da (alderdi estrukturala).

## 2. BORTXA SOZIO-POLITIKO MOETAK

### 2.1. Juan J. Linz-en iritziz

Gaur egun Euskal Herrian burutzen den bortxa bi moetatari banatzen da, zenbait unibertsitatetako irakasle izandako Linz-en hitzetan (1986, 686. or.).

Lehen, delinkuentzia-bortxa deritzoguna litzateke, irabazi edo lukuru asmoak dituen helburu garrantzitsutzat eta bigarrena, bortxa politikoa, errebindikazio edo ideologia sozio-politikoaren defentsan aritzerakoan egiten dena.

*" Bortxa eta zehazki terrorismoa, funtsezko faktoreak dira Euskal Herriko politikagintzan. Pertsonen eta gauzen aurkako bortxa ekintzak, legearen ikuspuntuaren arabera delitu tipifikatutzat definitzen badira ere, delitu arruntzat defini daitezkeenarekin ezberdintzen dira, intentzionalitate politikoa dutelako. Biztanleria izutzeko bahiketa, zerga iraultzailea exigitzea, Gobernuari eskakizunak egitea, preso politikoak askatzea kasu, manifestu bat argitaratzea, etab., horiek guztiak ezberdinak dira talde egilearen irabazi-asmo hutsa bilatzen duen ekintzarekin alderatuz gero..."*

Linz, ohartuko garenez, zenbait adibide ipiniz mintzatzen zaigu bortxa politikoa buruz, hala nola, herria beldurtzeko bahiketak, zerga iraultzaileak, gobernuak preso politikoak aska ditzan edota mezuren bat argitara emateko egiten den exigentzia, etab...

Horren guztiaren bidez gainera, Euskal Herriko bortxaz ari zaigu nabari denez eta, aipaturiko gertakizun sozio-politikoak bortxa politikoen adibide modura agertzerakoan, ETA erakunde armatua bera eta bere ekintzak politikotzat jotzen dituela pentsatu behar da alde batetik, eta talde armatu honen ekintzek ez dutela zerikusirik norberaren lukuruaren alde iharduten dutenekin beste aldetik.

ETA talde armatua beraz, Espainiako gobernu eta bere "indar errepresibo"en aurka iharduterakoan, intentzionalitate sozio-politiko baten defentsan arituko litzateke idazle honen baitan.

## 2.2. Javier Elzo Imazen iritziz

Elzo Imaz (1986, 387. or.) ere Euskal Herrian gauzatzen den bortxa politikoaz ari zaigu eta Linz-en iritzi berdina azalduko digu, azken hogeita bost urteotan Euskal Herrian izan diren hildako asko, motibazio sozio-politikoek eraginik gertatu direla esaterakoan.

*"Eta hildako ugari izan dira Euskadin azken 25 urteotan -zio sozio-politikoengatik-."*

Elzo Imazek hala ere, areago joko du arazo hau argitzeko ahaleginean:

*"... bortxa hauek erreferentzigune argian kokatzen dira: orohar marko "sozio-politiko" deiturikoan. Biktimak ez dira, adibidez, merkatua kontrolatzearren kale-liskar baten ondoriozkoak edo irabazpide bat lortzearren eragindakoak. Planteamendu sozio-politiko baten ondoriozkoak dira: kolektibo baten ahalegina Euskadi independentea eta sozialista lortzeko, besteak beste, Estatuaren batasuna bermatzeko eta iraultza eragozteko zeregina duten Estatuko Segurtasun Indarrak aurrean dituela."*

Estatu espainiarra eta Euskal Herriaren arteko bortxa politikoan dabiltzanak, esaten digu lehenik idazleak, ez direla lukurua edota norberaren hobekuntza ekonomikoa lortzearren ari, eta bigarrenik, ETA talde armatua eta bere ekintzak sozio-politikoak direla.

Linz Euskal Herrian dagoen bortxa politikoari buruz mintzatzean ETA talde armatuaren bortxaz bakarrik ari bada ere, Elzo Imazek Euskal Herriko bortxa sozio-politikoan dabiltzan alderdiak bi direla esaten digu: Euskal Herri independente eta sozialista izatera iristea nahi dutenak alde batetik eta, Espainiako estatuaren batasuna gorde eta bertan gerta daitezkeen iraultza ahaleginak deuseztatu nahi dituztenak bestetik.

ETA erakunde armatua, adierazten digu Imazek, Espainiako gobernuaren eta bere "indar errepresibo"en aurka bortxan ari dela Euskal Herri askatua eta sozialista erdiesteko xedez eta Espainiako gobernu bera ere ETA talde armatuaren nahiz Euskal Herriko talde erreibindikatiboen aurka bortxan ari da Espainiako estatuaren batasuna bermatu eta bertan egin daitezkeen iraultza-saioak ezereztatzeko asmoz.

Ruiz de Olabuenagak (1985) azkenik, eta Elzo Imazek esandakoaren antzekoa errepikatuz, Euskal Herrian gertatzen diren bortxa sozio-politikoetan bi moeta bereizi behar direla dio, euskal gizarteak jasaten duen bortxa edo kanpotik letorkiokeena alde batetik, eta euskal gizarteak berak zuzpertzten duena bestetik.

Euskal Herrian bizi duen gatazka honetan, argi da norabide bikoitzeko bortxa dagoela, baina zeintzu dira Euskal Herrian iraultza taldeek nahiz instituzioek eragindako bortxa politiko moeta horiek?

## 2.3. Bortxa politiko moetarik garrantzitsuenak

Euskal Herrian dagoen egoera sozio-politikoan, esan digute oraingoz, norabide bikoitzeko bortxa ageri dela, herriaren borroka edo euskal gizarteak sortua bata eta bortxa instituzional edo gobernu nahiz agintari politikoek eragindakoa bestea.

### 2.3.1. Herriaren Borroka

Francisco Franco diktadorearen gertuko kolaboratzailea zen Luis Carrero Blancoren hilketa burutu zuten "Txikia" (Aguirrek aipatua 1978, 187-188. or.) komandokoek ondorengo hau zioten herriak eragiten duen borrokari buruz:

*"Azken finean, bortxa herrikoia oro gaitzestea, klase menperatzailearen ikuspuntu ideologikoetatik ihes egiteko berebiziko beharra eta ezgaitasunaren erakusgarri argia (gaitzestearen aldetik) besterik ez da. Herriek ez darabilte bortxa erabiltzeko nahia dutelako, giza eskubide bat eskuratzeko duten premia larriak bultzaturik baizik: askatasunaren eskubidea harreman sozialetan. Herriaren bortxa, menpekotasunari erantzuteko sortzen da soilik eta erabiltzen duen modua edozein izanik ere, -norberaren defentsa, errepresalia edo ofentsiboa- beti defentsakoa izango da, klase menperatzailearen bortxa instituzionalizatuaren aurrean eta ondorioz, erabat bidezkoa".*

Beraz, aurreko guztia nolabait bat dator Mugicak (1978), bortxak bereizi beharrak daudela dioenean, Galtung (1981), zenbait bortxak alderdi positiboa dutela dioenean eta Weber-ek bortxaz duen ikuspegiarekin ere. Herriarena den edozein borroka txartzat jotzea astakeria dela diote, herri bat ez baita bere gustoz aritzen borrokan, galduak eta galtzear dituen eskubideak berreskuratzearren baizik. Herriarena den bortxa, jarraituko dute esanez, herri batek nozitzen duen zapalketak edota dagozkion giza eskubideen murrizketek eragindako indar-erabilera dela eta halatan, jasaten den zapalketatik askatu eta dagozkion giza eskubideak berreskuratzeko besterik ez direla aritzen, eraso instituzionalei aurre egiteko

beharrezko defentsa era desberdinetan ihardunez eta areago oraindik, guztiz beharrezkoak diren defentsa-, errepresalia- eta ofentsiba- bortxak erabiliz.

Beraz, herriak borrokaren bidea hautatzerakoan eraso instituzionalei aurre egiten arituko litzateke, herriari berari erasook kalte haundiagoak sor ez diezazkioten.

### 2.3.2. Bortxa instituzionala

Bortxa instituzionala, gobernu edo agintari politikoek beren egitasmo politikoak nahiz administratiboak gauzatzeko eragiten duten bortxa litzateke. "Txikia" (Aguirrek aipatua, 1978) komandokoen iritziz, berriz, herri bat bere eskubideen defentsan iharduterakoan agintari politikoengandik jasoko lukeen zapalkuntza litzateke.

Zein bortxa moeta eramaten dira aurrera ordea, herri batek bere eskubideak defendatzearren praktikatzen duenean batetik, eta herritar nahien aurka instituzioek egiten dutenean bestetik?

Euskal Herrian burutzen den alde bateko borroka zein besteko bortxari buruz aritzerakoan bost moeta ezberdin nabarmenduko nituzke.

- 1.- Kalte fisiko eta materialak sortzeko intentzionalitatearik egon gabe, halakorik eragiten ez duen borroka edota bortxa.
- 2.- Kalte fisiko eta materialak sortzeko intentzionalitatearik egon ez arren, kalteok eragin ditzakeen borroka edota bortxa.
- 3.- Suzko armarik erabili gabe, kalte fisiko eta materialak eragiteko intentzionalitatea izango lukeen borroka edota bortxa.
- 4.- Suzko armak erabili arren, inor hiltzerainoko kalte fisikoak eragiteko intentzionalitatearik egon gabe, halakorik sor dezakeen borroka edota bortxa.
- 5.- Suzko armak erabiliz hiltzerainoko kalte fisikoak eragiteko intentzionalitatea izango lukeen borroka edota bortxa.

### 2.3.2.1. Lehen borroka edota bortxa moeta

Lehenengo kasuan, herriaren erreibindikazioak lortzeko zein gobernuaren egitasmoak betetzeko ahaleginetan, inongo kalte fisiko eta materialak sortzeko intenzionalitate egon gabe, halakorik eragingo ez duen borroka edota bortxak, honakook lirarteke besteak beste:

A- Herri borrokaren aldetik; euskaldunen hizkuntza gal ez dadin eta herriko haurrak zein helduak euskal giroan hezi daitezzen ikastolak, AEK, barnetegiak, HABE, etab... eraikitzen dira; euskaldunek jaso behar duten informazioa objetiboagoa izan dadin euskal egunkari, irrati eta telebistak sortzen dira; Askatasunaren ibilaldia antolatzen; Euskal Gobernu Autonomoa sortzen; etab...

B- Bortxa instituzionalaren aldetik; zenbait euskal udalek euskara sustatzeko, intsumituen alde, etabar... hartutako erabakiak indarririk gabe uztea; administrazioko nahiz irakaskuntzako langilegoa elebiduna izan dadin oztopoak jartzea; gobernuaren alde jokatzen duten instituzio edota komunikabideei dirua errazago banatzea; euskara gaztelaniaren menpeko izatea; euskaldunen zenbait eskubide erreibindikatzeko antolatzen diren manifestazioak debekatu edota indar polizialak bidaltzearekin mehatxatzea; poliziaren komisaldegia eta goardia zibilen koarteletan tortura egiten dela ukatzea; Gernikako Estatutua nekez eta geldiro garatzea; Euskal Herriaren Independentziarako bideak zabal-anitzak izan daitezzen ezer ez egitea; hauteskunde demokratikoen bidez aukeratu gabeko pertsonak (gobernadore zibilak, Juan Carlos I Espainiako erregea) agintean ipintzea; GAL talde armatuko zenbait kide ez atxilotzea; GAL talde armatuaren ekintzak argitu ahal izateko Espainiako Justiziari laguntza ez ematea; etab...

Ikusten dugunez, herriaren asmo nahiz eskubide politiko, ekonomiko, eta kulturalak gauzatzeko herriak egiten duen borrokan edo askotan "erresistentzia" deiturikoan, Madrilekiko agintarien aurkako jarrera agertzen da, eta Madrileko gobernuak herriarenak diren zenbait eskubide oztopatzean une horretan duen botereaz baliaturiko bortxan aritzen da. Norabide bikoitzeko bortxa beraz, nahiz eta kalte fisiko edota materialik sortzen ez den.

### **2.3.2.2. Bigarren borroka edota bortxa moeta**

Bigarren kasuan, herriaren erreibindikazioak lortzeko ahaleginetan zein gobernuaren egitasmoak betetzeko saioetan ere, inongo kalte fisiko eta materialik sortzeko intentzionalitaterik egon ez arren kalteok eragin ditzakeenari dagokionean, honakook aipa daitezke:

A- Herri borrokaren aldetik; euskaldun gazteek ejertzitoan parte har ez dezaten intsumisioa bultzatu eta protesta-eserraldiak antolatzen dira; euskaldunen eskubideak errespetatuak izan daitezten manifestazioak; gurea Ikurriña dela adierazteko "errepresio sinboloa" adierazten duen Espainiako bandera erretzen da eta "guerra de las banderas" deituriko iharduerak antolatzen dira; Nafarroa eta Ipar Euskadi ere Euskal Herria direla eta bateratze prozesua lehen bait lehen egin behar dela adierazteko manifestazioak eta elkarren arteko kontaktuak ugaritzen dira; ETA erakunde armatuaren aldeko manifestazioak egiten dira; euskal presoek askatasuna eskatzeko ekintza mordoa antolatzen da, etab...

B- Bortxa instituzionalaren aldetik; euskaldun gazteak ejertzitoan parte hartzera behartzen da (Esparza 1994); "errepresio sinboloa" adierazten duen Espainiako bandera udaletxeetan ipintzera behartzen da; Nafarroa, Ipar Euskal Herria eta Euskal Autonomi Elkartearen batasuna lortzeko eragozpenak jartzen dira; Estatu espainiar eta Euskal Herriaren arteko gatazkari buruz zein ETA erakunde armatuari buruzko zenbait iritzi azaltzerakoan "terrorismoaren apologia" leporatzea mehatxatzen da; manifestazioak antolatzen diren lekuak indar errepresiboez inguratzen dira; ETAkideek espetxean bete beharreko urteak egin ondoren askatasuna ukatzen jarraitzen da; preso politikoei eman behar zaien tratamendua ez da betetzen eta preso Sozialekin batera jarriak dira; preso politikoak bahitu gisa erabiltzen dira; hauteskundeetako botoak jaso dituzten zenbait politiko baztertzen dira; epailearen baimenik gabe miaketak edota atxiloketak egiten dira; GAL talde armatukideak babesten dira; torturak eragin edota ETAkideak hiltzen parte hartu duten polizia edo goardia zibilei dominak eta garaikurrak ipintzen zaizkie, etabar...

Bigarren borroka nahiz bortxa moeta honetan, kalte fisiko eta materialak sortzeko intentzionalitaterik ez badago ere halakorik eragin daitezkeela esaterakoan, ez dut honelako gertaeretan inolako arma motarik erabiltzen denik esan nahi, baizik eta, egoerotako zenbaitetan bortxaren hastapenak eragin ditzaketen ezustek sarri eta nonnahi gertatzen direla. Adibide modura aipa daitezke, antolatzen diren manifestazioak erasotzeko asmoz indar polizialak kaleratzen direnean, harrika hartuak izaten dira poliziak; barrikadak ipintzen dira; banketxeetako beirak puskatzen dira; etab... Nahiz eta bertako partaideek halako egoerarik



sortzeko asmorik ez duten horrelakoak gertatu izan badira, kanpotik eragindako probokazioen ondorioz izan dela adierazi nahi da.

Gauza berdina gerta daiteke bigarren kasuan, baina alderantziz. Indar polizialak intimidazio modura besterik ez bada edota erasotzeko inongo asmorik gabe egon arren kalean, irainduak izan daitezke edo harrikadak jaso ditzakete beren agerpen soila probokazio edo herri bahituaren seinale izan ohi denez askorentzat eta ondorioz, kalte pertsonal nahiz materialak eragin.

### **2.3.2.3. Hirugarren borroka edota bortxa moeta**

Hirugarren kasuan, herriaren erreibindikazioak lortzeko ahaleginetan zein gobernuaren egitasmoak betetzeko ere, suzko armarik erabili gabe kalte fisiko eta materialak eragiteko intentzionalitatea dagoen borroka edota bortxari buruzkoan, ondorengo hauek aipatuko ditugu:

A- Herri borrokaren aldetik; frantses matrikuladun autoak erre izan dira gobernu horrek Estatu espainiar eta Euskal Herriaren artean gertatzen den gatazka honetan Espainiako gobernuaren alde agertu eta "Euskal Gudariak" deituriko ETAkideak bahitu, espetxeratu edota estraditatu dituelako; Gipuzkoatik Nafarrokako autobidea egiten aritu diren enpresen tresneria erretzen da, egin nahi den autobiak kalte ekologikoak ekar ditzakeelako; Espainiar edo Frantses Gobernuak ETAkideak atxilotu, torturatu, estraditatu, hil edota espetxeratu dituztenean autobusak geldiarazi eta su ematen zaie; etab...

B- Bortxa instituzionalaren aldetik; atxiloketa bat egiterakoan etxebizitza guztia hankaz gora jarri eta bertako bizilagunak mehatxatu, umiliatu, jo eta beldurtzen dira; atxilotuak torturatu; iheslariak atzerriratu (Etxegarai 1995); etabar...

### **2.3.2.4. Laugarren borroka edota bortxa moeta**

Laugarren kasuan, herriaren erreibindikazioak lortzeko ahaleginetan zein gobernuaren egitasmoak betetzeko ere, suzko armak erabili arren, inor hiltzerainoko kalte fisikoak eragiteko intentzionalitatearik egon gabe, halakoak sor ditzakeen borroka edota bortxa dugu.

A- Herri borrokaren aldetik; Bartzelonako Hipercor delakoan eta beste antzeko ekintzetan gertatu ohi direnak adibidez: lehergailu batek eztanda egitean parean harrapa dezakeena; polizia eta ETAkideen arteko tiroketaldi baten erdian gertatu den pertsona; etab...

B- Bortxa instituzionalaren aldetik; zenbait manifestazio erreibindikatiobotan poliziak herritarren aurka suzko armaz eginiko erasoaldiak; errepideetan jartzen diren kontroletan suzko armak erabiliz bidaiariak hilda gertatu direnean; zenbait atxiloteta egin direnean izandako hildakoak; torturen ondorioz gertaturiko hildakoak, etab...

### 2.3.2.5. Bosgarren borroka edota bortxa moeta

Bosgarren kasuan, herriaren erreibindikazioak lortzeko ahaleginetan zein gobernuaren egitasmoak betetzeko saioetan ere, suzko armak erabiliz hiltzerainoko kalte fisikoak eragiteko intenzionalitatea dagoen borroka edota bortxa.

A- Herri borrokaren aldetik; Polizia, goardia zibila, salatari edo Espainiako gobernuaren kolaboratzailea izan daitekeen beste edonor erasotzen denean; zerga iraultzailea ordaintzen ez duen enpresaria bahitu eta hiltzean; droga-trafikatzaileen aurka egiten denean; etab...

B- Bortxa instituzionalaren aldetik; Poliziak ETAkideak atxilotzera joateko aitzakiaz hil egin dituzte; ETako ekintzaren bat mendekatzearen indar parapolizialak hiltzerainoko kalte fisikoak eragiteko asmoz kaleratzen direnean; komisaldegia eta goardia zibilen koarteleetan atxiloturiko ETAkideak hiltzeraino torturatzean; espetxeratuei emandako tratu ezegokiak medio, hilik gertatu direnean presoak; gobernuak GAL erakunde armatua bultzatu (sortu ?), lagundu edota bere oniritziak ihardun eraztean; etab...

## 2.4. "Txikia" komandoaren iritzia

Herriaren borrokari dagokionean, "Txikia" komandokoek (Aguirrek aipatua, 1.978) zera esaten digute, bortxa instituzionalaren erasoei aurre egiteko defentsa era desberdinak besterik ez direla eta guztiz beharrezkoak gainera ondoren azalduko diren defentsa, errepresalia eta ofentsiba-bortxa hauek. Hots, zapaldua aurkitzen den herri batek bortxa hauetako edozeinetan iharduten duenean, defentsan besterik ez litzatekeela arituko adierazi nahi da.

Tesi honetako 7. atalean, Euskal Herriko borroka armatuarekin konprometiturik dauden zenbait lagunek, "Gaur egun egokitzen jotzen al duzu borroka armatua erabiltzea helburu politikoak lortzeko?" galderari (2. galdera) emandako erantzunak ere ildo beretik doaz, ETA talde armatuaren borroka erantzunezkoa edo Espainiar indar armatu nahiz polizialen bortxa errepresiboari egiten zaion erantzuna dela esatean alde batetik eta defentsiboa ere badela eranstean.

Ikus ditzagun "Txikia" komandokoek ematen dituzten argudioak:

### 2.4.1. Defentsa-bortxa

Defentsa-bortxaren definizioa egiterakoan, ez dira, bortxa moeta honen teorizazioan sakonki murgiltzen, baina bai adierazpen praktikoa ematerakoan (Aguirrek aipatua, 1978, 187 or.):

*"Defentsa-bortxa. Orain bi urteko Galdakaoko tiroketaren kasua. Militante talde batek udaltzain bat hil eta Goardia Zibil batzuek atxilotu nahi izan zituztenean bat zauritu zuen. Norberaren defentsa deitu ohi denaren baliokidea da"*

Komando honetako partaideen iritziz, defentsa-bortxaren esanahia defentsa pertsonalaren baliokidea litzateke, arerioak erasotzen duenean norberaren burua defendatzea, alegia.

### 2.4.2. Errepresalia-bortxa

**Errepresalia-bortxa** aipatzerakoan defentsiboan egin den bezala, adibide berri bat emanez argituko dute bortxa honek, duen esanahia beraien iritziz (Aguirrek aipatua, 1978, 187. or.).

*"Errepresalia-bortxa. Poliziak zauritu eta atxilotu zuen militante bat Iruñean eta ondoren Azpeitiako Goardia Zibilaren ikerketa Politiko-Sozialeko zerbitzuaren arduraduna hil zuen komando batek Azpeitian. Helburuetako bat da Estatuko indar errepresiboari ohartaraztea Erakundearen aurkako eraso bakoitzari honek erantzun gogorra emango diola. Era horretan, indar errepresiboek halakoei ekin aurretik hobeto pentsatuko dutela espero da. Era honetako bortxa defentsa antolatutzat har daiteke."*

ETAkide bat atxilotua, torturatua edo hila gertatzean, hori eragin duen erakundearen aurka egiten den ekintza litzateke errepresalia bortxa. Hortaz, eta beraiek dioten moduan, ETA erakunde armatuaren bortxa moeta hau, defendatzeko era bat litzateke, arerioa erasotzea taldearen defentsa bilakatzen da.

### 2.4.3. Ofentsiba-bortxa

*"Ofentsiba-bortxa. Arerioa garaitzera zuzendurik dagoen estrategiak adierazitako beharrei jarraikiz egindakoa da. Funtzio taktikoa duten eta, aurretik aipatutako bortxa moduak hartzen ditu eta berriak erantsi ere.*

*Hemen kokatzen da nagusiki Carrero Blancoren exekuzioa.*

*Espainiako oligarkiak, militante iraultzaileak atxilotu edo hiltzeko saiakerak egiteaz gain, metodikoki eta bere strategiaren arabera, bortxari ekiten dio Euskal Herriaren aurka, esplotatuz eta menperatuz. Honen ondorioz eta ez besterik, herriak askapen estrategia (ezinbestekoa, arrakastatsu nahi badu izan) bere baitan hartzen duen duelarik."*

"Txikia" komandoaren ustez (Aguirrek aipatua, 1978, 187 or.), ofentsiba-bortxa talde militar batek duen strategiaren erabilpena litzateke, beti ere, arerioak gal dezan eta adibide moduan Carrero Blancoren hilketak aipatzen dute. Bortxa moeta hau egongo ez balitz, Espainiar oligarkiak militante iraultzaileak atxilotu eta hiltzen jarraituko omen luke eta Euskal Herria esplotatu eta zapaltzen ere bai. Era horretan jarrai ez dezaten eta Euskal Herria askatua izatera iritsi dadin, esaten digute, nahitaezkoa dela ofentsiba-bortxa.

Laburbilduz, Espainiako gobernuaren bortxa errepresiboak, herri honenganako zapalkuntza eta errepresioa besterik ez duela eragiten esaten dute ETAkide, "laguntzaile" eta MLNVko gainontzekoek, zeren eta herriak agertzen dituen nahikundeak kontutan hartu gabe eta berorien aurka arituz, gobernuaren egitasmoak besterik ez baitira bultzatzen, nahiz eta berauek demokratikoak ez izan, eta gobernuak une horretan duen botereaz baliatuz gauzatu.

ETA talde armatukoaz, Espainiar gobernukideek diote bestetik, hiltzaileak besterik ez direla eta "herri borroka" modura ezagutzen dena delinkuentzia-bortxa edo "delito común" besterik ez dela edota, "terrorismo" a eragiteko ezagutzen den era bat, azken finean.

Oharturik gaude beraz, gatazka politiko honetako bortxan dabiltzanak bi alderdi direla eta bortxa gertatzeko intenzionalitate osoz dabiltzala gainera.

Lehenago Valenciak (1994), Weber (1969) eta Mugicak (1978) zioten bezala, bortxan ari diren bi talde ezberdinen ekintzen balorapenek ere ezberdinak izan behar dute. Ez baita berdina bakeaz botere osoa izanik edo boteregabeziatik hitz egitea, "goi"tik inposatzea edo "behe"tik ihardutea, menperatzailearen ikuspegitik edo menperatuarenetik. Hortaz, ez da berdina Estatuaren bortxa edo zapalduarik dagoen herriaren bortxa; bortxa errepresiboa edo defentsarako egiten dena.

## 3. EUSKAL HERRIKO BORTXA POLITIKOARI BURUZKO ZENBAIT DATU ESTADISTIKO

### 3.1. Errepresio orokorra Euskal Herrian

Euskal Herrian gertatzen den bortxa aipatzean, ongi dakigu denok zertaz ari garen hemen. Euskal Herria eta Estatuaren artean aurrera eramaten den bortxa sozio-politikoan dabilzan alderdiak bi direla diogu, eta bortxa espirale honetan jarraitzeko "intentzionalitate" osoz dabiltzala.

Egoera honetaz hobeto jabetzeko bortxa honi dagokion zenbait datu estatistiko azaltzeari beharrezkoa deritzot, honen guztiaren garrantzia eta bere tamaina ulergarriagoa gerta dakigun. Datu estatistikoekin hasi aurretik euskal talde armatu edota instituzioek sortutako bortxen xehetasun guztiak hemen agertzerik ez dugula izango argitu behar da, lan hauetaz inor gutxi arduratu denez xehetasun asko eta asko galduta leudeke, eta beste asko apropos isilduak iturri ofizialek.

Arazo hau gainera, areagotu egingo da bortxa instituzionalei dagokienean, erakunde ofizialek berorien bortxei dagozkien datuak deformatu egiten baitituzte, edota Castells-ek (1982), Chomsky-k (1990), Forest-ek (1985), eta Larrainzarrek (1991), esaten duten bezala manipulatu egiten dituzte. ETA talde armatuari dagozkion datuak urriak badira ere, eta bortxa instituzionalari dagozkionak are eskasagoak, jaso direnak aski dira bizi dugun egoera sozio-politiko eta bortxa espiral honen garrantziaz jabetzeko.

Aipaturiko bortxa instituzionalei buruz Nuñezek (Castells-ek aipatua 1982) esaten digu, Euskadin egin diren mehatxu, atxiloketa, errepideetako kontrol, manifestazio debeku, tortura, etabarrek Euskadi guztia markatuta uztea lortu duela. Bestetik berriz, bortxa instituzionalak Euskal Herrian bideratutako errepresioaz zenbait idazle, pentsalari, politikari eta beste hainbat adituren esanetan, talde konkretu bati ezarritako zigor selektiboa baino herri osoari zuzenduriko zigor kolektiboa izan dela diote (Sanchez Erauskin 1978), eta ez ordena edota justizia lantzeko sortua. Errepresio honen mina herri osoak sentitzeko adinakoa izan da.

Hona hemen azaldutako gehiegikeriak salatu dituzten zenbait herritar organismo, alderdi politiko edota lagun ugari:

- Arrasateko Udala (Bordagaray-k aipatua 1978). Espainiako poliziaren bortxak ugaltzen ari dira herrian eta honengatik, indar errepresiboekin elkar bizitzea ezinezkoa gertatzen da.

- Tolosako Udala (Bordagaray-k aipatua 1978). Indar errepresiboek Tolosako herrian erabiltzen dituzten metodoak ezegokiak dira.

Eta Tolosako Udalarekin batera 1976. urteko irailaren 30ean egindako alkateen arteko bileran, indar errepresiboekiko ezadostasuna adierazi zutenak, besteren artean, ondoren azaltzen diren herrietako alkate jaunak izan ziren: Gabiria, Azkoitia, Azpeitia, Zaldibia, Eibar, Oiartzun, Beasain, Lazkao, Ataun, Ordizia, Arrasate, Elgeta, Aretxabaleta, Urretxu, Ormaiztegi, Eskoriatza, Bergara, Legazpi, Usurbil, Gatzaga, Hernani, Zegama, Segura, Itsasondo, Idiazabal, Belauntza, eta Zestoa.

Eta 1977. urteko martxoaren 14ean Bergaran egindako bileran berriz, indar errepresiboek manifestazioak erasotzerakoan errepresioa eta probokazioa erabiltzen zutela ziotenak, ondoren agertzen diren herrietako alkate jaunak izan ziren (Bordagaray-k aipatua 1978): Elizondo, Huarte, Eibar, Belauntza, Usurbil, Hernani, Oiartzun, Azpeitia, Bergara, Legazpi, Zestoa, Zaldibia, Ormaiztegi, Etxarri, Ibarra, Bidegoian, Arrasate, Gabiria, Zarautz, Tolosa, Idiazabal, Gatzaga, Zegama, Segura, Abaltzisketa, Eskoriatza, Azkoitia, Aretxabaleta, Urretxu, Beasain, Ordizia, Andoain, Oñati, Aramaio eta Soraluze.

Ikus daitekeenez, dexente dira Espainiako gobernuak bere indar polizialen bidez egindako errepresioa salatzen dutenak. Ez dute gainera errepresioa bakarrik aipatzen, baita probokazioa ere. Hala ere, badugu Euskal Herrian jasan den errepresioa salatu nahi izan duten beste asko, eta hauen artean ez dira ezker abertzalekoak soilik agertzen, baita ere, ezker abertzaleen ideologia politikotik urruti aurkitzen diren zenbait talde, alderdi politiko, eliz-arduradun, gobernadore, sendagile, etab... Esan behar da, bortxa instituzionalak Euskal Herrian eragindako errepresioaren aurkako zenbait salaketa, gertakizun jakin batzuei buruz egindakoak izan diren arren beste zenbait ordea, Euskal Herrian bizi den errepresio giro orokorrari buruz eginak izan direla.

- Donostiako Setien Gotzaia (Bordagaray-k aipatua 1978). Poliziaren bortxak bidegabeak dira, ordena gordetzeko aitzakiaz hiltzera errazegi jotzen denean.
- ETA(m) talde armatua (Bordagaray-k aipatua 1978). F.O.P. delakoek herriaren gorrotoa irabazi dute egin dituzten tortura, errepresio eta hilketengatik.
- Eusko Kontseilu Nagusiko Barne Kontseilaritza (Hiru taldea-k aipatua 1978). F.O.P. direlakoek ekintzak guztiz arduragabeak izan dira.

- P.S.O.E. alderdi politikoa (Hiru taldea-k aipatua 1978). Poliziaren ekintza, basati eta arduragabea izan da.
- Juan María Bandrés parlamentaria (Hiru taldea-k aipatua 1978). Nire begiekin ikusi ahal izan dut uniformedun poliziek egindako basakeria.
- Gipuzkoako Gobernadorea (Hiru taldea-k aipatua 1978). Polizia batzuk Errenteriako kaleetan zehar banatu eta txikizio handiak egin dituzte denda eta etxebizitzetan, manifestazio eta probokaziorik ez zenean.
- H.B. mugimendu politikoa (Landazurik aipatua 1978). Faxismoa defendatzeko irakatsiak diren indar errepresiboek ezin defendatu dituzte euskaldunen interesak.
- Luigi Bruni (1987). Demokraziaren etorrerak ez du errepresioaren amaiera datorrenik esan nahi errepresio moeta berri eta aurreragotuen etorrera baizik.
- Copenhagueneko Danes sendagileak (Bruni aipatua 1987, 304. or.).

*"... Eta Euskal Herriari buruz bakarrik arituko naizenez, argi utzi nahi dut, jarraitu aurretik, Euskal Herria nozitzen ari den errepresio era horiek ez direla ezertan bereizten Estatu Espainiarreko beste herriek jasaten dituztenekin, izan ere herri hauetan ere, behin une horretara ailegatuz gero behinik behin, erabiltzen dituzten metodoak berdinak baitira... Euskal Herria bereizten duena, beste herrietakoekin alderatuta, -soilik errepresioari buruz ari naiz- gertakizunok oso maiz izaten eta errepresio hori jasaten duen jendea mordo dela da. Bere lurraldearen luzezabalean ematen den maiztasuna eta kopurua hain zuzen ere, horrexegatik afera honek -geroz eta biktima kopuru haundiagoa duenez- "era zibilizatu"an egiten den sarraski izaera apartekoa du."*

Laburpen polita, sendagile danestarrak Copenhaguen eskainitako prentsaurrean adierazia. Euskal Herriak jasaten duen errepresioa ez da Espainiako beste herri batzuek nozitzen duten errepresio moetatik bereizten. Errepresio garaia iristen denean leku guztietan antzekoa izaten da. Euskal Herriarekiko berezitasuna, errepresio hau gertatzen den maiztasuna eta guzti hori sufritzen duen jende kopurua handian dago. Euskal Herriak bizitako errepresioa orohar eta neurritz kanpokoa izan dela esan nahi digute.



Eta laburtzeko beharbada, Montserratren bildutako Kataluniar adituek (Salaberriak aipatua 1971, 246. or.) Burgoseko prozesuari buruz, 2., 3. eta 4. puntuetan agertu zutena dakarkizuet eta, zenbait urte iraganik ere bere gaurkotasuna mantentzen duena askoren ustetan:

*" 2. Gaur egungo sistema politiko judicialak, estatu demokratikoetan bidezko eta giza eskubide gisa kontsideratutako politika- eta gizarte-ekintzak delito bilakatzen ditu.*

*3. Sarritan salatuak izan diren torturak, poliziak ohikotasunez erabilitako metodoak dira.*

*4. Espainiako Estatuak osatzen duten herri eta nazioen eskubideak ahaztuak eta erreprimituak dira Espainiako batasun nazionalaren izenean.*

Euskal Herriko errepresioa salatu duten beste kasu mordoak dago literaturan, baina zerrenda luzeegia osatzeko asmorik ez dudanez, hemen agertu dugunari nahikoa dela deritzot.

Ikusi izan dugu halaz ere, badela jende franko, Espainiako Gobernuak bere "indar errepresibo"ez baliatzean justizia baino desordena eta injustizia egiten ari izan dela pentsatzen duena.

Bestetik aipatu behar da, ezin baitugu esan euskaldun guztiak neurri berean zigortuak, torturatuak etab. direnik, Espainiako gobernuaren errepresioa Euskal Herrian orohar zabaldua izan arren, ETAkide, "laguntzaile"ak eta ezker abertzale deituak (ENAM) direla bortxa instituzionalaren errepresio neurri haundienena jasaten dutenak. Hauek gainera, Salaberriak (1971,83-84. or.) dioen modura, separatistak, komunistak, hiltzaileak, terroristak, eta antzera izendatuak izateaz gain, gertatutako kalte politiko guztien erruduntzat joak dira, talde erreibindikatiboetako partaideak edozein gaiztakeria egiteko kapazak direlako ustean. Etsai politiko eta hiltzaileen asmoak berdinak bailiran jokutzen da, atxilotuak etsaitzat hartu eta subertsiboak lirakekeen aurkako efikazia psikologikoa adierazi nahi izango da, makurtuak izan daitezten eta horrela "sistema"k duen indarra adierazi.

*"...lagunak, arduradun moralak, susmagarriak, denek ordaindu behar dute, denak dira egileak... Epaia gako politikoetan ulertu behar da... Borondate oldartsua dagoela frogatu nahi da nola edo hala...Ez dago froga beharrik. oldartsua edozertarako gai da, gertatu den guztiaren erantzule da, erruduna. "Etsaia" eta "kriminala" kontzeptuen arteko parekatze erabatekoa dago... Atxilotzea nahikoa da etsaitzat hartua izateko... Gauza hauekin guztiekin eragin psikologikoa bilatzen da: oldartsua txikitzea da helburu -nahi ez duena esatera behartzen da- indarra erakutsi nahi da, lagunaren artean beldurra sortarazi, sistemak gaina har dezakeela erakutsi."*

Bordagaray-k (1978) dioen bezala baita, zenbait poliziak gazte bat ikusi orduko komunistak, separatistak, abertzale arriskutsuak, etorkizuneko preso edota ezkutuan lehergailuren bat daraman zorotzat jotzen du.

Utz ditzagun hemen ordea Euskal Herrian gertatutakoaz hain garrantzitsuak diren balorazio hauek, eta ekiogun bortxa politiko honen zenbait datu estatistiko azaltzeari.

## 3.2. Euskal Herriko bortxa politikoaren ondorioz hilak

### 3.2.1. Euskal talde armatu ezberdinek hilak

ETA talde armatuak bultzaturiko borroka politiko-sozialaren datuak agertzerakoan hauetako garrantzitsuenekin hasiko gara, hilda gertatu direnen zerrendekin alegia. Kopuru hauek 1etik 7ra bitarteko tauletan azaltzen dira eta bertan ikus daitekeenez (III. Eranskinean), 1968. urtetik 1995. urtera arte 775 lagun hil ziren Euskal Elkargoa (1976), Equipo D (1984), Vasco Press agentzia (1985-1995) eta Egin urtekariak (1982-1995) emandako datuen arabera.

Urte hauetan ETA taldearen borroka dela medio hilda gertatu diren 775 lagun hauen egoera zibila edota zegokien gorputz armatuaren arabera, honako era honetan sailkatzen ziren (ikus 1go eta 2. taulak): 20 lagun (% 2,6) udaltzainak izan ziren, 94 lagun (% 12,1) militarrek, 5 lagun (% 0,6) ertzainak, 193 lagun (% 24,9) goardia zibilak, 140 lagun (% 18,1) polizia nazionalak, 307 lagun (% 39,6) zibilak eta beste 16 lagun (% 2,1) inon kokatu gabeak.

ETAren historia 1959. urtean hasi zen atzerriko botereek Euskal Herria okupatua zutela adierazi eta askapen nazionalaren alde azaldu eta gero. Helburu hau aurrera eramateko, Hirugarren Munduan zegoeneko aurrera zeramaten "ekintza gerrileroa"ren taktika erabiliko dute, Estatuaren errepresioa ekar zezan. 1968. urtera arte halaz ere, ez da hildakorik izango talde honen aldetik. Urte honetan hasi zen ETA taldearen historiaren zatirik gogorrena, hildakoak izaten hasten denekoa alegia. Talde honen hasierako historiari begira jarriko bagina, ez genioke talde armatu baten itxura haundirik hartuko, baina gerora gauzak aldatuz joan dira eta begi bistan ditugu ondorioak.

Herritarrek 1960. urtean ETA taldearen izaeraz ezagutzen zutena esatebaterako, zenbait herritako hormetan "GORA EUSKADI ASKATUTA" idatzita edo, Euskal Herriko ikurriña margotua azaltzen zenekoa eta beste ezer gutxi zen. Garai hartako ETA taldeak eginiko ekintza hauek oso erakargarriak izan zirenez laster izan zuten jarraitzaile ugari, eta aipatutako pintaketak egitearen ondorioz 17 atxilotu izan ziren.

Talde honek, 1961. urteko uztailearen hemezortzian egin nahi izan zuen bere lehendabiziko ekintzarik garrantzitsuena. Hau da, azken gerrate zibileko konbatiente ohiez osaturiko tren deskarrilatzea Donostia inguruan. Ekintza honek porrot egin zuen ordea, eta gertaera honen ondorioz beste 100 atxilotu inguru eta beste zenbait exiliatu izan ziren.

1963. urtean sortzen da ETA taldea, talde armatu bilakatzeko asmoa eta urte honetan izan zen lehen atrakoa (Derion) egiteko asmoa, nahiz eta guztia ezertan geratu ez.

1964. urtean Madariaga (Euskal Elkargoa, 1976) buruzagi izendatu eta hiru talde militar sortu ondoren hasi ziren lehen armak lortzen.

Ikus daitekeenez, garai hartako ETA taldeak eta gaur egunekoak ez du antza haundirik. Dena den, garrantzi haundiko zerbaiten sorrera nabari zela argi dago eta denboraren poderioz horrela bilakatu dela. Francisco Francoren diktadurarekin ezadostasuna agertzen hasia zen ETA taldea, noraino iritsiko zen, nolako ekintzak betetzera helduko zen, edota ondorioz sortuko zen mugimendu abertzaleak Euskal Herrian bertan zein Espainiako politikagintzan zenbaterainoko eragina izango zuen inor gutxik pentsa bazezakeen ere, talde armatu indartsu batekin aurkitzen gara gaur egun Euskal Herrian.

Lehenago esan bezala, 1968. urtean hasi zen ETA taldeak eragindako hildakoen zerrenda eta urte hau garrantzi haundikoa kontsidera badaiteke ere, 1973. urtera arte hildako bakan batzu besterik ez dira gertatuko. Hain zuzen ere, 1973. urtetik aurrera hasi zen hildakoen benetako zerrenda nahiz eta urte honetan hildakoak ere ezer gutxi izan geroago izango diren kopuruekin gonbaratuz gero.

Aipaturiko 1go taulan ikusi besterik ez dago ETA talde armatuak bere historia osoan hildako pertsona kopururik haundiena 1980. urteari dagokiola 97 hildakoekin, ETA taldearen historia osoan hilda gertatutako % 12,5a suposatuz. Hildakorik gehien izan diren beste bi urte baita, 1978 eta 1979. urteak izan ziren 67 eta 85 lagun erori baitziren urte hauetan. Hiru urte hauetan ETA taldeak hildakoen kopurua 249 pertsonatakoa da, ETA talde armatuaren historia osoan hildako guztien % 32,1a litzateke. Aipaturiko hiru urte hauek nabarmentzekoak dira, zeren eta hauen aurreko eta ondorengoetan izan diren hildakoen kopuruak asko gutxitu baitira.

3. taulan ikusten denez bestetik, hilda gertatu diren 452 lagun (% 58,3) uniforme edo armadun gorputzekoak dira (udaltzainak, militarrek, ertzainak, goardia zibilak, eta polizia nazionalak), 307 lagun (% 39,6) zibilak eta beste 16 lagun (% 2,1) inon kokatu gabeak. Datu hauen arabera, ETA talde armatuak gehien eraso izan dituenak uniforme edo armadun gorputzeko pertsonak dira (% 58,3) eta dexente gutxiago zibilak (% 39,6). ETA taldearen ustetan "indar errepresibo"en "konfidente" edota laguntzaileak liratekeenak (ETA taldearen hutsegiteak ezik) esatebaterako.

Hilda gertatu diren armadun gorputz ezberdinetako 452 lagun hauek bitan banatzen baditugu, Espainiako gobernuaren funtzionari liratekeen armadun gorpuzkideak alde batetik (militarrak, goardia zibilak eta polizia nazionalak) eta Euskal Herriko instituzioen

funtzionariak liratekeen armadun gorpuzkideak bestetik (udaltzaingoak eta ertzantza), lehen multzokoak 427 lagun (% 94,5) dira 4. taulan ikus daitekeen modura eta ezer gutxi bigarren taldekoak, hauek 25 pertsona besterik ez direlarik (% 5,5). ETA talde armatuak, Espainiako gobernuaren funtzionario diren gorputz armatukideak edota "gorputz errepresibo"ak deiturikoak eraso izan ditu ia soilik eta ezer gutxi euskal instituzioen funtzionario diren gorputz armatukideak.

ETA talde armatuak hildako pertsonak bizi zireneko lurraldeari dagozkion datuak bestetik 5, 6 eta 7. tauletan aurkituko ditugu. Ikus daitekeenez, euskal talde armatuak 284 lagun (% 36,6) hil ditu Gipuzkoan, 207 lagun (% 26,7) Bizkaian, 40 lagun (% 5,2) Araban, 36 lagun (% 4,6) Nafarroan, 110 lagun (% 14,2) Madrilan, 49 lagun (% 6,3) Bartzelonan eta beste 49 lagun (% 6,3) beste lurraldeetan. Euskadiri dagozkion datuen arabera bada, Gipuzkoa da hildako gehien izan den lurraldea, bigarren lekuan Bizkaia eta azkenik Araba eta Nafarroa, biak ere paretsu.

Esan ote daiteke datu hauen arabera, ETA talde armatuak laguntza gehiago jasotzen duela Gipuzkoa eta Bizkaian? Borroka armatuaren aldeko gehiago direla lurralde hauetan? Euskal Herriari dagozkion eskubideez jabetuagoak daudela?

Hilak izan diren pertsona hauen kopuruak bitan banatzerakoan, Euskal Herrian eta Euskal Herrikan kanpo hildakoak, 7. taulan azaltzen den modura 567 dira bertan hildakoak (% 73,2) eta 208 Euskal Herrikan kanpo (% 26,8).

Madril eta Bartzelonan izandako hildakoen kopuruak oso kontutan hartzekoak dira, bi hiri hauek ETA talde armatuaren ekite eremu barruan daudela garbi baitago. Bi hiri hauetan eginiko ekintzen bidez eta bereziki Madrilan egindakoaz lortzen du ETA taldeak onura franko bere ahalmena erakutsiz, propaganda lortu eta Espainiako gobernuari kalterik haundiena eginez.

Laburbilduz, euskal talde armatu ezberdinek Euskal Herrian burututako borroka politikoaren ondorioz hilda gertatu direnen datuak azaldu ondoren, gertaera sozio-politiko honen emaitzarik garrantzitsuena agerian geratu da. Badira ETA talde armatuari dagozkion beste datu eta ekintza ugari eta hauek zenbait aztertzen jarraituko dugun arren, ez dute berauek orain arte aipaturiko hildakoen zerrendekin parekatuz gero garrantzi handirik. Esan nahi dut, gure gizarteak bizia galtzeari ematen diola garrantzi berezia eta halatan, ETA talde armatuak eginiko beste zenbait ekintza (bahiketak, iraultza-zergak, leherketak, auto lapurrekak etab... ) tamaina haundikoak izanik ere, beren garrantzia erlatibo bihurtzen da.

### 3.2.2. Polizia eta goardia zibilen bidezko bortxa instituzionalak eraginiko hildakoen kopurua

Bortxa instituzionalari dagozkion ekintza jakin eta garrantzitsuenak aztertzerakoan, polizia eta goardia zibilen bortxaren ondorioz hilda gertatutakoen zerrendak aipatuz hasiko gara.

Bortxa instituzionalaren ondorioz 1968. urtetik 1990. urtera arte Estatu espainiarra eta Euskal Herriaren arteko gatazka politikoan hilda gertatu direnen kopuruak 8. taulan azaltzen dira eta bertan ikus daitekeenez, 155 lagun dira gutxienez, edo 227 lagun "parapolizial", "inkontrolatu" eta mertzenarioek hildakoak aurrekoei erantsiz gero, "Egin"eko urtekariak (1982-1995) eta Vasco Press agentziak (1985-1995) azaltzen dituzten datuen arabera. Hildakoak gutxienez 155 lagun direla diot, ez baita, 1971. eta 1983. urte bitarteko datu zehatzik azaltzen.

8. taula honetan, Espainiako polizia eta goardia zibilen ekintzetan hildakoen zerrendak urtez urte agertze honetan azpimarratu behar da, 1968. urtea izan zela poliziak lehen pertsona hil zueneko (ETA taldeak lehen pertsona hil zuen urte berean) eta 1972 urtera arte eta 1975 urtean ere, poliziak hildako pertsonak gehiago izan direla ETA taldeak hildakoak baino. 1975. urtetik 1979. urte bitartekoa da bestetik, polizia nahiz goardia zibilek hildakoen kopururik haundiena ematen dena. Urte hauetan hildakoen kopuruak ikus daitezke, aurreko eta ondorengo zenbait urteetan emandakoen bikoitzak, hirukoitzak edo gehiago ere direla.

Aipatzekoa da, kuriosoa denez, "inkontrolatu", talde parapolizial edo mertzenarioak ("ATE", "Batallón Vasco Español", "GAL", etab.) 1976. urtean hasi izatea ETAkide eta beren "laguntzaile"ak hiltzen, ekintza armatuaren bidez. Hau da, Espainiako "indar errepresibo"ak deituriko polizia nahiz goardia zibilek hildako kopuruaren gorakada izugarria hasten deneko hurrengo urtea. Badirudi 1975. urtean, ETAkideak hiltzeko "agindu" edota baimenak zabaldu zirela. Badirudi, 1975. urtean, polizia eta goardia zibilek bakarrik bete ezin zuten lana ez eteteko, lan hauek polizia eta goardia zibilek zuzenean egiteko arriskua nabarmena izanik, laguntza eskatu zitzaiela betebeharrak hauek diruaren truke egiteko prest zeudenei.

Talde parapolizial eta mertzenarioen ekintzak oraingoz alde batera utziz, eta bortxa instituzionalaren bidez hilda gertatu direnekin jarraituz, nolatan, galdetu behar hainbat hildako polizia eta goardia zibilen ekintzetan? Noren kontrolpean aurkitzen ziren zorigaitzoko ekintza hauetako partaide ziren polizia eta goardia zibilak? Noren aginduak eta zein agindu moeta ari ziren betetzen? Ezinbestekoa izan al da 155 hildako hauek eragitea? 155 lagun hauek hilak gertatu beharrean, atxilotuak izatea ezinezkoa ote zen? Edo hilda buka zezaten nahi zen? Jakina baita, polizia edo goardia zibil batek ezin duela nahi duenean edota bere kabuz eraso, ezin duela tiroa nahi duenean egin, ezingo duela nahi duenean hil, agintzen edota baimena ematen zaionean baizik. Celhay-k (1976) esaten duen bezala, gorputz militar kideak beren nagusien esanak itsu-itsu obeditzera irakatsiak dira eta jakina denez, beren eginkizuna agintarien esanak betetzea da.

Zer gertatu da hildako 155 lagunekin orduan? Ez ote zaio Espainiako gobernu "demokratiko"ari oso egokia suertatu zenbaitetan, ETAkide edo talde erreibindikatiboetako zenbait militante hilda bukatu izatea une haietan bizi zen egoera politikoa baretua izan zedin edo zenbait "indar faktiko"ren haserreak zapuztuak izan zitezten?

Ez ote dira gehiegi polizia eta goardia zibilen ekintzetan hilda gertatu diren 155 lagun hauek?

Ikerrek (Aguirrek aipatua 1978, 29. Or.), dioenez, Espainiako Gobernuak behin baino gehiagotan nahi izan du zenbait ETAkide hilak izan zitezten:

*"...edozein sistematako buruzagi bat hiltzen denean egia da beste batek betetzen duela haren lekua baina mina egina dago... Guri Eustakio hil zutenean egin ziguten. Jakingo duzu gainera Eustakioren hilketak politika zapaltzaile zehatz baten amaiera adierazi zuela: Erregimenak ez du beste "Burgos"ik nahi, nahiago du ETAkideak banan bana hil bizirik harrapatu eta epaiketa egitea baino. Mikelon, Ibarra eta Txikia zaurituta zeudela hil zituztela badakigu... errazagoa da hori beraientzat..."*

Delako Ikerrek, ez du zalantzarik bortxa instituzionalaren bidez hilda gertatu diren 155 lagun hauetako zenbaiti buruz. Espainiako gobernuari ez zaio komeni Burgoseko prozesu edo antzeko epaiketa politikoak berritzea eta aukeran, nahiago izan du ETAkideak edo talde erreibindikatiboetakoak diren zenbait atxilotu beharrean hil.

Ez da Iker bakarrik izango gainera horrela pentsatzen duena, beste askok ere gauza berdina esan dute Almeriako kasuaz adibidez, Irunberriko Arroilakoaz, Zabalzari gertatuaz, Lasa eta Zabalari, komisaldegian hildako Gurutze Yanci, Joseba Arregi, Juan Calvo, Lutxi Urigoitia edota Donostiako Morlans auzoan gertatutakoaz, etab...

Polizia eta goardia zibilaren bidez egiten den bortxa instituzionala oso susmagarria izan dela euskaldun askorentzat esango digu Zabalzak (1990), eta bortxa honen zuzeneko bultzatzailea Espainiako gobernu bera ote den susmo haundiak daude herritar gehiengoaren artean.

Gutziz susmagarria dela esan behar dugu, poliziek eta goardia zibilek norbait hil edo torturatzen dutenean ikerketarik ez egitea gertatutakoak argitzeko. Alderantziz, gauzak izkutatu egin dira polizia eta Gobernuaren kaltetan gerta zitezkeen neurrian; epaileei oztopoak jarri eta are gehiago oraindik, bortxa instituzionalaren zuzeneko partaideek ez dute bere agintariengandik zigorrik jaso, aldiz, askotan justifikatuak izan dira beraien ekintzak, gezurtzat jota besteetan eta sarituak edota garaikurrak zintzilikatu zaizkie halako "zerbitzu"ak betetzeagatik.

Gogorra da baina esan beharra, euskal talde armatuak 775 hildako dituela bere zerrendetan, hori ordea motz geratzen da bortxa instituzionalak polizia eta goardia zibilen bidez hildako 155 lagun hauekin

gonbaratuz gero. Hori, ez dut batak eta besteak hildako kopuruarengatik esaten noski, euskal talde armatuek hildakoak askoz ere gehiago baitira, hala ere, bai egin daitekeela baieztapen hori, bortxa horren egileak kontutan hartzen badira.

Ez naiz hasiko hemen euskal talde armatuek eraginiko hildako kopuruari garrantzia kentzen baina, inolaz onar ez daitekeena da herriaren ordena, seguritatea eta justiziaren laguntzarako izendatuak izan diren indar armatu hauek, sarritan mertzenarioen gisa arituz eta besteren artean, droga lortzeko motiboz (Rei 1993), herritarren artean desordena eta beldurra sortzen ihardun eta diru sarietaz aparte garaikurrak jasotzea halako "zerbitzu" mespretxugarri eta antidemokratikoak egitearen truke. Askoz ere larriagoa dela deritzot "demokratiko" a izendatzen den Gobernuaren bortxa menperatzailea Weber-i jarraikiz (1969), ETA talde armatua eta "laguntzaile"ak deiturikoena baino.

### 3.2.3. Talde inkontrolatu parapolizial nahiz mertzenarioek hildakoak

Euskadin talde inkontrolatu parapolizial nahiz mertzenarioen (ATE, Batallón Vasco Español, GAL...) ekintzen bidez 1976. urtetik 1987. urtera arte izan diren hilen kopurua 8. taulan ageri da, eta bertan ikus daitekeenez 72 lagun dira ekintza armatu hauen ondorioz hildakoak "Vasco Press" agentzia (1985-1995) eta "Egin" urtekarien (1982-1995) iturrien arabera.

Ustez, bortxa instituzionaletako partaide zuzenak izan diren talde inkontrolatu parapolizial zein mertzenario hauek arestian esana gogoratuz, 1976. urtean hasi ziren ETAkideak zein ezker abertzalekoak hiltzen. Hots, Espainiako polizia eta goardia zibilek hildako kopuruaren gorakada izugarria hasten deneko hurrengo urtea, hain zuzen ere.

Halabeharrez ote da, "indar errepresibo"ak alde batetik eta talde inkontrolatu parapolizial zein mertzenarioak bestetik, aldi berean hasi izana ETAkide nahiz ezker abertzalekoak hiltzen? Kasualitatea besterik ez ote da, edo agian, polizia eta goardia zibilek bakarrik bete ezin zuten lana ez eteteko egon ez zedin, laguntza aurkitu beharra?

Bada ordea, talde inkontrolatu parapolizial zein mertzenarioen inguruan dagoen beste gertaera bitxia, esatebaterako, 1980 urtean polizia eta goardia zibilek hil zituzten pertsonen kopurua gutxitzen hasten da eta aldiz, talde inkontrolatu parapolizial nahiz mertzenarioek hildakoen kopuruak gehitzen. Gauza berdinetaz ohartaraziko digu Castells-ek (1982, 79. or.):

*"Era honetan Euskadin FOPEk burututako hilketak gutxitu ahala "inkontrolatu"ek eginikoak ugartu egin ziren. Azken batean, ekintza polizialen ordean parapolizialak doaz gehituz urtez urte, heriotza*

*horiek sortzen dituzten egiteko edo ondorio errepresiboei begiratzuz gero. Inkontrolatuek eragindako biktimak gehituz doaz FOpek eragindako biktimen aldean, era horretan orekatuz eta gaindituz, badirudi taktika aldaketa bat dagoela, apropos egindako plangintza bat. ...Ez litzateke neurritz gainekoa pentsatzea FOPen indargetzea orekatzeko inkontrolatuen erabilera gehituz joango dela."*

"FOP"ekoen hildakoen kopurua gutxiagotu ahala, dio Castells-ek, "inkontrolatu"ek hildakoena gehiagotuz doala, eta badirudi, jarraitzen du, poliziaren ekintzak "parapolizial"en eskutan utzi ahala, hildakoen kopurua gehiagotzea dakarrela eta poliziak hildakoena gutxiagotzea. Gertaera hauek guztiek, Espainiako gobernuak orain arte ETA talde armatukideen hilketetan erabilitako taktikaren aldaketa batean pentsarazten dute, alegia: ETAkideen hilketak burutzeko talde inkontrolatu parapolizial nahiz mertzenarioakerabiltzea erabaki zela eta "FOP"ekoen zeregin hauetatik baztertu.

Eskuin ideologiako kide hauek "parapolizial"ak deituak dira, talde hauetako zenbait partaide Espainiako polizia eta goardia zibilez osaturik zeudelako, polizia zein goardia zibilen komisaldegi nahiz koarteliloen inguru giroan sortuak, eta "parapolizial" delakoen bidez, ohiko poliziek bezala, sekulako errepresio, mehatxu eta mendekuak egin ahal izango direlako.

Euskal Herrian kalte material eta pertsonalak eragiten ihardun duten eskuin muturreko ideologiako talde "inkontrolatu" hauek gainera, ofizialki ezezagun gisa azalduak izan arren Espainiako gobernuak berak eta polizia nahiz goardia zibilen agintariak ondo kontrolatzen dituzten ustea dago, eta hauen agindu zehatzak betetzen ari zirelako susmoak, sari ekonomiko ugari jasoz ariko zirelarik. Eta azkenik "mertzenario"ak deituak izango dira, Euskal Herrian (eta Euskal Herritik kanpo) eragindako kalte material eta pertsonalak diru ordainaren truke egiten iharduten zuten polizia edota beste profesionalez osaturiko taldeak izaterakoan.

Aipaturiko taldeak, babes ofiziala jaso eta isilean gordeak direlako usteaz aparte, jo dezagun zer dioen literaturak talde "inkontrolatu parapolizial" nahiz mertzenario hauetaz:

- Letamendia (Bordagaray-k aipatua 1978). 1977. urteko abuztuaren 9an publikoki eta Bizkaiko gobernadore berriaren aurrean salatu zuen talde "inkontrolatu"etan dabilzan pertsonen artean poliziak daudela, eta horiek beren nagusien babesa dutela. Salaketa hau oso larria izan arren ez zen gezurtatua izan.
- Eusko Kontseilu Nagusia (Bordagaray-k aipatua 1978). Eskuin muturreko "inkontrolatu"entzat paradisua izan da Euskadi. Herriak berak frankotan harrapatu eta entregatuak izan arren, inoiz ez



dira atxilotuak edo epaituak izan "inkontrolatu" guztiz susmagarriak, ia beti goardia zibil eta paisanozko poliziak izaten dira.

- "El País" (Castells-ek aipatua 1982). 1977. urteko azaroaren 9an eta "Deia" 1977. urteko urriaren 3an eta azaroaren 15ean. Gernika. Paisanoz jantzitako hamar pertsonak, suzko armak erakutsiz oinezkoak jo eta beldurtzen dituzte. Beraien artetik lau, goardia zibil antzeman ziren.
- Eusko Kontseilu Nagusia delakoaren Batzorde Aztertzaileak (Castells-ek aipatua 1982) "inkontrolatu"ek martxoaren 10 eta 11n Donostian egindakoari buruz prentsan argitara emandako txostenean: ekintza hauen egileak burdinezko barra, porra, katea eta pistolak erabiliz autoak, denda, taberna eta pertsonak kolpatu zituzten eta egile hauetako zenbaitek "Fuerzas del Orden Público" delakoekin erlazioa dute edo gutxienez hauen ezagunak dira, zenbaitetan lagunduak edo beren autoetan jasoak izaten zirelako.
- Donostiako "Hoja del Lunes" eta "Unidad" 1979. urteko apirilaren 9an eta "Punto y hora" (Castells-ek aipatua 1982). 1979. urteko apirilaren 20tik 27ra. "inkontrolatu"en ekintzak Donostiako "Egia" auzoan bi pertsona balaz zauritu ditu. Inkontrolatu batek bere kartera galdu zuen, karterak zuen dokumentazio pertsonala Goardiako Auzitegira eraman zuten auzokoek. Dokumentazioaren jabea José Pajarón Rodríguez Polizia Armadakoa da.
- Giscard d'Estaing (Castells-ek aipatua 1982). Frantziar errepublikako presidentea. Onartezina da Espainiako polizia Frantziako lurraldeetara etortzea beren kontuak konpontzera.
- Bilboko "Hoja del Lunes" (Castells-ek aipatua 1982). 1980. urteko irailaren 8an. Txiki Benegas eskuin muturreko taldeen bortxa izugarriari buruz mintzatzen da. Zortzi biktima hilabete t'erdian eta dirudienez, inongo atxiloteta nahiz benetako ikerketarik ez du eragin.
- "Deia" (Castells-ek aipatua 1982). 1980. urteko irailaren 16an. Bost urtetan, 1975. urteko apirilaren 6tik gaur arte: 500 atentatu egin dira eskuindarren aldetik Euskadin, 38 hildako eta 128 zauritu eragin dituztelarik. Ipar Euskadin 15 lagun izan dira atxilotuak, Hego Euskadin ordea, garrantzi gutxiko lau besterik ez.
- "EL País" (Castells-ek aipatua 1982). 1980. urteko azaroaren 25ean). Espainiako poliziak ihes egiten utzi die Hendaian izan den atentatu terrorista baten ustezko egileei.

- "Egin" (Castells-ek aipatua 1982). 1980. urteko abenduaren 6an. Estatua inplikatur dago ekintza terroristetan.
- 10 urtetako errepresioa (Amnistiaren Aldeko Batzordea, 1987). Hendayais tabernan egindako ekintzari buruz ari direnean honela diote: ez da ezagutzera eman inoiz, atentatu honen egileak atxilotzeko bilaketa eta harrapaketa moduko agindurik egon denik, ezta egileen deskribapen fisikorik ere. Prentsan ez da azaltzen susmagarri izan zitezkeen pertsonen zerrendarik, ezta robot erretratu antzekorik ere zabaltzen. Ez da jakin izan saririk eskaini den, eta kontrol edo etxebizitzako erregistrorik egin den, ezta herriari laguntza eskaerarik egin zaionik ere. Ideologia-loturarik ez da egiten, ezta komunikabideei akusazio-agiririk bidali ere.
- Poliziaren Goi-Buruzagitzia (Amnistiaren Aldeko Batzordea 1987). Donostiako Polizia Buruzagitzak egindako txostenak eta Barne Ministrariari bidalia izan zenak honela zioen: "inkontrolatu" taldeen ekintzei buruz egindako ikerketa dela medio, FOPEko pertsona batzuk talde hauetan izan duten partaidetza agerian geratu da garbi asko.

- Pierre Celhay (1976, 16. or.):

*"Bi hilabeteotan zehar, eguneko atentu bat baino gehiago izan da talde parapolizialen aldetik, eta hori salbuespen egoeran bete betean gaudenean, kontrolak nonnahi eta gainezka bazter guztiak, poliziaz josita daude ohiz kanpoko zaintza neurrigabekoa eta horietako bat bera ere ez da hilik gertatu. Nahi bezala dabilta beren kontra dagoen herrian barrena, horiek oso gogoko ez dituzten herritarren artean, eta nolatan hori? Denak igoalak dira, ezpairik gabe, berdina dira eszeptzio egoera ezarri dutenak eta pilaka eta batere begiratu gabe indiskriminatuki jendea atxilotzen dutenak egoera hori erabiliz, eta atentu horiek zigorgabetasun osoz egiten dituztenak ere."*

- Etxeberri (1989):

- 1- Gal talde armatuaren lehen helburua ETA talde armatuko buruak hiltzea litzateke eta bigarren helburua, Pariseko Frantses gobernuak ETA talde armatuari eragozpenak jar diezazkion.
- 2- Gal talde armatua, ETA talde armatuaren aurka aritu izan diren mentzenario taldeen ("ATE", "Batallón Vasco Español", GAL...) beste bertsioa besterik ez da.

- 3- Felipe González-ek, Espainiako gobernuko lehendakari izendatu zuteneko hauteskundeetan eta Donostiako "Anoetako Izpiritua"n aipatu zuen gerra zikinaren erabilera, ETA talde armatua erasotzeko helburuz. Abertzaleen aldetik ordea, ez zen begi onez jo PSOEren Gobernuak adierazten zuen hortzagatik hortza begiagatik begia.
- 4- Espainiako gobernu zuzenki inplikaturik azaltzen deneko GAL talde armatuaren lehen urratsak, talde honen bi ekintzetan aurkitzen dira:
  - a- Ballesteros komisaria "Hendayais" tabernako ekintzan inplikaturik azaldu zenean.
  - b- Jose Maria Goñi Larretxea ETA(pm) bahitzen saiatu zirenean Espainiako lau polizia.
- 5- GAL talde armatuak erabilitako armamendurik gehiena Espainiako militarren fabriketan egina da eta garaian garaikoa gainera.
- 6- GAL talde armatuko kideak errefuxiatuei buruz dituzten datuak (zerrendak, polizien fitxak, etxebizitzak, autoak, lekuak) erakunde ofizial edo informazio zerbitzuetatik bakarrik lor zitezkeen.
- 7- GAL talde armatuaren bortxak, berez ikertu beharra zeukan polizia judizialak adierazi zuen mesfidantza eta interesik eza dela eta, kazetariek bete behar izan dute zeregin hau.
- 8- Garzón epailea GAL talde armatuaren ekintzak aztertzen hasi zenean, Espainiako gobernuaren presio eta eragozpenak jasan zituen.
- 9- Garzón epaileak, Barne Ministraria zen José Barrionuevori GAL talde armatuari buruzko argibide edo frogak eskatu zizkionean, Barne ministrariak bidalitako txostenaz, "auzitegi hau egiten ari den ikerketak oztopatzen duenaren eredu argia..." dela esan zuen Garzón epaileak.
- 10- Barne Ministrariak justiziaren lana mespretxuz, honako ohar hau bidali zien Polizia Zuzendari Nagusiaren bidez, GAL talde armatuari buruz, Garzón epaile jaunak aitortzera deituriko polizia eta funtzionarioei: "...Gobernuaren izenean ez ezazue diru bereiziei buruz inolako argibiderik eman, sekretupekoak baitira."
- 11- GAL taldeak diru bereizietatik jaso zuen diru laguntzari buruzko informazioa lortu nahi izateagatik, hitz gogorrak entzun behar izan zituen "botere judizialak", Felipe González Espainiako gobernuko lehendakariarengandik.
- 12- Zenbait alderdi politikok GAL talde armatua zuritu dute eta bere ezlegezotasunaz ahaztu, ETA talde armatuaren aurka zeraman borroka dela medio.
- 13- José Luis Corcuera Barne ministraria ere, GAL talde armatuaren ekintzak zuritza iritsi zen Tebistan, GAL taldeak 25 hildako besterik ez dituela adieraziz eta ETA talde armatuak 500 hildako zituela esanez demokrazia iritsi zenez geroztik.
- 14- Felipe González Espainiako gobernuko Lehendakariak, Amedo eta Domínguez polizientzat "ustezko errugabetasuna" eskatu zuen eta zenbait kazetarik GAL talde armatuari buruz egiten ari ziren azterketak kritikatu zituen.

- 15- Garzón epaileak, Amedo eta Domínguez polizien nagusiak "X" batez izendatzerakoan Estatua eta Gobernua bera adierazi nahi izan du ikur honekin.

Talde inkontrolatu parapolizial zein mertzenarioei buruz azaldu zaiguna laburbilduz, esan behar da zalantza gutxi sortzen duela, besteak beste, politiko, idazle, kazetari, udal, eta pentsalarien artean, talde "inkontrolatu" hauek Espainiako gobernua nahiz polizia eta goardia zibilekin elkarlotzeko. Talde "inkontrolatu"ak jende xehea jo eta beldurtzen aritu direla esaten da; Talde "inkontrolatu"etako partaideak burdinezko barra, porra eta pistolak erabiliz kalte material eta pertsonalak eragiten ihardunak dira; Talde "inkontrolatu"etan polizia eta goardia zibilak atzemanak izan dira; Talde "inkontrolatu"etako partaideak paisanoz jantzitako polizia eta goardia zibilak dira; Talde "inkontrolatu"etako partaideak diren polizia eta goardia zibilak beren agintarien baimena eta babesa dute; "Inkontrolatu" taldeetako partaideak direnak inoiz ez dira atxilotuak izaten; polizia eta goardia zibilak laguntza eta babesa eskaini diete talde "inkontrolatu"ei eta ihes egiten utzi; "Inkontrolatu"ek lotura dute gorputz instituzionalen batekin; "Estatua inplikaturik dago ekintza terroristetan; Gal taldea eta bere aurrekoak, ETA talde armatua erasotzeko sortuak izan dira; GAL taldea Espainiako gobernuaren babesean sortua izan da; GAL talde armatuak laguntza pertsonala eta materiala jaso du Informazio Zerbitzuetatik; Espainiako gobernuak zailtasunak ipini ditu GAL taldea ikertua izan zedin; Espainiako gobernuak laguntza ukatu die epaileei GAL taldea ikertzeko; Espainiako gobernuak GAL taldearen bortxa zuritu izan du, ETA talde armatua erasotzen zuen heinean; GAL talde armatuaren arduradunak Estatua eta Espainiako gobernua dira; GAL siglen atzean ezkutatzen den taldea Madrileko gobernuak maneiatzen du.

Zalantza gutxi eskaintzen dute eta argi asko mintzatzen dira, esan dugun bezala, "inkontrolatu" eta polizia zein Espainiako gobernuaren artean harreman estuak daudela azaltzerakoan.

Ikusten denez, ugari dira talde inkontrolatu parapolizial zein mertzenarioak gobernu "demokratiko"aren aginduak betetzen besterik ez direla ari pentsatzen dutenak eta hori guztia egiaztatzen duten frogak argiagoak dira egunez egun.

### **3.3. Euskal Herriko bortxa politikoaren ondorioz izandako zaurituak**

#### **3.3.1 Polizia eta goardia zibilen bidezko bortxa instituzionalak eragindako zauritu kopurua**

Polizia eta goardia zibilen bidez eragindako bortxa instituzionalean 1970. urtetik 1981. urtera arte zaurituak gertatu direnen kopuruak 9. taulan azaltzen zaizkigu Egin urtekariak (1982-1986) eta Castells-ek (1982) ematen diguten datuen arabera.

Esan behar, 9 urte hauetan gutxienez 1.722 lagun izan direla polizia eta goardia zibilen bidezko bortxa instituzionalak manifestaldi, asanblada, etab... erreibindikatioetan zaurituak edota 1.910 lagun "parapolizial", "inkontrolatu" eta mertzenarioek zauritutakoak kontutan hartuz gero. Zaurituak izan direnak gutxienez 1.722 lagun izan zirela diot, taula honetan ere zenbait urtetako hutsuneak ere badaudenez eta posible ez delako bortxa instituzionalak zauritu guztien datuak zehatz-mehatz ezagutzea horietako gutxi batzu besterik ez baitira eritetxeetara eramanak izaten.

9. taulan agertzen diren zaurituen kopuruak osagabeak direla jakin arren hemen agertu nahi izan dira, bortxa instituzionalak egindako zenbait kalte, lekuko gisa gera daitezen.

#### **3.3.2. Talde "inkontrolatu" parapolizial nahiz mertzenarioek zauritutakoak**

Euskal Herrian 1977. urtetik 1986. urtera bitartean talde "inkontrolatu" parapolizial nahiz mertzenarioen ekintzen bidez zaurituak izan direnen kopuruak 9. taulan azaltzen dira eta datuok ere Egin (1982-1986) urtekariak eta Castells-ek (1982) jasotakoaren arabera azalduko dira.

Hemen ere, ez dugu talde "inkontrolatu" parapolizial zein mertzenarioek zauritu dituztenen zerrenda zehatzik ematerik izango, urte askotako datuak falta direlako, eta zaurituak izaten diren guztien egoera jakitea ezinezkoa izaten delako.

9. taulan azaltzen diren datuetan oinarriturik aipatu behar da, talde "inkontrolatu" parapolizial zein mertzenarioek eraginiko zauritu kopururik haundiena 1977. urtetik 1980. urtera bitarte izan zela.

### **3.4. ETA taldeari nahiz "laguntzaile"ei dagozkien beste zenbait ekintza edota gertaera**

#### **3.4.1. ETA talde armatuaren ekintzak, egindako erasoen arabera**

ETA talde armatuak Vasco Press agentziaren (1990-1995) arabera 1.790 ekintza burutu ditu 1981. urtetik 1995. urtera bitartean 10. taulan ikus daitekeen modura. 1990. urtetik 1994. urtera bestetik, eta erasotakoari dagozkion datuak 10, 11, 12, 13 eta 14. tauletan azaltzen dira eta ikus daitekeenez 476 ekintza izan dira bost urte hauetan burutuak, 138 hildako gertatuz.

ETA talde armatuak 1990. urtetik 1995. urtera eginiko 476 ekintza hauetatik 49 militarrei (% 10,3) zuzenduak izan ziren 10 eta 11. tauletan azaltzen den eran, 53 goardia zibilei (% 11,1), 63 polizia nazionalari (% 13,2), 54 zibilei (% 11,3), 177 enpresei (% 37,2), 39 auto lapurketak (% 8,2) eta beste 41 ekintza.

1990. urtetik 1995. urtera ETA talde armatuak eginiko ekintza hauetatik guztietatik eta 12. taulari jarraikiz, 216 (% 45,3) gauzen aurka egindako erasoak dira (enpresa, banketxe eta auto lapurretak), 165 ekintza (% 34,7) uniforme edo armadunei zuzenduak, eta azkenik beste 54 zibilen aurka (% 11,3).

Hamabigarren taula honen ondorio gisa, esan daiteke ETA talde armatuak aipaturiko bost urte hauetan gauzak eraso dituela gehien, % 45,3 suposatu dutelarik. Bigarren, Espainiako gobernuaren uniforme edo armadunkideak % 34,7 izanik hauek, eta azkenik zibilak % 11,3.

ETA talde armatuak 1990. urtetik 1995. urtera eginiko 476 ekintza hauek gertaturiko lurraldeei dagozkien datuak, 13. taulan agertzen dira eta era honetan banatuta: Gipuzkoan 135 ekintza (% 28,3), Bizkaian 103 ekintza (% 21,6), Araban 18 ekintza (% 3,7), Nafarroan 37 ekintza (% 7,7), eta beste 183 ekintza (% 38,4).

ETA talde armatuak 1988. urtetik 1995. urtera egindako 705 (hemen azken 8 urtetako datuak ematen dira) ekintza hauek burutzeko erabili zituen arma moeta ezberdinei buruz, 14. taulan ikus daiteke. Ekintza

hauetako 64 auto leherketaz egin ziren (% 9), 451 lehergailuz (% 63,9), 84 suzko armaz (% 11,9), 22 granada bidez (% 3,1), 17 auto lapurretak (% 2,4) eta beste 67. Zenbaki hauetan ikusten dugunez, azken zortzi urteetan ETA talde armatuak gehien erabili zuen arma lehergailua izan da (% 63,9).

### 3.4.2. "Laguntzaile"en ekintzak lurraldeka

Badira ETA talde armatuak eginiko ekintzetatik aparte "laguntzaile"ek deiturikoez eginiko beste zenbait ekintza ugari eta hain zuzen ere 15, 16 eta 17. tauletan laburbildurik agertzen zaizkigunak. 1990. urtetik 1995. urtera bitartean 2.790 ekintza izan dira Vasco Pressekoek (1990-1995) ETAREN "laguntzaile"en ekintzak izenburuarekin aipatzen dituenak, eta gertatu diren lurraldeen arabera era honetan banatzen dira 15. taulan ikusi daitekeenez: 1.238 ekintza Gipuzkoan (% 44,3), 898 Bizkaian (% 32,1), 254 Araban (% 9,1), 382 Nafarroan (% 13,6) eta beste 18 inon kokatu gabeak.

"Laguntzaile"ek 1991. urtetik 1995. urtera eginiko 2.496 ekintza honela banatu ziren erasoetan izandako helburuen arabera: 857, bankuei (% 34,3) zuzenduak izan ziren 16. taulan azaltzen den eran, 57 aseguretxeei (% 2,2), 329 garraioei (13,1), 112 frantses intereseei (% 4,4), 181 egoitzei (% 7,2), 269 poliziaari (% 10,7), 300 telefonikari (% 12), 151 enpresei (% 6) eta 240 beste batzuei. "Laguntzaile"ek 1991. urtetik 1995 urtera egindako 2.496 ekintza hauek burutzeko modua 17. taulan ikus daiteke. Ekintza hauetako 242 leherketa bidez egin ziren (% 9,6), 1.103 sua eraginez (% 44,1), 968 txikizioak sortuz (% 38,7) eta beste 183.

Kopuru hauek ikustean, kontura gaitzke asko direla ETA talde armatuak eginak izan ez diren ekintzak. Guztira 4.126 ekintza izan badira 1987. urtetik 1995. urtera hauetako 825 edo % 19,9 besterik ez dira ETA taldeak eginak, garrantzitsuenak talde armatuarenak badira ere. Gainontzeko 3.301 edo gehiengoa (% 80) borroka politikoan dabiltzan beste euskal talde edo "laguntzaile"ek deiturikoez egindakoak izan dira.

### 3.4.3. ETA talde eta "laguntzaile"en ekintzak 1987tik 1995era arte

ETA talde armatu eta "laguntzaile"ak eginiko ekintzen baturak 18 eta 19. tauletan azaltzen dira. Aipaturiko bi taula hauetako datuak, 1987. urtetik 1995. urtera arte, biak barne, ETA talde armatuak nahiz "laguntzaile"ek deiturikoen artean egindako ekintza politikoen kopuruak edo Euskal Herriko borroka politikoan partaide diren talde guztien ekintzen baturak lirateke.

Bederatzi urte hauetan, euskal talde armatu nahiz "laguntzaile"ak eginiko guztien batura 4.126 ekintzatakoa litzateke Vasco Pressekoen (1987-1995) arabera eta era honetan banatuko lirateke: Gipuzkoan 1.680 ekintza (% 40,7), Bizkaian 1.318 (% 31,9), Araban 344 (% 8,3), Nafarroan 511 (% 12,3) eta 273 (% 6,6), besteetan.

Hemen ere, ETA talde armatuak hildakoen datuak aztertzeke garaian esan zen bezala, ekintzarik gehien gertatzen diren lurraldeek Gipuzkoa eta Bizkaia izaten jarraitzen dutela, bi lurralde hauetan eginiko ekintza kopurua 2.998koa edo ekintza guztien % 72,6 da.

Bederatzi urte hauetako ekintza kopuruaren arabera, Euskal Herriko borrokaren ondorio moduan, ekintza berri bat gehienez ere 19,1 orduko gertatzea espero daiteke.

#### **3.4.4. ETA talde armatuari kendutako zenbait arma eta lehergailu**

Azken urte hauetan polizia ezberdinek ETArri kendutako arma eta lehergailu kopuruak 20 eta 21. tauletan azaltzen dira. Armei dagozkien kopuruak hauek lirateke: pistolak 394, metrailetak 152, fusilak 62, errebolberrak 14, granada jaurtikigailuak 31, eskopetak 16, granadak 307 eta errifleak 5. Guztira, 981 arma dira polizia ezberdinek ETA talde armatuari 1985. urtetik 1995. urtera arte, biak barne, harrapatutako arma kopurua.

Lehergaiari dagozkien datuak berriz 21. taulan azaltzen dira eta era honetan banatzen: 5.553 kilo lehergai 1985. urtetik 1995. urtera arte eztanda egindakoak eta 6.574 kilo lehergai eztanda egin aurretik poliziak gabatuak edo zulo ezberdinetan aurkituak. ETA talde armatuari azken hamaika urte hauetan kendutako arma eta lehergai kopuru hau handia da dudarik gabe, baina ETA talde armatuari oraindik gelditzen zaizkionak edo ETA talde armatuak bere lehergaiak sortzeko edota armak erosteko duen ahalmenarekin gonbaratuz, adituen ustetan, gutxi batzuk omen dira hemen aipaturiko 12.127 kilo lehergai hauek.

ETA taldearen eskuetan arma asko dagoela esan behar bada, eta halako talde baten indarra bere baitan dituen arma kopuruan neur badaiteke, ez da txantxa. Burgo Azpirozek esaten duenez (1991), polizia kexu izan da ETA taldea baino okerrago hornitua dagoelako.



### 3.4.5. Deuseztatuak izan diren ETako zenbait komando

Polizia Nazionalea, goardia zibilek eta ertzantzak 1985. urtetik 1995. urtera bitartean deuseztaturiko ETA talde armatuko komando kopurua 123koa izan zen, 22. taulan ikus daitekeenez. Komando kopuru handia hamar urte hauetan harrapatuak izan direnak. Zer pentsa daiteke ordea halako kopuruak direla eta? Polizia eta goardia zibilak oso eraginkorrak direla agian? ETA talde armatuak azken hamar urte hauetan 123 komando prestatzeko ahalmena azaldu badu ez gaudela txantxetako talde baten aurrean? Zenbait politikaririk nahiz egunkaririk dioten baino babesa handiagoa duela ETA talde armatuak Euskal Herrian?

## 3.5. Bortxa instituzionalari buruzko beste zenbait gertaera

### 3.5.1. Bortxa instituzionalak, manifestazio eta asanblada erreibindikatiboen aurka eginiko erasoaldiak

Espainiako poliziak eta goardia zibilek 1977. urtetik 1994. urtera arte erasotako manifestazio eta asanblada erreibindikatiboen kopuruak 23. taulan agertzen dira eta ikus daitekeenez, 2.022 manifestazio eta asanblada erreibindikatibo erasotu dira (zenbait urteetan hutsuneak daude) Egin urtekariak (1982-1994) eta Castells-ek (1982) emandako datuen arabera.

Castells-ek, bortxa instituzionalak 1977ko ekainetik 1981. urteko ekainera bitartean (4 urte) manifestazio eta asanblada erreibindikatiboen aurka egindako 743 erasoaldien datu zehatzagoak agertzen dizkigu:

- 1- Preso, errefuxiatu eta amnistiaren aldeko asanblada eta manifestazio erasotak: 323.
- 2- Polizia eta "inkontrolatu"ek hildako nahiz zauritutakoen protestarako manifestazio erasotak: 223.
- 3- Polizia eta "inkontrolatu"en beste errepresio batzuen aurkako manifestazio erasotak: 10.
- 4- Lan erreibindikazioen aldeko manifestazio erasotak: 69.
- 5- Zentral Nuklearren aurkako manifestazio erasotak: 24.
- 6- Emakumeek abortatzeko duten eskubideen aldeko manifestazio erasotak: 6.
- 7- Biolentziaren aurkako manifestazio erasotak: 11.
- 8- Ikasleen manifestazio erreibindikatiboetan erasotak izan zirenak: 5

- 9- Udalarari zuzenduak izan ziren manifestazio erreibindikatiboak: 9.
- 10- Zuzenean ETA talde armatuaren aldekoak izan ziren manifestazioak: 5.
- 11- Kontzientzia Eragozpenaren aldeko manifestazio erasotuak: 4.
- 12- Bardeetako erabilpenaren aurkako manifestazio erasotuak: 4.
- 13- Telesforo de Monzón zenaren zerraldo garraio liskartsuaren aurkako manifestazioak: 6.
- 14- Aberri egunari dagozkion manifestazio erasotuak: 8.
- 15- Jaialdiak, korrika, etab. erasotuak: 8.
- 16- Espainiako erregeak Euskadira egindako bisitaren aurkako manifestazio erasotuak: 5.
- 17- Eraso egindako beste manifestazio batzuk: 15.
- 18- Erasotutako beste manifestazio ezezagunak: 8.

Castells-ek aztertutako 743 asanblada eta manifestazio erreibindikatibo hauetatik 607 gutxienez, (% 81,7) arrazoi politikoak medio (Euskara, amnistia, independentzia...) izan ziren erasotuak eta 136 (% 18,3) beste arrazoiengatik.

### **3.5.2. Arrazoi politiko eta erreibindikatiboak direla eta, izandako atxilotuak**

Espainiako poliziak eta goardia zibilak 1968. urtetik 1993. urtera bitartean arrazoi politikoak direla eta, Hego Euskal Herriari atxilotu dituzten pertsonen zerrendak 24. taulan daude eta guztira 26.138 pertsona dira gutxienik. Ipar Euskal Herriari dagozkion datuetan bestetik, 513 atxilotu agertuko dira 1989 urtetik 1993. urtera bitartean Euskal Elkargoaren (1976) eta Egin urtekarien (1982-1994) datuen arabera. Atxilotu hauetaz esan behar da ordea ez dugula ezagutzen komisaldegi edo goardia zibilen koartelelan igarotako ordu, edo egunen kopururik; jasan duten tortura eta hauen garrantzia; epailearen aurrera eraman gabe askatuak izan diren atxilotuen kopuruak; epailearen aurretik iragan ondoren askatuak izan direnak; espetxeraino iritsi diren atxilotuen kopuruak edota hauek bertan egindako denboraldia.

Kopuru hauek ez datoz bat Amnistiaren Aldeko Batzordearen datuekin ezta Donostiako Abokatuen Elkargoko batenarekin ere. Hauen ustetan, dexente gehiago dira arrazoi politikoengatik atxilotuak eta hala adierazi du Miguel Castells-ek (1982, 99-100.or.):

*"Hego Euskadin, arrazoi politikoengatik, poliziak burutzen dituen atxilotetak oso ugariak dira gaur egun.*

*Zaila da zehatz-mehatz esaten zenbat eta zenbat diren egunero koartel eta komisaldegietatik pasarazten diren euskaldunak. Amnistiaren Aldeko Batzordeek 1979ko abenduan kaleratu zituzten datuen arabera honako balantze hau egin zuten Hego Euskal Herriko lau herrialdeei buruz eta azaroko hilabeteari zegozkionean: 200 atxiloteta daude egunero. Atxiloteta horiek era honetan sailka daitezke:*

*1- 5 ordu azpitik irauten dutenak (egunean 100)*

*2- 24 ordu azpitik irauten dutenak (egunean 70)*

*3- 24tik 27 ordutara edo hortik gora irauten dutenak (egunean 30)*

*Hilabete honetan 60 lagun egon dira 5etik 15 egunera komisaldegian. ...81eko urte hasieran argitaratutako balantzean Amnistiaren Aldeko Batzordearen hitzetan, Euskadin 80.urtean 2.410 atxiloteta ezagutu ziren eta 8.000 atxiloteta guztira 3 urtetan zehar, hots, 78, 79, eta 80an. Esan beharra dago, ostera, datua ez dela erabat zuzena, atxiloteta askoren berri ez zaielako iristen.*

*Azken 6 hilabeteotan, hilabetean bataz beste, eta abokatuen datuetan oinarrituta, 450 lagunetik gora dira polizien eskuetatik pasa direnak.*

*... 2.700.000 biztanle dituen herri batentzako kopuru handiegiak, alegia...*

Hego Euskadin atxiloteta politikoak beste arrazoirik gabe egin dira Recalderen ustez (1995), eta Castells-ek oso ugariak direla dio eta halatan, zaila dela koartelilo eta komisaldegietatik iragatera behartuak direnen datu zehatzak ematea. 1979. urteko azaroan Amnistiaren Aldeko Batzordeak Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako atxilotetei buruz ateratako txostenean jasotzen da 200 atxilotu izan zirela eguneko, eta 1980. urte osoan egindakoan berriz 2.410, beraz, 8.000 atxilotu guztira 1978, 79 eta 80. urteetan. Azken sei hilabeteetan azkenik, eta abokatuen esanetan, 450 lagun atxilotu zituzten batezbeste hilabete bakoitzean.

Arrazoi politiko eta errebindikatiboak direla eta atxilotuak izan direnen kopuruak alde batera utziko ditugu, zeren eta, bortxa instituzionalak eraginiko atxiloteten datu zehatzak ezagutzea ezinezkoa izateaz gain ez baita hemen agertu nahi dugun garrantzitsuena.

Atxiloteta ugari hauen ezaugarrietako bat Castells-ek (1982, 146. or.) esaten digun bezala, gehiengo epailearen aurretik iragan gabe poliziak berak aske uztean datza, inongo "erru"rik aurkitu ez zaienez.

*"Atxilotu gehienak Poliziak berak askatzen ditu ezer egotzi gabe.*

*Kasu hauetako gehienetan, lege berezia ez da delitoren bat aztertzeke aplikatzen, baizik eta helburu politikoengatik soilik, zerikusirik ez duen epaiketa prozeduraren prestaketarekin."*

Polizia eta goardia zibilak, ETAkidea edo hauen "laguntzaile" a izateaz norbait atxilotu eta zenbait tratatu txar noziarazi ondoren aske uzterakoan, esaten digu Castells- ek, arrazoi politikoengatik gertatzen direla.

Beraz, zer lortu nahi da horrelakoekin? Herritarren beldurraraztea? Euskal Herri independente baten alde aritzen direnak zapuztea? Espainiako polizia eta goardia zibilen boterea erakustea? Euskal Herriaren menpekotasunari eustea?

Landaren (1987) ustez, hiru helburu lituzkete atxilotu indiskriminatu hauek:

- 1- Pertsona bat bortxa baten egile edo laguntzaile den ikertzea.
- 2- Talde errebindikatiboetan nahiz herritarren artean beldurra sortzea.
- 3- Herritarren kontrolatzea.

Eta bukatzeko, atxilotuak direla eta, 1980. urteko udan zenbait udalek herritarren artean ezagutzera egindako Udal Bandoa aipatu nahi dut (Amnistiaren Aldeko Batzordeak 1987, 10. Or.). Altsasu, Zornotza eta Tolosako udalak, besteak beste, eta denetan ere EAJ izanik gehiengoa, bando bat atera beharrean aurkitu ziren gauzez edo egunez ate joka azaltzen zenari eta beren burua agintari judizial edo polizial gisa aurkezten zuen edonori aterik ez irekitzeko agindua emanez, udaltzain batek lagundurik izan ezean eta aurrez Alkate jaunari jakinarazita ez bazen.

*"Udal batzuetan, 80. urteko udan, bando bat kaleratzeko akordioa lortu zuten, herritarrei jakinarazteko gauzez eta egunez aginte polizial edo polizialen izenean zetorren inori aterik ez irekitzeko baldin eta aurrez Alkateak ez bazekien eta udaltzain baten laguntzaz ez bazihozten. Besteak beste, honako Udal hauek hartu zuten akordio hori: Altsasu, Zornotza eta Tolosa, denak EAJko gehiengoa zutenak."*

### 3.5.3 Polizia eta goardia zibilen bidezko bortxa instituzionalak eragindako torturak

Bortxa instituzionalak Euskal Herrian eragindako torturak aipatuko ditugunez hemen, lehenbizi ONUk (Landak aipatua 1.986. 28. or.) gai honi buruz 1984. urtean emandako definizioa eta Espainiako Estatuak 1985eko otsailaren 4ean izenpetu zuena azalduko dugu:

*"Tortura izenez zera ulertuko da: pertsona bati nahita eragiten zaizkion min edota sufrimendu larriak, fisikoak zein sikikoak ere, informazioaren bat lortzeko asmoarekin, egin duen zerbaitengatik zigortzearen edota bera nahiz beste batzuk beldurtzearen; sufrimendu horiek funtzionari publikoren batek edota funtzio publikoak betetzen dituen beste norbaitek eragiten dituenean, berak aginduta edota bere onarpenarekin."*

Torturak egiten direnik halaz ere, beti ukatu izan dute Espainiako gobernu ezberdinek, eta Arteagak (1971) ere hala pentsatzen du polizia eta goardia zibilak ez dutela inongo bortxan iharduten esaterakoan. Polizia eta goardia zibilei aldiz, bortxa hauek egozten zaizkiela dio, Espainiako Gobernua giza eskubideen zapaltzaile modura ager dadin.

Badira Arteagaren iritziarekin bat ez datorren idazle franko, eta azken urte hauetan euskal atxilotuek etengabeko tortura jasan dutela esaten dutenak (Alberdi eta Caminosek 1993; Recalde 1990) eta Alcedok (1996) esaten duenez, komisaldegia torturarekin identifikatzen da.

PSOeko Gobernuak berak eta aurrekoek ere, esan dugun bezala, behin eta berriro errepikatu izan dute Euskal Herrian torturarik ez dagoela, eta torturak egiten direlako salaketa ugarien aurrean, argudio berbera erabiltzen dute beti. Erakunde terrorista eta beren ingurukoen artean kontsigna zabaldua dela diote atxilotzen dituztenean tratatu txar zein torturak jasan dituztela automatikoki sala dezaten. Atxilotuak izan direnek tortura eta tratatu txarrak salatzerakoan ETA talde armatuaren aginduak betetzen besterik ez direla ari esaten dute, hau da, gezurretan ihardun dutela koartelilo eta komisaldegian torturatuak izan direla azaltzerakoan.

Zenbaiten ustez jakina da euskal atxilotuak torturatuak izaten direla. Koartelilo eta komisaldegietan Castells-ek (1987) adibidez, 500 atxilotu aipatzen ditu hilabetero eta 300 tratatu txarrak jasotzen dituztenak. 6.000 atxilotu urtean eta 3.600 torturatuak.

Amnistia internazionalak (1976-1994) Estatu espainolean gertatutako torturei buruz urtez urte eskaintzen dituen datuen arabera, honakook ager daitezke:

1976: 200 preso politiko. Tortura salaketak behin eta berriro, asko eta asko medikuek egiaztatutak.

- 1977: Tratu txarragatik salaketa ugari eta tortura kasu isolatu batzuk. Tortura agerpen 1.
- 1978: Tortura salaketek gora egin dute: 11 agerpen.
- 1979: 14 tortura agerpen atxilotu politikoetan, agerpen 1 sozialetan.
- 1980: 815 atxilotu, tortura salaketak 8.
- 1981: 319 atxilotu, tratu txarrak sistematikoki, hildako 1 torturapean, tortura agerpenak 3.
- 1982: Lege antiterroristapean tratu txarrak eta torturak. Hildako 1 torturapean, tortura salaketak 4.
- 1983: 691 atxilotu lege antiterroristapean, tortura agerpenak 5 lege antiterroristapean eta 4 lege arrunpean. 2 agenteri 10 hilabeteko gartzela zigorra eta 10 urtetarako inhabilitazioa.
- 1980-1983: Amnesty international erakundeak 25-30 salaketa jaso zituen urtero 1983 urtea barne. 3.205 atxilotu lege antiterroristapean. Komisaldegia eta koarteletan ohiko erabilera da torturarena.
- 1984: 673 atxilotu. Tortura agerpenak 11, horietarik 4 atxilotu arruntak.
- 1985: Torturapean hildako 1 eta tortura agerpenak 2.
- 1986: 295 atxilotutik gora. Salaketa ugari eta tortura agerpenak 4.
- 1987: 528 atxilotu lege antiterroristapean, tortura salaketa ugari aipaturiko legepean, gutxi delitu arruntengatik. Tortura agerpenak 3, hauetako 1 atxilotu arruntarena.
- 1988: Salaketa eta atxilotuen kopuruak behera egin du.
- 1989: Torturari buruzko txosten ugari. Tortura agerpenak 4, preso arrunten salaketena erantsi behar zaielarik.
- 1990: Tortura agerpenak 2, horietako 1 atxilotu arruntarena.

- 1991: Linaza 1981ean torturatzeagatik 9 goardia zibil kondenatuak. 171 prozedura judiziali ematen zaie hasiera 392 polizi funtzionarien aurka. Lege antiterroristapean atxilotutako hainbateko eta preso arruntek torturak salatu dituzte.
- 1992: 50 salaketatik gora. Tortura agerpenak 15, horietatik 8 arruntenak. Atxilotuez gain 17 preso sozialek ere salatu egin zuten.
- 1993: Salaketa ugari.
- 1994: Torturaren Aurkako Madrilgo Elkarteak egindako txostenean jasotako datuak. 267 salaketa, aurreko urtean baino gehiago.

Torturaren gai honetaz datu gutxi hauek lortu izan arren, errepresioaren gaian esaten genuen bezala, ez dugu bortxa instituzionalak euskal atxilotuei egindako torturen datu zehatzik (torturatuen kopuruak, tortura moetak, torturen ondorio fisikoak, torturen ondorio sikikoak, etab...). Daturik ezean, Espainiako gobernuaren indar polizialak euskal atxilotuei eginiko torturak salatu izan dituzten atxilotu, preso politiko, alderdi politiko, idazle, kazetari, polizia, eliz-arduradun eta beste zenbaiten iritziak azalduko ditugu hemen eta ez guztiak, zerrenda luzeegia osatuko bailitzateke.

- Josu Abrisketa (Salaberriak aipatua 1971). 21 urteko gazteak honela erantzun zion, bere abokatuak egindako galderari: Zortzi egunetan zehar basaki torturatua izan naizelako Manzanas komisarioa edo beste edonoren hiltzailea neu nintzela esatera iritsi nintekeen.

Jasandako torturak aguanta ezinak zirenez, norberaren kaltetan izan daitekeen edozein aitortpen izenpetzeko prestutasuna agertu zuen Josu Abrisketak.

Badira beste zenbait, aurrekoaren modura, poliziak edo goardia zibilek ezarritako edozein akusazio baieztatu (gezurra izan arren) edo sinatuko zuketela esan dutenak, komisaldegi edo koarteliloetan sufritu dituzten torturak jasan baino lehen, eta horrela, torturei amaiera ematea, lehenbailehen espetxera bidaliak izan zitezten. Eta azkenik, badira komisaldegi edo koarteliloetan sufritu zituzten torturekin bukatzeko hiltzea bera ere atseginez eta gogo handiz desio zutela diotenak.

- Iñaki Olaetxea (Muñagorrik aipatua 1983). 1983. urteko urrian Donostiako goardia zibilen komandantzia jasandako torturei buruz ari denean honela dio: pistola bat izango banu gustora, oso gustora hilko nukeen nire burua.
- Jose Maria Olarra (Muñagorrik aipatua 1983). 1983. urteko urrian Donostiako goardia zibilen komandantzia egindako torturei buruz ari denean honela dio: une batetan ez nintzen konturatzen non aurkitzen nintzen ere. Buruan min izugarria nuen, gelan izartxoak ikusten nituen, suak, suziariak. Hiltzeko leku bat aurkitu nahi nuen baina ohearen ertza gertuegi zegoelako ezin nuen abiadura hartu. Hil nahi nuen, gustoz desio nuen hiltzea. Orduan hasi ziren mendira eramane eta tiro egingo zidatela esaten eta ni pozik sentitzen nintzen eta gustora galdetzen; benetan hilko nauzuela?
- Celestino Agirresarobe (Muñagorrik aipatua 1983). 1983. urteko urriaren 25ean atxilotua. Aurreko larunbatean ejertzitoko kapitain baten hilketa zela eta, zenbait alderdi politikok Bilbon ETaren aurka antolatutako manifestaldian izana. Bilboko komisaldegi nagusian egindako zazpi egunetaz hau dio:
 

*"Barrabiletatik heldu eta gantxo gogor batzuek balira bezala estutzen zidaten behin eta berriro. Garraisi egiten nuen eta kontrola galdu, hil egin nahi nuen, altxatzen ninduten eta bizkarrezurra hautsia nuela uste nuen... Une batean, mundu guztia hil nuela onartzeko prest nintzen pakean utz nazaten. Azkenik, egoera hau luzatzen ari zela ikusirik ahal nuen moduan mahaitik salto egin eta leihotik behera nire burua botatzeko ahaleginak egin nituen, hil egin nahi bainuen..."*
- Mario Onaindía Natxiondo (Salaberriak aipatua 1971). Castells letratu jaunaren galdera: zuk hau guztia berezkotasunez eta libre sentituz izenpetu al duzu? Mario Onaindiaren erantzuna: ni torturatzeari utz ziezaioten eta espetxera joatearren izenpetu nuen.

Mario Onaindia jauna ere edozer gauza izenpetzeko gauza izan zen bera torturatzeari utz ziezaioten. Anitz dira ikusten denez, polizia eta goardia zibilek eragindako torturen bidez sortarazitako sufrimenduak. Ez dut ostera, tortura ezberdin hauen guztien xehetasunak hemen azaltzeko asmorik, bukaera gabeko lana izango litzateke eta. Adibide batzuk besterik ez ditugula ipiniko esan dugu lehenago eta horretan aritu gara.

Bada ordea aipatu nahiko nukeen tortura berezi eta garrantzitsua Espainiako polizia eta goardia zibilek Euskadin egin ohi dutena, hau da, tortura sexuala eta adibide gisa hona hemen zenbait:

- Bermeoko anderea (Celhay-k aipatua 1976). Salbuespen-egoeraren barruan, badirudi Polizia Nazionalek "inkontrolatu"en eran ihardunez atentatu bat burutu zutela "Atxurra" izeneko taberna



batetan eta herriko andere abertzale bati egotzi delako ekintza. Delako andereak Bermeoko goardia zibilen koartelean 24 egunetan atxilotuta egon ondoren honela zioen 1975. urteko ekainaren 30ean:

*"Gorputz guztian kolpeak sentitzen hasi nintzen: buruan, bizkarrean, ipurmasailean... fina eta gogorra zen zerbait sentitzen nuen: porra bat izan zitekeela pentsatu nuen, edo agian latigo bat. Batzuk ukabilkadak ematen zizkidaten. Konortea galtzen hasi nintzenean jantzia nuen erropa kendu eta altu zegoen ohol batetan jartzen nindutela ohartu nintzen. Kolpeak eta oinazeak belaunean sentitzen nituen, baina fuertegoak eta mingarriagoak oin azpitan; orratz batzuekin zulatzen nindutela uste dut.*

*...Zenbait alditan ebakuntz mahaian bilutsik jarri eta bularretan eta obarioetan jotzen ninduten. Mina jasanezina zen eta areago oraindik, nuen ondoeza dela eta, -hilerokoa-. Kolpeak eman zizkidaten bularretan, ernaltze organuetan eta tiradizoak ernaltze organuen inguruko ileetan. Min fisikoaz gain pudorea ere gailendua zen, lotsa azkenean gizonak ziren hainbat hiltzailereren aurrean.*

*...Ez ziren gustora geratu tortura moeta guztiak egin ondoren eta nire morala erasotzen hasi ziren emagaldua banintz hitz itsusiak esanez, nire bizitza pribatuaz interesaturik eta nirekin nahi zutena egin eta nire gorputz osoa ukituz. Birjina ote nintzen jakiten saiatu ziren eta miatu egingo zidatela mehatxatu ninduten behin eta berriz. Egia esan, ez dakit egin ez ote zuten zeren eta, konortea galdu nuen. Gogoratzen naiz beraiek ipintzen zizkidatela konpresak eta halako batean bi konpresa zikin ebakuntz mahaiaren azpian ikusi nituenean, egitazko lotsa sentitu nuen.*

*Mindua eta umiliatua. Hala ere ezin nuen beraien aurrean negarrik egin eta bakardadean negar egiten banuen begietan erresumina sentitzen nuen. Iseka egiten zidaten, ETako liberatuekin oheratzea leporatuz. Nire "birjintasun" egoeraz txantxak egiten zituzten "puta" bainintzen; baita hilekoa nuelako ere. Etsita azkenean, hil nezaten eskatu nien eta hala egingo zutela erantzun zidaten nire lagunek kalean goardia zibil bat hilko balute. Horma baten kontra hila izateko moduan jarria izan nintzen eta pistola bat jartzen zidaten bularrean."*

- Mertxe González (Muñagorrik aipatua 1983). 1983 urteko azaroaren 2an Iruñeko Argipideetarako 2. Epaitegian, jasandako torturari buruz egindako salaketa:

*"Polizia Nazionalaren lokaletan pasatako lau egunetan (urriaren 16tik 20ra) ondoko tortura hauek sufritu nituen:*

- Ia ito arte ipintzen zidaten plastikozko poltsa buruan.
- Pistola buruan jarriz mehatxatzen ninduten.
- Bilutsik jarri, kirolfanoa egin eta bularrak bihurtzen zizkidaten.

- Erratz kirtena aluan sartu eta tanpaxa poliziaren aurrean aldarazi ondoren zikina ahoan sartzen zidaten.
- Jo eta gehiegikeriatan aritu ziren nire gorputzarekin.
- Mendira eramane eta tiroa emango zidatela mehatxatu ninduten."

- Begoña Sagarzazu (Amnistiaren aldeko Batzordeak aipatua 1987):

"... Loak hartzeko asmotan nengoen unean (atxilotu nindutenak elkar agurtzen ari ziren eta ez zen hotsik entzuten), goardia egiten ari zena (nire ustez) nire gelaskan sartu zen, pixa egitera joatea debekatu (beste batek baiezkoa esan bazidan ere) eta aginduak ematen zidana zen berori, inoren aurpegira ez begiratzeko esanaz batez ere. Bilutsik jartzen behartu ninduen, kuleroak erakustera 'nik nekien aldetik' umiliagarriak ziren iruzkinak egiten zituen bitartean, adibidez: 'zure adinarekin kuleroak zikinak eramateko lotsarik ez duzu', 'nolako ipurdia duzun', etab... Bilutsik jarri ondoren jarrera ezberdinetan ager nendin behartzen hasi zitzaidan (bera nire gelaskako atearen markuaren kontra jarrita zegoen), hormari begirarazi, hankak ireki eta burua aurrerantz makurtu. Une bat pasa ondoren, bira erdia eman, pauso batzuk aurrera ('ez dakizula begiratzea burura'), hankak ireki eta lurrean eseri hankak irekita, berriz jeiki, berriz ere hormara begira eta lau hanketan jarri. Une horretan berotu eta behatzak aluan sartu zizkidan atsegin nuen galdetuz, nik ezetz erantzun, eta berrito berdina egin zuen larrua jo zezan nahi nuen galdetuaz, nik berrito ezetza emanaz. Lurretik indarkeriez altxa ninduen eta ohetzarrean bota, zakila sartzeko (eszitatua ikusten nuen) eta garrisika hasi nintzen "laguntza" eske. Kolpeka hasi zitzaidan indarkeriez eta arropa azkar jatzeko agindu zidan, aterantz zihoan bitartean. Berrito sartu eta ahozpeztan ohetzarrean etzan nendin agindu zidan, berrito irten eta galtzak kentzeko agindua emanaz sartu zen geroago, eta nik ezetz esan nion. Mehatxatuz pistola jarri zidan buruan (beti zeraman pistola gerrian), mehatxuak gainera 'hau hasiera besterik ez da, denbora luze dugu oraindik' oraindik egun asko gelditzen ziren inkomunikatuta egoteko..."

- Itziar Amezaga (Amnistiaren Aldeko Batzordeak 1992 urtean ageritako txostenean):

"... Gero, itaunketa gogorra izango zenera eramane ninduten autoz, bitartean mendira eramane izango nintzela eta, mehatxatuz. Hara iritsi ginenean galderak egin zizkidaten. Nik ez nekien ezertxo ere galdetzen ari zirenei buruz eta biluztarazi egin ninduten, ni neu biluzteko zioten. Aurretik, mota guztietako kolpeak hartu nituen, mehatxuak, etengabeko bidegabekeria sexualak hitzezkoak zein fisikoak. Ukitu egiten ninduten, bortxatu egingo nindutela mehatxatu, pistola muturra sartu

*zidaten, beno hala uste dut izango zela, baginatik kanoia ere bai, baita ez dakit zein motatako gauzakiak ere sartuko balizkidate bezala aritzen ziren eta alde guztietan kolpeak emanaz gainera. Gero ez dakit zer gertatu zen, bizkorki jazteko agindu zidaten eta eraman nintzatela lehenbailehen. Korrika ezin jantzi nintzenez burusian bildu eta beste gelaska batera eraman ninduten eta han jantzi nintzen.*

*Berehala, handik denbora ez luzera, beste itaunketa egin zidaten bilutsik jarri eta lurrera bota ninduten, zanpatu egiten ninduten eta gero buruan zorro bat jarri zidaten eta ezin izaten nuen arnasik hartu, ...."*

Zer esan daiteke Euskadiko komisaldegi eta koarteliloetan egin diren tortura "sexual" hauetaz?. Gerratea den herrialdeetan bakarrik gertatzen zirela uste genuela? Vietnamen adibidez edota Bosnian? Zenbait polizia eta goardia zibil ordena eta zuzenbidearen zaintzaile izatetik urruti daudela?

Espainiako gobernuaren indar polizialek egindako tortura beren gorputzean sufritu duten zenbaiten testigantzak agertu ondoren, jo dezagun Euskadin torturatu egiten dela baieztatzen duten beste zenbait iritzi azaltzera:

- José Ramón Rekalde (Cueva-k aipatua 1988). PSE alderdi politikoren aldetik hautatua eta Eusko Jaurlaritzako sailburu izana. Estatu bat tortura erabiltzen ari bada, salatu egin behar da. Ez naiz sartuko hauek betidanik edo ohituraz egiten diren esatera, baina dakidana oso orokortua dagoela da.
- Montserratateko agiria (Salaberriak aipatua 1971). Sarritan salatu diren tortura fisiko eta moralak, poliziak erabili dituen metodo sistematikoak izatera iritsi dira.
- Miguel Castells (Davant-ek aipatua 1987). Batezbeste 500 dira hilabetero atxilotuak, eta 300 tratu txar jasotzen dituztenak. Batezbeste, atxilotu bat izaten da ordubete eta hiru ordulaurdeneko. Batezbeste, tortura kasu bat gehiago egoten da bi ordu t'erdiko. 6.000 atxilotu eta 3.600 torturatu urtean.
- José Luis López Esteban (Davant-ek aipatua 1987). "Unión Sindical de policía" delakoaren prentsa idazkari poliziak honakoa zioen 1981. urteko otsailaren 21ean: garrantzitsuena errealitatetik abiatzea da eta errealitatea, torturatu egiten dela da.

- Eva Forest (Davant-ek aipatua 1987). 1978. urteko azarotik 1979. urteko martxora arte hauteskunde kanpaina eta Konstituzio erreferendumaren arteko hilabetez mintzatzean begira zer zioen: garai honetan, motibazio politikoengatik torturatuak izan diren pertsona kopurua bostehun pertsonatik gorakoa izan da Euskadin.
- Abokatuak (Davant-ek aipatua 1987). 1979. urteko abenduaren 30ean Donostiako bi abokatuk ziotenez, beren bulegoetan, torturatuak izandako 60 pertsonaren salaketak zeuzkaten, zauriak agerikoak zirela baieztatuz forentseak egindako agiriekin batera.
- Egin (Davant-ek aipatua 1987). 1981. urteko abenduaren 13an abokatu donostiar batek adierazitakoa zekarren egunkari honek: tortura eta tratu txarrez, bulego honetan badira oraintxe bertan gutxienez 160-170 espediente, bertan tratu txarrak salatzen direlarik epailearen aurrean.
- Donostiako Abokatuen Elkargoak (Davant-ek aipatua 1987). Donostiako abokatuen elkargoko 27 abokatuk ondokoa zioten: Ezaguna eta nabarmena da sistematikoki eta era orokorrean erabiltzen dela tortura Euskadin, eta jarraitzen dute esanez, argitaratutako zifrek, hileko hirurehun pertsonatik gorako batz bestekoa ematen dutela Euskadin, alegia tratu txarrak jasaten dituztenak motibazio politikoak daudelako tartean dela.
- Víctor Manuel Arbeloa (Davant-ek aipatua 1987, 239. or.). Apaiza eta Nafarroako Legebiltzarreko lehendakaria 1976. urtetik 1982. urtera.

*"Nafarroako Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeko Lehendakari gisa eginiko hiru urte eta Nafarroako Legebiltzar horretako lehendakari izandako lau urteez oroipen tristeak gordetzen ditut tortura eta tratu txarrei dagokienez."*

- 339 apaizek (Letamendiak aipatua 1978). Gure herriko komisaldegietan maiz erabiltzen den tortura bidegabeta da, legeriaren aurka aritzen direnak ikertzeko metodo gisa. Susmo apur bat nahikoa da polizia zein goardia zibilek axolagabeki tortura dezaten.
- Xabier Arzallus politikaria (Castells-ek aipatua 1982. 31. or.). EAJko buruak 1981. urteko ekainean honako hau zioen:

*"Guztiz bakezalea den jende anitz dator gugana izugarrizko torturak jasan dituztela salatuz. Azken bolada honetan, susmo soil batzuk direla medio, egiten ari diren atxilotetetan harrapatuak izan direnak dira beroriek, eta egunak dirauten itaunketetan torturatuak izan ondoren, berehala epaileak aske utzi dituenak inongo kargurik leporatu gabe jakina, zeren eta, ez baitzuten zenikusirik leporatzen zitzaizkien erruekin."*

- Joaquín Navarro (Landak aipatua 1986, 52. or.). PSOEko senatari ohia eta epaile donostiarren dekanook, zioenez:

*"Torturatu egiten dela begibistakoa da, eta errealitate horretatik abiatu behar da, erabat desagertu arte. Errealitate hori ahazteak edo ezkutatzekak torturatzen segituko dela laguntzea da."*

- BBB EAJko Bizkai Buru Batzarra (Landak aipatua 1986). BBB Prentsa kabineteak jakinarazi nahi die bere afiliatu eta orohar herriari, tortura eta giza eskubideen aurkako urraketak eginez jarraitzen dutela egunero Euskadiko poliziaren komisaldegi eta goardia zibilen koarteliloetan. Eta tankera honetan jarraitzen zuen BBBk, iritzi publikoaren aurrean salatu beharrean gaude, poliziaren aldetik egiten ari diren demokrazia eta konstituzioaren kontrako praktikak, Estatuan dituzten agintarien babesa dutelarik.

Horiexek dira hain zuzen, euskal lurralde osoan egunero egiten ari diren salaketa andana dela-eta aurrean isiltasun errudunaz erantzuten dutenak.

- Joseba Arregi jauna (Castells-ek aipatua 1982). 1981. urteko otsailaren 13an Carabancheleko Espetxeetako Eritegian hil zen D.G.S.E.ean igarotako hamar egunetan jasaniko tortura eta zauriak medio.

Mordoa da, bistakoa denez, Euskadin torturatu egiten dela salatzen dutenak. Halaz ere Espainiako gobernuak ez du tortura egiten denik onartu nahi. Oso ongi daki, tortura egunerokoa dela Euskadiko komisaldegi eta koarteliloetan, baina entzungor eginez jarraitzen du.

Tortura esaten da, gaurko poliziaren lan tresna dela, gaur eguneko PSOEko gobernuak babestua, toleratua eta isilik gordetzen duen metodoa. Zerrenda honetan, eta lehenago esan dugun bezala, tortura sufritu, eta komisaldegi nahiz koarteliloetan torturatu egiten delako adierazpenak egin dituzten gutxi batzuk besterik ez dira azaltzen. Milaka euskal atxilotu dira tortura sufritu dutenak eta milaka baita ere bortxa

instituzionalak torturatzen duela salatzen dutenak. Gai honi buruzko literatura oso aberatsa da "tamalez" eta honetaz idazten jarraitzeko aukera handia izan arren, ezin izango da guzti honen berri hemen azaldu.

Gaiarekin bukatzeko, EAJko Euskadi Buru Batzarreko lehendakariak 1981. urteko ekainaren 6an esandakoa aipatuko dut (Castells-ek aipatua 1982): "Herria, bortxaren aurka elkarlanean ari dadila nahi dute, koarteliloek indarkeria horren habia izaten dirauten bitartean..."

Non gelditzen dira iritzi guzti hauen aurrean, Barne ministrari ezberdinek torturatu egiten dela ukatzen duteneko hitzak?

Ulertu behar da beraz, herriari, bortxaren aurka aritzea eskatzen dion Espainiako gobernu bera dela era antidemokratiko eta antikonstituzionalean ihardunez bere interesetarako litzatekeen bortxaren bultzatzaile? Edota herriak, bortxaren aurka kolaboratzea nahi dutenak koarteliloak halakoen habiak izaten segitzearen aldekoak direla?

### 3.5.4 Euskal preso politikoak

Estatu espainiarra eta Euskal Herriaren artean gertatzen den bortxa politikoaren ondorioz 1968. urtetik 1989. urtera arte espetxeetan egon diren preso politikoek zerrrendak 25. taulan agertzen dira. Datu hauek Euskal Elkargoa (1976) eta Egin urtekaritik (1982-1994) hartuak dira. Aipatu behar da hemen ere, ez dugula 1971. urteko datu zehatzik ezagutzen, ezta preso politiko guzti hauen batura ere, horietako zenbait, urte ezberdinetako kopuruetan azaltzen direlako.

Azpimarratu behar da halaz ere, 25. taula honetan azaltzen diren 26 urte hauetan izan den preso kopuruaren batzbestekoa 404 preso politiko osatua dagoela. Kopururik haundiena berriz, 1969. urtekoa (862 preso) da eta gutxienean 1977. urtean (5 preso) Suarez Espainiako gobernuko lehendakaria zen garaiko erreforman preso politikoei emandako "amnistia" zela eta.

Euskal preso politikoek datu estatistiko hotz hauek emateaz aparte, multzo honek espetxeetan bizi izan duen egoera aipatzea beharrezkoa iruditzen zait. Bilboko gotzaiek 1991. urteko urtarrilean "Presoen senide eta lagun" izeneko idatzi pastoralean ziotenez, espetxeetan bizi den egoera, legeak teoriarik zehazten duen mailaren azpitik dagoela adierazi zuten (espetxeetako aurrekontu urriak; presoak zigor geletara errazegi eramanez dira; presoak espetxe batetik bestera garraiatze-gehiegikeriak; espetxe bakoitzeko preso kopuru gehiegia; higiene eta osasun baldintza urriak; espetxeetako hilkortasun tasa ikaragarriak...). Egoera honek, besteren artean, zioten gotzaiek, presoak makurtu eta gutxietsi dezake. Delako idatzi pastorala preso

arruntak deiturikoei zuzendua zegoen bereziki, beroriek izaten direlako ahaztuenak, dena den, Bilboko gotzaiak diotenez, preso politikoez ere berbera esan omen daiteke, izan ere, ez omen dira gisa horretan errekonozituak edota errespetatuak izaten eta askotan manipulatuak ez ote diren ere zalantzak omen dituzte, preso politikoak negoziazioan trukaketa moduan "erabiltzeko" tentazioa egon daitekeenez.

*"Politiko izendatzen diren presoekin ere izan dezakegu tentazio bikoitza, oso egingarria dena bestaldetik. Lehena, beraiek nahieran erabiltzean datza. Presoaren pertsona ezin da erabilia izan, erreserba moduan edo berori manipulatu egiten duten interes politikoen zerbitzutan egongo den kapital gisa, jatorriak jatorri. Pertsona ezin da erabilia izan, ez trukaketa eran negoziazio batean ezta ordainetan ere baketze prozesu batean ..."*

Beraz, Espainiako espetxeetan, esaten zaigu, ez direla preso politikoen eskubideak errespetatzen. Euskal preso politikoak, Euskal Herriko gatazka politikoa negoziazio baten bidez konpondua izan daitekeen egunerako bahitu modura erabiliak dira.

Ez dira Bilboko gotzaiak bakarrik, Espainiako espetxeetan preso politikoei dagozkien eskubideak ez direla betetzen diotenak. Idazle eta politiko mordoa izango da iritzi berekoa eta Forest (1977) edota Biurrun (1993) esandakoaren lekuko.

Preso politikoak, diote, pertsona arriskutsutzat ezezik etsai politikotzat ere hartuak izaten dira, eta gizartetik baztertuz espetxera bidaliak. Jakina, preso horiek ez dute lapurreta helburutzat, bai aldiz, Espainiako gobernua Euskal Herriarekiko dituen egitasmu politikoen porrot osoa. Areago oraindik, etsai, errebelde eta hiltzailetzat joak ere izango dira politikook eta gogor tratatuak espetxeetan, bortxa instituzionala medio makurtuak izan arte (Castells 1976).

Beste aldetik berriz, edozein aitzakiaz baliatzen da Gobernua, presoak goizetik gauerarte zigor geletan giltzapetuak edukitzeko; ikasketak debekatu; euskaraz idatzitako liburu eta gutunei oztopoak jarri; ahaidekoen bisitak debekatu eta bisitotan euskaraz egitea galerazi; ahaidekoengandik urrundu; espetxe ezberdinetan sakabanatu; etab...

Franko da, ikusten denez, espetxeetako presoek sufritu behar dituztenak eta, azkenerako osasuna bera ere galduz joango dira eta nortasun arazoak sortu ahala deskontrol sikikora iristen dira, bortxa instituzionalak presoak "makur" arazteko dituen ahalmenen eraginez.

Espainiako espetxeetan bizi den sufrimendu egoera gutzia adierazteko bertan egon diren presoek testigantzak eta beste zenbaiten iritziak agertzeari deritzot egokien eta besterik gabe horretara goaz:

- Josu Ibargutxi 1976. urteko ekainak 11 (Castells-ek aipatua 1976). Zigor gelei buruz esan diezazuekedan onena, bertan egondako eta bukaera gabekoak gertatu diren hirurogei egunak iragan

direla da. Ezin esan dut baldintza onetan igaro direnik, arratoi, labezomorro, armiarma eta besteren "laguntza onean" egon naizelako...

- Bartzelonako emakumeen espetxea (Suárez-ek aipatua 1976). 1971. urteko urria. Patioko orduak 2 ziren, baina euria edo hotza zenean 3 ordotara luzatzen ziren. Egun hauetan builaka aritzen ginen: "Igo nahi dugu, hotzak gaude eta", patioan zegoen aterpeak ez baikintuen eunitik ia ezer babesten. Espetxe guztian barrena entzuten bazen ere, "Cruzadas" delakoen erantzuna beti berdina zen: isiltasuna...

Espetxetik irtetean, zuzendaria zen lekaimerearen agurra honako hau izaten zen: Hobe duzue hurrengoan emagalduek izateagatik itzultzea "politika"gatik izatea baino"

- Córdoba 1972. urteko urria (Suárez-ek aipatua 1976). Aipagarria da zigor gelak sotoetan eta kanpoko argirik gabe zeudela, horren ordez 25 Wtako bonbila simple bat besterik ez da egoten. Sendagileak berak ere ez du zalantzarik, halako erregimenarekin ikusmenaren aldetik gorabehera haundiak izateak ez duela harritzen esaterakoan...

- Amnesty International 1972. urteko azaroaren 29an (Suárez-ek aipatua 1976). Azaroaren 29an, sail honetako arduradunak gutun bat zuzendu zion Francisco Francori, bere laurogeigarren urtemugan, estatuen aurka egin daitezkeen lege-haustekak, duintasunez trata daitezken eskatuz eta "espainiar espetxeetan presoek bizi duten osasun egoeraz iritsi zaizkien berriez" kezkatu azaltzen zen, besteren artean. Osasun egoerari buruzko kezka hauek berriro agertuko dira artean Atzerrirako Ministrari zen López Bravo-k Alemaniako Errepublikara Federalera egindako bidaiari eskura eman zitzaion gutunean, eta labur bilduz agertzen duguna:

- 1- Zenbait espetxetan botikak erosteko aurrekontua oso eskasa denez sendagileak jasotzen duten sendagai-muestraz baliatzen direla jakin dugu. Ohar hauek espetxeetako zuzendaritzetan baieztatuak izan dira...
- 2- Erizainen zereginetaz preso arruntak arduratzen omen dira sarritan, eta horiek egiten duten lanagatik erospena irabazten dute. Halaz ere, nonbait horiek ez dute sendagintzarako ikasketarik egin. Espetxeetan sendagile falta dagoelako, erizain horiek beharrezkoak omen direla esan digute, sendagileen zenbait zeregin bete dezaten.



- 3- Erizaindegiko osasun-tresneria urria dela dirudi; horrela esan digu baita Gaztelako espetxe bateko zuzendaritzak ere. Espetxeetako zenbait sendagilek egindako gezurrezko diagnostikoak penagarriak izaten dira, adibidez; -Kataluniako espetxe batean- biriketarik gaixo zegoen preso bat urdailetik tratatua izan zen hilabete batean, espetxetik libre geratu ondoren sendagile independente batek 50 pezetatako txanpon baten tamainako zuloa aurkitu zion biriketari.
  - 4- Espetxeeko zuzendaritzak berak oztokatzen duela dirudi batzuetan osasun hobekuntza. Madrileko espetxeeko preso batek egindako kritika ez jakinaraztea erregutu zigun zenbait desabantailaren beldur zelako. Behin eta berriro esan zaigu espetxeetako zuzendaritzak izugarri atzeratu izan dituela sendagile espezialistarengana jo beharreko kasuak... edo premiazkoak izanik espetxetik kanpo egin beharrekoak ziren ebakuntzak.
  - 5- Lehen mailako presondegiak deiturikoetan batipat, eta preso politikoei bereziki sarritan betearazten zaizkien disziplinazko zigorrak, uste baino gehiagotan, osasun ondorio larriak dakarzkiete. Uste dugu Soria edo Segovian zigor geletan astebete berogailurik gabe neguan egoteak, gehiegi eskatzen diola preso baten baldintza fisikoari...
  - 6- Espetxe ezberdinetako espazio baldintzak -gelaska eta patio estuak- galeriak inkomunikatuak egoteko erak berak ere, okerrerako eragin izugarria duela dirudi, presoek egoera sikikoan; hori guztia ederki asko frogatzen da urdaileko gaixotasunak maiz jotzen duenean eta hasierako zigorraren helburua gainditzen hasten denean.
  - 7- Preso arruntik gehienak (lehen mailako presondegietan) gartzela-zigorraren lehen laurdena baino gehiago eta sarritan zigor osoa betetzen dutela kontsidera dezazun eskatzen dizugu... eta ez dutela hartzen gartzela-zigorraren azken laurdena baldintzapeko askatasun gisa. Preso politikoei, hortaz, osasun baldintza latzak jasaten dituztela deritzogu.
- Amnistiaren Aldeko Batzordea (1987). ...Honek gure familiei dakarkien gastua ekidin zitekeen espetxeeko janaria jateko modukoa eta nahikoa balitz. Jatenari kiratsa dario, gutxi izanik jateko modukoa. Higienarik eza aipatzekoa gertatzen da, janarietan labezomorroak aurkitu izan direlako negela sorraraziz. Menuaren egutegian bromuroa botatzen ote den susmoa haundituz doa egunik egun.

- "Puerto"ko espetxea (Amnistiaren Aldeko Batzordeak aipatua 1987). ...Garraio honi buruzko salaketa era eta aho batekoa izan zen, nahiz eta Madrileko zenbait komunikabidek hotel baten antzeko espetxe gisa azaldu izan. "Puerto"ko atxilotuen testigantzak, ordea, beste honako hau zioen: "Presoen eskubideak erreklamatu edo protestak egiteagatik ongi ezagutzen ditugun zigorrak ezar diezazkigukete: edo jipoitu edo isolamendu geletan egotera behartu. Bien artetik, nahiago ditugu gelaskak, 10 kilo argaldu behar baditugu ere. Isolamendu geletan zirikatzen jarraitzen dute, era horretan gartzelariak lanpostu mailetan aurrera egiteko merezimenduak irabazten dituzte, parteak eta egiteagatik. Jatena zikinkeria dela esateagatik (zigarro muturrak aurkitzen dira bertan, arrak, beirak, arratoien kakak plateretan...) "oso larria" deituriko parteak idazten dira eta gainera, zerbitzuetako nagusiak jipoitu egingo gaituztela mehatxatzen gaituzte isolamendu geletan daudenei parteak pilatuz jarraitzen bazaizkie. Egunez egun arau berriak: 25 lagunek parteak dituzte txistuka aritu edo abesteagatik. Gartzelariari begiratzeagatik oso larria da hutsegitea, parte! Ez al da sinestezina? Bada, etxetik mila kilometrotara edozein gauza gerta daiteke eta gutxik ezagutu eta izan dute honen berri...

Hauek izan dira Espainiako espetxeetan izaten den errepresioaren zenbait testigantza eta ez dut ikusten halako gehiago azaltzen saiatu beharrik, horrelako zorigaitzoko esperientziak sufritu dutenen adierazpenetan beste hainbeste agertzen denez beti: zigor gelak, janari eskasa, sendagintza ezegokia, tratu txarrak, higienerik eza, zigorrak, inkomunikazioa, bakardadea, umiliazioak, mespretxuak, ... Reik (1995) eta Reizabalek (1993) ere honela laburbiltzen dute Carabanchelen bizitutakoa: pilaketa, tratu txarrak, miseria, ustelkeria, eta amaigabeko zorigaitzak eta horren guztiaren hasiera eta bukaera beti hitz berarekin idazten da: injustizia.

Hau guztiaren aurrean egia izan behar preso politikoak ez direla errespetatuak izaten, askotan manipulatuak baizik. Egia preso politikoak trukaketa moduan erabiliak direla. Edota Espainiako gobernua asko gaiztoz eragiten duela errepresioa espetxeetan ulertu behar al da, presoen bidez ETA talde armatua eta ENAM mugimendua indargabetzeko?

### 3.6. Ondorio gisa

Euskal Herriko bortxa politikoaz, oraindik ere datu estatistiko asko eta asko eman daitezke sarritan aipatu bezala, iruzkin mordoa egin baita, baina oraindano agertu diren datuekin aski dugu delako gatazka sozio-politikoak duen garrantzia ulertzeko. Garbi da Euskal Herria eta Estatu espainiarraren artean bortxa espirala ematen dela eta bi talde hauen arteko gatazka konpontzeko jokabide arrazional eta estrategikoaren aurrean gaudela.

Bukatzeko, emandako datu hauen guztien artetik ondorio batzu aterako ditugu. Halatan bada, honakook esango genituzke:

#### **A- Euskal talde armatu ezberdinek buruturiko borroka politikoa:**

- 1- ETA talde armatuak kalte materialak sortzeko ezezik, hiltzeraino eragin daitekeen bortxa politikoa ere "onartu eta gauzaten" du.
- 2- ETA talde armatuak uniforme edo armadun gorputz ezberdinak eraso izan ditu batipat, eta askoz ere gutxiago indar polizial"en "laguntzaile"ak lirartekeen zibilak.
- 3- ETA talde armatuak uniforme edo armadun Gorputz ezberdinetako kideak erasotzerakoan, Espainiako gobernuaren indar polizialak eraso izan ditu ia soilik eta ezer gutxi Euskal Herriko instituzioetako uniforme edo armadun Gorputzekoak.
- 4- ETA talde armatuak kontu haundiz prestatzen ditu gauza nahiz pertsonen aurkako ekintzak eta ez da diskriminazio gabeko ihardueretan aritzen, burutu den ekintza bat edo besteren ondorioak ondo neurtu ez direneko errezeloak badaude ere zenbaiten artean. "ETAk indiskriminatuki hiltzen du" esaldiak, ez du inongo zentzurik hortaz.
- 5- ETA talde armatuak, batez ere Bizkaia eta Gipuzkoan aurkitzen du beharrezkoa duen herritarren laguntza.

- 6- ETA talde armatuak arma anitz eta sofisticatuak ditu eta beste hainbeste lortzeko ahalmen haundiak.
- 7- ETA talde armatuak, komando berriak sortzeko erraztasuna ageri du.
- 8- ETA talde armatuaren "laguntzaile"en inguruan garrantzi haundiko mugimendu baten sorrera nabari da.
- 9- Azken urte hauetan Euskal Herrian burutzen diren ekintza gehienak "laguntzaile"ek eginak dira nahiz eta garrantzitsuenak ETA talde armatuarenak izan.

### **B- Bortxa instituzionalak buruturiko bortxa politikoa:**

- 1- Bortxa instituzionalak, kalte materialak sortzeko ezezik, hiltzeraino eragin daitekeen bortxa politikoa ere "onartu eta gauzatzen du" du.
- 2- Euskal Herrian burutzen den bortxa instituzionala bitan banatzen da: Espainiako gobernuaren "funtzionario" edota polizia nahiz goardia zibilen bidez eginikoa alde batetik, eta talde "inkontrolatu" parapolizial nahiz mertzenarioen bidezko bortxa bestetik.
- 3- Espainiako gobernuak errepresioa eragiten du Euskal Herrian orohar eta ezker abertzalekoen artean bereziki.
- 4- Espainiako prentsak orokorrean, begiramendu berezia azaltzen du iturri ofizialek ezagutzera emandako mezuekiko, eta oztopoak ipintzen ezker abertzalekoek diotenari.
- 5- Bortxa instituzionalei dagozkien informazioak, ezkutatuak eta desitxuratuak izaten dira iturri ofizialetan.

- 6- Espainiako gobernuak bere polizia eta goardia zibilen bidez, askoz gehiago ahalegintzen da tortura eta beste era bortitzak tarteko, euskal taldeen ekintzak argitzen eta ezer gutxi bortxa instituzionalari dagozkionetan.
- 7- Espainiako gobernuak bultzatu, antolatu, saritu eta zuritzen duen ustezko bortxa instituzionalak ez dirudi Euskal Herriko ordena eta justizia zaintzeko burutzen denik, izan ere, indar polizialak erabilitako metodo ezegokiak eta eragindako bortxa bidegabekoa ezezik, desorekatua ere izan ohi delako.
- 8- "Indar errepresibo"ak deituriko Espainiako polizia eta goardia zibilek hil dituztenen kopurua gorakada izugarria ematen hasten den aldi berean, hasten dira talde "inkontrolatu" parapolizial nahiz mertzenarioek ETAkide zein ezker abertzaleko jendea hiltzen. Eta polizia nahiz goardia zibilek hil dituztenen kopuruak gutxiagotu ahala, talde "inkontrolatu" parapolizial eta mertzenarioek hildakoak areagotuz doaz.
- 9- Talde "inkontrolatu" parapolizial zein mertzenarioek Espainiako polizia nahiz goardia zibilez osatuak eta polizia nahiz goardia zibilen komisaldergi eta koarteliloen inguru giroan sortuak izateaz aparte, berorien babesa jasotzen dute, baita Espainiako gobernu beraren laguntza material eta ekonomikoa ere.
- 10- Espainiako gobernu "demokratiko"ek eragozpen eta zailtasunak ipintzen dizkie epaileei, GAL taldea eta bortxa instituzionalaren beste zenbait kontu ikertzera iritsi ez daitezten.
- 11- Espainiako gobernuak GAL talde armatua justifikatzera inisten da, talde horrek ETA talde armatua erasotzen duenez.
- 12- GAL talde armatuaren erantzulea, Espainiako gobernuak bera ote den ziurtasuna adierazi dute epaileek.
- 13- Espainiako gobernuak ez du behar den modura ikertu ezta zigortu ere bortxa instituzional alorrean tortura eta zenbait hilketaren egile izan diren polizia eta goardia zibilak. Bai ordea, garaikurrak paparrean ipini zenbait eta zuritu ere "zerbitzu" horiek bete dituztenak.

- 14- Hego Euskal Herrian izandako atxiloteta politikoak ugariak izateaz aparte, gehienak inongo "erru"rik aurkitu gabe eta epailearen aurretik iragan gabe, poliziak berak aske utziak izan dira.
- 15- Gobernuak, Espainiako estatuan torturatu egiten dela behin eta berriro ukatu izan arren, tortura eta giza eskubideen aurkako bortxak egunero eta gobernu beraren oniritzi eta babesean egiten direla uste da, polizien komisaldegi eta goardia zibilen koarteliloetan. Milaka atxilotu dira tortura sufritu dutela baieztatu dutenak eta milaka, baita ere, bortxa instituzionalaren bidez tortura eragiten dela salatu dutenak.
- 16- Euskal preso politikoak errepresio giroan bizi daitezzen nahi du Espainiako gobernuak, ETA talde armatuak presoengandik jasotzen duen indarra ahultzearren. Ahalegin horietan eta euskal presoek burua makur dezaten, besteren artean "politiko" izena kentzen zaie, Espainiako espetxe ezberdinetan sakabanatuz, egoera larriak bizi araziz eta bahitu gisa manipulatur.

## 4. EUSKAL HERRIKO GATAZKA ETA BORTXA POLITIKOA GERTATZEKO ZENBAIT ARRAZOI.

Euskal Herriko gatazka eta bortxa politikoa zergatiak aztertzerakoan, beste edozein lurraldetan gertatzen den bezala, eta Ruiz de Olabuenagak (1985) esaten duen modura, arrazoi ezberdin ugari eta konplexuak daudela kontutan hartu beharra dago. Euskal Herrian edota beste edonon izaten diren gatazka politikoen zio edota zergatiak ezin dira arrazoi gutxi batzuetara edo batera bakarrik mugatu, zeren eta, ahaleginotan aritzen dena bere interesetarako liratekeen arrazoiak aldarrikatu eta gainontzekoak ezkutatzeko besterik ez bailitzateke arituko. Herri bat gatazka politikoa murgilduta aurkitzeko arrazoi historiko, sozial, geografiko, antropologiko, psikologiko, politikoa, etabarrak... daude eta ez arrazoi bakarria.

Gure kasuan ere, Euskal Herriko gatazka politikoa dela eta adierazi behar dugu, maiz askotan mugatu nahi izan direla bertako bortxa politikoa arrazoiak eta horrela, esaten da, Euskal Herriko bortxa talde terroristak batek sortua besterik ez dela; bortxan dabiltzan ETakideak sikopata batzuk direla eta herritarren artean beldurra sortu nahi dutela; Euskal Herrian bortxa izatea nahi duten ETakideak eta "laguntzaile"ak manipulatuak eta kultura gabekoak direla; ETakideak hiltzaile soilak direla; ETakideek Euskal Herriko ekonomia hondamena eta langileria suntsitzea nahi dutela; etab... Azkenean, Euskal Herriko bortxa politikoa gertatzeko arrazoiak bortxagile talde baten bizkar egongo lirateke bakarrik eta berorien gaisotasun sikiko nahiz delako taldearen asmo txarretan oinarrituko gatazka guztiaren ardurak, norberarenak sistematikoki ukatuz.

Honen guztiaren aurrean agertu beharra dago, Euskal Herrian dagoen gatazka politikoa garrantzitsuaz arrazoi txepel eta interesatuak aldarrikatzerakoan bortxa honen zergatiak mugatu ezezik, norberaren edo ordezkatzeko den talde politikoa interesetarako liratekeen argudio merkeak zabaltzen, egia ezkutatzeko eta Euskal Herrian bortxak aurrera segitzeko arrazoiak ugaltzen ere arituko ginatekeela.

Euskal Herrian dagoen bortxa politikoa gertatzeko arrazoi ugari eta konplexuak daudela esana dugu, nahiz eta hauetako bakoitza, neurri ezberdinean onartua den batzuen eta besteren artean, bakoitzaren ideologia politikoa arabera askotan, edota arrazoi pertsonal nahiz kulturalen baitan bestetan.

Gure lan honetan, Euskal Herriko gatazka politikoa zergatia edota arrazoiak aztertzea dagokigu, eta Euskal Herriko gatazkan dauden arrazoiak esaterakoan ez dut esan nahi gure herriko bortxan beste inon ez bezalako arrazoi bereziak daudenik. Herri honetako bortxa politikoa zenbait berezitasun dituen arren gatazka dagoen beste herrialdeek dituzten zio amankomunak agertzen direla esan nahi da.

## 4.1 ETA talde armatuko kideen gaisotasun sikiko, ahalmen intelektualik eza, etab...

Euskal Herrian gertatzen den bortxa politikoaren zergatia zenbaiten ustez, ETAkideen gaisotasun sikikoa besterik ez litzateke. ETAkideak esatebaterako, ez lirateke pertsona normalak izango, gaiso sikiko eta arriskutsu batzuk baizik, eta bortxan ihardun beharra sentituko lukete. ETAkideek nonbait, gozamen berezia sentituko lukete norbait garbitu edota hiltzean eta horrexegatik, izango litzateke Euskal Herrian bortxa politikoa.

ETA talde armatuko kideen osasun ikuspuntu honek ez du inongo zentzurik ordea edota balio zientifikorik. Adierazpenok egiten dituztenek, une horietan ETAkide zein beren "laguntzaile"enganako sentituko luketen haserrea kanporatu eta talde armatu honenganako irainak adierazteaz gain min eta kaltea sortzea besterik ez lukete nahi izango, esaten dutena sinisten ez badute ere.

ETAkideak gaiso sikiko batzuk liratekeeneko argudioa erabiltzen dutenek gainera, alde bateko bortxa politikoaren aurka aritzen dira batipat, eta ez dute horrelako irainik egiten bortxa instituzionalean ari direnei buruz adibidez. Besteak beste, Euskal Herrian torturatzen duten edota zenbait hilketa burutu dituzten polizia nahiz goardia zibilaz ez da tankerako argudiorik erabiltzen. Hortaz, "Triple A", "ATE", "Guerrilleros de Cristo Rey", "Batallón Vasco Español", "GAL", etab... talde armatuetako partaideak ere ez dira gaiso sikikotzat jotzen.

Gaiso sikikoak dirudienez, Euskal Herria eta Estatuaren arteko bortxa espiralaren alde batean kokatzen direnak bakarrik lirateke, Euskal Herri independente eta sozialista baten alde borroka armatuan arituko liratekeenak hain zuzen.

Villarreak bere tesian dioenez, ezin esan omen daiteke Euskal Herriko biztanleriaren buru-osasun egoera Espainiako beste lurraldeetan baino okerragoa edo hobea denik. Eta horrela frogatu daiteke Eusko Jaurlaritzako estatistika-urtekariak eta I.N.E. delakoak eskaintzen dizkiguten datuetan.

Bitan banatua dagoen 26. taulan 1979. eta 1980. urteetan (ETA taldeak lagun gehien hil dituen urteak), Euskal Komunitate Autonomoan eta Espainiako Estatuan izandako gaisotasun mentalen indizeak agertzen dira. 27. taulako lehen zatian berriz, 1973. urtetik 1978. urtera bitartean Euskal Komunitate Autonomoan eta Espainiako Estatuan buruturiko hilketa politiko nahiz bere burua hil dutenen kopuruak azaltzen dira. Bestetik berriz, 27. taulako bigarren zatian 1973., 1974. eta 1975. urteetan Euskal Komunitate Autonomoan eta Espainiako Estatuan sikiatrikoetan sarrera izan dutenen kopuruak eta hirugarrenean azkenik, 1978. urtean zirrosiak jota hil direnenak Euskal Komunitate Autonomoan eta Espainiako Estatuan.



Taulotan ikus daitekeenez, Euskal Komunitate Autonomoan eta Espainiako Estatuan izan diren buruko gaisotasun indizeak paretsuak gertatzen dira.

Ez dago, Villarreak dioen modura, inongo elkarlotura koherenterik buruko osasun indizea eta hilketa politikoen artean. Hilketa politikoen tasarik haundiena du Euskal Herriak, baina aldi berean, suizidio eta buruko gaisotasunena gutxiago da. Euskal Herrian, zirrosiak jota hil direnak bakarrik dira Espainiako Estatuan izan direnak baino gehiago.

1970. urtearen inguruan dio Villarreak, Euskal Herrian izaten ziren suizidioak (hilketa politikoen gorakada hasi aurretik) Espainiako Estatuan izandakoak baino gutxiago ziren eta gaur egun ere horrelaxe segitzen du.

Ildo berean mintzatzen dira Apalategi (1978), Valencia (1994) eta beste. Denak bat datoz Euskal Herriko bortxaren arrazoiak franko eta korapilatsuak direla eta bortxagileen osasun psikologiko azterketek ez dutela inongo argibiderik ematen adierazterakoan. Antzeko argudioak orain urte asko alboratuak izan ziren ez-zientifikotzat joak izan zirelako baina, egun oraindik ere, aldarrikatuak eta "onartu"ak izaten dira arerioaren aurka adieraziak izaten diren heinean eta berauei kalteak eragiteko baliagarri gertatzen diren neurrian.

ETAkideak ez dira sikopata batzuk zenbait prentsak hala agertu arren eta, argudiook ez direla kontutan hartzekoak dio Jaureguiberry-k (1989, 353. or.). ETA talde armatuak Euskal biztanleria gehiengoaren babesa jaso zuen frankismoaren bukaeran eta Herri Batasuna Mugimendu Politikoak milaka jarraitzaile ditu bere ideologiarekin guztiz ados datozenak.

*"Azkenik, bortxa isolaturik dauden ero-gaizto, odolozale eta pertsegitzeko setakeria daukaten zenbaiten lana dela esan ohi da baina, ikuspegi honek ez du merezi aipatzerik ere, prentsa zentzionalistarentzat onuragarri izan arren, ikusi besterik ez baitago, batetik, euskal populazioaren gehiengoa bat zetorrela ETArekin frankismoaren bukaera aldean, beren babesa zutela, bestetik, Herri Batasuna mugimendu independentziazalearen hauteskunde-emaitzak, hain zuzen ere, ETA militarrek egiten dituen azterketa multzoarekin erabat ados azaltzen den talde politikoarenak."*

Euskal Herriko bortxa politikoen zergatia ETA talde armatuko kideen gaisotasun psikologikoari atxeki nahi diotenez aparte, badira beste batzuk, jakina, gatazka hau ETA talde armatuko kideen ahalmen intelektualik ezarekin, mafiarekin, lukuruarekin, ETAkideen biografia pertsonalarekin etab. lotu nahiko luketenak. Argudiok edo ximplekeriok erabiltzen dituztenei buruz ere beste hainbeste esan daiteke.

Talde armatu honetako kideek badirudi Euskal Herriko biztanleriak baino ahalmen intelektual gutxiago luketela, inozoagoak nolabait esateko eta horregatik arituko liratekeela bortxa horretan. Talde armatu

honetako kideak mafiosoak lirateke eta Euskal Herriko biztanleriaren askatasun idealak ahaztu egin dituzte. Talde armatu honetako kideak diruzale bilakatu dira eta lukuru bihurtuko lukete beren helburu. Talde armatu honetako kideak egoera bereziren batean bizi izango ziratekeen beren haurtzaroan zein gaztaroan (pertsonaren behar fisiko nahiz sikikorik oinarritzkoenak lortu gabe) eta horrek bultzatuko zituzkeen bortxa erabiltzera.

Euskal Herriko bortxa politikoaren aztertzaile formal batek halaz ere, ezin onartu izango lituzke argudiook beren egitazko baliotasun ezagatik. Arestian esan dugun bezala, gaur egun oraindik ere halako argudioak aldarrikatu eta onartuak izaten dira arerioaren aurka zuzendu ahala eta horiei kalteak eragingo lizkieketen neurrian.

Bortxa politikoan dabilzan ETA armatuko kideak gaiso sikiko, gaitasun gutxiko pertsona, mafiarekin lotuak, diruzaleak, arazo pertsonalez beteak eta gisa antzean azalduak izan daitezzen nahi izaten da Euskal Herriko bortxa politikoaren arrazoi gisa, benetako zergatiak ezkutatzen jarraitzen diren bitartean.

Argudio hauekin argia da, Euskal Herriko biztanleria ETA talde armatuaren aurka agertzea nahi izaten dela, ETA taldeak gaur egun herritarrengandik jasotzen duen sostengua bukatzea alegia. Emandako argudio hauek egiak balira esan behar bestetik, ez luketela ETAkideek herritarren laguntzarik jasoko; ez zen ETA talde armatu eta milaka abertzaleren ideologiarekin bat etorriko; Espainia nahiz Euskal Herriko instituzioek ez lukete milaka milioi pezeta gastatu beharrik izango, herria argudio hauetaz jabetzeko.

Argudio hauek egiak balira, herria bera ohartuko litzateke honetaz eta delako talde armatuari laguntza aspaldi ukatuko zion. Ikusten denez ordea, gauzak ez dira horrela gertatu. Herriak ez du arrazoiotan sinistu eta Jaureguiberry-k (1989) dioen modura ETA talde armatuak bere ideologiarekin ados dauden milaka jarraitzaile ditu.

Bortxa politikoan iharduten duen pertsona ez da gaiso sikikotzat jotzen, are gutxiago adimen urriko pertsona, mafiarekin lotua, diruzalea edo arazo pertsonalez beteak baizik eta, zeharo alderantziz, herriko pertsonarik saiatu eta solidarioena gertatzen omen da sarritan eta bere gaitasunengatik herriko emankorrenak gainera, ETAkidea ezagutu duten herritarren hitzetan bederen. Lorenzo Espinosaren (1993) esanetan armadun humanistak dira.

Beste hainbeste dio Apalategik (1990) ere bortxa politikoan dabilena herriko pertsonarik entregatu eta solidarioena dela dioenean, eta duten ahalmen intelektualaz dioenez, ez omen dira besteak baino inteligenteagoak ezta inozoagoak ere, eta jarraitzen du esanez, bortxa politikoan zenbait urtetan ihardun ondoren ekintza armatuok utzi eta bizitza instituzionalera itzuli diren zenbait pertsona, gorengo erantzunkizuna eskatzen duten ekonomi lanpostuetan zein politiko, kultural, etabarretan aritzen direla gaur egun.

## 4.2. Euskal nazionalismoa

### 4.2.1. Euskal nazionalismoaren irakurketa ezberdinak

Sabino Arana Goiriren garaian (1865. urtean jaioa) mamitzen hasi eta gure egunetan Euskal Herriko biztanleriaren gehiengoa harrapatzen duen abertzale sentimendua litzateke beste askoren ustez Euskal Herrian gertatzen den bortxa politikoaren sortzailea.

Euskal nazionalismoaren mugimendua, Euskal Herrian den gaitzik haundienetakotzat agertzen du zenbaitek eta halatan, arrazista, separatista, inposatzaile, espainolenganako gorrotoaren adierazle, eta beste modu askotara izendatzen dute mugimendu hau.

Agerraldi hauetaz ere esan daiteke, ez direla oso urruti geratzen betiko iseka eta haserraldien adierazpenak. Euskal nazionalismoaren ideologia eta bere helburuak badirudi, gaizki ulertuak izan direla sarritan edota manipulatuak agian zenbait ideologia nahiz interes politikoaren arabera. Gauzak horrela, errazago uler daiteke euskal nazionalismoa arraza gorengo baten defentsarako mugimendu gisa edota espainiarrenganako mespretxuaren iturri gisa eta xenofobia moduko mugimendua besterik ez bailitzan ikusia izatea. Euskal nazionalista zein separatistak arrazista batzuk direla esan ohi da, euskal nazionalismoak euskaldunen ezberdintasunak goraiatu eta espainiarrenganako gorrotoa eta mespretxua adierazten dutela alegia.

Sabino Aranak Euskal nazionalismoaren tamainako mugimendu politikoa martxan jartzean dio Areilzak (Arteagak aipatua 1971), arazo larria sortu zuela Espainiako elkarbizitzan ondorio larriak bizieraziz eta nozitzuz orain dela urte gutxi arte. Sabino Aranak nazionalismo sentimentua biztu izan ez balu eta euskaldunok identitate espainiar sentimenduaren prozesuaren barnean jarraitu izan bagenu, esan nahi digu Areilzak, gaur egun ez legokeela gatazka politikorik Euskal Herria eta Espainiako Estatuaren artean ezta bortxa politikorik ere.

Beraz, Euskal Herria eta Madrilen arteko gatazka nahiz bertan gertatzen den bortxa politikoa euskal nazionalismoak ekarri digun ondorio txarra dela esan nahi ote da? Euskal nazionalismoa sortu ez balitz hain zuzen ere, egun euskaldun guztiak espainiar sentitu eta bakean biziko ginatekeela? Euskal nazionalismoa egon ez balitz ETA talde armatua ez genukeela ezagutuko?

Beste zenbaitek ostera, irakurketa gutziz ezberdina egiten dute euskal nazionalismo mugimenduaz eta ildo horretan, euskaldunen balio etniko-kulturalen zuzpertzzailea dela azaltzen dute; herri minoritarioen eskubideen defentsarako ere bai; herriaren nortasunaren askapenerako mugimendutzat edota Euskal Herria

nazio modura errekonozitu eta Estatu espainiar zein frantziarretik bereizteko mugimendu gisa, Lorenzo Espinosaren (1992) esanetan esate batera.

Zulaikak eta Douglass-ek (1994, 104. or.) esaten diguten modura bederen, "mugimendu hau hein handian euskal kulturak egun batetik bestera desagertzeko arriskua zuela susmatu zelako izan zen zuzpertia". Autore hauen baitan, Euskal Herri eta Estatuaren arteko gatazka existentziala da, Euskal Herriaren identitatea jokoan dagoenez, eta geuk ere berdin diogu 8. ataleko lehen hipotesia interpretatiboan.

#### 4.2.2. Euskal nazionalismoaren sorrera

Nazionalismoak, dakigun bezala, ez dira egun batean eta beste arrazoirik gabe sortzen. Aldiz, baldintza bereziak behar dira mugimendu garrantzitsuok eragiteko.

Europako zenbait nazionalismoren sorrerak eta lurralde azpigaratuetan izan direnak bereziki, badirudi ekonomi arazoekin lotu izan dituztela zenbait azterlarik. Europako zenbait nazionalismo mugimendu bertan eragindako ekonomi krisialdiak sortuak izan direla uste izan da.

Euskal Herriko ekonomiaren garapen eta bertako bizitzaren maila kontutan hartuz, ezin esan da euskal nazionalismoa arazo ekonomikoen ondorioa izan denik. Teoria honek ez luke baliorik Euskal Herriko nazionalismo mugimenduaren kasuan eta, hala dio Linz-ek (1986) ere. Euskal Herrian bizitako industriaren ezaugarri eta krisialdi politiko nahiz sozialak, gehienez ere, euskal nazionalismoa areagotu besterik ez duela egin esaten baitu.

28. taulan 1979. urteko erreferendumaren aurretik egindako inkesta baten ondorioak agertzen dizkigu Linz-ek (1986, 97. or.), eta bertan egoera ekonomikoak euskaldunen independentziarako jokabideetan izan duen eragina azaltzen digu. Taula honetan elkarriketatuak izan diren 1.025 lagun hauetatik, % 47k ez du bere independentziarako jokabidea aldatu Euskal Herriko ekonomiaren egoeratik; ezta % 49k ere Euskal Herrian dagoen langabeziatik; % 46k bertako enpresak beste lurralde batzuetara eramanak izateagatik eta % 51k lan egoeratik. Badira zenbait, eraginik izan duela diotenak, baina askoz gehiago dira ezezkoa esaten dutenak. Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko biztanleriak, ez du independentzia lortzeko gogo handiagoa Euskal Herriko ekonomia egoeraren arabera. Alor honetan alderantziz gertatu dela dio Linz-ek, ekonomi egoera, langabezia, bertako enpresak beste lurralde batzuetara eramanak izatea eta lan egoera hori dela eta, euskaldunen independentziarako gogoak gutxiagotu egin dira. Hortaz, Euskal Herriaren kasuan ez dago esaterik ekonomi krisialdia eta independentziarako asmoak lotu daitezkeenik.

Nazionalismoa, Europako beste lurralde batzuetan marginatu eta pobre ugari zen eta ekonomia okerragotzen ari zen lekuetan izaten zela uste bazen, Espainian kontrakoa gertatu da, lurralde aurreratu, industrial, aberats eta ekonomikoki pribilegiatuak diren zenbaitetan baita. Teoria honen arabera aitortu beharko litzateke, nazionalismoa Extremadura, Andalusia, Gaztelan, etab. izan beharko lukeela esatebaterako, Espainiako lurralde txiroagoetan alegia eta ez Katalunian edota Euskal Herrian.

Zulaika eta Douglass-en (1994) ustetan, nazionalismoaren sorrera, Euskal Herrian zen industrializazio eta urbanizazio hazkunde handia gertatu zelako izan zen eta, ondorioz, Euskal Herrira etorritako inmigrante kopuruagatik ere bai, ikusirik euskal kultura eta hizkuntzaren erabilera atzerakada nabarmena jasaten ari zirela.

Linz-en (1986, 485-486. or.) ustetan ere, Euskal eta Kataluniar nazionalismoen zergatiak bertara etorritako inmigrante elebakardun eta hauen proportzioan leudeke alde batetik eta Euskadi nahiz Katalunian izaten den elebitasun nahiz nazionalitate bikoitzean. Euskadira nahiz Kataluniara inmigrante asko etorri izateak gizarteratze arazoak sortu ditu bi Komunitate Autonomo hauetan.

*"Euskal Herriak eta Kataluniak badute ezaugarri amankomuna: beste lurraldeetatik etorritako inmigrante kopuru handia, eta honetan alde dexentea daukate Europako beste edozein herrialde elebidun edo binazionalekin. Izan den garapen ekonomikoak eta batez ere industrialak azken mende bukaeran, eragin du Espainiako beste herrietatik inmigrante asko eta asko etortzea bi herrialde horietara, eta gehiengoa gaztelaniaduna izanik ...*

*Meategietara lan egitera etorri zen inmigrazio kopuru handiak batetik, eta Bizkaiko Industria, zalantzarik gabe bestetik, izan ziren lehenbiziko euskal nazionalismoaren sorrera bultzatu zuten faktoreetako bat, inmigrazio horrek guztiak zekarren nortasun galerari aurre egiteko, (...). Bai halaxe da, inmigrante kopuru dexentea, gehiengoa zonalde batzuetan kokatu izana, zenbait udalerritan bertakoak baino gehiago izanik eta ondorioz horrek guztiak gizarteratzeko, kultura eta hizkuntza bereganatzeko dakartzan zailtasunek egin dute Euskadi eta Kataluniako bizimodu politikoa korapilatsu."*

Linz-ek ere industrializazioa dela eta, Euskal Herrira etorritako inmigrante kopuru handiegiari eta honek sorturiko gizarteratzeko arazoari leporatzen die euskal nazionalismoaren sorrera. Inmigranteok, dio, herrialde batzuetan pilatu ziren eta zenbaitetan bertakoak baino gehiago izatera iritsiz, berez horrek gizartean txertatzeko nahiz kultura eta hizkuntza bereganatzeko zekarzkien arazoak metatuz.

29 eta 30. tauletan Euskal Herriak 1970. urtean zuen biztanlegoa agertzen da bertakoen eta inmigranteen kopuruak azalduz aldi berean. Euskal Herriko biztanlegoa 2.333.866 lagunek osatzen zuten. Horietarik 1.645.762 lagun bertakoak ziren eta 688.104 lagun berriz, Espainiako zenbait lurralde zein Estatuz kanpotik

etorritako inmigranteak (Sanchez 1978, 16-17. or.). Datu hauen arabera Euskal Herrira etorritako

inmigrante kopurua haundiegia gertatzen da. Bizkaian esatebaterako, bertakoak 663.790 lagun lirateke eta inmigranteak, berriz, 377.667. Ohar gaitzkeenez, lurralde honetara etorritako inmigranteek biztanlego osoaren herena baino gehiago suposatzen zuten eta Euskal Herrian orohar ere antzera samar dabilta inmigranteen kopuruak.

Espainia nahiz Estatz kanpotik etorritako inmigranteen gehiegizko kopuruak euskal nazionalismo mugimendua zuzpertz zuela ulertu behar da, inmigrante eta bertako elebidun eta binazionalen artean integrazio arazoak zeudenez.

Sarrailh de Ihartzaren (1979, 298. or.) iritziz, nazionalismo edo separatismo mugimenduak, Euskal Herrian gertatu den industrializazio edota inmigrante kopuruagatik baino, Estatu batek minoria nazionalak desnazionalizatzeko prozesura behartzen dituenean sortzen dira.

*"Estatu batean gutxiengo nazionalak desnazionalizazioaren menpe badira politikoki desnazionalizatu nahi dituenengatik urruntzera, banatzera joko dute minoria nazionalok, mugimendu nazionalista edo separatistak sortuz ondorioz. Ia ohizkoa da, logikoa, mugimendu nazionalista oro separatista izatea, zeren eta menperatutako etniek ezin baitute inoiz ziur egon estatu-nazioak zor liokeen errespetua izango duen, beren esanetara egon behar badu..."*

*Euskal nazionalismoa, Madriletik inposatu nahi zen gaztelakeriaren aurka aritzeko jaio zen, hots, berezko kultura eraso nahi duen Estatuari oposizioa egiteko."*

Sarrailh de Ihartzaren iritziz, nazio minoritarioak errespetatzen ez diren heinean sortzen dira nazionalismoak eta horiek separatistak izatea logikotzat jo behar omen da ez baitira Estatu-nazioaren asmoz fidatzen.

Euskal nazionalismoa, jarraituko du esanez, Madriletik inposatu nahi izan duten "gaztelaritze"aren aurkako erreakzio gisa jaio zen, euskaldunen kultura menderatu nahi zuen Estatuaren aurkako erantzuntzat.

Gauzak horrela, euskaldunek esango digu, beren hizkuntza, balio kultural eta euskaldun identitatea, besteak beste, galtzeko arriskuan ikustean, Euskal Herria Estatu independentea izatea nahiko dutela, horrela norberaren interesak hobeto zaindu ahal izateko. Eta euskal nazionalismo mugimenduak euskal identitatea zuzpertzten eragina izan duela nabaria bada ere, ezingo zaio Euskal Herri eta Madrilen arteko gatazka zein bortxa politikoa arduratzen nazionalismoari leporatu Areilzak dioen modura.

Euskal nazionalismoa sortzeko izan ziren arrazoi ezberdinetan ez da ikusten mugimendu hori inoren aurka aritzeko bideratu zenik. Euskal nazionalismoa ez da sortzen Espainiako balio kulturalen aurka iharduteko;

Espainiako biztanleria mespretxatzeko; edo Espainiako eskubide nazionalak erasotzeko. Asmo hauetatik urruti, euskaldunen balio kultural eta eskubide nazionalak zaindu eta bideratzeko baizik ez zen sortu euskal nazionalismoa (Gallastegi 1993). "Erasotzailea" ez da euskal nazionalismoa izan, justu alderantziz, euskaldunak dira "erasoa" sufritzen dutenak nazionalismoa sortu aurretik ere. Erasoa kanpotik dator kio Euskal Herriari bere balio kultural zein nazio eskubideak errespetatuak ez izaterakoan. Euskal nazionalismoa Sarrailh de Ihartzak dioen bezala, menderatuta zegoen nazioan sortzen da.

Horrela bada, euskal nazionalismoaren jaiotza, garapena eta herri honetan bizi den gatazka zein bortxa politikoa esan daiteke, Espainiako gobernu ezberdinek herri honetan inposatu duten politika ezegoki baten ondorioa dela.

Aitor daiteke baita ere, Espainiako gobernu ezberdinek euskaldunen balio etniko-kulturalak onartu, sustatu eta bideratu izan balituzte, oztupoak jarri beharrean, gaur egun ez zela Espainiako estatu eta Euskal Herriaren artean ezagutzen dugun arazo larria izango. Edota, Espainiako gobernu ezberdinek herri minoritario honi espainiar identitate prozesura behartu beharrean euskaldun identitateko bidea onartu eta eskubide nazionalak errespetatu izan balituzte ez zen gaur egun bien arteko gatazka politikorik izango.

Sabino Aranak euskal nazionalismoaren adinako mugimendu politikoa martxan jartzean, Espainiako elkarbizitzan arazo larria sortu zuela baino, Espainiako Gobernu ezberdinek eramandako politika ezegokiak euskaldunen balio kultural eta nazio eskubideak ez errespetatzean arazo larria sortu zutela esango genuke, Espainiako Estatu eta Euskal Herriaren arteko elkarbizitzan.

### 4.2.3. Euskal nazionalismoaren garapena

Euskal nazionalismoa mugimendu sentimental eta estatikoa bazen edo hala bazirudien orain urte batzu, ez da horretan geratu gaur egun ongi asko ohar gaitzkeenez, hain zuzen ere, mugimendu dinamiko eta emankor bilakatu baita denboraren poderioz. Euskal nazionalismoak eragin handia izan du Euskal Herriko biztanlegoagan azken urteotan eta nazionalismo sentimentua argia da, Euskal Herriko biztanleriaren gehiengora iritsi baita. Hitz hauetaz hobeto jabetzeko, egokia deritzot estatistikak euskaldunen identitateaz, hauteskundeetako ondorioez, independentismo sentimentuaz, autodeterminazio eskubideaz eta... eskaintzen dizkigun zenbait datu azaltzeari.

31. taulan esate batera (Linz 1989, 40. or.), Euskal Herriko bertakoen eta inmigranteen identitatearen datuak agertzen zaizkigu, bertan 1979. urteko azaroan egindako inkesta batean lorturiko ondorioak ematen direlarik. Datu horien arabera herri honetako biztanleriaren % 14,5 bakarrik sentituko da espainol eta % 5,8

espainola euskalduna baino gehiago, bi hauen artean % 20,3 osatzen dutelarik. Euskaldun soilak % 39,7 identifikatuko dira eta euskaldunagoa espainola baino % 12,6 hauek biak guztira % 52,3 osatuz.

32. taulan beste aldetik, 1.000 laguni bere identitateaz egindako bigarren inkesta baten datuak agertzen zaizkigu. Inkesta hori IPC/Research delakoak Euskal Komunitate Autonomoan 1989. urteko otsailean egin da eta "Diario 16" aldizkariak 1989ko otsailaren 19an argitaratua (Egin urtekaria 1989, 160. or.). Datu horien arabera, herri honetako biztanlegoaren % 4 bakarrik sentitzen da espainola eta % 4 baita ere espainola euskalduna baino lehenago, bi horien artean % 8 osatzen dutelarik. Euskaldun soil gisa % 35 identifikatuko dira eta euskaldunagoa espainola baino % 23, bi horiek guztira % 58 osatuz.

31. eta 32. taulotako datuen aurrean, Euskal Herriko biztanleriaren identitatean aldaketa nabari dela esan beharra dago 1979 eta 1989. urteen arteko hamarkadan. Euskalduna soilik eta euskaldunagoa espainola baino gehiago identifikatzen direnen batura % 5,7ra igotzen da eta espainol soilik nahiz espainola euskalduna baino gehiago sentitzen direnen batura % 12,3ra jaisten da.

33. taulan adina, sexua, bizilekua eta identitate nazionalaren arteko harremana agertzen da (Linz 1986, 54. or.). Gazteen artean, gutxiago dira espainol gisa identifikatzen direnak helduen eta adinekoen artean baino. Adin ertainekoak dira espainol identifikazio haundiena dutenak, berori inmigrazioaren eraginagatik izanik, Linz-ek dioenez. Gauza berdina esan daiteke espainolago identifikatzen direnetaz euskalduna baino. Aukera hau ere neurri txikiagoan gertatzen da gazteen artean, datuak aurrekoan bezain argiak ez badira ere. Euskaldunago espainola baino eta euskalduna soilik identifikatzen direnen artean ordea, alderantziz gertatzen da. Gazteen artean oraingoan gehiago ematen dira aukera honetakoak helduen edo adinekoen artean baino. Orohar esan daiteke euskal identifikazioa gehiagotuz eta espainol identifikazioa gutxiagotuz doala belaunaldi gazteak etorri ahala. Edo beste era batetara esan badaiteke, euskal nazionalista identifikatzen direnak gehiagotzen eta espainol gisa identifikatzen direnak gutxiagotzen ari direla, adieraziko genuke.

Euskal Herrian egin diren hauteskunde ezberdinetako emaitzak urtez urte begiratzerakoan, ideologia nazionalisten gorakada nabari da baita, azkenekoetan zerbait jaitsi arren. Euskal Herriko alderdi politiko nazionalisten (PNV + HB + EE + EA) gorakada izugarria dago 1977. urteko lehen hauteskundeetatik (% 26,33 lortu zuten) 1986. urtera bitartean (% 46,85) % 20,52ra igotzen baita. Nazionalisten kopurua aipaturiko 9 urte hauetan ia bikoiztu egin dela esaten digu Villarreak bere tesian. Euskal Herrian dauden aukerabide estatalistak (PSOE + UCD + AP + CDS) berriz beherakada nabarmena izan du % 37,75tik 21,02ra edo % 16,73ra jaisterakoan. Urteotan boto estatalista ematen dutenak ia erdira iritsi dira.

Euskal Herriko biztanleriak independentismoaz egin duen bilakaerari begiratu bat emango bagenio beste aldetik, berorren gorakada izugarriaz konturatuko ginateke. Villarreak bere tesian 34. taulan ematen diren datuak agertzen dizkigu. Taula honetan begizta daitezkeenez 1976. urtetik 1984. urtera bitartean % 9tik % 35era iritsi dira independentziaren aldekoak.



"Gasteizko Jaurlaritzako Lehendakaritzaren Sailaren Ikerketa Soziologikoetarako Kabineteak" Euskal Komunitate Autonomoan 1989. urtean independentismoaz egindako beste inkesta batetan % 28 guztiz ados agertzen dira eta % 12 akort partzialki; bion artean % 40 osatzen dutelarik 35. taulan agertzen den modura. Ehuneko seia, berriz, partzialki kontra agertzen da eta % 30 guztiz kontra, bi hauen artean % 36 osatzen dutelarik; (Egin urtekaria 1990, 152 or.).

Sigma DOS S.A delakoak, Hego Euskadiko 800 laguni 1988. urteko azaroan euskaldunen independentziaren aldeko botoa emango luketen galdetzerakoan % 46k baietza eman zuten; % 18k ezezkoa; % 13k ez lukete botorik emango eta % 23k ez dakite, ez dute erantzuten (Egin urtekaria 1989, 160. or.).

Euskal Komunitate Autonomoan 1987. urteko abenduan Eusko Jaurlaritzak enkargatu eta 1.400 lagun galdetuak izan ondoren % 42 independentziaren alde agertzen dira eta % 40 kontra (Egin urtekaria 1988, 157 or.). Eusko Jaurlaritzaren aginduz 1987. urteko urtarrilean egindakoan % 42 alde eta % 34 kontra (Egin urtekaria 1988, 157. or.). ETBk Euskal Elkarte Autonomoan 1.600 pertsonari egindako inkestan % 34 aldekoak % 33 kontrakoak (Egin urtekaria 1988, 157. or.). Eta azkenik EAK Euskal Elkarte Autonomoan 1.200 laguni egindako inkestan % 49 alde eta % 24 kontra (Egin urtekaria 1988, 157. or.).

Azaldu diren inkesten ondorioetan, emaitza ezberdinak daude Euskal Herriko independentziaren alde nahiz kontra azaltzen diren datuetan, baina orohar eta lehenik esan daiteke, beti ere gehiago direla independentziaren

alde azaltzen direnak, aurka baino. Bigarrenik, Euskal Herriaren independentziaren aldeko direnak, bigarren aukera baino bi aldiz gehiago izatera iristen direla zenbaitetan. Eta azkenik, biztanlegoaren ia erdia independentziaren alde agertzen dela "guztiz ados" eta "ados partzialki", erantzun dutenak kontutan hartuz gero.

Euskal biztanleriari autodeterminazioaren aldekoa den galdetzen zaionean 36. taulan ematen diren datuak agertzen dira. Taula hori osatzeko 1.000 inkesta egin ditu IPC/Research delakoak Euskal Komunitate Autonomoan 1989. urteko otsailean (Egin urtekaria 1989, 160. or.). Ikusten denez % 56 autodeterminazioaren aldekoak lirateke eta % 24 kontrakoak.

1991. urteko uztailean, Katalunia eta Euskal Herriatik autodeterminatzeko duten eskubideaz Euskal Komunitate Autonomoko 1.200 laguni galdetzerakoan, % 70 izan ziren Euskal Herriak autodeterminatzeko eskubidea duela ziotenak eta % 21, berriz, eskubide honen kontrakoak (Egin urtekaria 1991, 108. or.). Datu hauetan, Euskal Herriaren autodeterminazioaren aldekoak gehiago dira, Euskadin independentzia izan dadin nahi izango luketenak baino eta areago oraindik, Euskadik autodeterminatzeko eskubidea duela onartzen dutenak (% 70).

Datu estatistikootan gauza bat dago garbi, euskal nazionalismoa, mugimendu sentimental eta estatikoa bazirudien orain urte batzuz, ez dela horretan geratu, alderantziz baizik, mugimendu bizi eta zeharo emankor bilakatu dela denboraren poderioz, lehenago esan dugun bezala.

Euskal nazionalismoa esan daiteke, mugimendu sentimental eta estatikoa izatek, mugimendu indarberritu eta erreibindikatioa izatera iritsi dela, bortxa politikoa onartzeraino iritsiz Euskal nazionalismo mugimenduko zenbait sektore.

Aipatutako mugimendu nazionalistaren zergatia hobeto uler dezagun, bizpahiru datu gahiago emango ditugu. "Herri honetan euskaldunen eskubide historikoek onartu gabe jarraitzen dute oraindik" esaldiari % 56k guztiz ados daudela erantzuten diote eta % 16k kontra, Ruiz de Olabuenagak (1985, 92. or.) agertzen dituen datuen arabera. Euskal biztanleriaren erdia baino gehiagok, euskaldunen eskubide historikoak onartu gabe daudela kontsideratzen du gaur egunean oraindik.

Soziologo honek, Villarreak bere tesian dioenez, hamabi mila gaztetxoz osaturiko laginketa batekin egindako beste azterketa batean, gehiengoak Euskal Herria zapalduta dagoen iritzia agertzen du. Eta horrela: "euskaldunok berezko kulturarik gabeko herri baten modura tratatzen gaituzte Espainiako Estatuan, beraiena inposatu eta geurea garatzen utzi gabe" esaldiari % 49k guztiz edo partzialki ados daudela erantzun diote %

37k guztiz edo partzialki kontra. "Euskal Herriaren nortasunarenganako errepresioa, lehen izaten zen bezain indartsu izaten jarraitzen delako uste osoa dut" esaldiari % 55k guztiz edo partzialki ados eta % 27k guztiz edo partzialki kontra. "Euskadi indarrez hartuta dagoen herria da" esaldiari % 44k guztiz edo partzialki ados eta % 36k guztiz edo partzialki kontra agertzen dira. Hemen ere erdiak dira gutxi gorabehera Euskal Herriarekiko zapalkuntza salatzen dutenak.

Pentsa daitekeenez, euskaldunen eskubide historikoak kontutan ez izateak eraman zuten Sabino Arana eta bere lagunak euskal nazionalismoa bultzatzera garai batean eta arrazoi berek diraute baita ere gaur egunean, euskal nazionalismo erreibindikatioa zein bortxa politikoa justifikatzerakoan.

Zentzu beretik arituz, zerbait gertatzen da Euskal Herrian, dio Cerecedak (1987) Europa barruan hain herri txikia izanik eta, tamaina honetako arazoak sortzeko.

*"Herri honek zer edo zer izan behar du, Europa mailan hain txikia denean, eta berebiziko garrantzia duten arazoak sortzen dituenen. Eta ez bakarrik Estatu espainiarrari.*

*Izan ere, euskal askatasun nazionalen aldeko borroka izan da, hain zuzen ere, eta egun horrela dirau oraindik, dagoeneko atzerazina den prozesuaren ardatza, estatu espainiar eta frantsesek behin eta berriz ebatsi eta ukaturiko askatasun nazionalak alegia. Horrek guztiak, errebelldiazko sentimendua sortarazi du eta gutxienik pittin bat aurreratuta dagoen demokrazia izateko gogo grinatsu eta bizia. Baina ez, bere aspektu formalean ulertutako demokrazia, ez alajaina, baizik eta Euskal Herriari oraina eta etorkizunaren jabe izateko bide emango dioten baldintzetakoa."*

Euskaldunen askatasun nazionala litzateke Cerecedak dioenez, prozesu guzti honen eragilea ere. Estatu espainol eta frantsesak euskaldunen askatasun nazionala behin eta berriro ukatu eta etorkizunerako burujabetza oztopatzerakoan izango litzatekeena hitz batean.

### 4.3. Iragandako gerrate zibila eta ondorengo diktadura

Iragandako gerratea eta ondoren izandako diktadura aipatuko dira baita ere, Euskal Herrian hain ugari diren talde errebindikatiboak eta bortxa politikoa gertatzeko arrazoitzat. Gerratea eta diktadura, bata eta bestea orain urte gutxi gertatutakoak dira eta esperientzia guztiz ezatsegin eta mingarritzat gogoratzen dira gaur egun oraindik ere, euskal biztanlegoagan.

Espainiako gerrate zibilak kalte material eta pertsonal izugarriak eragin zituen Estatu osoan eta, gauza berdina esan behar da, Euskal Herrian bizi izan zen frankismoaren erasoari buruz (Southworth 1977).

Jackson-ek 200.000 lagun aipatzen ditu exekutatuak izan zirenak Espainiako gerrate zibilaren ondoren (Suárez-ek aipatua 1976). Letamendiak (1978) beste aldetik, ehun mila errepublikarrek heriotz zigor epaia izan eta hil egin zituztela dio 1939. urteko maiatzetik 1940. urteko maiatzera bitartean. Hau guztia urte batean gertatu zelarik, eta jarraitzen du esanez, Bilbo bereganatu ondoren 42 gudari exekutatzen zirela egunero "EL Dueso" izeneko espetxean, exekuzioen erritmoa gutxiagotuta bazegoen ere garai horretarako. Erauskinek (1994) esaten duenez, zaila izango da komentaria eta historiagileak bat etortzea Euskal Herrian hil zirenen kopuruetaz baina euskal kausa eta Errepublikaren alde hildakoak 10.000 dira Estornes Lasaren arabera, 20.000 hildako eta zaurituen artean Steer-enen arabera, 32.000 Manuel Aznarren ustez eta 35.000 Gamir Ulibarri jeneralaren arabera.

Cueva-k (1988, 95. or.) ere beste zenbait datu eskaintzen dizkigu Euskal Herriak gerrate zibil honetan eta ondoren jasandakoei buruz. Datu hauek, Astillarra (goitizena) jaunak Euskal Herria, Espainia, Alemania, Italia eta Frantziako zenbait dokumentutan jasotakoak omen dira:

- Gatazka eremuetan hildako euskaldunak,	10.800
- Hegazkinek hildako euskaldunak,	15.200
- Larriki zauritutako euskaldunak,	49.500
- Asesinatu edo fusilaturiko euskaldunak, (1.939. urteko martxora arte)	21.780
- Preso edo zigor eremuetan (1.939. urtean)	86.550
- Atzerrira behartuak edo borondatez joanak,	150.000
- Beste era batera zigortuak izan ziren euskaldunak	595.800
	-----
GUZTIRA	929.630

Datu horietan ikus daitekeenez frankismoa legezkoa zen, Espainiako II. errepublikaren aurkako altxamenduaren ondorioz 47.780 euskaldun hil ziren era desberdinetan, besteak beste, gatazka eremuetan

(10.800), hegazkinek hildakoak (15.200), asesinatu edo fusilatuak izan zirenak (21.780). Gerrate zibilean hildako guztiak gainera ez dira zerrenda honetan agertzen, asesinatu edo fusilatuak izan ziren euskaldunak 1939. urteko martxora bitartekoak bakarrik azaltzen baitira eta larriki zaurituak izan ziren 49.500 lagunetako zenbait, beste aldetik, zaurien ondorioz hilak gertatu baitziren.

Zifra izugarriak dira preso edo zigor eremuetan 86.550 euskaldun aurkitu izana, 150.000 euskaldun atzerriratu edota 595.800 euskaldun beste era batera zigortuak izatea.

"Beste era batera zigortuak" izan ziren euskaldunak, dio Lipúzcoak (1973), honako tratu-moduok izan zituztela: gartzeleratze moderatua; egunero edo aldian behin polizia nahiz goardia zibilen koarteleetan sinadura egitera agertu beharra; kontu korrenteen bahitura; altzari, etxe nahiz negozioen bahitura; 10.000 pezetatik gorako isunak (1939. urtetakoak); karguak uztea; enpleguak; soldatak; etab...

Euskal Herriko lau lurraldetako biztanlegoa 1.324.000 lagunek osatzen zutela kontsideratuz, dio Cueva-k % 70,22k sufritu zuten frankismoaren bortxaren lehen erasoaldia, aldiko lau pertsonatik ia hiruk frankismoaren eraso bere soinean jasan izan zuen.

Datuok bere horretantxe ikusita hotz gertatzen da hildako, zauritutako edota hitz batean kaltetuak izan ziren pertsonen zerrendak zenbaki huts batzuen bidez agertzea. Gerrate zibilak gure herrian eragindako kalteak adierazteko, hitzak nahikoak ez direnez, lagungarri zaigu zenbakien laguntza frankismoaren erasoak herrian eragindako sufrimenduak halakoak zirela adierazteko.

Frankismoa aipatzerakoan, badirudi orain urte asko gertatutako gauzez ari garela, gaur egun inor gutxi gogoratzen den historiaz alegia, edota gaur eguneko herritargoaren arteko gutxi batzuk bizi izandakoaz.

Ruiz de Olabuenagak (1985) ostera, alderantzizko datuak agertzen dizkigu. Idazle honek 1984. urtean 18 urtetatik gorakoei inkesta egin ondoren, erantzuleen arteko % 15 ageri ziren frankismoaren eraso bere larrutan edota bere familiako senideren batek sufritu izana. Eraso horrek dio idazleak, errepresio ekonomikoa, espetxea edota hilketa bera jasan duten 238.000 lagun suposatzen duela, hau da, 1984. urtean frankismoaren eraso bere larrutan edo senideren batek sufritu duen 238.000 lagun bizi zirela oraindik Euskal Herrian.

Francisco Francok euskaldunen aurka zuzendutako erasoak, ez da besterik gabe gerrate zibilak eragindako kalteetan geratuko. Euskal Herrian sufrimendua eta errepresioa izan ziren urteek aldiz, luzaro irauten dute. Euskaldunei emandako zigorra ez da nahikoa dirudenez, izan ere, urteetan irauten duen errepresioari hasiera emanez Bizkaia eta Gipuzkoari zegozkien kontzertuak ukatu eta herrialde traidoretzat joak izan ziren bi lurraldeok 1937. urtean dagoeneko. Bizkaia eta Gipuzkoa, beste herrialde guztietatik bereizi nahi izan ziren garai hartan eta era berezian zigortuak izateko ahaleginak eta bi egin zituzten. Neurri horren bidez gainera, ez zegoen herrialde haueko pertsona jakin batzu zigortzeko asmorik Bizkaia eta Gipuzkoa osoa baizik.

Euskal kutsua izaten zuen edozer suntsitu nahi izan zen eta hala zioen gaur egun PSO Eko idazkari orokorra den Benegas-ek (Erkiziak aipatua 1988, 25-26. or.) diktadura urteetan Euskal Herrian bizi izandakoaz. Tamalez, 1977-78 urteetako PSO Ekideak halako ideia horien defendatzaile baziren, gaur egun aldiz, euskaldunak erreprimitu eta eskubide nazionalak oztopatzen aritzen direnak beraiek direla aitortu behar da.

*"Herrialde "traidoreek" errepresio basatia nozitu zuten Estatuko botere zentralaren aldetik, eta euskal kutsua zuen edozer (euskara, ikurriña, kultur iharduerak edo folklorikoak), gure herriarekin zerikusia zuen eta garrantzizkoa zen guztia pertsegitua eta debekatua izan zen amorru eta gorroto biziz. Lurraldeotako herria, etengabe eta indiskriminatuki erasotua izan balitz bezalaxeko zentzazioa duela bizi izan da."*

Herrialde traidoreak basaki errepresaliatuak izan ziren eta nortasun euskalduna zuten era guztiak (euskara, ikurriña, kultura nahiz folklore ekintzak) grinatsuki debekatuak izaten zirela esan zuen Benegas-ek Euskal Herriko PSO Eren I. Kongresua irekitzerakoan. Eta honela jarraitu zuen esanez; lurralde honetako herria, uneoro erasotua eta indiskriminatua izan zeneko zentzazioaz bizi izan zela urte haietan.

Euskaldunek, gogorkeria gordinez errepresaliatu eta umiliatuak izan arren ez diote amore ematen frankismoari. Euskaldunen artean, Franco hiltzailatzat hartua izateaz gain, herri honen kultura nahiz eskubide nazionalak inoiz errespetatu ez zituen pertsonaiatzat hartzen da. Frankismoa, euskaldunen arerio moduan ikusia izaten zelako hain zuzen ere, zilegitasun arazo handiak izan zituzten Estatuko instituzioek, eta langileriak nahiz herritarrek beren eskubideak eskatzeko egiten zituzten protestaldiak erreprimitzeko salbuespen egoerak behin eta berriro inposatu beharrean aurkitu zen "ordena" eta "bakea" egon zedin Euskal Herrian. Hori adierazterakoan, esan nahi dudana, Frankismoa beti, euskaldunen edozein ezadostasun agerraldiei erasotzeko, armen indarrez baliatu izan zela da eta horrela, salbuespen egoera bederatzi aldiz ezarri zuela Gipuzkoan 1956. urtetik 1975. urtera bitartean, zazpi Bizkaian eta lau aldiz, Araba eta Nafarroan.

Salbuespen egoerak, Espainiako Konstituzioak biztanlegoa babesteko zituen zenbait eskubide baliorik gabe utzi zituen denbora jakin batean, hala nola; 12. artikulua edo norberaren ideiak askatasunez adierazteko eskubidea; 14. artikulua edo norberaren bizilekua aukeratzeko eskubidea; 15. artikulua edo norberaren etxean inor sar ez zedin edo erregistroak egin ez zitzateneko eskubidea; 16. artikulua edo bilerak egiteko nahiz elkarteak sortzeko eskubidea; 18. artikulua edo legeriaren aginduz kanpo atxilotuta nahiz komisaldegian 72 ordu baino gehiago ez iragateko eskubidea.

Salbuespen egoeretan baliorik gabe uzten ziren legeak, eta Bruni-k (1987) esaten duen bezala, ez zuten gauza haundirik suposatu Euskal Herriari zegokionean, bestela ere, ez baitziren errespetatuak izaten legeok. Horrekin guztiarekin esan nahi dena zera da, polizia nahiz goardia zibilek salbuespen egoerak direla

bide, edo izan gabe ere, noiznahi zigortzen zutela norberaren ideia politikoak askatasunez adierazten ausartzen zena; bai polizia bai goardia zibilak noiznahi sartzen zirela etxeetan eta erregistroak egiten zituztela; polizia zein goardia zibilak noiznahi atxilotu eta 72 ordutatik gora edukitzen zituztela atxilotuta komisaldegian edonor; polizia dela goardia zibila dela edonoiz debekatzen zituztela taldean biltzen zirenak edo elkarteak sortzen zituztenak; polizia edota goardia zibilak noiznahi... salbuespen egoeraren bidez, jarraitzen du idazleak esanez, botere erabatekoa daukan poliziaren eskuetan utzi zen herritargoa. Salbuespen egoera tarteko, beldur kolektiboa sortu, koadro politikoak izutu eta frankismoaren aurkako ekintza herritar oro galeraztan dira. Ekiteko modu honekin gainera, Euskal Herriaren aurkako errepresioa eragiteaz gain, polizia, eskuin muturreko indar nahiz talde parapolizialak aske utziz, herritarrek nekez ahaztuko duten eskarmentua eman nahi izango da.

Erregimen frankista, euskaldunetz sarri eta maiz askotan gogoratu izan dela frogatzeko, beste zenbait arlotara jo besterik ez dago. Egin ditzagun aipamen labur batzu soilik euskaldunen hizkuntza dela eta, haurrak ikastetxeetan bizitako lehen errepresio esperientziez adibidez; euskal kulturari ipinitako zenbait traba edota langileriak bizitako erasoaldiez ere.

Hizkuntzari dagokionez, ETAKideak izateagatik eta Burgoseko prozesuan epaituak izan ziren Jone Dorronsoro Zeberio, Itziar Aizpurua Egaña eta Mario Onaindia Natxiondo jaun andreek haurtzaroon bizitako hizkuntza nahiz kultur zapalkuntzarako bideak salatu zituzten epailearen aurrean, urte haietaz gogoratzen zituzten zenbait irudi agertuz. Eta horrela; ergelkeriaz eta garrantasunez beteriko andereñoak haurrak zigortzen zituela gaztelaniaz behar bezain ongi mintzatzen ez jakiteagatik, adierazi zuen Jone Dorronsoro Zeberio (Lurra 1978) andereak. Gurasoen etxean euskaraz soilik mintzatzen zen Itziar Aizpurua Egaña (Lurra 1978) andereak bestetik, jarraitu zuen esanez; Debako ikastetxean eta Euskal Herriko Haur Eskola guztietan gaztelaniaz ikasten dela, metodo bereziak erabiliz horretarako. Horietako asko basatiak ziren; makilkadak; bazkaldu gabe utzi; eskuak gurutzean jarrita egon arazi; "eraztunaren jokoa", euskaraz hitz egiten zuenari ematen zitzaion, eta honek euskaraz hitz egiten zuen beste norbait aurkitu behar zuen, azkenerako, eraztunarekin geratzen zena zigortu egiten zen egunaren bukaeran. Mario Onaindia Natxiondo (Salaberriak aipatua 1971) ere ez da atzean geratuko salaketa honetan. Ezaguera zuenetik, ikastetxera lehenbizi joan zenetik, konturatu zela, esan zuen herri osoak sufritzen zuen hizkuntz, kultur eta nazio zapalkuntzaz. Euskal Herri osoak nozitzen zuen opresioa hain gogorkeriaz beterikoa zen, jarraituko du, ezen haurrak ere oso ongi konturatzen baitziren.

Eta egia da, euskal kultura eta hizkuntzaren egoera tamalgarria zen frankismoan. EAJk 1960. urtean Bruselako Nazioarteko Dialektologia Kongresuan aurkezturiko txostenak, honako era honetan adierazten zuen (Letamendiak aipatua 1978): euskara debekatua izan da ofizialki baita irakaskuntzan ere. Haurrei euskal izenak ipintzea debekatuta, elizkizunak goizeko zortziak ondoren euskaraz egitea eragotzia,

hilerrietako oroitarriak euskaraz inskribatzea debekatu... Honen guztiaren ondorioz, idatzian zegoenari jarraikiz, euskararen mugak estutuz joango dira eta euskaraz mintzatzen den kopurua izugarri urrituko.

Erauskin (1994), izan ziren kalte kulturaletaz mintzo da eta Apalategi (1987) ere urte haietan euskal kulturari ipini zitzaizkion oztopoez aritzen da honako hauxe azalduz: frankismoaren okupazioaren lehen unetik debekatu egiten da "Euskal Herria" edo "Euskadi" izenak erabiltzea eta "Provincias Vascongadas y Navarra" eran izendatuak dira. Frankismoaren aurkako dokumenturik ezin da gorde, liburu, aldizkari, zein egunkari edo ikustentzunezkoak izan. Ez da onartzen Unibertsitatek Euskal Herrian. Unibertsitateko ikasketak egin nahi dituzten euskaldunek Euskal Herritik kanpora irtenez, Espainiako unibertsitateetara jo beharko dute. Ezin da aldizkari, egunkari nahiz libururik euskaraz argitaratu. Ikastolak, kultur elkarte zein literarioak, argitaletxeak eta lehiaketak bukatu dira. Olerkariak, bertsolariak eta euskal abeslariak isiltzera behartuta daude. Edozein erakustaldi folkloriko zein euskal dantzak debekatuak dira. Euskara, kaletik eta elizatik desagertarazi behar da. Eta honelaxe bukatzen du idazleak: egoera hori dela eta, eguneroko bizitzan mamitzen den beldurra deskribaezina da.

Garai hartan langileriak bizitako egoera bestetik, Amigok (1978) laburbildu digu ondorengoarekin: langileria elkartuz kapitalaren erasoetatik babestu eta geure artean laguntzeko eskubiderik ez zaigu onartzen; ez zaigu geurea den prentsa baten bidez espresatzeko eskubiderik emango, ez geure lokalak izateko, ezta grebarako eskubiderik ere eta sindikatuak zein alderdi politikoak sortzeko ahaleginak iraultzailetzat jotzen dira eta zigortuak dira. Sindikatu ofizialak eta polizia eta goardia zibilak ugazaben alde agertzen dira gizarteko edozein gatazkatan; prentsa, irratia eta telebistak gatazkez informatzen dutenean errealitatean gertatua aldatzen dute; ofiziala eta legezkoa den guztia herriaren aurkako politika egiteko erabiltzen da. Estatuko makinaria osoa, oligarkiaren aldeko tresna errepresibo bat besterik ez da azken finean.

Urte beldurgarriak benetan frankismoaren errepresioa jasan zirenekoak. Urte beldurgarriak, diogun bezala, herriaren nahiak baztertu eta zilegitasunik gabeko Estatu, jauntxokeriak nahiz beldurrak eraginiko agintean oinarritzen dena. Aginte ustela Frankismoarena, Euskal Herriko gatazka politikoa bideratzeko elkarriketa nahiz beste metodo baketsuak ezegokitzat jotzen dituen, dagokien modura, armak emandako boterean soilik oinarritua.

Herriak euskaldunen hizkuntza errespetatua izatea eskatu eta bizkarrekoak jaso izan ditu erantzun gisa. Herriak askatasun adierazpen eskubidea eskatu eta polizia zein goardia zibilen erasoak jaso. Herriak ikurriña, amnistia edo Euskal Nazioaren eskubideak eskatu eta tortura, espetxea, atzerria edo hilketak burutzen dira erantzun moduan.

Iruzurra, isuna, mehatxua, zigorra, polizia zein goardia zibilen eraso, tortura, atzerria, espetxea, hilketa eta debekua dira oro har, erregimen frankistaren ezaugarriak. Zaila dela, dio Celhay-k (1976) Bizkaia zein Gipuzkoa osoan ahaideko nahiz lagun bat atzerriratua edo preso ez duen pertsona bat aurkitzea. Norbera da



agian, gaineratzen du, horrelako egoeraren bat noizbait nozitu izan duena edota beldurrez dagoena horrelakoren bat ea noiz egokituko zaion zain.

Frankismoak Euskal Herria zigortu zueneko adibideetan luze jo bagenezakeen ere oraindik, eta datu estatistiko ugari eransterik izan, ez diogu bide horri ekingo. Agertu direnekin nahikoa dela deritzot eta eman nahi zen mezua agerian geratu da, hau da, gerrate zibila eta ondoren izaniko diktadura garaia, errepresioa eta bidegabekeria gailendu eta euskaldunen eskubideak errespetatu ez zireneko urtealdiak izan zirela gogoratuko da herritarren artean orohar.

Orain arte azaldu diren kalteak laburbilduz esan behar da, milaka hildako, milaka zauritu, milaka asesinatu, milaka preso, milaka exiliatu eta zigorra jaso zuteneko beste milaka pertsona izan zirela Euskal Herrian gerratean eta errepresio kultural, laboral, ekonomiko, etab. izugarrien ondoren.

Egia esan, gerratea eta bere ondorioak ahaztea nahikoa zaila ari da gertatzen Euskal Herrian, eta ez bertan izandako kalte material zein pertsonalengatik bakarrik, baita ondorengoko frankismoaren diktadura garaia ere. Frankismoaren diktadura gerrate zibila luzatu zeneko urteak bailiran kontsideratua izan zen askoren baitan, eta gerrateak irauten zuen bitartean sortzen zen sentimenduak luzaroan segitzen du.

Sentimendu hau, batipat, frankismoak euskaldunen aurka eginiko errepresioagatik izan zela esango genuke, baina baita beste bi arrazoi garrantzitsuengatik ere. Diktadura garaian Francisco Francok nahiz berak zuzenduriko gobernu diktatorialek II. errepublikaren aurkako altxamendua aurrera eramateko aldarrikatu ziren printzipio antidemokratiko berberak mantendu eta defendatzen jarraitu zutelako alde batetik eta, hildako, zauritu, asesinatu edo fusilatu, preso, exiliatu etab. guztien zuzeneko errudun eta gaizkile zen Francisco Franco bizirik eta jauntxo modura boterean urteetan zehar ikusteak berak ere, orduan bizitutako sufrimenduen irudiak uneoro presente izatea suposatu zuelako bestetik. Francisco Francok gerratea irabazi izateak ez du justifikatzen, esaten du PNVko senatore izandako Joseba Elosegik (Cueva-k aipatua 1988), botere absolutoarene jabetza izan eta bortxan oinarrituriko nahiz justifikazio etikorik gabeko agintea izatea.

Arrazoi hauengatik besteren artean, nekeza gertatzen da, gure guraso eta aitonamomek bizitako frankismoaren eraso eta honek ekarritako ondorioak erraz antzean ahaztuak izatea. Arrazoiak aipatzerakoan, ez dezagun denboraren faktorea bazter. Gerratea, esan nahi dut, orain 60 bat urtetako gauza izan arren, diktadurako urteak orain 20 urte besterik ez zirela bukatu. Gerrate garaian jaiok zirenak gaur egun 60 urte ingurutik gorako aitonamonak badira, diktadura garaian edo aurretik jaiotakoak 20 urtetik gorako guztiak dira. Gerratea pertsonalki edota bere familiako senide batengan sufritu zutenak 1984. urtean oraindik ere 238.000 euskaldun ziren, Ruiz de Olabuenagak zioenez, beraz, gerratearen ondorioak eta diktaduraren errepresioa sufritutakoak Euskal Herriko herritargoaren gehiengoa izango litzateke. Hortaz, urrunegi oraindik gerratea eta bere ondorengo gertakizun tamalgarriak.

Frankismoak irauten zuen bitartean euskaldunenganako eraso etengabea izan zelako hobeto ulertzera iritsi gara nolatan euskaldunok zeinen ongi gogoratzen garen iragandako gerrate zibilaz eta ondoren

izandako diktadura garaiaz ere. Arrazoi honengatik hobeto konprenitzera iritsi gara baita ere, zergatik dagoen gaur egun nazionalismo erreibindikatiboa Euskal Herrian eta zergatik bortxa politikoa onartzeraino iristen diren zenbait sektore.

Frankismoaren errepresio eta diktadurak eragindako oposizio nahiz protesta moduko erreakzio bat besterik ez da ETA talde armatua, esaten digu Jaureguiberry soziologiariak (1983, 229 eta 230. or.). Frankismoak Euskal Herrian, nagusiki eragin zuen errepresio gogorrek sortarazitako talde erreibindikatiboa hain zuzen ere. Zenbat eta errepresio gehiago eragin frankismoak Euskal Herrian orduan eta indartsuagoa agertzen zen ETA talde armatua. Frankismoak berak eta, zertan ari zen jakin gabe, sortu zuen nazionalismoa eraikitzeko bidea. Frankismoaren errepresioa gogorregia izaterakoan, diktadura bera aritu zen euskaldun biztanleria oposizio multzo berean bilerazten.

*"Izeberg batean agerian gelditzen den zatia besterik ez da ETA. Frankismoaren izozte eta hotzen eraginez hogeita hamar urteotan (1.940 - 1.970) zehar etengabeki osatuz joan den izeberga hain zuzen ere. Diktaduraren errepresioaren aurrean eginiko oposizio eta protesta entzungorrek izeberga. Geroz eta hozkariago izan berorren hotza, orduan eta sendoago bilakatzen zen hura.*

*Euskal herrialdeetan barrena errepresio itsu eta orokortua inposatzerakoan, bertako biztanlegoa oposizio-bloke bakar batean lotzen zituen botereak. Estatu espainiarrekoen aldean euskal herrialdeak diskriminatzerakoan, frankismoak errepresioari "mintzaratzen" zion: ezberdintasunaren mintzaira.*

*... Ezberdintasuna ohikoa zen, garrantzizkoa, frankismoak Euskal Herrian zehar ezartzen zuen salbuespen-eta errepresio-lege iraunkorraren zutabe. Kaleetan, leku publikoetan, lantokietan eta ikastetxeetan, torturatuzaileen gorputzetan ezartzerainoko errepresioa, egunero bere egia odolezko letretan markarazten zuen legea, historiko bilakatu zen egia: zu bazara sufritzen duena, hemen bizi dena zu zarelako da; euskalduna zu zarelako.*

*Beraiek jakin gabe, frankismoa (euskal) nazionalismo zeharo aparta agertzeko behar ziren baldintzak sortzen ari zen. Hasieran poliki abiatu bazen ere, gero 60 urte aldean areagotu egiten da, denon ageriko bilakatuz 70 urte hasiera aldetik aurrera".*

Hitz esanguratsuak Jaureguiberryrenak "hemen bizi izateagatik soilik sufritu egiten duzu; euskalduna zarelako" esatera iristen baita.

Elosegik (1971) ere gerrate zibileko errepresioari leporatzen dio zuzenean bortxa politikoaen sorrera; milaka hildako, eta herri osoa prisionero zein torturatua izan zela baitio, han asmatu zela terrorismoa. Horrek guztiak bultzaturiko etsipenak, ezinegonak, bideratu zituen gaur eguneko muturreko portaerak, alegia egungo ETA talde armatua zein talde erreibindikatiboak, frankismoak euskaldunen aurka adierazitako

grinak eta opresioak sortuak izan direla adierazten du, eta jarraituko du idazleak esanez: borroka armatua praktikatzera iristen diren nazionalistak (ETA taldea) bere gurasoek (gerrate zibilean) egin zuten bezala, kanpotik jasotako erasoak direla eta beren buruak defendatzen besterik ez direla ari.

Benegas (Cueva-k aipatua 1988, 387. or.) dugu, Euskal Herrian gertatzen den bortxa politikoa arrazoiatariko bat frankismoaren errepresioa dela aitortzen duena. Autoritarismoa eta beldurrean oinarrituriko Estatuak legitimazio arazoak dituelako sortua da bortxa politikoa.

*"Ni bat nator Mario Onaindiarekin zera dioenean, alegia, bortxa politikoa jasateko arrazoiatariko bat Estatuaren legitimazioaren krisia dela; legitimaziorik eza hori, hain zuzen ere, Estatu autoritarismoan eta beldurrean oinarritzen denean sortzen da. Hori horrela izanik, arazo baten konponbiderako elkarrizketa eta parte hartzea baztertzen dituen sistema politiko batek sorterez ditzake sistemaren aurkako erantzun bortitzak. Ondorioz, Euskadiko bortxa politikoa, hots, terrorismo politikoa, diktaduraren ondorioz sortu zen Euskal Herrian, diktaduraren amaieran, sistema autoritarioa hogeita hamar urtez pairatu ondoren, gogoratu ETAREN lehen hilketak 1968an izan zela, ez lehenago."*

ETAkideek ez dute frankismoa besterik ezagutu bere haurtzaro nahiz gaztaroan, esaten digu azkenik Jauregiberry- (1988). Euskal Herri osoa errepresio orokorrean murgildurik zegoen egoeran hazi dira ETAkideak, euskaldunei zegozkien edozein ezberdintasun aipatzea bakarrik debekatua izaten baitzen edota klandestino bihurtzera behartua egoten baitzen derrigorrez. Euskal sinboloak gutxietsiak eta jazartuak izaten ziren. "Euskaraz hitzegiteak" Jesusi negar eragiten ziola erakusten zitzaion haurrei ikastetxeetan, gurasoek euskaraz mintzatzen besterik ez zekiten bitartean. Kanean "Franko herriaren salbatzaile eta jaungoikoaren ezpata" zela entzuten zen, etxean berriz "Franko Euskadiren hiltzaile", etab...

Zenbait euskal abertzale, borroka armatua erabiltzera iritsi izateko arrazoiak Espainiako sistema politikoa itxitasunari dagokiola, esanez jarraituko du idazleak. Gu elkarrizketaren aldekoak gara baina, zer egin daiteke alderdi batek bestea onartzen ez duenean? Guk euskaldunok, ez dugu erabaki okupazio tiranikoa bultzatzen duen

bortxaren aurkako defentsan aritzea. Guk "bidezko defentsak" delakoaren eskubidea aplikatu besterik ez dugu egin. Ondorioz, armen indarrez borrokatu beharrean dago zapaldua, bere eskubideak onartuak izan nahi badira behintzat.

Eta euskal nazionalisten sektore bat, bortxa politikoa onartzera iristeko izan diren mekanismoetan gehiago sakonduz, honela bukatzen du: haur eta gazteek bi portaera kontraerriak zeudeneko garaia bizi izan zituzten.

Batzuentzat ona zena besteentzat txarra. Batzuek baloratzen zutena eta besteek baztertzen. Egoera hau garrantzitsua dela adierazten du honek, gazteok debekatuta dagoena justifikatzera iritsiko baitira miramendu etiko haundirik egin gabe, ofizialki debekatua dagoena ona edo txarra ote den zalantzan jarriz, legearen aurka ihardutea gerora begira positibotzat joz, etab.... Gazte hauei mundu miragarri baten antzeko gerta dakieke sekretua, klandestinitatea edota frankismoaren aurka iharduteko edozein ekintza txiki.

Zenbaitetik ez du batere zalantzarik azaldu diren iritzi horiei buruz. Iragandako gerrate zibila eta frankismoaren diktadura izendatzen baitira, gaur egun Euskal Herrian bortxa politikoa eragin duten faktoreetako bat gisa. Horien irudiko, frankismoak euskaldunei egindako erasoek zenbait euskal nazionalista aitaren etxea armaz defendatzera bultzatu dute, garai bateko EAJren axolagabekeriak (Lorenzo Espinosa 1995) eta PSOEnaz ere (Egido 1993), ez zitekeela ezer lor pentsatzen zuten. Eta urrutirago joan gabe, horixe bera diote, ETA talde armatuko partaide izatera bultzarazi zieten arrazoi garrantzitsu moduan, ETAkide edo "laguntzaile" izateagatik epaituak izan diren ehundaka gazte nazionalistak, frankismoaren errepresioa oro har aipatu izan ohi dutenean.

## 4.4 Bortxa instituzional politikoa

### 4.4.1. Euskal Herrian gehiegikeriak eta zapalkuntza orokorrak izan dira.

Euskal Herrian bortxa politikoa izateko aipatu diren arrazoietatik aparte bada garrantzitsua den besterik, bortxa instituzional politikoa.

Bortxa instituzionala esaterakoan, gobernu baten egitasmo politiko eta administratiboak betetzeko delako gobernuak, herritarren aurka erabiliko zukeen indarraren erabilpena adierazi nahi da. Gobernu baten egitasmo politiko eta administratiboak, esan nahi baita, onartezinak, bidegabeak edota herriaren nahikunde politikoen aurkakoak gerta daitezkeela herritarren eskubide ekonomiko, kultural zein nazionalak errespetatuak izaten ez diren neurrian. Agintari eta herriaren artean interes politiko kontrajarriak daudenean edota Estatuak talde minoritario batenak lirakeen eskubideak zanpatzen dituen gerta ohi da bortxa instituzional politikoa deritzoguna.

Herriaren aurka burutzen den bortxa instituzional hau esan behar da beste aldetik, ez zaigula arrotza gertatzen euskaldunoi. Espainiako Gobernu eta Euskal Herriaren arteko gatazka politikoa aldiz, aspaldidanik

gertatzen dena da gure herrian, eta arrazoi hau medio eguneroko gai bilakatu zaigu bortxa instituzionalaren erasoa eta errepresioaren zama.

Urteak dira Espainiako agintarien asmo politiko nahiz administratiboak eta euskaldunenak bat ez datozela. Urteak dira Espainiako gobernu ezberdinen aginduak onartezin, bidegabe eta herriaren nahikunde politikoen aurkakotzat joak izaten direla Euskal Herriko gehiengoaren artean. Urteak dira baita ere, euskaldunen eskubide ekonomiko, kultural zein nazionalak errespetatuak direnik ez dela uste.

Madril eta Euskal Herriaren arteko zorigaitzoko ezadostasuna eta Estatuak gutxiengo talde batenak liratekeen eskubideak zapaltzen daraman prozesu iraunkorra da, idazle, politikari, eta beste zenbait azterlariren irudiz, Euskal Herrian bortxa politikoa gertatzeko beste arrazoietakoa bat. Espainiako gobernu ezberdinen eta Euskal Herriaren arteko interes kontrajarriak, gatazka politikoa edota aspaldidanik jasaten dugun errepresioa izendatzen dute, Euskal Herriko kondairaren azken urteotan ETA talde armatuak nahiz beste zenbait talde erreibindikariek bortxa politikoa aritzeko duten arrazoi garrantzitsuenetako bat gisa.

Euskaldunek, dagozkien eskubideak behin eta berriro erreibindikatzeko dizkiote Espainiako gobernuari eta honek euskaldunen erreibindikazioei muzin eginez errepresioa eta mespretxua adieraziz erantzuten du. Eta ez nolanahiko errepresioa eta mespretxua gainera!

Euskal Herrian, dio Castells-ek (1982, 176. or.) adibidez, premiarik gabe eman direla zigor fisikoak, ankerkeriaz, irainduz. Hala nola: sentimendu nahiz giza eskubiderik gabeko pertsona gaizkile edo piztia basatiekin ariko bailiran, azken batean:

*"Manifestazio eta bilerak zigortuak daude. Partehartzaileei zigor fisikoak ezartzen zaizkie. Partehartzaile izan ez, baina zerbait ikusi edota entzun dutenei ere. Batzuei kolpeak ematen zaizkie biltzen saiatu direlako. Besteek, inoiz bide horretatik jo ez dezaten zigorra ezartzen zaie beldurtzeko. Garrantzi handia ematen diote publikoki zigor fisikoa emateari, eredu gisa erabiltzen dute. Inguratu eta txikitu egiten dute. Sarritan basaki jipoitzen dute, arrazari buruzko tratua emanez, edo sinboloak edo ordezkatzeko duen kargua irainduz, ortziko giza-orden baten errituala beteko baizuten, errebeldeak erreprimenez giza-gabehi, basapiztia harrapakari eta txikitzaileak balira bezala, duintasun, ohore sentimendu eta gizatasunik gabekoak bailiran. Hauen ideologia, berriz, infernukotzat hartzen dute".*

Nuñezen (Cuevak aipatua 1988) iritziz, errepresioa ezezik Castelsek aipatutako egoera tamalgarri hori aipatzen du azken garaioetako gertakizunik garrantzitsuen moduan. Espainiako gobernuak Euskal Herrian eraginiko errepresioak ez duela gerrate batek izan dezakeen bezainbateko eragina izan herritarrengan, ezta gutxiago ere, dio Nuñezek.

Bortxa instituzionalaren errepresioa Euskal Herrian edo herritarren eskubideen aurkako ekintzok, besteak beste, itaunketak, kontrolak, manifestazio debekatuak, parapolizialen ekintzak, talde erreibindikatibo eta laguntzaile edo ahaidekoei egindako mehatxuak, torturak, etab... Nuñezen hitzetan, Euskal Herri osoa markatuta uztea lortu du horrek guztiak.

Espainiako Estatua osatzen duten herri eta nazioen eskubideak ahaztuak eta erreprimituak izaten dira Espainiako batasun nazionalaren izenean, esaten dute baita ere Montserratren bildutako kataluniar adituek (Salaberriak aipatua 1971) bestetik.

Eta egia esan, ez zaie arrazoirik falta idazle eta azterlari hauei, denon jakinekoea denez Euskal Herrian gehiegikeriak eta errepresioa orohar gertatu ohi dela azken urteetan. Euskal Herrian esango genuke, Espainiako gobernuaren ideologia eta asmo politikoekin bat ez datorren guztia zigortua izan dela, hala nola, herri osoak errepresioaren mina sentitzeko adinako zigor kolektiboa eman dela.

Euskal Herrian hildako mordoa izan da herriaren askatasuna defendatu nahi izaterakoan. Euskal Herrian, milaka lagun atxilotuak izan dira eta horietako gehiengoa ordu gutxi barru inongo "erru"rik egotzi gabe aske utziak, atxiloketa hauen helburua ezker abertzaleengan beldurra eta eskarmentua sortzea besterik izango ez litzatekeelarik. Euskal Herrian milaka lagun torturatuak izan dira komisaldegi nahiz koarteliloetan eta polizia eta goardia zibilek ezarritako sufrimenduak jasan ezinezkoak zirenez heriotza eskatzeraino iritsi izan dira atxilotuak. Euskal Herrian milaka espetxeratu izan dira herriaren burujabetasuna lortu nahi izateagatik. Euskal Herrian milaka erbesteratu egon dira... Euskal Herrian hitz batean, Espainiako gobernuaren egitasmo politikoekin bat ez etortzeagatik, mugagabeko bortxa instituzionala gertatu da.

Asko dira, kontaezinak direla ez esateagatik, bortxa instituzionalak euskaldunen eskubide eta asmo politikoek aurka eginiko erasoak. Ugari dira aldi berean, euskaldunen eskubide nahiz asmo politikoak ez direla errespetatzen eta, egindako salaketak. Eta horrela, ikurriña nahiz euskal nortasun sinboloei eginiko erasoak salatzen dira batzuetan; euskaldunen hizkuntzari egindako erasoak bestetan; euskal kulturari orokorrean ipinitako trabak; euskal ekonomiari dagozkionak baita ere; euskaldunen burujabetasunari; etab...

Azken urte hauetan Espainiako Gobernu diktatorial eta "demokratiko"ek euskaldunen eskubide eta nahikunde politikoek aurka egindako erasoek artean, gehien salatu direnak berriz, euskaldunei min fisiko zein sikikoak sufriarazi dizkietenak izan dira. Halaber, Espainiako gobernu ezberdinek polizia eta goardia zibilen bidez edota beste zenbait era ezberdinetan eraginiko errepresio orokor eta basatiak; Espainiako gobernu ezberdinek polizia eta goardia zibilen bidez sufriarazitako tortura izugarriak; Espainiako gobernuak espetxeratuei inposaturiko egoera tamalgarriak (Garfia 1995); Espainiako gobernuak, talde parapolizial eta mertzenario "inkontrolatu"ak bitarteko direla, burutu izan dituzten ekintza armatu zein hilketak; etab...

Sarritan salatu izan diren bortxa instituzionalak eginiko erasoak, alegia, Espainiako Gobernu diktatorial eta "demokratiko" ezberdinek eraginiko errepresio orokor eta basatiok probokatzailerik eta desorekatuak

direla, "okupazio" indarren modukoak, eskubide demokratikoen aurkakoak eta antzeko beste kalifikatiboak merezi izan dituzte salakuntzak egiterakoan.

Estatu bateko agintari diktatorial eta "demokratiko"ari hori guztia esateari izugarria baderitzogu dagoeneko, bada jenderik franko oraindik, Espainiako gobernuek polizia eta goardia zibilen bidez eragindako errepresio orokor eta basati hauek justizia eta ordena zaintzetik guztiz urruti daudela pentsatzen dutenak. Esan nahi baita, badela herritar anitz, Espainiako gobernu ezberdinak bere "indar errepresibo"ez baliatuz erabat apropos aritu direla diotenak, Euskal Herrian "injustizia", "desordena" eta errepresioa nagusiki gerta dadin eragiten.

Bigarrenik, Espainiako gobernuek polizia eta goardia zibilen bidez ankerkeriaz eginiko tortura izugarriak salatzen dira (Moraza 1994), eta ez bakarrik sistematikoki, nagusiki eta axolagabekeria osoz egin izan direlako Euskal Herriko komisaldegi eta koartelilo guztietan, baizik eta tortura beldurgarriok bidegabeak, antidemokratikoak eta antikonstituzionalak izan direlako besteren artean. Areago oraindik, milaka euskaldunek nozitu dituzten sufrimendu hauetaz Espainiako polizia eta goardia zibilek betidanik erabilitako eta ohikoak izan zaizkien lan tresnak izan direla esateaz gain, ekintzok gertatzeko intentzionalitate osoa izan dutela Estatuko arduradunek eta babesa eskaini izan zaiela torturatzaileei, diote.

Arrazoi politiko eta erreibindikatiboak direla eta, atxilotuak izan diren milaka euskalduni dirudienez, ordu nahiz egun batzuk poliziaren komisaldegi edo goardia zibilen koarteliloetan iragan arazi ondoren, poliziak berak edota epaileak aske utziak izaten ziren inongo "erru"rik aurkitu gabe (atxilotuen % 95a), eta gutxi batzuk besterik ez espetxeratuak. Atxilotuak izan diren milaka euskaldun hauetako gutxi batzu aske utziak izan aurretik tratu fisiko eta sikiko ezegokiak jaso zituzten eta gehiengoak aldiz, gogor torturatuak izan ziren Espainiako batasun nazionalaren izenean.

Komisaldegi nahiz koarteliloetan torturatzea da Olaberriren (Landak aipatua 1986, 56. Or.) iritziz, arrazoi huandienetako bat Euskal Herrian bortxa politikoa gertatzeko gehien justifikatzen den arrazoa:

*"Estatua defendatzerik badago, baina sekula ez torturan oinarriturik. Ezmorala izateaz gain, tortura norberaren aurka bihurtzen da politikoki, ikaragarritzko gorrotoa eragiten du eta pertsonak sumintzen ditu. Euskadin bortxa gertatzeko arrazoi haundietako bat da eta hemen ezer ez dela aldatu diotenen diskurtsoa zuritzeko balio du".*

Estatu batek tortura erabiltzea inmorala edota politikoki kaltegarria izateaz gain, dio idazleak, besteren artean, gorrotoa bizkortuko eta herria matxinatuko luke, herria bortxa politikoaren alde jarriko litzatekeelarik.

Hirugarrenik, Espainiako gobernuak euskaldunen eskubide nahiz asmo politikoen aurka ihardunez espetxeratuei ezarritako egoera tamalgarria salatzen da (Rekalde 1990). Presoek bizi duten egoerari buruz

espetxe guztietan orohar eta janarietan bereziki ematen den higienarik eza; osasuna zaintzeko tresneria nahiz pertsonal ezegokia eta urria; funtzionarioen heziketa eskasa; preso politikoen eskubideenganako errespetorik eza; espetxeratuei ezartzen zaizkien bahitu moduko baldintzak; "truke" modura erabiliak izatea; inkomunikazioa; umiliazioak; mespretxuak; etab... Honi guztiari ondokoa erantsiz: presoek bizi duten egoera horrelakoa izan dadin intentzionalitate osoa izaten duela Espainiako gobernuak berak, espetxeratua familia ingurutik asmo txarrez urrundu, desanimatu, zapuztu, burua galarazi eta ito nahirik.

Preso politikoak gobernuaren etsai, errebelde eta hiltzaitzat hartuak dira eta gogor tratatuak, bortxa instituzionalaren indarrez markatuta geratu arte. Eta horretarako giltzapetuta edukiko dituzte ia egun osoa edo zigor geletara eramanez izaten dira edozein aitzakiaz baliatuz. Preso politikoak ahaidekoengandik urrundu eta espetxe ezberdinetan sakabanatuak izaten dira, pertsona batek bizitzeko behar dituen baldintza minimoak ukatuz askotan edota sentimendurik gabeko animalia batzuk balira bezala jokatu.

Eta azkenik, Espainiako gobernuak talde parapolizial eta mertzenario "inkontrolatuak" bitarteko dituela, burutuko dituen ekintza armatuez aipamen ugari egiten dira eta talde parapolizial eta mertzenario "inkontrolatu"etako zenbait partaide edota gehiengoa polizia nahiz goardia zibilak direla salatzen da, ildo berean gaitzesten da, talde parapolizial eta mertzenario "inkontrolatu"etako partaideak frantses lurraldeetara joatea errefuxiatuak hiltzera; edota Espainiako poliziak delako talde parapolizial eta mertzenario "inkontrolatu"etako partaideei ihes egiten uztea atentatuak burutu ondoren; baita ere talde parapolizial eta mertzenario "inkontrolatu"etako partaideak beren nagusiak diren Estatuko agintarien baimen edo oniritziariz aritzea, etab... (Morales 1988; C.E.D.R.I. 1990).

Eskuin ideologiako talde "parapolizial" eta mertzenario "inkontrolatu" hauetako partaideak polizia eta goardia zibilez osatuak daudela susmatzen da; Espainiako polizia eta goardia zibilen komisaldegia eta koarteliloen inguru giroan sortuak; polizia nahiz goardia zibilen agintariak lirakekeen baimenez ihardundakoak eta azkenik, susmo handiak daude baita ere, Espainiako gobernuak berak eta intentzionalitate osoz sorturiko talde parapolizial nahiz mertzenario "inkontrolatu"ak beste ezer ez ote direnari buruz eta delako Gobernu beraren oniritzi eta laguntza ekonomikoaz ez ote diren aritzen.

Asko dira lehenago esan dugun bezala, bortxa instituzionalak euskaldunen eskubide nahiz asmo politikoen aurka eginiko erasoak, hemen ordea eta adierazi dugun bezala, euskaldunei min fisiko zein sikikoak sufriarazi dizkietenak edota herriak gehien salatu dituenak besterik ez ditugu aipatu nahi izan, amaierarik gabeko zerrenda osa ez zedin.

Nabaria denez, zalantza gutxi azaltzen dute eta argi mintzatzen dira maiz askotan ezker abertzaleen ideologia politikotik urruti aurkitzen diren zenbait talde, alderdi politiko, idazle, eliz-arduradun, funtzionario, sendagile, pentsalari eta beste zenbait herritar, Espainiako gobernuak polizia eta goardia zibilen bidez edota beste zenbait era ezberdinetan eraginiko errepresio orokor eta basatiak salatzerakoan



edota polizia nahiz goardia zibilen bidez sufriarazitako tortura izugarriena; espetxeratuei ezarritako egoera tamalgarriena; talde parapolizial nahiz mertzenario "inkontrolatu"ak bitarteko dituela, buruturiko ekintza armatuena.

Gogorrak dira, bortxa instituzionalak Euskal Herrian eginiko basakeriei buruz egiten diren salaketak. Gogorrak dira bortxa instituzionalari egozten zaizkion ardurak. Baina esango genuke, horrela mintzatzen dela herria eta, gogorrak izan direla aldi berean, Espainiako Estatuaren batasuna gorde eta Euskal Herrian gerta zitezkeen iraultza ahaleginak deuseztatzearen jasandako bortxa instituzionalen maila.

Askoren ustez intentzionalitate osoz eragin den bortxa instituzional hori joko da, esana dugun bezala, Euskal Herrian bortxa politikoa gertatzeko arrazoi garrantzitsuenetakotzat. Bortxa instituzional delakoa da, Madril eta Euskal Herriaren artean dagoen ezadostasun politiko nahiz administratiboa areagotuz euskaldun jendea borroka armatua egitera bultzatu duena, norbere herriarenak lirakeen eskubideak defendatu asmoz.

Euskal Herrian gertatzen den bortxaren sorburua, esaten da, aspaldidanik dagoen opresio giroa dela, eta egoera hau ez dela zuzendua izan "demokrazia" deituriko garaian.

Gauza berdina onartzen du azken batean, Barne Ministraritzako "Dirección de la Seguridad del Estado" (Ministerio del Interior 1983) delakoak "PLAN Z.E.N." (Zona Especial del Norte) liburuaren sarreran, Euskal Herrian poliziaren aldetik gehiegikeriak egin direla aitortzerakoan adibidez edota "Acción Psicológica" deituriko atalean, "Consideraciones generales" delakoan bertan, lurralde honenganako ezulertze politikoa eta euskaldun izaeraren berezitasunek talde iraultzaile bat biztarazi dutela gazteen sektore handi batzuen laguntza moral eta praktikoa lortuz esaterakoan.

*"Gainera, izan den esperientziaz ohartuz gero eta Segurtasun Indarrek aurreko salbuespen-egoera eta lege antiterroristak izan direnetan lorturiko emaitzak aztertzen badira, zera ikusten da, hutsaren hurrengoak izan direla. Are gehiago, abusu bat gerta ohi da maiz askotan arau berezi hauen erabilpena, eta fabore eskasa egiten zaio ETA bere gizarte ingurunetik isolatzeko jokabideari".*

Poliziak lege berezien bidez ez duela etekinik lortu dio Barne Ministraritzak. Gehiegikeria polizialen bidez ez da ETA taldea bere gizarte-ingurunetik baztertua izatea lortu.

*"-Zona Norte-ko segurtasuna gaur egun Estatuak duen arazorik korapilatsuenetariko bat da. Herrialde honetik adimendurik ezak eta euskaldun izaerari buruzko bereizgarriak kontutan ez hartzeak ekarri du talde iraultzaile baten sorrera eta herrialde honetako gazte eta tradizioidun sektore haundien laguntza moral eta praktikoa jaso izatea berorrek."*

"Zona Norte" (Euskal Herrian) delakoan izan diren ezulertze politikoak aipatzen dira Barne Ministraritzak argitaratutako "Plan Z.E.N." liburuan ikusten denez, Euskal Herrian laguntza duen talde iraultzaile bat sortzeko egon den arrazoietako bat moduan, hala nola, Estatuko agintariek Euskal Herriarekiko duten ezulertze politikoa azaltzen da ETA talde armatua nahiz beste talde errebindikatiboak existitzeko arrazoitzat.

Bestetik, Zumbeltz (Brunik aipatua 1987, 62. or.) izango da, bortxa errepresiboak errebeldia areagotzen duela esaten duena:

*"Gauza nabarmena da bortxa errepresiboak geroz eta izu gutxiago sortzen duela eta aurkako jarrera gehitzea dakarrela beraz jasaten duten herritarren artean. Errepresioak betetako zeregin honen aldaketa baldintza sozio-ekonomiko berriekiko erantzuna da eta euskal herriaren aurka eragin duten bortxa elementu bat gehiago bilakatu da euskal iraultzaren prozesuaren barne (...). Baina baldintza berri batzuk abiapuntu, errepresio neurriek iraultza ekintza haundiagoak sortarazten dituzte; eta berebat, iraultza ekintzok errepresio neurri gogorragoen erantzuna izaten badute, prozesu espirale bat eragiten dute, eta horrela, batak besteari, nola iraultza ekintzak hala errepresioak elkarri sakatzen dioten gorakada batean. Ekintza- errepresioa-ekintzaren prozesu honetan galtzailerik haundiena estatu zapaltzailea bera da, edo berdin dena, beronen atzetik dauden klase menperatzaileak. Halatan bada, herri masaren kontra errepresioa erabiltzeko estatuak dituen medioak, haundiak izanik ere, mugatuak dira."*

Geroz eta nabariagoa da bortxa errepresiboak beldur gutxiago eragiten eta errebeldia areagotzen duela dio idazleak. Errepresio instituzionalak, jarraitzen du esanez, ekintza iraultzaileak areagotzen dituela eta ekintza iraultzaileok errepresio ikusgarriagoaz erantzuten direnez, gurpil zoroa deituriko prozesua sortzen dela esaten du iraultzaileen bortxa gogortuz joaten delarik. Bortxak, bortxa dakar esaten digu Cámarak ere (1970) eta injustiziak jarraitzen du esanez, iraultza dakar. Gure arteko Larrainzarrek (1990) bestetik, martirien odola militar berrien hazia dela dio.

Bada nonbait arrazoirik argi denez, bortxa instituzionala Euskal Herriko gatazka eta bertako bortxa politikoaren erruduntzat jotzeko. Bada nonbait arrazoirik, bortxa instituzionalak zenbait kalteren ardura bere gain hartu ahal dezan.

Bada garaia esango genuke, Espainiako gobernuak bortxa instituzionalak ezkutatzeko ahaleginei amaiera eman diezaion. Bada garaia, Espainiako gobernuak polizia nahiz goardia zibilen bidez edota talde parapolizial eta mertzenario "inkontrolatu"en bidez eragindako ekintza armatuak justifikatzeari utz diezaion; bortxa

instituzionalaren egile zuzenak diren polizia, goardia zibil, "inkontrolatu" zein talde parapolizialen bortxak ikertzeko; epaileei laguntza eskaintzeko; "zerbitzu berezi"en egileei zorionak eman edo dominak ipini beharrean, bakerako urratsak ematen hasteko.

Besteren artean hau guztiagatik esaten digu Urkolak (1988) Espainiako Estatuak legitimaziorik ez duela Euskal Herrian.

#### **4.4.2. Euskal Herriko bortxa politikoa gertatzeko arrazoiak, Linz-en ikerketaren baitan**

Linz-ek (1986, 647. or) ere, 1978-1979. urteetan egindako inkestaren datuetan oinarrituz bortxa politikoaren eragileak zeintzu diren azaltzen dizkigu. Espainiako Estatuan gertatzen den bortxa politikoaren arduradunen datu estatistiko hauek 37. taulan azaltzen dira eta garrantzirik gehien duenetik gutxienera joz, ondorengo emaitzak azaltzen dira: 1. Eskuin muturreko indar politikoak, 2. Iragandako diktadura, 3. Gobernu zentrala, 4. Ezker muturreko indar politikoak, 5. Polizia, 6. Nazionalista eta erreregionalistak eta 7. Ikasle eta gazteak.

Inkesta honetan, Espainiak aurrean duen desorden eta bortxaren arduradun garrantzitsuenez galdetzen zaie erantzuleei eta bi multzoen inguruan biltzen dira beroriek emandako iritziak. Euskal Herriko bortxa politikoaren sortzaile edo erantzule izateari dagokionean, Espainiako estatuko zenbait instituzio zein talde armatu direla aipatzen da alde batetik, % 75eko errua baino gehiago leporatzen zaielarik (eskuin muturreko indar politikoak, iragandako diktadura, Gobernu zentrala, polizia) eta bestaldetik Euskal Herriko talde armatu, abertzale nahiz ikasleak, % 25eko erru eskasa leporatuz bigarren talde honi (ezker muturreko indar politikoak, talde nazionalista nahiz erreregionalistak, ikasle eta gazteak).

Datuon arabera esan daiteke, ez dutela herritarrek gatazka politiko zein bortxaren ardura Euskal Herriko ikasle, talde nazionalista edo ETA talde armatuaren gain ikusten (% 25 eskasek). Bortxaren sortzaile edo arduradun izateaz aldiz, eskuin muturreko indar politiko, iragandako diktadura, Gobernu zentrala eta Espainiako poliziarik leporatzen diote erantzuleen hiru laurdenei. Hortaz, aipaturiko talde hauei leporatzen zaie neurri handi batean, ETA talde armatu nahiz zenbait talde erreibindikaririk erantzunezko bortxa politikoari ekiteko duten arrazoiak.

#### 4.4.3. Euskal Herrian bortxa politikoa gertatzeko arrazoiak, C.I.S. taldeak egindako ikerketaren baitan

C.I.S. (Centro de Investigaciones Sociológicas) delakoak edota "gobernu espainiarraren lehendakaritzak, 1980. urteko urtarrilean Penintsula eta Balear zein Kanariar uharteetan hemezortzi urtetik gorako 6.032 biztanleri (Euskal Herriko lau lurraldeetako azpilaginketa hau 471 pertsonari dagokio) egindako inkestaren ondorioak "Revista Española de Investigaciones Sociológicas" aldizkariaren 18. alean argitaratu ziren "Imagen pública de la policía" izenarekin (1982. apirila-ekaina) eta egia esan, ez dira baztertzekoak bertan ematen diren datuak.

C.I.S.ek eginiko inkesta hau, 1980. urteko urtarrilaren 16tik 23ra egin zen, Euskal Autonomiako Estatutua onartu eta indarrean jarri zeneko aste batzu beranduago eta aplikatu aurretik edo frankismo ostean ematen ziren iritzi zein bizipenak jaso ziren bertan.

Ikerketa honi dagozkion datuak 38. taulan ikusi ahal izango baditugu ere, Cuevarekin (1988) bat etorritz, aitortu behar da inkesta honetan zehar emaitza guztiz ezberdinak azaltzen direla Estatuko laginketari dagozkion datuetan eta Euskal Herriko azpilaginketari dagozkionetan.

Inkesta honetako datuak, lehen esan dugun bezala, kontutan hartzekoak dira eta lan honetarako interes berezia dutenez euskaldunek emandako iritziek, berorietarik garrantzitsuenak agertzera besterik ez gara mugatuko.

Gaur egun poliziaren betekizun lana nola kalifikatzen den galdetzerakoan, lehen galderan adibidez, ona erantzuten du euskaldunen % 15ek bakarrik eta txarra berriz, % 32k.

Bigarren galderan bestetik, aurrekoan emandako datu ezkorrok areagotu egiten dira "Poliziaren lana orain lau edo bost urte baino hobea, berdina edo okerragoa" den galdetu eta euskaldunen % 14k bakarrik hobea dela eta % 23k okerragoa dela erantzuterakoan.

Ondoren, bost esaldi ezberdin aurkezten zaizkie erantzuleei eta hauetako bakoitzarekin zein mailatan dauden akort adierazteko eskatzen zaie. "Polizia bat ikusten dudanean nire burua defendatu eta babesteko dagoela pentsatzen dut" esaldiarekin adibidez, euskaldunen % 30 guztiz akort eta akort soilik agertzen dira eta % 29 desakort eta guztiz desakort. "Poliziak orokorrean errespetu gutxi du bakoitzaren eskubide nahiz askatasunarekin" esaldiaren aurrean % 46 guztiz akort eta akort soilik eta % 15 desakort eta guztiz desakort. Euskaldunen ia erdiak hortaz, Espainiako poliziak errespetu gutxi duela pentsatzen du bakoitzaren eskubide nahiz askatasunari dagokionean bederen.

"Poliziaren irudia eta ospea izugarri hobetu dira demokraziaren bidez" esaldiarekin % 20 guztiz akort eta akort soilik agertzen dira eta % 37 desakort eta guztiz desakort. "Polizia batekin erlazionatu behar

dudanean ezin dut beldur zentzazioa ekidin" esaldiari % 45ek guztiz akort eta akort soilik eta % 21ek desakort eta guztiz desakort. Ia erdiak hemen ere beldurra sentitzen duela, dio polizia batekin erlazionatu behar denean. "Poliziak orokorrean ez dira egokitu aldaketa politikora" esaldiarekin, % 42 guztiz akort eta akort soilik agertzen dira eta % 11 bakarrik esaldi honekin desakort eta guztiz desakort.

Iruzkin guztiak soberan daudela deritzot datuok direla eta besterik gabe kaxkarra ezezik oso negatiboa zela esan behar da Euskal Autonomiako Estatutua indarrean jarri aurretik edota frankismo osteko garaian euskaldunek Espainiako poliziarri buruz zuten ikuspegia.

#### **4.4.4. Euskal Herrian bortxa politikoa gertatzeko arrazoiak, E.D.I.S. taldeak egindako ikerketaren baitan**

Aurreko emaitzak, Euskal Autonomiako Estatutua indarrean jarri aurrekoak baziren, badago ondorengoak diren beste zenbait datu ere. Euskal Autonomiako Estatutua indarrean jarri eta hiru urtetara, PSOE (Partido Socialista Obrero Español) gobernura iritsi bezain laster, orduko Barne Ministraria zen Barrionuevok beste inkesta bat enkargatu zuen "Equipo de Investigaciones Sociológicas"(EDIS) (Cueva-k aipatua 1988, 124-125. or.) delakoari eta 1983. urteko otsailean egin zen Euskal Komunitate Autonomoan bizi ziren hemezortzi urte eta goragoko 1.120 gizon zein emakumeri zuzenduta.

Ikus ditzagun 39. taulan, PSOE alderdi politikoa Gobernura iritsi baino lehen euskaldunek Espainiako poliziaz zuten iritzi nahiz bizipenen emaitzarik garrantzitsuenak:

"`Fuerzas de Seguridad' biztanle guztien zerbitzurako daude" esaldiari guztiz desakort erantzun diote % 24ek eta nahikoa desakort % 27,9k (guztira % 51,9). "Pertsonalki babestua sentitzen naiz `Fuerzas de Seguridad' delakoez" esaldiarekin % 28,9k guztiz desakort eta % 26,2k nahiko desakort (guztira % 55,1). "`Fuerzas de Seguridad' delakoek tratu zuzena eman didate" esaldiari (salbuespen gisa erantzun guztiak jasotzen dira) % 11,4k guztiz desakort, % 11,8k nahikoa desakort (guztira % 23,2), % 38,1ek nahikoa akort eta % 16,2k guztiz akort. "`Fuerzas de Seguridad' delakoak ederki egokitu dira demokraziara" esaldiari azkenik, guztiz desakort erantzun diote % 26,5ek, nahikoa desakort % 29k (guztira % 55,5) eta guztiz akort % 6,9k.

Polizia nazional eta goardia zibilen iharduketei buruzko iritzia eskatzerakoan berriz, % 22,6k iritzi guztiz negatiboa agertu du polizia nazionalaz eta % 28,4k nahikoa negatiboa (guztira % 51,), nahikoa positiboa % 29,7k eta guztiz positiboa % 4,4k. Goardia zibiletaz iritzi guztiz negatiboa agertu du % 27,1k, nahikoa negatiboa % 24,3k (guztira % 51,4k), nahikoa positiboa % 28,6k eta guztiz positiboa % 5,8k.

Aurreko inkestari buruzko iruzkin guztiak soberan daudela esan beharra dago, datuon aurrean eta aipatu besterik ez Euskal Autonomiako Estatutua indarrean jarri eta hiru urtetara Euskaldunek espainiako polizia nahiz goardia zibiletaz zuten ikuspegia oso negatiboa ezezik guztiz dramatikoa izaten jarraitzen zuela. Aurreko inkestan jasotako datuak baino okerragoak hain zuzen ere.

Honetaz ohartzeko gainera nahikoa, bi datu kontutan izatea. Batetik, lehen inkestako hirugarren galderan "Polizia bat ikusten dudanean nire burua defendatu eta babesteko dagoela pentsatzen dut" esaldiarekin zein mailatan dagoen akort galdetzerakoan euskaldunen % 29k desakort eta guztiz desakort erantzun dute. Bestetik, tankera beretsuko esaldia aipatzerakoan bigarren inkestako "b" galderan, hau da: "Pertsonalki babestua sentitzen naiz 'Fuerzas de Seguridad' delakoez" euskaldunen % 28,9k guztiz desakort erantzun dute eta % 26,2k nahikoa desakort (guztira % 55,1). Lehenengo inkestako galderan, esan nahi baitut % 29k erantzun dute desakort eta guztiz desakort eta bigarrenean % 55,1k. Espainiako poliziari buruzko ikuspegia beraz, negatiboagoa da bigarren datuetan.

Lehenengo inkestako zazpigarren galderan beste aldetik "Poliziak orokorrean ez dira egokitu aldaketa politikora" esaldiari guztiz akort eta akort soilik erantzun dute euskaldunen % 42k. Esaldi berdintsua agertzerakoan bigarren inkestako "d" galderan, "'Fuerzas de Seguridad' delakoak ederki egokitu dira demokraziara", guztiz desakort erantzun du euskaldunen % 26,5ek eta nahikoa desakort % 29k (guztira % 55,5). Lehenengo inkestan % 42k bazioten polizia ez dela egokitu aldaketa politikora, bigarrenean % 55,5 dira "Fuerzas de Seguridad" delakoak ez direla egokitu demokraziara esan dutenak.

Euskaldunek Espainiako poliziaz duten ikuspegia oraingoan ere negatiboagoa da bigarren inkestari dagokionean edota Euskal Autonomiako Estatutua indarrean jarri eta hiru urtetara diogunetan baino.

#### **4.4.5. Euskal Herrian bortxa politikoa gertatzeko arrazoiak, "Lanbide"k egindako ikerketaren baitan**

Hala ere, ez dira hemen bukatzen datu estatistikoak. PSOE Alderdi Politikoak bi urte eta erdi baino gehiago daramanean Espainiako gobernuan, Bilboko "Lanbide" Laboratorio Sociológico delakoak beste inkesta bat egin zuen 1984. urtearen erdialdean, 18 urtetatik gorako 1.500 biztanleri (500 lurralde bakoitzean) etxean egindako elkarrizketa pertsonalaren bidez.

Ikerketa honen emaitzak dio Cuevak (1988), garrantzitsuak direla Ruiz de Olabuenaga soziologariak zuzenduak direlako, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren Prospekzio Soziologikorako Kabineteko zuzendaria eta EAJren konfidantzako gizona denak.

Garai honetaz edo PSOE Alderdi Politikoa Espainiako Gobernura iritsi zenekoaz esan dezakegu, ordurarte Euskal Herrian egiten ziren tortura eta errepresio bideak PSOEko Gobernu sozialistak deuseztatu eta benetako demokrazia ezarriko zuela pentsatzen zuten herritar asko zirela Euskal Herrian. Ongi dakigunez ordea, ez da horrelakorik gertatu, alderantziz baizik, Amnistia Internazionalak inoiz baino gehiagotan salatu behar izango baitu gerora ere, horrelako ekintza polizialak.

Ikus ditzagun ikerketa honetako emaitza batzuk:

- 1- Polizia nazional edo goardia zibilak emandako tratu txarrak jaso dituztela diotenak % 16 izango dira. Zifra horrek, Cueva-ren ustetan, 253.526 lagun dagokiola dio, milioi laurdena alegia.
- 2- Polizia nazionalengandik tratu txarrak jaso dituztela dioten % 13a ez da homogeneouski banatua geratzen, talde ezberdinetan sakabanatua baizik. Portzentaia honek adibidez, EGIN irakurleen % 45a suposatzen du, HBko sinpatizanteen % 41a, EEko sinpatizanteen % 23a, 25-34 urteko gazteen % 18a, Deia irakurleen % 13a eta EAJko sinpatizanteen % 7a.
- 3- % 2,6k poliziaren atxiloketa prebentiboa sufritu dutela adierazten du, ilegala izan zela erantsiz. Zenbaki horrek, 41.198 lagun izan direla atxilotuak esan nahi du.
- 4- % 0,53k tortura jasan dutela diote. Espainiako polizia edo goardia zibilek 8.398 lagun torturatu dituztela suposatzen du zenbaki horrek.

Zein arrazoi dela eta, izan da bortxa instituzional hau? Nola ulertu du herriak bortxa hau? Zein eragin izan du herritarrengan bortxa instituzional honek? Horrek guztiak ez ote du, talde erreibindikatibo nahiz ETAK ekintzak egiten segitzeko arrazoiak indarberritu euskaldunen sentimenduan?

#### **4.4.6. Euskal Herrian bortxa politikoa gertatzeko arrazoiak, Ruiz de Olabuenagak egindako ikerketaren baitan**

Ruiz de Olabuenagak (1985, 65-66. or.) euskal herritarrengan beldurrak neurtu nahi izan ditu lau sailkapen eginez horretarako. Cueva-k (1988) horietariko bi besterik ez ditu hartu kontutan, lehenengo, "berehalako" beldurra; kalte oso larriak sortuko lituzketen gertakizunak eragiteko aukera handia egongo

litzatekeelarik. Bigarrenik, beldur "hurbila", kalte larriak sortuko lituzketen gertakizunak eragiteko nahikoa aukera egongo litzatekeena. Inkestaren datuen arabera, honela lirateke, beraz:

- 475.362 euskaldunek (% 30a) berehalako beldurra edo beldur hurbila lukete norbera edo sendiko norbait poliziak kolpa zezan.
- 364.444 euskaldunek (% 23a) berehalako beldurra edo beldur hurbila lukete poliziak, norbera edo sendiko norbait bidegabeki atxilot zezan.
- 285.217 euskaldunek (% 18a) berehalako beldurra edo beldur hurbila lukete norberak, sendikoek edo lagunek poliziaren torturak jasan zitzaten.

Datu hauen arabera argi geratzen da, euskal herritarren talde haundi batek beldur izugarria sentituz jarraitzen duela Espainiako polizia nahiz goardia zibilei, PSOE alderdi politikoa Espainiako gobernura iritsi eta urte batzuetara izanik ere. Gainera esan behar da, euskaldunek Espainiako poliziari dioten beldurra askoz ere

haundiagoa dela ETA talde armatuari diotena baino, Ruiz de Olabuenagak talde honi buruz eskaintzen dizkigun datu estatistikoaren arabera. Aurkezten dugun tesi honetako lan enpirikoaren ondorioetan ikus daitekeen modura baita (6.2.4.1. atalean), poliziaren bortxa ETArek borroka armatua baino askoz ere negatiboago baloratua izan da.

Esate batera:

- 110.918 euskaldunek (% 7a) berehalako beldurra edo beldur hurbila lukete beraiek edo beren sendia ekintza terroristak bateko biktima izateko.

Gogoratu, 475.362 euskaldunek edo % 30ek berehalako beldurra edo beldur hurbila luketela norbera edo sendiko norbait poliziaren aldetik kolpatua izateko, 364.444 euskaldunek edo % 23k bidegabeki atxilotua izateko, 282.217 euskaldunek edo % 18k torturak jasateko.

ETA talde armatuari buruzko datu honekin, kontu izan beharko dugu, Cueva-k dioen bezala, Ruiz de Olabuenaga soziologariak ez baitu argi adierazten "...atentado terrorista de ETA" esan nahi duela, "... atentado terrorista" ipintzen duenean, eta dakigun bezala, euskal biztanleriaren talde haundi batek "parapolizial" eta "inkontrolatu"etan pentsatzen du "terroristetaz" mintzatzerakoan.

Berehalako beldurra eta beldur hurbilaren datuak batera eman beharrean, egin dugun bezala, berehalako beldurraren datuak (kalte oso larriak sortuko lituzketen gertakizunak eragiteko aukera haundia) soilik emango ditugunez, beste hauek genituzke (Ruiz de Olabuenaga 1985, 65. or.):



- 126.763 euskaldun (% 8a) beldur da poliziak kalean kolpa ditzan.
- 110.918 euskaldun (% 7a) beldur da poliziak inolako justifikaziorik gabeko atxilotetak egin ditzan.
- 79.227 euskaldun (% 5a) beldur da beraiek, sendikoak edo ezagunak, poliziak egindako tortura edo tratu txarren biktima gertatzeko.
- 15.845 euskaldun (% 1a) beldur da beraiek edo ahaidekoak atentatu terrorista batean biktima gertatzeko (ETAren atentatua?).

Ruiz de Olabuenagak azaltzen dituen datu hauek ikaragarriak gertatzen badira, gogorragoak gerta daitezkeela, dio Cueva-k ondoren azalduko direnak. Eta horrela jarraitzen du:

- A) Berehalako beldurra edo beldur hurbila sentitzen dute norbera edo sendia, poliziak bidegabeki atxilot ditzan,
- HBko sinpatizanteen % 58k
  - EEko sinpatizanteen % 39k
  - PSOeko sinpatizanteen % 19k
  - PNVko sinpatizanteen % 17k
  - CPko sinpatizanteen % 6k
  - 18 urtetik 24 bitarteko gazteen % 34k
  - 25 urtetik 34 bitarteko gazteen % 35ek

Norbera edo sendia poliziak bidegabeki atxilotua izateko berehalako beldurra edo beldur hurbila, ez dute HBko sinpatizanteek bakarrik sentitzen zenbaitek pentsa zezakeen modura. Beldur hau EEko sinpatizanteen % 39k ere badute, zenbaitentzat sineskaitza bada ere. Harrigarriagoa oraindik, PSOeko sinpatizanteen % 19k ere beldur berdina sentitzen dute alderdi politiko hau Espainiako gobernuan izanagatik ere, edota EAJko (PNV) % 17k ere gauza berdina adierazten dute, PSOE Alderdi Politikoarekin bat eginik egon arren.

- B) Berehalako beldurra edo beldur hurbila sentitzen dute norbera, sendia edo ezagunak poliziak eragindako tortura edo tratu txarren biktima gertatzeko
- HBko sinpatizanteen % 50ek
  - EEko sinpatizanteen % 29k
  - PNVko sinpatizanteen % 14k
  - PSOeko sinpatizanteen % 12k
  - CPko sinpatizanteen % 4k

HBko sinpatizanteak Espainiako poliziak egindako tortura edo tratu txarren biktima gertatzeko beldur izatea normala dela esango luke zenbaitek. Gauza berdina pentsatzen ote da EEko sinpatizanteen % 29a ere beldur dela jakiterakoan? Edo EAJko sinpatizanteen % 14a eta PSOeko sinpatizanteen % 12a egoera berdinean aurkitzen direla jakitean?

-Euskal Herrian gehiegikeriak izan dira poliziaren aldetik eta lurralde honenganako ezulertze politikoak talde iraultzaile bat sortarazi du, gazteen sektore handi batzuen bultzada eta laguntza moral eta praktikoa lortuz-, moduko esaldia jasotzen da Barne Ministraritzako "Estatuko Segurtasun Zuzendaritza"ko "Plan Z.E.N." (Zona Especial del Norte) liburuan, lehenago aipaturiko orrialdeetan. Egia esan gainera, ez zaio arrazoirik falta, izan ere, azken batean, zenbait idazle, pentsalari eta ikertzailek esana dutena errepikatu besterik ez baitu egiten. Aspaldidanik eragiten den errepresioa nahiz ezulertze politikoa izan da, ETA talde armatua zein beste zenbait talde erreibindikatibok bortxa politikoa erabiltzeko arrazoi garrantzitsuenetakoa.

## **4.5 Euskal Herriko gatazka politikoa gertatzeko arrazoi bakarra?**

Euskal Herrian gatazka politikoa gertatzeko, genioen atal honen hasieran, arrazoi ezberdin eta korapilatsu ugari daudela eta ezin ditugula, hauek guztiak arrazoi gutxi batzuetara edo batera bakarrik mugatu. Atal berri hau "Euskal Herriko gatazka politikoa gertatzeko arrazoi bakarra?" goiburuekin izendatzerakoan ordea, badirudi kontraesanetan sartzen garela aurrekoan adierazitakoarekin edota kontrako bidetik abiatzen.

Atal honetan ostera, ez dut halako murrizketan erortzeko asmorik, baizik eta Euskal Herrian bortxa politikoa izateko aipatu diren arrazoi ezberdinak laburbildu edota agertu diren arrazoi ezberdinen amankomuntasuna bilatu besterik ez dut nahi, Euskal Herria eta Madrilen arteko gatazka politikoa gertatzeko arrazoi ezberdinetan agertzen den elementu amankomun nagusia azaltzen ahaleginduz era berean.

4.1. atalean adibidez, "ETA talde armatukideen gaisotasun psikiko, ahalmen intelektualik eza etab..." aztertzerakoan ikusi dugunez, ETAkideen gaisotasun sikikoari leporatu nahi izan zaio zenbaiten aldetik, Euskal Herrian dagoen bortxa politikoaaren ardura. ETAkide nahiz "laguntzaile"ak, pertsona arriskutsu batzu

bailiran azaldu nahi izan dira, eta Euskal Herriko herritargoak baino ahalmen intelektual gutxiago dutela, mafiosoak direla, diruzaleak, etab... esanez, bortxa politikoa erabiltzera bultzatu dituzten arrazoiak horiek direla adieraziz.

Bestetik berriz, eta akusazioi erantzunez esan da baita ere, ez zukeela talde armatu honek herritarren laguntzarik jasoko gauzak horrela balira.

4.2. atalean bestetik, "euskal nazionalismoaren irakurketa ezberdinak" aztertzean ikusi dugunez, euskal nazionalismo mugimendua agertu nahi izan da beste zenbaiten aldetik, Madril eta Euskal Herriaren artean gertatzen den gatazka nahiz bortxa politikoaren sortzaile moduan.

Euskal nazionalismo mugimendua Euskal Herrian den gaitzik haundienetako bat dela esan da, eta halatan, arrazista, separatista, inposatzaile, espainolenganako gorrotoaren adierazgarri eta beste tankera askotara izendatu nahi izan da. Euskal Herrian bortxa politikoa erabiltzera bultzatu duten arrazoiaren artean, besteak beste, horiexek direla aipatu da.

Beste zenbaitek aldiz, euskaldunen balio etniko-kulturalen zuzpergarritzat azaldu dute euskal nazionalismo mugimendua; gutxiengoaren eskubideen defentsarako edota herriaren nortasunaren askatzaile moduko mugimendua, alegia.

4.3. atalean "Iragandako gerrate zibila eta ondorengo diktadura" agertu dira eta bertan genioenez, Espainiako estatuan 1936. urtetik 1939. urtera bitarteko gerrate zibila eta honen ondorengo diktadura aipatu dira Madril eta Euskal Herriaren arteko gatazka zein bortxa politikoa gertatzeko arrazoitzat.

Hemen ere ordea, ez dira denak bat etorri eta horrela, Francisco Francoren ekintza militarrek goraiatu eta bere irudia eredutzat agertu ezezik, Jaungoikoaren laguntzaz esaten dute zenbaitek, Espainiaren batasuna gorde, Espainia osoan justizia eragin eta benetako bakea egotea ere lortu zuela, lurralde honetako komunista, separatista eta beste etsaien aurka ihardunez.

4.4. atalean azkenik, "bortxa instituzionala" aztertu da eta bertan, Espainiako gobernuak polizia, goardia zibil eta talde parapolizial nahiz mertzenario "inkontrolatu", etabarren bidez eraginiko errepresio orokor eta basatiari leporatzen zaio Madril eta Euskal Herriaren arteko gatazka nahiz bortxa politikoa egotea.

Aipaturiko gatazka nahiz bortxa politikoa gertatzeko arrazoi hauek (ETA talde armatuko kideen gaixotasun sikiko, ahalmen intelektualik eza, etab..., euskal nazionalismo mugimendua, iragandako gerrate zibila eta ondorengo diktadura garaia edota diktadura nahiz "demokrazia" garaiko bortxa instituzionala), argitu behar da, azken batean ez direla nahikoa arrazoi izan Madril eta Euskal Herriaren arteko gatazka zein ETA talde armatuaren bortxa politikoa eragiteko.

Aipaturiko argudiook, bistakoa denez, Espainiako gobernu diktatorial nahiz "demokratiko"ek Euskal Herrian buruturiko gehiegikerietaz jabeaz du euskal herritargoa, euskaldunak bere herriaren eskubideen alde ari zitezen zuzpertz, euskaldunen balio etniko-kulturalen aldeko jokabideak indartu, herriaren askatasuna lortzearen animatu, edota burujabetasunaz kontzientziatu. Bortxa instituzionalok Euskal Herria

eta Madrilen artean lehenagotik ere zegoen gatazka politikoa areagotu egin dute, euskal biztanlegoa eskubide nazionalakiko erreibindikatiboagoa izan zedin lortu, edo ETA talde armatuaren bortxa politikoa gertatzeko egoera bizkortu, baina ez dira, esana dugun bezala, Euskal Herrian gertatzen den gatazka eta bortxa politikoa eragiteko nahikoa arrazoi izan.

Aldiz, pentsatu behar da, Euskal Herrian gatazka nahiz bortxa politikoa izateko arazo nagusia (arrazoi bakarra ?) edota amankomuna lehenagotik dagoela euskaldunen hizkuntza, balio kultural, euskal identitate, eskubide nazionalak, etab. errespetatuak ez izaterakoan, Rekaldek (1992) dioen bezala. Esparzak (1992) adierazten duen modura baita (1994) gehiegikeria eta tirania militarra aspaldidanik dago Euskal Herrian.

Auzia lehenagotik dator bidegabeak eta herriaren nahikunde politikoen aurkakoak kontsideratzerakoan euskaldunek Madriletik inposaturik zetorzkien aginduak, edota herri honek, Espainiako estatuaren mende dagoenez geroztik, zegozkion erabaki politiko, ekonomiko nahiz kulturalak hartzeko aukerarik ez izaterakoan. Herri hau, hitz batetan esanik, azkeneko urte luzeetan Espainiako Estatura sometitua aurkitu da bere eskubide historikoak uneoro ukatu izan zaizkion heinean (Egaña eta Giacomucci 1992; Itzaga 1991). Weber-ek (1969) dioen bezala, Estatuak buruturiko "bidezko bortxa"ren mende.

Euskal herritargogagan, aspaldidanik dauden sentimenduok kontutan hartzerakoan, hobeto ulertzera irits gitezke zergatik gertatzen den gatazka politikoa Madril eta Euskal Herriaren artean edota zergatik "aitaren etxea" bortxa politikoaren bidez defendatzera iristen diren zenbait sektore.

## 5. EUSKAL HERRIKO BORTXA POLITIKOAREN BIDEZKOTASUNA NAHIZ JUSTIFIKAZIOA

Izenburu honekin, bortxa politikoan dabiltzan ETAkide, "laguntzaile" nahiz beste mugimendu erreibindikatioek, ideologia sozio-politikoak tarteko izanik, norbere herriaren eskubideen defentsan arituz edota Euskal Herriaren independentzia lortu asmoz Espainiako gobernuaren eta bere "indar errepresibo"en aurka darabilkiten indarkeriaren legitimazioa nahiz justifikazioa esan nahi da.

### 5.1. Bidezkotasun eta justifikazioaren esanahia

Bidezkotasun hitzak, zuzentasuna adierazten du. Pertsona nahiz talde baten ihardute edota gertaera zein ekintza baten jatorritasuna nahiz zuzentasuna. Dagokigun kasuan, Euskal Herriko bortxa politiko-erreibindikatioaren bidezkotasuna esaterakoan, Estatu Espainiar eta Euskal Herriaren artean azken urte hauetan gertatzen ari den gatazka zioa izanik, ETA talde armatuko kideek egin duten bortxa politikoaren onarpena esan nahi da.

Justifikazio hitzak bestetik, baztergarria edota desegokia ez den zerbait adierazten du. Gauza, ekintza edota pertsona baten ontasuna, edota errugabea izatearen frogantza. Onargarria edo ondo egina den zerbait azken batean edota gure kasuan, bortxa politikoaren justifikazioa esaterakoan, ETA talde armatuko kideek, egungo egoera politiko jakin honi erantzunez gauzatzen ari diren bortxa politikoaren onarpena.

Euskal Herriko bortxa politikoaren bidezkotasuna nahiz justifikazioa aipatzerakoan hortaz, ETAkide, nahiz beste mugimendu erreibindikatioek, Madrilek Euskal Herrian dituen interesen eta bere "indar errepresibo"en aurka burutzen duten bortxa politikoaren onargarritasuna adierazi nahi da. Euskal Herriko sektore garrantzitsu batek bortxaren erabilera onartu eta bultzatzen duela adierazteak ez du esan nahi, kolektiboaren etikaren aurka joanez erasotzea edota hiltzea bera ere ontzat ematen denik, baizik eta salbuespen gisa besterik ez dela onartzen, kolektibo guztietan egiten den modura, Elzo eta Belaustegik (1990) dioten bezala. Lortu nahi diren eta eskubidetzat jotzen diren helburu sozio-politikoak bideratzeko beste erarik ez aurkitzerakoan hain zuzen ere.

Hitz hauek ordea, ulergaitzak ezezik lekuz kanpokoak edota guztiz onartezinak irudituko zaizkio zenbaiti ETA talde armatuko kideen jarrerak kalifikatzerakoan edota apologia egileak besterik gabe. Egokiagoztat

joko lukete zenbaitek, ETAkideek gaiso sikiko, hiltzaile, mafioso, nazi edota Euskal Herrian egin diren kalte guztien sortzailetzat joak balira. ETA talde armatuko kideen ekintza militarren ontasun edota onargarritasunaz mintzatzea burugabekeria besterik ez dela irudituko zaie azken batean.

## 5.2 Legitimaziorik badu ETAk?

Honaino iritsiz gero, ETA talde armatuaren, bortxa politikoa bidezkoitasun nahiz justifikaziorik duen edota Euskal Herrian gertatzen ari den bortxa politikoa herritarren laguntzarik jasotzen duen galdetzen hasi beharko ginatke baina, egia esan, garai honetan halakoetan hastea alferrikakoa ez ote den pentsatzen hasia naiz.

Egokia deritzot ETAkideek zenbaterainoko babesa jasotzen duten galdetzeari. ETA talde armatuaren bortxa politikoa zeintzuk eta zein neurritan legitimatzen edo justifikatzen duten. ETAkideek bere historian zehar edota edozein ekintza armatu ezberdinak direla eta laguntza berdina jaso duten edota beste ehundaka galdera behar bada. Garmendiak (1995) bere liburua bukaeran dioen gisa, galderak nahi adina dira. Hala ere, ETA talde armatuak milaka askoren adorea edo euskal nahiz kanpoko sektore garrantzitsuen laguntza jasotzen duenik ezin jarri izango da zalantzan ezta sostengu honen egitasuna ukatu ere.

Litekeena al da bestela, galdetuko nuke, ETA talde armatua hainbat urtetan bortxa politikoa ihardutea herritarren laguntzarik jaso izan ez balu? Litekeena al da, hainbat urtetan bortxa politikoa ihardun eta bera baino askoz ere indartsuagoak diren Espainia eta Frantziako Estatuak erasoak gaituz bizirik irautea? Nabaria da ETA talde armatuak laguntza handia jasotzen duela herritarrengandik bestela, ezin izango baitzukeen bera baino armamendu, pertsonal, ahalmen ekonomiko, azpiegitura, etab. askoz gehiago duen Espainia eta Frantziako Estatuak indar armatu zein polizialen erasoak gaituz bizirik iraun; ezingo zukeen polizia zein goardia zibilez baliatuz ezarritako errepresio, atxiloketa, tortura, espetxe, estradizio, atzerriratze, hilketa eta beste gainerako oztopo eta sufrimenduei aurre egin; edota epaiketa politiko, lege antiterrorista eta beste zenbait lege berezi edo "Plan Z.E.N. moduko kanpainak erasoak indargabetu; ezta prentsa, irrati zein telebistaz baliatuz eginiko eraso informatiboak neutralizatu ere; eta bukatzeko, ezingo zuen Gobernu espainiarrak zuzenduriko talde parapolizial zein mertzenarioak medio (*Guerrilleros de Cristo Rey, Batallón Vasco Español, Triple A, ATE, GAL, etab...*), eragindako erasoak, etabarri... aurre egin herritarren laguntzarik jaso izan ez balu.

Eraso hauek guztiak gehiegi dira ETA talde armatuak soilik gaindituak izateko. Gehiegi dira Madrilek Euskal Herrian dituen interesen aurka hainbat urtetan aritu izateko herritarren laguntzarik jaso gabe. Hau guztia, ezinezkoa edota amets gaizto bat besterik ez zatekeen delako herritarren sostengurik eman ezean. ETA taldeak ezingo zituzkeen bestela, 775 hildako burutu bere historian zehar, 1790 ekintza aurrera eraman 1981. urtetik gaur egun arte, 981 arma eduki azken hamar urteotan (ETA taldekideei kendutakoak soilik), 12.127 kilo lehergai erabili, 123 komando prestatzeko gaitasuna izan, etab... ETA talde armatuak ezin gainditu izango zukeen horrelako edota antzeko erasorik herritarrengandik isolaturik balego edota herriaren laguntzarik jaso gabe.

Virginiako G. Mason Unibertsitateko katedratikoa den Robert P. Clark (Cueva-k aipatua 1988, 409. or.), ETA taldearen bidezkoatasunari buruz mintzatu zen Massachussets Unibertsitatean antolatu zen simposionean. ETA moduko taldea bidezkoztat jo ahal izateko zenbaterainoko herri babes behar du? galderari erantzunez honela esan zuen irakasleak:

*"...ETAK duen herri sostengua polizia espainiarraren errepresioa nozitu arren aurrera egiteko adinakoa izan baldin bada, talde horren eskakizunak kontutan hartu eta beraiekin akordio batera iristeko bezainbateko legitimazioa du. ...Ondorio hau zenbaiti ziniko edo pragmatikoa iduri lekioket baina efikazi-erizpideak bi balore garrantzitsu dakarzki bere baitan. Lehenbizikoa, euskal herritargoaren % 20a ETA mugimenduaren aldekoa bada; beronek ez al digu nahikoa adierazten euskal baloreen sakontasunaz eta beroriek gauzatzeko garaian duten eragipen sustraitzuz? - Eta bigarrena: euskaldunek jokoan dagoenaz halako sentimendu indartsua baldin badute, ez al da Madril balore horiek deusezteko bidean areago joateko beharrean aurkituko, ukazio horrek leharzkiekeen kostuak abantailak baino askoz ere haundiagoak izan arren? Beste hitzetan esanda, zertarako balio dute legitimitateari buruzko bestelako definizioek, euskal herria, eta are Espainiako demokrazia bera suntsitu beharko lirakeenez ETAREN borroka armatua garaitzeko?.*

ETArenganako sostengu herritarra, talde berorrek Espainiako poliziaren errepresioa nozitzeko adinakoa izan bada, orduan, talde honek nahikoa legitimazioa du bere eskakizunak seriozki har ditzagun eta akordio batera iristeko beraiekin, dio Clark-ek. Eta geroago jarraituko du esanez: Euskal Herriko % 20k ETA taldearen mugimendua bultzatzen badu, ez al digu horrek zerbait adierazten euskal balioen sakontasunaz eta eskaera horiek lortzeari ematen dioten garrantziaz? Jokoan dagoenaz halako sentimendua badute euskaldunek, ez ote da balio horiek ezeztatu nahian urrutiegi joatera behartuta aurkituko Madril eta balio horien ukazio kostuak haundiagoak izango abantailak baino?

ETA taldekideen bortxaren bidezkoasuna errealitatea dela adierazi nahi ote digu Robert P. Clark katedratikoak, talde armatu horrek milaka herritarren laguntzaz Espainiako poliziaren errepresioa gainditzea lortu duen neurrian?

Espainiako nahiz Euskal Herriko zenbait alderdi politikotako ordezkariak ETA taldeaz agertu ohi duten iritziekin ez datorrela bat Robert P. Clark aitor daiteke bederen. Ordezkarri hauen ahotik sarri asko entzun ohi dena gogoratu besterik ez dago: ETAkideak zoro batzuk, hiltzaileak, odoltsaleak, gaiso sikikoak, borxaren sortzaileak, etab... besterik ez direla.

ETA taldeak herritarrengandik jasotzen duen sostenguaz mintzatzerakoan oster, ez da bakarrik geratuko aipaturiko soziologaria. Iritzi berdinekoa izango baitzaio Bergaretxe (Amigok aipatua 1978, I) ere, ETA taldeak beti aurrera egin duela adierazterakoan, polizien nagusiek talde honen deuseztapena behin eta berriro aldarrikatu izan arren. Erantzunkizun hori, jarraituko du, pentsaezina zitekeen herria eta talde armatuaren artean identifikazio estua egon ez balitz. Talde hau, ez zen biziko herriaren laguntza izan ezean.

Euskal Herriak, bortxa politikoa praktikatu eta sustatzen duela helburu politikoak lortzearren, dio Ruiz de Olabuenagak bestetik. Bortxa-ekintzok eragiten duten larritasun, sakabanatze eta maiztasuna dio, biztanleria konplize batek emandako laguntzarik gabe ezin mantenduko zen. Herritar laguntzaile horiek aktiboki kolaboratzen ez dutenean, elkartasuna adierazi eta txalotu egiten dituzte bortxa- portaerak dituzten militanteak.

Forest (Bruni-k aipatua 1987, hitzaurrean) dugu baita, ETA taldeak jaso duen laguntza zalantzan jartzen ez duen beste pertsona. ETA taldeaz jasotzen dugun informazioa manipulatu iristen zaigu. ETA taldeak herritarren sostengua jasotzen du, hemengo jendearen artean hain sakonki barneratua dagoen burujabetasun eta askatasunaren adierazpide aurrerazalea izan delako:

*" ... Hain ohituak gaude errealitateari ihes egiten, gezur truskilak entzuten, informazio ofizialak historia aldrebes agertzen euskal arazoari buruz aritu behar duen guztietan; hain ohituak gaude orotariko manipulazioa egiten dela ikusten, beti mezu faltsuaren zain egoten, liburu, monografia, azterlan gisa mozorrotuta agertzen den tranpa- iruzurraz, literatura mertzenario ugariak, beti ere botere zentralak diktatuta "terrorismoa"ri buruzko diskurtso ohizkoa errepikatuz, horrela gertatu ez denaren arrastoren bat agertuz gero harridura handia sortuz. Horixe da hain zuzen liburu honen kasua.*

*... Horren guztiaren bidez, enteratuz joaten gara erakunde hau mamutzarra dela, sinestarazi nahi diguten horretatik oso urruti ere hain zuzen, independentzia eta askatasun sentimenduen adierazpide aurreratua dela, hemengo jendearen artean oso errotutako baloreak direla beroriek, eta horrexegatik daukala erakunde horrek herrikoitasun handi, sona eta ospe hori."*



Erakunde ofizial nahiz botere zentraletik eta Euskal Herriko arazoei dagokienez, kontrako informazioa, gezurra eta manipulazioa jasotzen oso ohituak gaudela esaten digu Eva Forest andereak; eta gertaerak diren bezala azaltzeak, liburu honek egiten duen modura (Luigi Brunoren liburuaz ari da), izugarritzko harridura sortzen duela. Horrelakoetan jakiten dugula, esanez jarraituko du, zenbaitek azaldu nahi izan diguten ETA taldea, hots, mamutzar bat izatetik urruti, herri honek zeharo sakonki barneratuak dituen burujabetasun eta askatasun sentimenduen adierazpide aurrerazalea dela eta halaxe ulertzen direla hain zuzen ere, jasotzen dituen herritartasun zeinuak eta prestigioa.

Jaureguiberry-k (1989) adierazten digunez, ETA taldea Europako beste talde armatuengandik ezberdindu duena, isolatuta egon ez izana da. Euskal hauteslegoaren % 20a inguru agertzen da ETAREN tesiekin bat eta talde honenganako sinpatia edo gaitzespenik eza adierazten dutenak, jarraituko du, portzentaia honetatik oso gorakoa dela Euskal biztanleriagan.

ETA taldeak hainbat urte iraun izanaren arrazoa, esan nahi du soziologariak, herritarrengandik urrun egon ez izana litzatekeela, ETA taldea, laburki esanez, etxekoa izan dela eta bertakoen defentsan aritu dela alegia.

Lehenagotik esana dugu, ETA talde armatuak milaka askoren adorea edo euskal nahiz kanpoko sektore garrantzitsu baten sostengua jasotzen duenik ezin jarri izango dela zalantzan, eta ikusten denez, horren adierazgarri dira hemen jaso ditugun iritziak eta hala lirateke baita, ildo beretik joz ETA taldeak jasotzen duen laguntzaren garrantziaz mintzatzen diren beste milaka askoren iritziak ere. Besteren artean gainera, hemen ditugu EAJko buru den Arzalluzek (Cueva-k aipatua 1988, 144. or.) adierazitakoak:

*"... arazoak Estatu osoa ukitzen badu, kontutan eduki beharko gaituzte, gure arrazoiak entzun egin beharko dituzte, izan ere, funtsezko arazoa ez da pistolak isilaraztea, baizik eta biztanlegoa non lerratzen den, nork daukan arrazoa eritzi publikoaren aurrean, ikusi besterik ez dago 200.000 lagunek ematen dietela oraindik botua ETAREN ingurukoei, eta horixe da benetako arazoa".*

ETAREN bortxa geldiaraztea, dio politikariak, ez litzatekeela arazo izango. Arazoa aldiz, milaka pertsona ETAREN alde agertzen dela da, milaka euskaldun, ETA taldeak dituen helburu politiko eta estrategikoekin bat agertzea hain zuzen.

ETA taldea, adierazten du, ez dagoela bakarrik, ETA taldea ez dagoela isolaturik. ETA taldeak oraindik irauten badu, herritarrek eskaintzen dioten adorea eta laguntzagarritik da, hots, euskal nahiz kanpoko sektore garrantzitsu batek ETA taldearen helburu politiko zein ekintza armatuak bultzatzen jarraitzen dutelako.

1987. urteko martxoaren 10ean bestetik, ezinezkoa dela esan zuen Papell kazetariak (Cueva-k aipatua 1988, 144. or.), ETA taldea gaizkile koadrila batzuez eta herritarren inongo laguntzarik gabe osatua dagoela sinistaraztea.

*"Iturri fidagarrien arabera, berrogei-berrogeita hamar mila lagun inguru izan ziren igandean Arrasaten Txominen "omenaldia"n. Estatuko goi mailetatik edota informazio iturri zentralistek ikustarazi nahi digutena ez da jadanik sinesgarria, behin eta berriz esaten baitigute ETA gaizkile talde batek osatzen duela, inolako herri babesik ez duena. Zoritxarrez ez da horrela eta "zoritxarrez" esan behar da, zeren eta gaizkile koadrila bat besterik ez balitz oso erraz makurteraziko eta isolatuko bait genituzke... Aitortu beharra dago, ordea, begibistakoa baita, ETA euskal gizartearen zati batek sortzen duen gorotza dela. Nahi bada, gutxiengoa izango da baina milaka lagun direla ahaztu gabe."*

Begiztatzen dugunaren arabera agertzen du idazleak, ETAREN aldeko pertsonak dozenaka milatan zenbatu behar direla onartu beharra dagoela. Eta egia da, zeren eta milaka euskaldun zein kanpotar izaten baitira ETAKideen bortxaren bidezkotasan nahiz justifikagarritasunean oinarrituz, "presoak kalera" oihu egin eta atxilotu politikoentzat amnistia eskatzen dutenak. Milaka euskaldun zein kanpotar baita ere, errepresio, atxiloketa, tortura, espetxeratze eta gainerako bortxa instituzionalak salatzen dituztenak arrazoi berbera dela bide; estradizioak gaitzetsi; Espainiako polizia, goardia zibil edo talde parapolizial zein mertzenarioek eginiko hilketen aurka azaldu eta gertaeron aurka antolaturiko grebak bultzatu; espetxeratu, errefuxiatu nahiz beste zenbait beharretarako laguntza ekonomikoa eman; ETA taldeko militanteei garraioa eta izkutatzeko lekuak eskaini norberaren ziurtasuna galdu edo espetxeratua izateko arriskuraino iritsiz; etab... Milaka euskaldun nahiz kanpotar badira, era batetara zein bestera, ETAKideen alde agertzen direnak edota euskal talde armatu honen bidezkotasan nahiz justifikazioa adierazten dutenak.

### **5.3 Bi moetatako sostengua jasotzen du ETA taldeak**

ETA taldeak herritarrengandik jasotzen duen adostasunaz aritzerakoan, bi arlo garrantzitsu aipatu behar dira. ETA taldearen ideologiarekiko dagoen adostasuna alde batetik, euskal herritarren gehiengoa bat etortzen delarik ideologia honen ardatz nagusietan, eta talde armatu honek erabiltzen duen bortxa legitimatu nahiz justifikatzen dutenak bestetik, sostengu hau mugatuagoa izango delarik.

Euskal biztanleriaren gehiengoa bat datorrela diot, ETA talde armatuaren ideologiaren ardatz nagusietan, alderdi abertzaleek osatzen duten jendetzaz ari bainaiz (HB, EAJ, EA...), ezpairik gabe, alderdiok hauteskundeetan lortu ohi duten boto kopuruen portzentaia, euskal hautesleen erdia baino gehiago izan ohi

delako. Eta bestetik gainera euskal biztanleriaren gehiengoa ados da ETA talde armatuaren ideologiaren ardatz nagusietan, beren botoa alderdi nazionalistei ematen diotenek orohar, herri hau Espainiako Estatura sometitua ez egotea nahi izaten baitute, ETA taldekideek nahi duten bezala, herri honen hizkuntza, balio etniko-kultural eta eskubide nazionalak errespetatuak izan daitezzen; herri honek Espainiako Estatutik jasaten duen amaierarik gabeko errepresio nahiz "diktadura-egoera" buka dadin; edota burujabetasuna lortu nahi dute azken batean, ETA taldeak nahi duen bezala.

Euskal Herriko biztanleriaren gehiengoak abertzaletzat badu bere burua, eta euskal abertzaleen azken helburu garrantzitsuenetakoa Euskal Herriaren burujabetasuna lortzea izanik, ETA taldearen eta herritar gehiengoaren ideologiak bat datozte.

Euskal Herriaren burujabetasuna erdiestearen aldeko adierazpenak behin eta berriro entzun izan ditugu alderdi naionalisten zenbait ordezkariaren ahoetatik eta ez HBko kideengandik soilik. 1985. urteko apirilaren 7an egin zen Aberri Egunean EAJk egindako adierazpenak, honen lekuko izan ziren. Egun horretan, EAJko zenbait burukidek eta Garaikoetxeak batez ere, independentziaren aldeko agerraldiak egin zituzten, haserreak sortuz Madrilan. Ondorengo egunetan, alde bateko zein bestekoen agiriak azaldu ziren egunkarietan eta horien artean EAJko Insaustik (Cueva-k aipatua 1988, 240. or.), besteak beste, EFERi adierazitakoak:

*"Eskandalugarria izan ala ez, Euskal Herriaren independentzia beti izan da eta izango da abertzaleontzat helburu edota amets. Beti defendatu izan dugu tesi hau eta ez dago inongo arrazoirik aldatzeko... Ezin da ito herri baten sentipena, independentzian sinesten badu, Euskal Herriaren batasunean lurralde frantziarreko hiru herrialdeekin batean edota Herrien Europan, PNVk beti defendatu duena."*

EAJk betidanik defendatu izan duela dagokigun independentzia eskubidea dio Insaustik eta ez dagoela gauzak aldatzeko arrazoirik. Egibarrek (1995) bestaldetik, zera dio, Euskal Herriak berdintasun mailan egon behar duela integratuta Europan. 1987. irailean Garaikoetxeak (Cueva-k aipatua 1988, 41.or.) esandakoak daude bestetik: "KAS alternatibak ezin du gaitzespenik sortu nazionalisten artean". Ildo beretik aritu izan da Arzallus EAJko presidentea (Cueva-k aipatua 1988, 41. or.) behin eta berriro eginiko adierazpenetan. 1987. urteko urrian, "KAS alternatiba inposatu ahal izan bagenu, egin egingo genuen" esan zuen.

ETA talde armatuak Euskal Herrian bakea ezar dadin, ezinbestekotzat jotzen dituen puntuak edota KAS Alternatiba izenez laburtuz erreibindikatzeko dituenak ezin sortu izan dutela errefusik nazionalisten artean, esaten du lehendakari ohia den Garaikoetxeak eta Arzalluzek bestetik, Alternatiba hori inposatzerik izan bagenu, aspaldi egin egingo omen zen.

Gogora ditzagun hemen, liskartsuak izanik ere, ETA taldeak bezala, Garaikoetxea eta Arzallusek ere bere egiten dituzten KAS alternatibaren erreibindikazioak:

- 1- Amnistia osoa euskal preso eta errefuxiatu politiko guztientzat, taktikoki esan nahi baitu, presoak askatzea eta errefuxiatu politikoek itzultzerik izatea.
- 2- Askatasun demokratikoak; erakunde abertzale eta independentziazaleen legeztapena, berauen estatutuak moztu gabe. Adierazpen, bilkura, elkartzeko eta manifestazio askatasuna.
- 3- Epe baten buruan eta mailaz maila, goardia zibil eta polizia nazional direlakoak Hego Euskal Herritik kentzea.
- 4- Langileriaren eta herritar sektoreen bizimodu eta lan baldintzak hobetzea. Oligarkiaren aurkako egitarau sozio-ekonomikoa.
- 5- Hurrengo baldintza hauek, gutxienez, beteko dituen Autonomi Estatutu Nazionala:
  - . Batera jartzea indarrean Hego Euskal Herriko lau lurralde historikoetan: Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba.
  - . Euskal Herriak autodeterminaziorako eskubide debekaezina erabil dezakeela onartzea, eta halaxe sor daiteke Euskal Estatu independentea ere bai.
  - . Ipar eta Hego Euskal Herri artean diren lokarri nazionalak onartzea.
  - . Gaur egungo indar zapaltzaileen lekua beteko duten herri-defentsarako indarrak izanen den Euskal Gobernuak sortuko ditu eta beronen menpe baino egonen ez direla.
  - . Hego Euskal Herrian koarteleratutako espainiar indar armatuak izanen den Euskal Gobernuaren menpe egongo dira.
  - . Euskal Herriak bere aurrerapen eta ongizate material eta intelektualerako sozial eta politikoki egokientzat jotzen dituen egitura ekonomikoak, noiznahi ere den, eskuratzeko besteko boterea izanen du.
  - . Euskara izanen da Euskal Herriko hizkuntza ofiziala eta lehena.

ETA taldeak zein euskal nazionalistek ere onartzen duten KAS alternatiba honako puntuotan laburtzen da: Amnistia; askatasun demokratikoak; Espainiako polizia eta goardia zibilak Euskal Herritik alde egitea; langileriaren bizimodua hobetzea; Hego Euskal Herria bateratua; autodeterminazio nahiz independentziarako eskubidea; Ipar eta Hego Euskal Herriaren lotura; Euskal Polizia sortzea; Espainiar

indar armatuak Euskal Gobernuaren menpe egotea; Euskal Herriaren aurrerapen eta ongizate material eta intelektualerako boterea; Euskararen ofizialtasuna.

Bi euskal politikariek KAS alternatiba onartu dutela diogu eta berauek bezala gainontzeko nazionalistek ere antzera egiten duten errezeloa dut 1995. urteko apirilaren 26an ETA taldeak "Alternatiba Demokratikoa" izenez ezagutzera emandako agiriarekin. Ikus dezagun zer dioen:

**"Hego Euskal Herria eta Estatu Espainiarraren arteko gatazka politikoari irtenbidea emateko Alternatiba Demokratikoa."**

1- Hego Euskal Herrian egiazko demokrazia eraiki dadin, gure autodeterminazio eskubidea eta gure lurraldetasuna errekonozituko ditu Estatu espainiarrak eta, ondorioz, euskal herritarrok erabakitzen duguna errespetatzera konprometituko da.

2- Euskal gizarte osoa inplikatu eta zuzeneko partehartzearen bitartez, nolako Euskal Herria nahi dugun erabakiko dugu. Eztabaida eta erabakitze prozesu hau euskal herritarroi soilik dagokigu eta, beraz, euskal gizarteak izango da hartu beharreko erabakien sujetu bakarra.

3- Prozesua benetan demokratikoa izan dadin, preso, errefuxiatu, eta deportatuen eskuhartzea ahalbideratuko duen amnistia emango da.

4- Aipatutako edukinak akordio bidez lortu eta bermatzen direnean bere iharduera armatua geldituko duela adierazten du ETAK.

EA alderdiak bere Eraketa Batzarrean onartutako txosten politiko eta estrategikoan adieraziak beste aldetik, independentismoa izango du helburutzat baita ere (Cuevak aipatua 1988, 312. or.):

*"Eusko Alkartasuna alderdi politiko gisa jaio zen eta Euskadiren askatasunaren eta gizarte-eraldaketaren alde daramagun borroka horretan euskaldunen bateratze tresna izan nahi du. EAK Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen du Euskal Estatu bateratu eta independentea lortzeko bidean. Halaber, beste herrialde batzuekin lotura mantentzeko asmoa azaltzen du, Europako Herrien Federakuntza proiektuaren ildotik batipat, baina beti ere herri guztien berdintasunean oinarrituta eta norberaren autodeterminazio eskubidea aitortuz iraunkorki."*

Bai EAJkoak bai EAkoak ere, Euskal Herri independentearen aldeko agertu izan dira bere sorreratik eta ez HBko eta ETA talde armatuko kideak bakarrik. Euskal biztanleriaren gehiengoa beraz, ETA taldearen ideologia politikoaren ardatz nagusietan ados agertu da edota alderantziz nahi bada, ETA taldea izan da euskal biztanleriaren gehiengoaren ideologia politikoaren ardatz nagusietan bat etorri dena. ETA talde armatuko kideek bortxa politikoa erabiliz erreibindikatzen dituzten eskubide nazionalak eta euskal herritarren gehiengoak abertzaleen izenean euskaldunen eskubide historikoak aldarrikatuz erreibindikatzen dituztenak bat etortzen dira argudio nagusietan. Denak ere, Euskal Herriaren burujabetasuna lortu nahi dute azken batean.

ETA talde armatu nahiz alderdi abertzale ezberdinen ideologia politikoak bat datozela esan badaiteke ere, ezin esan dugu berdin ETA taldeak erabiltzen duen bortxaz, zeren eta, talde honek erabiltzen dituen metodoen alde edota kontra agertzen diren alderdi politiko ezberdinak, guztiz zatituak aurkitzen baitira eta eztabaida gogorrak egoten baitira beraien artean.

ETA taldea dakigun bezala, Espainiako Estatuak Euskal Herrian dituen interesen aurka aritzen da hiltzerainoko intentzionalitatez eta talde honen helburu politikoak txalogarriak badira ere euskal biztanleriaren gehiengoarentzat, ez dute iritzi berdina erabiltzen duten bortxa metodoetaz. Zulaikaren (1994) ustez halaz ere, EAJri ongi dator kio ETA taldearen existentzia Madrilekin dituen hartu emanetan indartsu agertzeko. Areago oraindik, gaurko Espainian Euskal Elkarte Autonomorik izango ote zen galdetzen du, ETA taldea izan ezean.

Bortxak ez garamatzala inora esaten du multzo handi batek; bortxa ez dela egokia arazo politikoak bideratzeko; bortxak ez duela Euskal Herri eta Madrilen artean dagoen gatazka konponduko, areagotu baizik; arazo sozial eta politikoen konponbidea elkarrizketan datzala; etab...

Argudio hauen alde agertzen diren abertzale eta ez abertzale askorentzat bidezkoa litzateke Euskal Herriak helburutzat dituen eskubide nazional zein historikoen defentsan aritzea; bidezkoa baita, Euskal Herriak hain barrendik sentitzen duen burujabetasuna gauza dadin ahalegintzea ere; zenbaitentzat gainera, txalogarria da herriaren alde borrokatzen direnen ausardia; edota txalogarria baita ere, herri minoritario honen eskubideen defentsan arituz bizia emateraino iristen direnen eskaintza.

Lagun ugari dira ETAkideen helburu politikoekin bat etorri arren aipaturiko helburu zein eskubide horiek bortxa politikoaren bidez lortzeari ezetza ematen diotenak, Euskal Herrian egiten den bortxa politikoa kaltegarria eta antzua besterik ez dela uste dutenak. Bortxa politikoari buruz dagoen nahaste honetan euskal biztanleria ia indiferente agertzen dela, esaten digu Jaureguiberry-k (1989, 361. or.), ETA taldearen bortxa polizia edo goardia zibilengana zuzendua egon eta biztanleriagan biktimarik sortzen ez duen bitartean:

*"Begibistakoa da gaur egun euskal populazioak ezikusia egiten diola ETAREN bortxari baldin eta erasoak polizi indarren kontra soilik zuzentzen badu eta herritarren artean kalterik sortezten ez badu."*

## **5.4 Euskal Herriko bortxa politikoaren bidezotasuna edota justifikazioa Linz-en ikerketaren baitan.**

Lehendik aipatua dugu, Robert P. Clark (Cueva-k aipatua, 1988) % 20ko portzentaiaz mintzatzen dela ETA mugimenduak jasotzen duen sostenguaz iharduterakoan. Jaureguiberry-k (1989) ere, % 20 inguru aipatzen du, ETAREN tesiekin bat datozenak direla, eta talde honenganako sinpatia edo gaitzespenik eza adierazten dutenak, jarraitzen du, portzentaia honetatik oso gorakoa izango dela euskal biztanleriagan. Arzallusek bestetik, 200.000 lagun direla aipatzen du ETAREN inguruko boto emaileak.

Linz-ek (1986, 627-646. or.) eskuartean dabilkigun gaiari buruzko datu estatistiko osatuagoak eskaintzen dizkigu eta ondorioztat ondoko hau dio: terrorismoaren gaitzespena fenomeno desbideratu eta delikuentzia arrunt moduan hartua izan arren, euskal biztanleriaren ia % 50ek ez du iritzi negatiboa adierazten bortxa emaileei buruz, baizik eta, abertzale edota idealistatzat jotzen dira zoro eta hiltzaileengandik ezberdinduz. Jokabide horrek, jarraitzen du, bortxan dabilzan pertsonenganako "konprentzioa" eta babesa adieraziko luke neurri batean.

Aurrera jarraitu aurretik esan behar da, honako galdera agertu zuela Linz-ek aipaturiko ikerketaren erantzuleei: "Terrorismoan konprometituak dauden pertsonengan pentsatuz orain, ondorengo zein terminok deskribatzen du egokien zure iritzi?: Abertzaleak, idealistak, beste batzuk manipulatuak, zoroak, hiltzaile arruntak".

Ohartu behar dugu Cueva-k dioen modura (1988), Linz-ek bere ikerketa lanerako erabiltzen duen galdera, sesgatua kontsidera daitekeela, "terrorista" terminoa erabiltzen duelako. Bigarrenik gainera, galdera honek nahastea sor dezakeela erantzulearengan, "Terrorismoan konprometituak..." esaterakoan, -ETA taldearen bortxan konprometituak-uler baitaiteke edota -eskuin muturreko zein mertzenario parapolizialen bortxan konprometituak- ere bai. Eta azkenik, emaitzen portzentaia % 100tik gorakoak izan direla adierazi behar da, elkar hizketatuak direnak erantzun bat baino gehiago eman ahal izan dutenez.

Kontutan hartzekoak diren mugok aipatu ondoren, delako ikerketan lortutako emaitzak baloratzen hasiko gara.

Espainiako populazioak orokorrean, (Euskal Herria barne) emandako datuen arabera esan daiteke, Espainiako biztanleriaren % 21ek iritzi positiboa duela bortxagileez (% 4k "abertzale" eta % 17k "idealista"). Espainiako biztanlegoaren % 39k bestetik, iritzi negatiboa azaldu zuen, (% 18k "zoro" eta % 21ek "hiltzaile") eta pertsona "manipulatuak" direla azkenik, % 47k aipatu dute eta % 5ek ez du erantzun.

Portzentaia hauen arabera eta 1978. urtean Espainiako Estatuaren hauteskunde zentsua 26.632.180 lagunek osatzen zutela jakinik, bortxagileez iritzi positiboa dutenak 5.592.758 pertsona dira (% 21) eta "abertzale" aukeraz kalifikatzen dutenak 1.065.287 lagun (% 4). Bortxa politikoa negatibotzat jo dutenak bestetik, 10.386.550 lagun (% 39) izan dira eta "hiltzaile" aukeraz kalifikatu dutenak 4.793.792 pertsona (% 18).

Euskal Herriak ETAkideez egiten duen balorazioa bestetik, guztiz ezberdina da 40. taulan ikusi ahal izango dugunez. Euskal biztanleriari dagozkion emaitzak askoz ere positiboagoak dira Espainiako biztanleriarenak baino, berorietako % 48k edo ia erdiak "abertzale" edo "idealista"tzat jotzen baitute ETA taldearen bortxa 1978. urteko ekaina-uztailean (Euskal Herriko lau lurraldeetan) 1.140 laguni egindako galdeketaren arabera. 1979. urteko urria-azaroan (Euskal Elkarte Autonomoan) 1.011 pertsonari dagokien erantzunetan bestetik, % 54k "abertzale" edo "idealista" erantzun du baita ere. "Zoro" edo "hiltzaile" berriz, % 18k besterik ez du esan 1978. urtean eta % 13k 1979. urtean. Erantzun ez dutenak azkenik % 10 izan dira lehenengo kasuan eta % 14 bigarreanean.

	<u>1978</u>	<u>1979</u>
"Abertzale" edo "idealista" diotenak	% 48	% 54
"Zoro" edo "hiltzaile arruntak" diotenak	% 18	% 13
Ez dute erantzuten	% 10	% 14

Datu hauek direla-eta, nabarmen da euskaldunen gehiengoak "abertzale" edo "idealista"tzat jotzen duela ETAkide jendea. 1978. urteko datuak halaz ere, zerbait eskasagoak dira ikus daitekeenez, baina hori ez da ETAkideetaz iritzi negatiboagoa dagoelako, baizik eta Nafarroako emaitzak barnean direlako.

Datuon zehazpen gehiago 41. taulan agertuko zaizkigu, bertan euskal biztanleriaren identitate nazionala eta 1979. urria-azaroan terrorismoaz jasotako datuak erlazionatzerakoan ikus daiteke, Euskal Elkarte Autonomoko biztanleriaren % 50ek iritzi positiboa agertzen duela bortxagileez, (% 17k "abertzale" eta % 33k "idealista"). Euskal biztanleriaren % 13k bestetik, iritzi negatiboa azaldu zuen, (% 8k "zoro" eta % 5ek "hiltzaile") eta pertsona "manipulatuak" direla azkenik, % 29k aipatu du eta % 14k ez du erantzun.



Euskal Elkarte Autonomoko biztanleriari dagozkion portzentaien arabera eta 1979. urteko legislatiboetako hauteskunde zentsua 1.911.185 lagunek osatzen bazuten, iritzi positiboa 955.592 lagunek (% 50) zuten eta "abertzale" aukera hautatzen zutenak 324.901 lagun (% 17). Bortxa politikoa negatibotzat jotzen dutenak bestetik, 248.454 pertsona (% 13) izango dira eta "hiltzaile" aukeraz kalifikatu dutenak 95.559 pertsona (% 5).

41. taula honetan ematen diren kopuruen arabera esan daiteke, Euskal Elkarte Autonomoko herritargoa zenbat eta euskaldunago identifikatu, orduan eta ikuspegi positiboagoa agertzen duela bortxagileei buruz eta gehiago legitimatu nahiz justifikatzen duela, hala nola: espainol identifikatzen diren arteko inork ez du aipatzen bortxagileak "abertzale" direnik; euskaldun baino gehiago espainol gisa identifikatzen direnen arteko % 2k berriz bai; espainola bezain euskaldun direla dioten % 7k baita; espainola baino gehiago euskaldun direla diotenen % 16k baita; eta euskaldun soilik identifikatzen diren % 33k baita. Bortxagilea "hiltzaile"tzat jotzen dutenak beste aldetik, geroz eta neurri txikiagoan ematen da biztanleria euskaldunago identifikatzen den neurrian, hala nola: espainol identifikatzen direnen arteko % 13k; euskalduna baino espainolago identifikatzen direnen arteko % 9k; espainola bezain euskaldunen arteko % 4k; espainola baino euskaldunago diotenen artean % 5k (zerbait igotzen da); eta euskaldun soilik identifikatzen diren % 2k.

Ondorio gisa esan daiteke baita ere, Euskal Elkarte Autonomoko herritarren gehiengoa ez datorrela bat Espainiako nahiz Euskal Herriko zenbait alderdi politikotako ordezkariak, komunikabideak erabiltzeko duten erraztasunaz baliaturik, bortxa emaitzetaz agertu ohi duten mezuekin. Espainiako nahiz Euskal Herriko zenbait alderdi politikotako ordezkariak ETA taldeaz azaldu ohi dutena gogoratu berriz ere, ETAkideak zoro batzu, hiltzaileak, odoltzaleak, gaiso sikiko, bortxaren sortzaileak, etab... direla baitiote askotan. Euskal biztanleriak ETA taldeaz agertzen duen iritzia ikuspegi pesimista izatetik nahikoa urruti dago, izan ere euskal biztanleriaren % 50ek iritzi positiboa agertzen baitu eta % 13k besterik ez, negatiboa.

42 eta 43. tauletan bestetik, 1979. urtean hauteskundeetara aurkeztu ziren alderdi politikoak eta beroriek bortxagileei buruz eman zituzten iritziak erlazionaturik azaltzen dira. Hauteskundeotan bere botoa euskal alderdi abertzaleei eman ziotenak, HB eta EEk (bigarren alderdi politiko hau, EAJ eta PSOE alderdietan banatua dago gaur egun) adibidez, iritzi oso positiboa agertzen dute ETA taldearen bortxaz. HBko % 85ek esatebaterako (% 60k "abertzale" eta % 25ek "idealista") eta EEko % 85ek baita (% 31k "abertzale" eta % 54k "idealista"). Bi alderdi politiko hauetako kideek bestetik, ez dute iritzi negatiborik agertzen "zoro" edo "hiltzaile" aukeraz inor baliatzen ez denez bortxagilearen jokabidea kalifikatzeko garaian.

Aipaturiko bi alderdi politiko abertzaleon emaitza positiboetatik nahikoa urruti geratu dira EAJrenak (gaur egun EAJ eta EA alderdietan banatuak) baina, guztiz esanguratsuak hauek ere, EAJko kideen % 40k iritzi positiboa agertzen du (% 9k "abertzale" eta % 31k "idealista") eta % 18k beste aldetik, iritzi negatiboa azaltzen du, (% 12k "zoro" eta % 6k "hiltzaile").

Zer adierazi nahiko lukete zehazki, EAJko kideek emandako datuok?, alderdi politiko honetako boto emaleak ere ez datoztela bat beren ordezkariak behin eta berrero ETA taldeaz adierazitako mezuekin?. Bortxagileei sostengua eta bultzada ematen diotenak HBko botoemaleak bakarrik ez direla, baizik eta EAJko milaka batzuk ere bai? Politikarien mezuek, alderdi bakoitzari interesatzen zaion mailan aldarrikatuak direla azken batean? Politikoez zabalduko mezuek sinesgarritasun eskasa dutela askotan biztanleriagan?.

Kontu izan EAJko gehiagok adierazten dutela iritzi positiboa (% 40k) negatiboa baino (% 18k) eta bortxagileak "abertzalea" aukeraz kalifikatzen dutenak ere gehiago dira (% 9), "hiltzaile" diotenak baino (% 6).

Bere botoa alderdi politiko espainolistei ematen diotenak, PSOE eta UCDk adibidez, neurri txikiagoan kalifikatzen dute "abertzale" gisa ETAkideen jarrera 43. taulan ikus daitekeenez, hala ere, bada halako zenbait hauen artean ere. PSOE eta UCDko kideen artean iritzi positiboa agertzen dute PSOEko % 46k (% 5ek "abertzale" eta % 41ek "idealista") eta UCDko % 17k baita, (% 4k "abertzale" eta % 13k "idealista"). PSOEko % 15ek (% 10ek "zoro" eta % 5ek "hiltzaile") eta UCDko % 30ek (% 15ek "zoro" eta % 15ek "hiltzaile") beste aldetik, iritzi negatiboa azaltzen dute eta lehen alderdiko % 5ek eta UCDko % 15ek "hiltzaile" modura kalifikatzerakoan, guztiz negatibotzat jotzen dute bortxa politikoa.

Zer esan honetaz ere? Bere botoa alderdi espainolistei ematen ziotenak ere ez zetoztela bat bere alderdi politikoetako ordezkariak, bortxagileei buruz emailetaz behin eta berrero eman ohi zuten mezuekin? ETA talde armatukideek herritarrengandik jasotzen duten babes nahiz sostenguren bultzada HB alderdikideetako gutxi batzuk emana ezezik, UCD nahiz PSOEko edo alderdi espainolistei botoa ematen dioten zenbaitena ere badela?.

Kontu izan berriz ere, PSOE alderdi espainolistako kideen artean ere gehiagok eman dutela iritzi positiboa bortxagileez (% 46k), negatiboa baino (% 15) eta bortxagileak "abertzale" edo "hiltzaile" aukeraz kalifikatu dutenak bestetik, portzentaia berdinean daude.

1979. urteko botoen arabera, UCD alderdi politikoak ezik, beste guztietan gehiagok eman dute iritzi positiboa negatiboa baino. ETAkidea "abertzale" edo "hiltzaile"tzat jotzen zutenen proportzioa azkenik, 44. taulan azaltzen da eta bertan ikus daitekeenez, UCD alderdi politikoak ezezik, beste guztietan ere eta PSOE zein EAJ alderdiak barne, lagun gehiagok kalifikatu dute abertzaletzat hiltzailetzat baino.

Nafarroari dagozkion datuak 45 eta 46. tauletan azaltzen zaizkigu eta bertan ageri denez, herrialde honetako % 38k iritzi positiboa agertu du (% 12k "abertzale" eta % 26k "idealista"). Biztanleria honen % 17k beste aldetik, iritzi negatiboa ematen du (% 9k "zoro" eta % 8k "hiltzaile") eta pertsona "manipulatuak" direla azkenik, % 27k esan du eta % 23k ez du erantzun.

Nafarroan ere ikus daitekeenez, askoz gehiago dira ETA taldeaz iritzi positiboa agertzen dutenak negatiboa baino. Nafarroak 1978. urtean zuen hauteskunde zentsua 361.243 lagunek osatzen zutela jakinik,

iritzi positiboa adierazten dutenak 137.272 lagun (% 38) dira eta "abertzale" aukeraz kalifikatu dutenak 43.349 lagun (% 12). Bortxa politikoa negatibotzat jotzen dutenak bestetik 61.411 lagun (% 17) izan dira eta "hiltzaile" aukeraz kalifikatu dutenak 28.899 lagun (% 8).

Euskal nafar alderdiari dagokion beste datu interesgarri bat Barne Ministraritzako "Estatuko Segurtasun Zuzendaritza"k ematen digu PLAN Z.E.N. (Ministerio del Interior 1983) (Zona especial del Norte) izeneko liburuak dakarren "Medidas legales y actuaciones judiciales" deritzan sailaren "Ley organica 11/80 de 1 de diciembre" atalean, bertan, Euskal nafar aldeko biztanleriaren % 15ak bakarrik kontsideratzen omen du terrorista jendea, "gaizkile arrunt".

Frantses estatuko euskal lurraldeetako biztanleriaren iritzien arabera, esaten digu Linz-ek, euskaldun identifikatzen direnak ikuspegi positiboa adierazten dutela bortxagileei buruz, berorietako herenak "abertzale"tzat joz bortxagileak, beste herenak "idealista" eta gainontzeko gehiengoak "manipulatu" gisa. Frantses bezain euskaldun identifikatzen direnen artean banaketa haundiagoa dago horietako % 9k "abertzale" direla esaten baitute. Identitate bikoitza eta frantses identifikatzen direnek ere, ez dute zehazki negatiboa den iritzia ematen; % 5ek "zoro" eta beste % 5ek bakarrik "hiltzaile" esaterakoan. Horiek "manipulatu"tzat jotzen baitituzte eta "idealista"tzat ere proportzio berean.

Frantses Estatuko euskal lurraldeetako biztanleriari Hego Euskal Herriko gatazkaz galdetzerakoan eta hain zuzen, Euskal Autonomiako Estatutua onartu ondoren ETA taldeak Espainiako Estatuaren aurka daraman borrokak jarraitu behar duen, honelakoak dira emaitzak 47. taularen arabera: % 15ek baietz, % 77k ezetz eta % 8k ez du erantzun. Idazleak esaten duen modura, datu hauek ez dira bazterrean ahaztuta uztekoak.

Garai honetako datu gehiago Cueva-k (1988) eskaintzen dizkigu eta Jiménez Blanco-k (Cueva-k aipatua 1988, 141-144. or.) zuzenduriko taldeak lortutakoak ere bai. 1979. urteko udan egindako inkesta honetan 9.581 lagunek hartu zuten parte eta berorietako 1.927 lagun Euskal Elkarte Autonomokoak izan ziren. García Fernando-k (Cueva-k aipatua 1988) argitaratutako emaitzak honako hauek dira Euskal Elkarte Autonomoari dagozkionetan: "abertzale" edo "idealista" % 57k diote eta "zoro" edo "hiltzaile arrunt" % 18k. Hemen ere, ETA taldearekiko iritzi positiboa ageri da alde batetik eta Espainiako Estatuan jasotako datuekiko ezberdintasunik bada, Euskal Elkarte Autonomoan ezezik beste inon ere esaten baitu gehiengo batek ETAkideak "abertzale" edo "idealista" direla. Kopururik haundiena Bartzelona eta Kataluniako gainontzeko lurraldeetan dago % 26k "abertzale" edo "idealista" aipatzen dutelarik baina, % 35ek baita ere "zoro" edo "hiltzaile arrunt" direla dio. ETAREN alde gutxien egiten dutenak León (% 8k "abertzale" edo "idealista") Murtzia eta Andalusia (%9). ETAREN kontra gehien egiten dutenak bestetik, Murtzia (% 71k "zoro" edo "hiltzaile arrunt"), Kanariak (% 68) eta Andalusia (% 66). Espainiako Estatu eta euskaldunen artean ETA taldeaz dagoen iritzi ezberdinen beste froga bat 1978. urtean "Metra Seis" (Cueva-k aipatua 1988, 141-142.

or.) delakoak Penintsula eta Balearretan eginiko inkestaren emaitza da. Ikerketa honetan egiten den galdera honako hau da: "Akort zaude ETArri buruz ematen diren iritziz hauekin?"

- Euskal Herriaren askatasunaren alde borrokatzen duten abertzale batzuk dira
- Harrapatu eta desagertaraziak izan behar duten terroristak dira"

Galderon emaitzak ikus daitekeenez, inbertituak geratzen dira Estatuko laginketarenak edota Euskal Herriko azpilaginketari dagozkionak diren neurrian. Hona hemen erantzuten dutenen portzentaien araberrako datuak:

Lehen galdera:	Estatuan	Euskal Herrian
Bai.....	33	59
Ez.....	67	41
	-----	-----
	100	100

Bigarren galdera:		
Bai.....	68	31
Ez.....	32	69
	-----	-----
	100	100

Emaitza hauetan ikusitakoari jarraikiz, -Euskal Herriaren askatasunaren alde borrokatzen duten abertzale batzuk dira- galderari baietza eman dio Estatuko % 33k (herenak) eta Euskal Herriko % 59k. Bigarren galderan bestetik, -harrapatu eta garbituak izan behar duten terroristak dira-galderari ezetza eman dio Estatuko %32k (herenak) eta Euskal Herriko % 69k (bi herenak).

Barrionuevo ministrariaren (Cueva-k aipatua 1988, 142-143. or.) aginduz 1983. urteko otsailean egin zen inkestan ("Actual" aldizkariak argitaratu zituenekoan) horrela galdetu zen:

- "Inongo justifikaziorik gabeko izukeria soila da"
- "Jokaera politikoak defendatzeko era legitimoak dira"

Bortxa politikoaren definizio hauetaz, % 54k inongo justifikaziorik gabeko izukeria soila zela erantzun zuen eta % 27k berriz, jokaera politikoak defendatzeko era legitimoa.

"Eusko Jaurlaritzaren Prospektzio Soziologikorako Kabinetea" delakoaren aginduz EEako 18 urtetako 11.000 gazteri egindako inkestan. Ruiz de Olabuenaga-k (Cueva-k aipatua 1988) zuzendu zuen 1984. urtean, egindako galdera honakoa izan zen: "Poliziaren aurkako atentatua onar al daiteke, preso politikoei eginiko

torturetan parte hartu duela frogatzen bada". Guztiz eta partzialki akort daudela esan dutenak % 40 izan ziren, guztiz eta partzialki desakort % 39; zalantzan berriz, % 15.

Ez dugu zifra gehiago eman ez jarraituko, ez baita gure asmoa datu zehatz eta jakin batzuen bila aritzea eta bigarrenik gainera, ikerlari ezberdinek ematen dizkiguten datuetan ikus daitekeenez, mezu berdina adierazten baitute. ETA taldeaz esaten digute, ikuspegi nahikoa positiboa eman dela orokorrean. ETA taldeak herritarren babesa jaso izan duela. ETA taldea ez dela baztertua egon, baizik eta milaka euskaldun nahiz kanpotar izan direla abertzaleon alde agertu edota talde armatu honen legitimazio nahiz justifikazioa adierazi dutenak.

Laburbilduz gogoratu:

1- ETA taldearen erantzunkizuna pentsaezina zitekeela herria eta talde armatuaren artean identifikazio estua egon ez balitz, edota herritarrengandik isolaturik balego.

2- Euskal biztanleriaren gehiengoa bat datorrela ETA taldearen ideologia politikoaren ardatz nagusietan.

3- Euskal biztanleriaren gehiengoak ezetza eman duela dagozkion eskubide sozio-politikoak bortxaren bidez lortzeari.

4- Espainiako Estatuko (Euskal Herria barne) laurdenak iritzi positiboa agertu duela bortxagileez.

5- Euskal biztanleriaren erdiak iritzi positiboa adierazi duela bortxagileei buruz eta % 17a bortxa justifikatzera iristen dela.

6- Nafarroan ere, askoz gehiago izan dira ETA taldeaz iritzi positiboa agertu dutenak negatiboa baino.

7- Euskal biztanleriak ETA taldeaz emandako iritziak, askoz ere positiboagoak izan direla Espainiako biztanleriarenak baino.

8- Euskal Herriko biztanleria zenbat eta euskaldunagoa identifikatu, orduan eta ikuspegi positiboagoa agertzen du bortxagileez emaitzetaz eta gehiago legitimatu nahiz justifikatzen du ETAkideen jokabidea.

9- Espainiako nahiz Euskal Herriko zenbait alderdi politikotako ordezkariak ETA taldeaz agertu ohi dituzten iritzi nahiz mezuak, ez dira bat etorriko euskal biztanleriaren gehiengoak talde honetaz agertu duen iritziarekin.

10- Euskal Herrian nazionalista identifikatzen direnak eta hauen artean ezker ideologiakoak direnak bereziki, espainolista identifikatzen direnak baino ikuspegi positiboagoa agertu dute (EAJ eta PSOEren kasuan ezik, zeren eta PSOEko gehiagok eman baitute iritzi positiboa ETA taldeaz, EAJkoak baino) eta gehiago legitimatu nahiz justifikatu dute ETAkideen jokabidea.

11- 1979. urteko botuen arabera, UCD alderdi politikoak ezezik, beste guztiek ere eta PSOE eta EAJ alderdiak barne, ETAkideak abertzaletzat jo dituzte, hiltzaile baino.

12- Bortxagileei babesa eta adorea eman diotenak ez dira HBko boto emaileak bakarrik izango, baizik eta gainontzeko alderdi abertzaleetako milaka asko ere bai.

13- ETA taldeak herritarrengandik jasotako sostengua alderdi abertzaleek emandakoa ezezik, besteren artean PSOE eta UCD alderdietako kideek emandakoa ere izango da.

Onartu beharra dago, milaka lagun direla Euskal Herrian bertan eta kanpoan ere, ETAkideen jarrera positibotzat jotzen dutenak edota gure herrian gertatzen den bortxa politikoaren bidezkoasun eta justifikazioa zalantzan ipintzen ez dutenak, milaka pertsona, bortxagileen borroka, herriaren sufrimendu, errepresio nahiz okupazioaren askatzailetzat jo dituztenak, alegia.

## **5.5. Euskal Herriko bortxa politikoaren bidezkoasuna edota justifikazioa, J. Elzo eta J.F. Valenciaren ikerketen baitan.**

Aurreko atalean ikusi dugunez, Linz-ek argitaratutako datu estatistikoei eskaini diegu lerrorik gehien eta garrantzi berezia eman ere, beraiek zirelako besteren artean datu argigarri eta osatuenak eskaintzen

zizkigutenak. Bertan genioenez, euskal biztanleriaren ia % 50ek iritzi positiboa adierazi du bortxagileei buruz eta hauen artean Euskal Herria eta Madrilaren arteko gatazkari amaiera ematearren bortxa politikoa justifikatzen zutenek, Euskal Herriko biztanleriaren gutxiengoa osatzen bazuten ere, % 17 ziren aukera honen aldekoak.

Oraingoan ordea, 1986. urtetik 1994. urtera bitartean Elzo, Belaustegi eta Valenciak Euskal Herriko 15-29 urtetako gazteei bortxa politiko eta sozial ezberdinei buruz, hiru alditan (1986, 1990 eta 1994) eginiko ikerketen ondorioen laburpena agertuko dugu eta bertan ohar daitekeenez, Euskal Herriko gazteek, bortxa politikoa legitimatu nahiz justifikatzen dutenen batzbestekoa, Europar eta Espainiako gazteena baino altuagoa da, azken hauek direlarik bajuenak.

Elzo eta Belaustegik (1990, 567. orrialdea) terrorismoaren justifikazioaz 48. taulan agertzen dizkiguten datuak ikusiz, esandakoaz ohar gaitzke eta Euskal gazteriak 1986tik 1990. urtera egindako aldaketaz ere bai. Lau urte hauetan, bortxa politikoa justifikatzen dutenen kopurua zerbait jaitsi da, 1986. urtean esatebaterako, 15-29 urteko % 36k onartzen bazuen bortxa politikoa, 1990. urtean % 27,4koa da sostengua, 1994. urteko emaitzetan berriro igotzen bada ere (32,1).

1986. urteko ikerketaren arabera, dio Elzok (1986), euskal gazteak ez direla espainiar gazteak baino bortxazaleagoak, baizik eta Euskal Herriko bortxa-egoera Espainiakoa baino areago doanez, euskal gazteek parte haundiagoa hartzen omen dute bortxa horretan. Gauza nahiz pertsonen aurkako bortxa justifikatzen duten gazteen ezaugarri soziologikoen artean bestetik, gizonezko izateaz aparte honakook azalduko dizkigu garrantzi gehienetik gutxienerako ordenean: ezaugarri politiko (ezkertzalea izatea, abertzale moduan identifikatzea, etab.) zein erlijiosoak batipat (Jaungoiko eta erlijiotik urruti aurkitzea esatebaterako, etab.) eta garrantzi gutxiagorekin, drogaren kontsumoa, aisaldietan aspertzeta eta eskola porrota. Adina, herria, probintzia, klase sozial eta lanbideek ez dutela eraginik esaten digute.

1990. urteko ikerketaren (Elzo eta Belaustegi, 1990) ondorioetan, aurrekoan emandako ideiarik nagusienak errepikatzen badira ere, Gipuzkoa dela esaten da oraingoan, gazteek bortxa gehien justifikatzen duten lurraldea eta beste hainbeste behe mailako klaseari dagokionean eta eskola porrotari buruz. Euskal Herriko gazteriaz eginiko bigarren ikerketa honetan esaten da baita, bertan jaiotakoaren artean nekezago gaitzesten dela terrorismoa. Egin-en irakurlegoaz eta HBko botoemaile nahiz Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan abstenitzen direnetaz ere, beste horrenbeste pentsatzen da. Sentimendu nazionala zenbait eta euskaldunagoa izan, orduan eta gehiago omen dira bortxa izateko aukerak; elizaren eragina duten gazteek aldiz, gutxiago onartzen dute bortxa orokorrean eta terrorismoa beti gaitzesten dutenak diote, azkenik, portaera etiko exigenteagoa izaten omen dute justifikatzen dutenak baino.

Valenciak (1994, 201-213 orrialdeak) azkenik, aurreko bi ikerketetan eginiko eskemetatik atereaz, bortxa politikoaren marko teoriko berria osatzen du zenbait adituren laguntzaz eta horren arabera, euskal gazteek

1994. urtean bortxa politikoaz adierazitakoa aztertzen du. Laginketa horrek, bortxa politikoaren aurrean norbere jokabideetan eragina nabari duten prozesu eta aldagaietan sakondu nahi izango du.

Lehenik, eta Creushaw-en (Valenciak aipatua, 1994) hitzak erabiliz, zera digu, "alde batekoentzat terrorista dena beste aldekoentzat askatasunaren borrokalaria da" eta bortxa politikoaren definizioaz bestetik, erabaki politikoetan eragina izatera zuzendua den bortxa da, ezaugarritzat, sinbolikoa eta ezohikoa izatea lukeena.

Eskuartearen duen bortxari buruzko ikerketaren helburua gehiago mugatuz, "behe"tik zuzendurikoa edo garaiko estatuaren aurka jotzen duten ideologiek eragindako bortxa politikoaz aritzen omen da, Estatutik zuzenduriko bortxa politikoa edota herritarrei "goi"tik inposatzen zaionetik ezberdinduz. Lehenengoak gainera, psikologia sozialera eramango omen gaitu eta bigarrenak burokraziaren psikologiara.

Bortxa politikoa aurrera eramateko eragina duten prozesu eta gainontzeko egoera zein zioak, esaten digu bestetik, anitzak direla eta horrela, helburu ideologikoetan oinarrituriko bortxa politikoak, gizarte iraultza edo nazionala egiteko, autodeterminazioa nahiz independentziaren alde aritzeko, edota egoera kontserbadoreen alderako ere erabiliko dela. Erakunde armatuek dituzten egiturak ere anitzak omen dira, guztiz hierarkiko eta zentralizatu zorrotzak izanik batzuk, deszentralizatu eta anarkikoak besteak, etab. Politikak eragina izango duen bortxa moeta horiek, demokrazian zein estatu autoritarioetan egon daitezke, politikoki egonkorrak direnetan edota ahulak nahiz ezegonkorretan. Helburuen aukeraketa eta metodoen lehentasunari buruz ere ezberdintasunak daude; gizarteak homogeneoak edota heterogeneoak izan daitezke; eta Estatuaren aurkako bortxa horretan, politikaren kultura tolerantea edo intolerantea izan daiteke. Beste hainbeste, nazioarteko testuinguruari dagokionean.

Halako egoerek, prozesu sikosozial ezberdinak eragiten dituzte bortxa politikoari dagokionean eta Pos-ek (Valencia- ak aipatua, 1994), esaten duen modura, bi organizazio moeta sortzen dira "behe"tik: "anarkiko-ideologikoak" zein erdi mailako klasekoak (RAF, LPO salbuespena da) izateaz aparte, ideologia anarkisten aldekoak (Baader-Mainhoff) dira, eta "nazionalista-independentista"k, langileriarenak eta behe, erdi mailakoak izateaz gain (ETA, IRA) ideologia marxisten aldekoak azaltzen dira (ETA, LPO, IRA). Lan honen helburua mugatzen jarraituz, "behe"tik eta "nazionalista- independentista" diren taldeen bortxa politikoaz arituko gara hemen.

Bortxa politikoaren marko teorikoaz dagoen ahulezia aipatu behar da baita ere, besteren artean gai eztabaidatsua delako; zientifikoki aztertzen hasi berria; eta suposatzen duen mehatxua medio, gobernuak fenomeno honen aztergai diren zenbait zio garrantzitsu izkutatzeaz gain, autobiografia sesgatua azaltzen baitituzte sarritan. Zailtasun hauen ondorioz, bortxagileen prozesu sikopatologikoen azterketak; berorien nortasun edota lituzketen akats sozialak; etab. aztertzeraren eramatzen du aztertzaile jendea, nahiz eta bortxagileen normaltasunaz besterik ez ohartarazi, bide honetatik egindako ikerketek.



Orain arteko hutsegiteaz konturaturik, taldeko fenomenoa bailitzan aztertuko da aurrerantzean bortxa politikoa, erakunde armatuek herritargoa bereganatu nahiko dutelarik, sinpatizante edota militante bihurtuz herritarra, eta gobernuek, bestetik, kontrako bidea jorratuko dute. Honetan guztian, jasotzen den sostengu herrikoia edota legitimazioa garrantzitsua izaten da erakunde nazionalista- independentistentzat batipat (IRA, ETA).

Atal honen helburua azkenik, "behetik" "nazionalista- independentista" ezaugarria duten bortxa politikoa legitimatzen dutenetaz izango da eta ez bortxa erabiltzen duten taldeetat.

Bortxa politikoa gertatzeko elementu pertsonalen teoriari kontrajarriz, prozesu sikosozialean oinarrituriko "politikaren kultura berria" deiturikoa sortzen du Inglehary- k (Valenciak aipatua, 1994). Beronek dioenez, bortxa politikoaren onarpena edota gaitzespena aipaturiko politikaren kulturaren ondorio litzateke (belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren sinismen sistemak), aldi berean, balore materialista/postmaterialisten aldaketan oinarrituriko lirategelarik eta beroriek, datozten belaunaldien praktika sozialetan. Materialismo/postmaterialismoa bi postulatuotan oinarritzen da: "isomorfismoa" gure gizarteko aldaketa teknologikoen aldaketa ekonomiko eta herrien arteko interdependentziara garamatzala dioena, ongi izate eta

behar fisiologikoetatik (ekonomiko, ziurtasun pertsonal, etab.) behar sozial, bizitzaren kalitate eta autoerrealizazio beharretara joanez. Bestea, "sozializazioa", balore eta politikaren kulturaren aldaketak poliki egin ohi direla dioena, eta ondorengo belaunaldien sozializazio bidez egiten dena, bereziki.

"Politikaren kultura berri" honek garrantzi handia du bortxa politikoa onartu edota gaitzesteko garaian eta Inglehart-ek gainera, hori horrela izateko hiru arrazoi azaltzen ditu: a) materialistek mementuko behar fisiologikoak asetzera jotzen dute. Postmaterialistak berriz, nahikoa ziur daude behar hauetaz eta energia sikiko gehiago izaten dute politikan erabiltzeko. b) Postmaterialistek, ez dute garaiko orden sozialarenganako zaletasun haundirik. c) Politika ezkonbentzionalaren bidez gauzei egindako kalteak ez zaizkie oso negatiboak iruditzen postmaterialistei, materialistek baino gutxiago baloratzen baitzite gauzenganako mehatxuak. Postmaterialistak hortaz, energia sikiko gehiago izaten dute politikara zuzentzeko; egungo ordena gutxiago babesten dute, eta galtzeko gutxiago izaten dute bortxa ezkonbentzionalaren bidez gauzen aurka eragindako erasoetan.

Valenciak 1994. urtean Euskal Herrian gertatzen den bortxa politikoaz lortutako datu estatistikoaren arabera ondokoa esan daiteke:

A- Laginketari dagozkion datu orokorrak agertuz, dio Valenciak (1994), bertako partaideak orohar, bortxa justifikatzearen aurka badaude ere, hauetako % 32,1 onartzen dutenen alderdian kokatzen da eta % 67,9 aurka. Materialistak eta postmaterialisten banaketan ostera, % 38,8 materialistak eta % 61,2 postmaterialistak omen dira. Aldaketa sozialerako politikaren kulturari dagozkionetan azkenik, laginketako

partaideak ez dira nabarmenki desakort agertzen, aldaketa iraultza bidez egitearekin % 34,3 akort agertzen da eta % 65,7 desakort. Aldaketa soziala erreformaren bidez egiteari, laginketaren % 48,7k baietza eta % 11,3k ezetza ematen dio eta egungo egoera soziala defendatzeari dagokionetan, ezadostasun txikia ematen da % 46,9 akort eta % 53,2k ezados azaltzen direnez.

B- Balore materialista eta postmaterialisten aurrekariak aztertzeko, adin taldea, sexua eta dagokion hizkuntza hartzen dira aldagai sozio-estrutural modura, ezberdintasun esanguratsua ematen delarik adin taldeari buruzkoan, zenbat eta urte gehiago orduan eta postmaterialistagoa azalduz. Sexu eta hizkuntza aldagaietan bestetik, ez da ezberdintasun esanguratsurik aurkitu. Ondorioak aztertzeko, politikaren kultura eta bortxarekiko jarreraren aldagaiak erabiltzen dira, ezberdintasun esanguratsuak daudelarik bi aldagaiotan. Iraultza bidezko gizarte aldaketarekin zenbat eta adostasun gehiago egon, orduan eta postmaterialistagoa eta, gutxiago denean materialistagoa. Era berean, bortxarekin adostasun gehiago bada, orduan eta postmaterialistagoa.

C- Bortxa politikoaren ezaugarriak aztertzeko, berriz, bortxa politikorako jarrera eta aldagai sozio-estruturalak, balore materialista edo postmaterialistakoa izatea zein politikaren kultura hartzen dira aldagaitzat, honako emaitzak lortuz: gizonezkoek emakumezkoak baino adostasun haundiagoa adierazten dute bortxari dagokionean. Berezko hizkuntzak ere ezberdintasun esanguratsuak dakarzki zeren eta, euskal hiztun izateak, adostasun haundiagoa adierazten baitu erdal hiztun izateak baino. Adin taldearenean berriz, beste hainbeste, gazteagoak esatebaterako, helduagoak baino adostasun haundiagoa adierazterakoan. Gurasoen lanbideak aldiz, ez du ezberdintasun esanguratsurik adierazten bortxa politikoari buruz. Balore materialista edota postmaterialisten aldeko izateak ezberdintasun esanguratsuak sortzen ditu postmaterialistak adostasun haundiagoa agertzen dutenez materialistek baino. Iraultza bidezko kulturaren politikaren aldaketaren aldeko izateak azkenik, bortxarekiko adostasun gehiago adierazten du. Kultura politikaren erreformistarekin edota egungo gizartearen defentsarekin ados agertzeak ostera, bortxarekiko adostasun gutxiago adieraztea dakar.

D- Analisi kualitatibo eta bortxarekiko jokabideen azterketa azkenik, eztabaida taldeetan gauzatzen da, bortxaren jarrerarekiko lau talde sortuz. Lehen taldeak ez zuen erantzunik eman (% 43) izan ere, egin zitzaizen galdera zabala zen, droga, alkohola edo bortxa arruntaz eztabaidatzeko aukera eman zitzaenez. Bigarrenak, edozein bortxa moztaren aurkako jarrera adierazi zuen (%35,8). Hirugarrena, bortxaren legitimazioaren alde agertzen zen, giza eskubideak defendatzeko garaian (% 11,3) eta laugarren taldeak azkenik, defentsiba-bortxa ezin gaitzetsi dela esaten zuen (% 9,4).

Bortxa esanahiaren analisiak bestetik honakoetan biltzen ziren. Lehen taldeak, inguru sozialaren ondorioztat definitzen zuen bortxa (% 14,6). Bigarren taldeak, alkoholaren ondorio gisa (% 11); hirugarrenak, geure barnean daramaguna esanez (% 14,6); laugarren taldeak, bortxa txarra dela baina ezinbestekoa (% 3,3); bi taldetxok, diruaren erruz gertatzen dena edota bortxa moeta asko direla eta ez terrorismoa bakarrik, diote (% 2,6); beste batek, ideal okerren ondorioa dela; eta azken talde batek bukatzeko, ez zuen bortxaren definizioari erantzunik eman (% 62,8).

"Behetik-gora" "nazionalista-independentista" ezaugarria duen bortxa politikoaz Euskal Herriko gazteen laginketak emandako iritzien datuak ikusi ondoren, orokorrean esan daiteke, aurreko orrietan Euskal Herriko bortxa politikoaren justifikazioaren laburpenean agertu ditugun ideia nagusiak bere horretan mantentzen direla ezer askotxo aldatu gabe.

Valenciaren ikerketaren datu garrantzitsuenak laburbilduz, honakook esan daitezke: 1- bortxa politikoa justifikatzen duten gazteen proportzioa dextente haundia izaten jarraitzeaz aparte (gazteen herena), 1990. urtekoekin gonbaratuz zerbait gehitu egiten dela (27,4tik 32,1ra); 2-egungo gazte gehienak, balore postmaterialisten aldekoak azaltzen direla (% 61,2); eta 3- iraultza bidezko aldaketa soziala egitearekin akort daudenek asko izateaz gainera, kopuru berdintsuan irauten dutela urtez urte (% 34,3).

Bortxa politikoa legitimatzen dutenen ezaugarriarik nabarmenenak ikerketa honen arabera bestetik, honakook lirarteke: gizonezkoa izatea, euskal hiztuna, gaztea, balore postmaterialisten aldekoa, eta gizarteko aldaketak iraultza bidez egitearen aldekoa. Berorien artean eraginik gehiena izango dutenak, Valenciaren hitzetan, etnia eta politikaren kultura berriaren balore postmaterialisten arteko loturan leudeke.

## 6. EUSKAL GAZTERIAK BORTXA POLITIKO ETA SOZIAL EZBERDINEI BURUZ EGINDAKO BALORAZIOAK (1987. urtea)

Atal honetan 1987 urteko martxoan neronek buruturiko ikerketa azaltzen da, eta bertan, Euskal Herrian gertatzen diren bortxa politiko eta sozial ezberdinen irudiak euskal gazteei agentuz, aipatu estimulo hauek gazteengan sortzen duten erreakzio afektiboa neurtzen da.

Ikerketa honetan lortutako daturik baliagarrienak, bortxa politiko ezberdinei dagozkienak dira nahiz eta bortxa sozialei buruzkoak ere kontutan hartzen diren, aurrekoekin gonbaraketak egiteko.

### 6.1. HELBURUAK

Estatu espainiarra eta Euskal Herriaren arteko gatazka politikoak eragindako bortxak duen zentzuaren bila" izenez aurkeztzen dudan doktorego tesi honetan, ETAREN proiektuaren barruko asmo bikoitzaz jabetzen saiatu naiz. Lehenik, Euskal Herriko errealitateaz zer nolako interpretazioa egiten duen ETA taldeak, eta bestetik, gure herrian dauden menperakuntza-harremanak aldatzeko agertzen duen borondateaz.

Ildo honetan arituz, honako bi galdera hauei erantzuten ahalegindu naiz:

1- Zer nolako interpretazioa egiten du ETAK Euskal Herriko egoera sozial eta politikoaz?

2- Zein aldaketa egin nahi du ETAK Euskal Herriko errealitate sozial eta politikoan?

## 6.2. METODOLOGIA

### 6.2.1. ORO HAR

ETAk, Euskal Herriaren atzoko eta gaurko historiari buruz egiten duen irakurketaren ondorioz, lortu nahi duen aldaketa sozial eta politikorako proiektuaren barnetik planteatu dut talde armatuak daraman bortxaren zilegitasunaren auzia. Honetarako, ETAren proiektuaren azterketari ondoko bost ikuspegi desberdinotatik heldu diot:

1- Lehenbiziko bi ataletan eta, Euskal Herrian dagoen bortxa definitzeko garaian, honetaz eman diren zenbait definizio azaltzeaz gain, gure herrian edota kanpoan bizi den bortxari buruz idatzi duten intelektualen ideia batzuk bildu dira.

Nire aldetik, eman diren definizioak bildu eta aztertu ondoren, honako era honetan definituko nuke gure herrian gertatzen den bortxa: Euskal Herriaren identitate adierazgarriak definitu eta defendatzeko (alderdi kulturala) zein Estatuarekiko bizi diren menpekotasun-erlazioak aldatuz, botere oreka haundiagora iritsi eta etorkizunaz libreki erabakitzeko ahalmena izateko aurrera eramaten den borroka politikorreibindikatiboa da (alderdi estrukturala).

2- III. atalean behatzailearen jokabidea hartu dut eta bertan, ETAren aldetik nahiz Estatuaren aldetik egindako bortxa ekintzei buruzko estatistika datuak jaso dira, neutraltasunik haundienaz. Datu estatistiko horiek argibide hobezina eskaintzen digute "bortxaren gurpila"ri dagokionean, zeren eta aipatu datuak, nire iritziz, ezinbestekoak baitira ENAM eta ETAren jarraipena ulertzeko. Atal honetan bestetik, idazle desberdinen iritzi eta interpretazioak biltzen dira datuei buruzko balorazioen zenbait ikuspuntu kontutan izatearren.

3- IV. atalean ikuspegi historikoari lotu naitzaio, ETAren bortxa Euskal Herriaren eskubide historikoen aldetik ulertzeko. Eskubide horiek, besteak beste, euskal abertzale guztiek eta eznazionalisten zati garrantzitsu batek ere aldarrikatzen ditu eta aipatu taldeak armaz defendatzen.

4- V eta VI. ataletan gizarte-ikertzaile klasikoaren jarrera erabili dut, ETAREN fenomeno, talde honek Euskal Herrian jasotzen duen gizarte-babesaren haritik aztertzeke. ETAREN zilegitasunaren gaia ETAK Euskal Herrian duen gizarte-babesaren eta onarpenaren ikuspegitik planteatu dut.

Beste egile batzuen ikerketa soziologiko eta sikosozialetara ere jo dut eta ikerketa berria dakart, nik neuk egina, euskal gazteek bortxa politiko ezberdinei buruz (ETA, herriaren borroka erreibindikatioa eta Estatu polizia) dituzten sentimenduak aztertzeke.

5- VII. atalean hurbiltzen naiz gehien lan honetan erabili nahi izango nukeen metodologiara. Bertan, Euskal Herriko borroka armatuarekin konprometiturik dauden zenbait lagunen testigantzak jaso ditut gure herriko errealitateaz egiten duten interpretazioa eta erdietsi nahi duten aldaketa sozial eta politikoa konprenitu ahal izateko.

Nire asmoa ez da ETA mugimenduari buruzko balorazioa egitea, ez zuzenbidearen aldetik, naturala edo positiboa izan beratu, ezta moralaren aldetik ere. Hasieran planteatu ditudan bi galderari erantzuna ematea besterik ez da nire xedea.

Berritri diot, lan honen zazpi atalak ETA mugimendua osatzen duten gizarte-ekintzaileen erantzunetara hurbiltzeke saioak dira.

Ondorioen atalean gizarte-mugimenduak aztertzeke erabilienak diren teoria sikosozialetatik abiatuta, ETAKideek beren ekintza sozial eta politikoa ematen dioten zentzua formulatzen ahalegindu naiz maila teorikoan.

Ikertzaile-behatzaile naizen aldetik ETAREN jardueraren izateari egiten diodan formulazioa da hau eta, mugimenduaren kide aktiboek proposatzen diodana. Beraiek izango dira beren ekintzaren izatea berdefinituko dutenak nire proposamena onartu, baztertu nahiz itabartu, edota zehazterakoan.

## 6.2.2. Hipotesiarik garrantzitsuenak

Ondoren aurkezten den ikerketa enpiriko honetan, honako hipotesia hauek egiaztatzen dira:

- A- Euskal gazteriak, ETA taldearen borroka, gainerako beste bortxetatik (poliziala, erreibindikatioa, deliktioa) bereizten du.

- B- Euskal gazteriak, balorapen dextente positiboagoa adierazten du ETA taldearen bortxaz, poliziarenaz baino.
- C- Euskal gazteriak, dextente gehiago justifikatzen du ETA taldearen bortxa, poliziarena baino.

### 6.2.3. Lagina

49. taulan ikus daitekeen bezala (III. eranskinean), 14 eta 19 urte bitarteko 1. eta 3. BBBko 200 neska eta 150 mutilek osatzen dute ikerketa honetako lagina. Guztira 350 ikasle diren multzo honetako 127 gazte, hizkuntz eredutzat gaztelania erabiltzen duten Instituto publikoetan heziak dira eta 223, hizkuntz eredu moduan euskara erabiltzen duten ikastoletan.

Aukeraketa, BBB mailako ikasketak egiteko Instituto nahiz ikastolaren eskaintza duten herrien artekoa izan da. Baldintza hau betetzen dutenen artean, Gipuzkoakoak diren bi herri aukeratu dira eta Bizkaikoak diren beste bi.

Gipuzkoatik suertaturiko ikastetxeak; Oreretako "Orereta Ikastola" (pribatua) eta "Koldo Mitxelena Institutoa" (publikoa) izan dira alde batetik, eta Beasaingo "Alkartasuna Ikastola" (pribatua) eta "Txindoki Institutoa" (publikoa) bestetik. Bizkaikoak berriz, Derioko "Lauro" Ikastola (pribatua) eta "Gurpide Institutoa" (publikoa) alde batetik, eta Portugaleteko "Astileku Ikastola" (pribatua) eta "Juan Antonio Zunzunegi Institutoa" (publikoa) bestetik. Aipaturiko herriek BBB mailako ikasketak burutzeko eskaintzen duten ikastetxeen kokapenari dagokionez azkenik, Gipuzkoan daudenak eta Bizkaiko Derio herrikoak erdi-landakoak dira eta Portugaletekoak berriz hirikoak.

### 6.2.4. Tresna

Euskal Herrian gertatzen den bortxa politiko nahiz deliktiborik garrantzitsuenak biltzen dituzten 130 hormirudi osatu dira, astekarietan agertu izan diren koloreetako argazkiekin Kollage batzuk eginez. Hormirudietako 71k, bortxa politikoari dagozkion atal ezberdinak azaltzen dituzte, hauetako 18k ETA taldearen borroka agertzen dutelarik; 15ek poliziaren bortxa eta 38 hormirudik herriaren borroka erreibindikatioa. Bigarren multzoko beste 59 hormirudik delinkuentzia arrunta deituriko beste zenbait

bortxa ezberdin agertzen dute, hauetako hormirudi batek lapurreta; 8k biolazioa; 26k babesgabeenganako bortxa, 8k liskarra eta beste 16 hormirudik azkenik, drogak eragindako bortxa azaltzen dutelarik.

Ertzaintzari dagokionean, ez da posible izan neurketa hau burutzea, gorputz hau sortu berria izanik, euskal gazteek ez bait dute onartu Ertzaintzaren irudiak gainontzeko bortxa politiko eta sozialen irudiekin batera azaltzea. Ertzaintza, dirudienez, babes-emaletzat jota dago eta ez polizia errepresibo edota bortxagile modura.

Hormirudietan bortxa ezberdinetaz azaldu den garrantzitsuena, honako zerrendan ageri dena da:

**6.2.4.1. ETA taldearen borroka adierazten duten irudiak:** pistolak; fusilak; lehergailuak; dirua; Euskadi ta Askatasunaren siglak; ETA taldearen anagrama; manifestazioa; Ikurriña; suhiltzaileak; ETAkide enkaputxatuak prentsaurrekoa ematen; ETAkideak armen erabilpen saioetan; lehergailuen eztandak txikituriko autoak; auto baten leherketa; tiroketa; zaurituak; industria gizon baten bahiketa; ETAk hildako polizien zerraldoak lankideen sorbaldeetan; eztanda gertatu eta odol husten ari den pertsona bat; etab...

**6.2.4.2. Poliziarren bortxa adierazten duten irudiak:** koartelilo bat "Todo por la patria" jartzen duen goiburua duela; goardia zibil uniformatuak eta formazioan; poliziarren furgoneta "Gora ETA" eta "polizia asesina" pintadek dituela; poliziarren aurkako pintadak kaleko hormetan; GAL siglak; barrikada batek oztopatzen duen bidetik pasa ezinean dauden polizia taldea; manifestazio bateko lagunek polizia erasotzen; atxilotuak; polizia taldea gomazko pelota edota fusilekin erasotzen; poliziak kezko poteen bidez eginiko erasotik ihes doazen gazteak; polizien eraso zakurren laguntzaz; kazetari bizardun bat erasotzen ari den polizia; bere fusila atxilotu baten buruan sostengaturik duen polizia; gazte bat mahai gainean bilutsik eta hankak loturik torturak jasaten; poliziak jendea eraso ondoren bertan geratu diren zaurituak; odol husten ari den gazte baten aurpegia; emakume bat zauritua izan ondoren hilda lurrean; etab...

**6.2.4.3. Herriaren erreibindikazio nahiz protestek eragindako borroka adierazten duten irudiak:** suhiltzaileak; manifestazio bat ikurriña eta pankarta erreibindikatibo askorekin; errefuxiatuen aldeko pintadak; presoan aldeko manifestazioa; polizia barrikadak kentzen; militarrek armekin; zenbait gazteri eskuak altxarazi eta miatzen ari den polizia; langile batzuk poliziak botatako kezko pote artean; eraso egiteko prest dagoen polizia; enpresa bateko langileak poliziei eraso egin nahian; gazte batzuk ihesi; barrikada bati sua ematen ari diren gazteak; gizon bat polizia jotzen; hilerrria;



odola; atxilotua esku eta hankak loturik; torturaren irudiak; tiroketa; eztanda baten ondorioz hildakoak odoletan; hildako ETAkidearen zerraldoa ikurriñez estalirik eta lagunen sorbaldetan; lora batzuk hildako zerraldoaren inguruan; etab...

**6.2.4.4. Lapurretrek eragindako bortxa adierazten duten irudiak:** bi gazte motor gainean neska bati poltsa kendu nahian; etab...

**6.2.4.5. Biolazioek eragindako bortxa adierazten duten irudiak:** zakila; gizon bat bilutsik; neska bat negarrez; behartua dagoen neska bat ihes egin nahian; neska bat erdi bilutsik eta eskuak horman loturik; lurrean bilutsik dagoen emakume bat behartzen ari den gizona; konortea galdu duen neska bat lurrean erdi bilutsik; etab...

**6.2.4.6. Babesgabeenganako bortxa adierazten duten irudiak:** pistola; loturik dauden esku batzuk; negarrez dagoen haur baten aurpegia; ehiza; orein talde bat tiroz hilak; mendian zaldiak tirokatu eta, larrutzen ari diren gizon batzu; haurrak gerratetik ihesi; behartsuen etxebizitzak (txabolak) sutan; aitona bat kateaz lotua; polizien eraso; loturik dagoen gaztea tiroz hila izateko zorian; lotua dagoen gaztea makilkadak jasotzen; zaurituak dauden zenbait haur; zauriz josi eta hilak gertatu diren emakumeen gorpuk; etab...

**6.2.4.7. Liskarrek eragindako bortxa adierazten duten irudiak:** makilaz erasotzera doan gizon taldea; bi gizonen elkar joka; bi gizonen elkar tirokatzen; etab...

**6.2.4.8. Drogek eragindako bortxa adierazten duten irudiak:** jipiak larruzko jantziekin; rokerok abeslariak mikro aurrean; tabakoa; pattarra; jeringila bat; gazte pentsati bat; pistola; gazte batzuk esnifutzen; gazte batzuk kalerdian lotan; gazte bat droga ziztatzeko; auto batekin istripua izan ondoren konortea galduta geratu den gaztea; zauriturik dauden gazteak; bere burua urkatzen ari den gazte bat; hildako neska baten gorpua lurrean; hilerrria; hildakoen kaskezurrak; etab...

Bortxa moeta bakoitzak, hormirudi kopuru ezberdina du eta zenbaitek aukera txikia. Gure asmoa, bortxa moeta bakoitzetik 12 edo 20ren bat hormirudi osatzea zen gero egokiena aukeratzearren, baina kollage hauek egiteko garaian argitaratzen ziren aldizkariak zenbait bortxaz zekarten materiale urria izan da desproporazio honen arrazoia.

Nahi hainbat hormirudi osatu ez izan arren, lehen eginkizun hau bukatutzat eman eta eskuartean genituen hormirudien aukeraketa egin zen. Bortxa bakoitza hobekien adierazten zuten hormirudien aukeraketa hain

zuzen ere. Horretarako, Usurbilgo Lanbide Eskolako, I.E.E.1 (15 urte) eta I.E.E.2ko (17 urte) 40 ikaslek osaturiko gazte talde bat (23 neska eta 17 mutil) lagina modura hartu eta bi eskaera luzatu zitzairen: bortxa moeta bakoitzeko hormirudien erakusketa antolatu ondoren, aurrean eta zenbaki ezberdin batekin ezagutaraziak zeuden hormirudi bakoitzaren balorapena egitea lehenik, bat (1) zenbakia emanaz bilduma bakoitzean adierazi nahi zen bortxa, hobekien azaltzen zuen hormirudiani, bi (2) zenbakia hurrengoari, etab.

Aukeraketa honekin, bortxa moeta bakoitza hobekien adierazten zuen hormirudien zerrenda ezagutuko genuen eta, hauetako lehena edota bi lehenak lan enpirikorako tresna modura erabiliko liratekeelarik.

Aipatu bortxa bakoitzean lehen eta bigarren lekuan aukeratuak izan diren hormirudiak I. eranskineko estimuloen irudietan agertzen dira eta bertan ikus daitekeenez, bi hormirudi aukeratu dira ETA, polizia, herriaren erreibindikazio, biolazioa eta babesgabeenganako bortxa moeta bakoitza adierazteko eta hormirudi bakarra lapurreta, liskarra eta drogaren bortxa bakoitzarentzat.

Bigarrenik, bortxa bilduma bakoitzeko hormirudiak aurrean izanik, une horretan bururatzen zitzaizkien lehen hamar hitzak paper batean idatz zezaten eskatu zitzairen eta ondorioz lortutako zerrenda galdetegia gauzatzeko behar ziren hitz bipolarrak osatzeko baliagarri gertatu zen.

Estimulo ezberdinei buruz aurretetan 5 aldiz edo gehiagotan errepikatu diren hitzak bestetik, 50. taulan ageri zaizkigu aipamen positibo, neutral edota negatibo gisa sailkatuta, eta hauen maiztasunak ondoren doan parentesia barruan azaltzen dira.

Gazteek emandako hitz mordo honen ondorioz, 51. taulan agertzen den hitz zerrenda lortu zen, ondokook azalduz:

- 1- ETAREN bortxak, 10 hitz positibo ezberdin jaso zituen, aipamen neutral bakarra eta 7 hitz negatibo.
- 2- Poliziaren bortxak, hitz positibo bakarra, aipamen neutral bakarra baita eta 13 negatibo.
- 3- Herriaren erreibindikazio nahiz protestek eragindako bortxak 7 hitz positibo eta 8 negatibo.
- 4- Biolazioa eta babesgabeenganako bortxak, hitz positibo bana jaso dute eta lapurreta, liskarra eta drogek ez dute hitz positiborik izan.
- 5- Aipamen positiborik gehien jaso dutenak ETAREN bortxa eta herriaren erreibindikazioak eragindako bortxa dira 10 eta 7ekin bakoitza.
- 6- Aipamen positiboak jaso dituzten beste bortxak bi lehen hauetatik oso urruti geratu dira eta polizia, biolazioa eta babesgabeenganako bortxak, esatebaterako aipamen bana besterik izan dute bakoitzak.

7- Hitz negatiborik gutxien jaso dutenak ere, ETArek bortxa eta herriaren erreibindikazioek eragindako bortxak dira. Gainontzeko bortxek aipamen negatibo askoz ere gehiago jaso dituzte.

8- Aipamen positibo gehiago jaso dutenak negatiboak baino, ETArek bortxa eta herriaren erreibindikazio nahiz protestek eragindako bortxa dira.

9- Aipamen negatibo gehiago jaso dutenak positiboak baino azkenik, polizia, biolazioa, babesgabeenganako bortxa eta lapurreta, liskarra eta drogek eragindako bortxak izango dira.

### 6.2.5. Neurketa tresna edo diferentzial semantikoa

Ikerketa honetan lortu diren datu estatistikoak, diferentzial semantiko (DS) neurketa tresnaz baliaturiko galdegaiaren bidez bilduak izan dira.

Neurketa tresna hau, asoziazio eta eskalonamendu teknikan oinarriturik egonik, norberarengandik lekuz eta denboraz urruti egon daitezkeen hainbat gauza, gertakizun, etabarren sinboloak agertuz (argazki, hitz, eskema, ikur, kontzeptu, etab.), estimulo hauek pertsona bakoitzarentzat duten esanahi afektibo edota konnotatiboa neurtzen du, izenlagun, antonimo edo hitz bipolarrez osaturiko item bakoitza batetik zazpita (3 positibo, neutro bat eta 3 negatibo) bitarteko intentsitatez adierazi ahal daitekeelarik.

Sinbolo bakoitzari ematen zaion balorazioaren norabidea (positiboa, negatiboa) eta intentsitatea ere neurtuko duen diferentzial semantikoa, oinarriturik zaizkion hiru dimentsio edo "EPA faktorea"k deiturikoez osaturik dago. Galdetegian agertzen diren izenlagun eta antonimoen artean, ebaluazio dimentsioa (ona - txarra), potentzial dimentsioa (indartsua - ahula), eta aktibitate dimentsioa (eragilea - geldia) adieraziko duten hitz bipolarrek agertu behar dute besteren artean.

### 6.2.6. Galdetegia

Lan honen II. eranskinean agertzen den galdetegia gauzatzeko (B. eta C. orriak hamahiru aldiz errepikatzen dira), bertan aurkitzen den izenlagunen zerrenda da lehenik osatu zena Usurbilgo Lanbide Eskolako ikasleek bortxa politiko eta sozial bakoitzaz emandako hamar hitzen artetik (40 ikasle x 10 hitz x 8 bortxa ezberdin = 3.200 hitz) 20 egokienak aukeratuz eta honako baldintzak kontutan izanez:

### **A- Izenlagun esanguratsuen aukeraketa**

- 1- Gehien errepikatu diren hitzak.
- 2- Bortxa ezberdin gehien baloratzeko baliagarriak direnak.
- 3- Esanahi berdina edo antzekoa izango ez dutenak.
- 4- Irain, iseka edo mespretxua adieraziko ez dutenak.

### **B- "EPA faktore"en dimentsioak jaso duten itemak**

- 1- Ebaluazio dimentsioa (ona - txarra)
- 2- Potentzial dimentsioa (indartsua - ahula)
- 3- Aktibitate dimentsioa (eragilea - geldoa)

Era honetara, galdetegian datorren hitz bipolarren zerrenda laginaren adin bereko ikasleek sortua da, ikerketako gaiari egokitua baita ere, eta diapositiba bidez agertzen diren irudiekin erlazionatuta dago.

Galdetegia gauzatzeko, 20 kalifikatibo egokienak aukeratu ziren lehenik, gero hauen antonimoak aurkitu, eta azkenik, item bipolarrak osatu, zeintzu, zentrutik distantzia berdinerara aurkitzen diren zazpi tartetean banatuak dauden, "IRITZIRIK GABE" dioena "zero" puntua edo neutral modura kontsideratua izanik. Item hauetako bakoitzaren ezker aldean aurkitzen diren izenlagunak bestetik, alderdi positiboak adierazten dituztenak dira,

eta eskuinekoak, aurrekoen antonimoak edo alderdi negatiboen adierazleak. Abiaburutik ezker nahiz eskuin aldera dauden lehen tarteeak, azkenik, "ADOS" besterik adierazten ez dutenak esatebaterako, positibo edo negatiborantz doazen intentsitate gutxienerako aukerak adierazten dituzte, bigarren tarteko edo "NAHIKOA ADOS" diotenak intentsitate ertaineko aukerak eta hirugarren tarte edo izenlagun positibo nahiz negatiboetatik gertuen daudenak edo "GUZTIZ ADOS" diotenak, positibo nahiz negatiborantz doazen intentsitate gehieneko aukerak agertzen dituzte.

Bigarren aldi batetan, erantzuleari bi hizkuntzetan (euskara eta gaztelania) zuzendu zitzaion galdetegiaren lehen orrialdea gauzatu zen, zenbait datu pertsonalen informazioa jasotzearen ikastetxearen izena, erantzulearen adina eta sexuaren data eskatu zirelarik. Ondoren, diapositiba bakoitzeko 20 item

bipolar edota 26 orrialdetako (2 orrialde diapositiba bakoitzeko) galdetegia nola bete ulertzeko, zenbait orientabide eman ziren, eta argibiderako hiru ariketa azaldu baita ere.

### 6.2.7. Galdetegiaren aplikazioa

Aipatu galdetegia, ondoren ematen den ordu, egun eta ordenean aplikatua izan da: 1987ko martxoaren 14ean goizeko 9,30n Derioko Lauro Ikastolan; eguerdiko 12,30etan Derioko Gurrupide Institutoan; arratsaldeko 14,45etan Portugaleteko Astileku Ikastolan; eta arratsaldeko 16,45etan Portugaleteko J.A. Zunzunegi Institutoan. 1987ko martxoaren 18an, goizeko 8,30etan Oreretako K. Mitxelena Institutoan eta arratsaldeko 13,45etan Oreretako Ikastolan; eta azkenik, 1987ko martxoaren 19an, 11etan Beasaingo Txindoki Institutoan eta 13,30etan Beasaingo Alkartasuna Ikastolan.

Galdetegiaren aplikazioa bestetik, ikastorduetan egin zen, ikastetxe bakoitzeko lagina osoa diapositibak botatzeko egokia zen gela batean bilduz. Ikasle bakoitzak mahai eta aulki bana izateaz gain, diapositiba emanaldia ongi ikusteko nahikoa iluntasun lortu zen eta argitasunik ere geratu galdetegiaren itemak bete ahal izateko.

Saio honetan, Usurbilgo Lanbide Eskolako laginek bortxa moeta bakoitza hobekien adierazten zutela zioten 13 hormirudik diapositibetan atera eta pantaila batean proiektatu ziren (Behelaldean daramaten zenbakia eta bortxa moeta adierazpenik gabe), azaltzen zen diapositiba edo irudi bakoitzeko 20 hitz (2 orrialde) bipolarretako itemak bete zitzaten eskatuz.

Hau guztia 1,42 x 1,45 metrotako pantaila eta mugikorra zen karro arrunteko proiektagailua erabiliz egin zen, erantzuleak pantailatik 7 edo 8 metrotara aurkitzen zirelarik urrutien ere.

Benetako proiektzioarekin hasi aurretik, galdetegiaren A orrialdean azaltzen diren eta argibiderako ariketa modura jarriak izan diren 3 item bipolarren esanahia adierazi zitzaizen ETAREN bortxa eta poliziaren bortxa adierazten zuten bi diapositiba proiektatuz.

Erantzunak emateko denborari dagokionez, lau puntu aipa daitezke. Lehenik, behar hainbat denbora utzi zela diapositiba bakoitzari zegozkion 20 itemak inongo denbora premiarik gabe betetzeko. Bigarrenik, diapositiba bakoitzari zegozkion 20 itemak lagina osoak bete arte diapositibaren irudia pizturik irauten zuela. Hirugarrenik, lehen eta bigarren diapositibei erantzuteko 7tik 10 minututara behar izaten baziren, item bipolarren orriak 13 aldiz errepikatuak zeudenez (2 orrialde edo 20 item bipolar diapositiba bakoitzeko), hirugarren diapositibaren proiektziotik aurrera geroz eta arinago betetzen ziren itemak, eta bat edo bi minutu besterik ez ziren behar izaten azken diapositibei erantzuteko, eta azkenik, saio osoa emateko 80tik 90 minututako denbora behar izaten zen.

## 6.2.8. Datu estatistikoen analisiak

### 6.2.8.1. Datuen kodifikazioa

Galdetegiaren bidez lortu diren datuak (13 diapositiba x 20 item x 350 ikasle = 91.000 datu), ordenagailura pasa aurretik datu plantilaren orrietan bildu dira, lehen hiru laukietan esatebaterako, 001tik 350 arteko zenbakiak jarritz edota laginako ikasle bakoitzari zenbaki bana egokituz. Laugarren laukian, galdetegia bete den ikastetxe bakoitzari emandako zenbakia (1tik 8ra), Derioko Lauro Ikastolari lehen zenbakia eman zitzaizolarik; Derioko Gurrupide Institutoari 2 zenbakia; Portugaleteko Astileku Ikastolari 3; Portugaleteko Zunzunegi Institutoari 4; Oreretako K. Mitxelena Institutoariri 5; Beasaingo Txindoki Institutoari 6; Beasaingo Alkartasuna Ikastolari 7; eta Oreretako ikastolari azkenik, 8 zenbakia.

Datuak biltzeko plantilaren 5 eta 6 laukietan galdetegia bete duten ikasleen adinak jarri dira 14, 15, 16, 17, 18 edota 19 kopuruak azaltzen direlarik. Zazpigarren laukian erantzulearen sexua adierazten da 1 zenbakia egokiturik neskei eta 2 zenbakia mutilei.

Datuak biltzeko plantilaren bederatzigarren laukitik aurrera (9. laukitik 80. arte), eta beti ere 9. laukitik aurrera, item bipolarretan jasotako erantzunak kokatu dira, aurrez, 1etik 7ra bitarteko zenbaki batez ezagutaraziz item bipolar bakoitzeko aukera ezberdinak. Horrela bada, alderdi positiboa adierazten duen edo ezker aldeko izenlagunaren ondoko "GUZTIZ ADOS" dioen aukerari bat zenbakia ipini diogu; alderdi positiboko "NAHIKOA ADOS" dioenari 2 zenbakia; alderdi positiboko "ADOS" aukerari 3 zenbakia; "IRITZIRIK GABE" dioen edo itemaren abiaburuari 4 zenbakia; alderdi negatiboa adierazten duen edo eskuinaldeko "ADOS" dioen aukerari 5 zenbakia; alderdi negatiboko "NAHIKOA ADOS" dioenari 6 zenbakia; alderdi negatiboko izenlagunaren ondoko "GUZTIZ ADOS" aukerari 7 zenbakia.

Erantzunik gabeko itemetan, eta positibo nahiz negatibo aukeretako bi muturrak markatu direnean, 9 zenbakia jarri da. Eta azkenik, item bipolar batetan bi erantzun azalduko balira, muturrenean dagoena emango litzateke ontzat.

### 6.2.8.2. Ikerketen prozedurak

Lan honetan T-Test eta diskriminanteen analisiak lortu dira. T-Test delakoak, bi batzbesteko gonbaratzen ditu, lortzen diren datuak esanguratsuak diren adieraziz, esatebaterako, lagina osoak estimulo guztien bidez item bakoitzari emandako erantzunen batasbestekoa (batazbesteko orokorra), estimulo bakoitzean item bakoitzari emandako batasbestearekin.

Diskriminanteen analisiak bestetik, estimulo bakoitzari emandako erantzunak sexu, adina edota ikastetxearen arabera bereizten diren edota ezberdintasun esanguratsurik ematen den adierazten du.

## 6.3. Ondorioak

### 6.3.1. Batzbesteko orokorra eta bortxa politiko nahiz sozial bakoitzaren batasbestekoak

Bortxa politiko eta sozial bakoitzaren batasbestekoak, eta hauen guztien batasbesteko orokorrak 52, 53, 54. tauletan eta IV. eranskineko grafikan aztertu ondoren honako hauek esan daitezke:

#### 6.3.1.1. Bortxa politikoen multzoa (ETA, herriaren borroka eta polizia)

1- Bortxa politikoen artean (52 eta 54. taula, eta IV. eranskineko grafika), herritarren borroka da positiboan baloratua item batetan ezik (Abertzale - Espainiazalea), bigarren lekuan ETAREN borroka eta azkenik poliziaren bortxa.

2- Herriaren borroka eta ETAREN batasbestekoak, bortxa politiko nahiz sozial guztien batasbesteko orokorra baino positiboago baloratuak dira item guztietan.

3- Poliziaren bortxaren batasbestekoak, bortxa politiko nahiz sozial guztien batasbesteko orokorra baino negatiboago baloratuak dira item guztietan.

4- Herriaren borrokak, erdi-indarreko balorazio positiboa 6 itemetan jaso du; indar gutxiko balorazio positiboa 11 itemetan; eta indar gutxiko balorazio negatiboa 3 itemetan. Guztira bada, indar positiboa adierazten duten balorazioa 17 itemetan eta indar negatiboa adierazten duten balorazioa 3 itemetan.

5- ETArek borrokak, erdi-indarreko balorazio positiboa 3 itemetan jaso du; indar gutxiko balorazio positiboa 6 itemetan; indar gutxiko balorazio negatiboa 9 itemetan; eta erdi-indarreko balorazio negatiboa 2 itemetan. Guztira bada, indar positiboa adierazten duten balorazioa 9 itemetan eta indar negatiboa adierazten duten balorazioa 11 itemetan.

6- Poliziaren bortxak, indar gutxiko balorazio positiboa item batetan jaso du; indar gutxiko balorazio negatiboa 2 itemetan; erdi-indarreko balorazio negatiboa 9 itemetan eta indar handiko balorazio negatiboa 8 itemetan. Guztira bada, indar positiboa adierazten duen balorazioa item bakar batetan eta indar negatiboa adierazten duten balorazioa gainontzeko 19 itemetan.

7- Herriaren borrokak honako adierazpen positibo eta negatiboak jaso ditu:

- \* Erdi-indarreko balorazio positiboak 6; ausarta, kemena, beharrak eragina, borrokalaria, abertzalea, eragilea.
- \* Indar gutxiko balorazio positiboak 11; azkarra, sentibera, osasuna, ona, askatasuna, jatorra, zaintzailea, laguntza, gizatsua, begikoa, indartsua.
- \* Indar gutxiko balorazio negatiboak 3; nazka, indarkeria, goibela.

8- ETArek borrokak honako adierazpen positibo eta negatiboak jaso ditu:

- \* Erdi-indarreko balorazio positiboak 3; borrokalaria, abertzalea, eragilea.
- \* Indar gutxiko balorazio positiboak 6; ausarta, azkarra, kemena, osasuna, askatasuna, indartsua.
- \* Indar gutxiko balorazio negatiboak 9; ezminbera, behar eza, gaiztoa, zitala, arenioa, eraso, torturatuzailea, betiluna, goibela.
- \* Erdi indarreko balorazio negatiboak 2; nazka, indarkeria.



9- Poliziaren bortxak honako adierazpen positibo eta negatiboak jaso ditu:

\* Indar gutxiko balorazio positiboak 1; eragilea.

\* Indar gutxiko balorazio negatiboak 2; menpekkoa, ahula.

\* Erdi indarreko balorazio negatiboak 9; Inozoa, beldurra, ezminbera, behar eza, gaisotasuna, arerioa, espainiazalea, betiluna, goibela.

\* Indar handiko balorazio negatiboak 8; koldarra, nazka, gaiztoa, zapalketa, zitala, erasoa, torturatzaila, indarkeria.

### 6.3.1.2. Bortxa politiko eta sozialen multzoa

1- Bortxa politiko eta sozial guztien batzbesteko orokorrak (53 eta 54. taulak), indar gutxiko balorazio positiboa 3 itemetan jaso du; indar gutxiko balorazio negatiboa 6 itemetan; erdi-indarreko balorazio negatiboa 10 itemetan; eta indar handiko balorazio negatiboa item batean. Guztira bada, indar positiboa adierazten duten balorazioa 3 itemetan du eta indar negatiboa adierazten duten balorazioa beste 17 itemetan.

2- Bortxa politiko eta sozial guztien artean ongien baloratua herriaren borroka da (17 balorazio positibo eta 3 negatibo); bigarren lekuan ETArekin borroka (9 balorazio positibo eta 11 negatibo); hirugarrena liskarra (6 positibo eta 14 negatibo); laugarrenean lapurreta (3 positibo eta 17 negatibo); bosgarren lekuan berdinketa ematen da polizia, babesgabeenganako bortxa eta biolazioaren artean (1 positibo eta 19 negatibo); eta azkenik droga (20 balorazio negatibo).

3- Bortxa sozialen artean, liskarraren batzbestekoak izan dira bortxa politiko eta sozial guztien batzbesteko orokorrak baino positiboago baloratuak; lapurretarenak, batzbesteko orokorraren balorazio berdina jaso du, eta babesgabeenganako bortxa, biolazioa eta drogak batzbesteko orokorrak baino balorazio negatiboagoa.

### 6.3.2. T-test delakoen ikerketak

Bortxa politiko eta sozial guztien batzbesteko orokorrak, eta bortxa politiko bakoitzaren batzbestekoen ezberdintasunak aztertzean, honakoak ageri dira:

#### 6.3.2.1. Batzbesteko orokorrak eta herriaren erreibindikazioen

##### batzbestekoak (T-TESTA).

Batzbesteko orokorra eta herriaren borrokaren estimuloei dagozkien batzbestekoen ezberdintasunak esanguratsuak dira item guztietan (55. taula). Herriaren borroka, ongi bereizten da beste bortxa politiko nahiz sozialetatik eta bertan ageri diren ezberdintasunak positiborantz doaz item guztietan, herriaren erreibindikazioen aldeko joera adierazten duelarik berorrek.

#### 6.3.2.2. Batzbesteko orokorrak eta "ETA" talde armatuaren erreibindikazioen

##### batzbestekoak (T-TESTA).

Batzbesteko orokorra eta ETA talde armatuaren estimuloei dagozkien batzbestekoen ezberdintasunak esanguratsuak dira item guztietan (56. taula). ETAREN borroka ongi bereizten da beste bortxa politiko nahiz sozialetatik eta bertan ageri diren ezberdintasunak positiborantz doaz item guztietan, ETAREN aldeko joera adierazten duelarik berorrek.

#### 6.3.2.3. Batzbesteko orokorrak eta poliziaren bortxaren batzbestekoak

##### (T-TESTA).

Batazbesteko orokorra eta poliziaren bortxaren estimuloei dagozkien batazbestekoen ezberdintasunak esanguratsuak dira item guztietan (57. taula). Poliziaren bortxa, ongi bereizten da beste bortxa politiko nahiz sozialetatik eta bertan ageri diren ezberdintasunak negatiborantz doaz item guztietan, poliziaren aurkako joera adierazten duelarik berorrek.

### 6.3.3. Diskriminanteen ikerketak (ikastetxe, sexu eta adina)

#### 6.3.3.1. Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, ikastetxeen arabera.

Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruz, eta ikastetxeen arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek adieraz daitezke (58. taula):

- A- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokionean, ikastoletan (ikastetxe pribatuak) eta institutoetan (ikastetxe publikoak) jasotako balorazio ezberdinak esanguratsuak dira 15 itemetan ("ausarta - koldarra" " atsegina - nazka" " kemena - beldurra" "sentibera - ezminbera" "beharrak eragina - behar eza" "osasuna - gaisoa" "ona - gaiztoa" "borrokalaria - menpekoa" "jatorra - zitala" "zaintzailea - arerioa" "laguntza - eraso" "abertzalea - espainiazalea" "gizatsua - torturatzailea" "begikoa - betiluna" "eragilea - geldia").
- B- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruzkoan, ikastoletan jasotako balorazioak institutoetan lortutakoak baino positiboagoak dira adierazitako 15 itemetan.
- C- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokionean, ikastoletan jasotako balorazioak herriaren borrokaren batazbestekoak baino positiboagoak dira aipaturiko 15 itemetan.
- D- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, institutoetan jasotako balorazioak herriaren borrokaren batazbestekoarenak baino negatiboagoak dira adierazitako 15 itemetan.

- E- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ikastoletan jasotako datuen arabera (59. taula), balorazio positiboa 17 itemetan jaso dute eta negatiboa 3 itemetan.
- F- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta institutoetan jasotako datuen arabera (59. taula), balorazio positiboa 16 itemetan dute eta negatiboa 4 itemetan.

### 6.3.3.2. Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, sexuaren arabera

Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruz, eta sexuaren arabera jasotako datuak aztertu ondoren ondoko hauek ondoriozta daitezke (60. taula):

- A- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta sexuaren arabera jasotako datuen balorazio ezberdinak esanguratsuak dira 9 itemetan ("ausarta - koldarra" "atsegina - nazka" "beharrak eragina - behar eza" "ona - gaiztoa" "jatorra - zitala" "laguntza - eraso" "abertzalea - espainiazalea" "gizatsua - torturatzalea" "alaia - goibela").
- B- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ezberdintasun esanguratsua ematen dela diogun 9 item hauetan, mutilengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira neskengandik jasotakoak baino.
- C- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 9 itemetan, mutilengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira herriaren borrokaren batzbestekoarenak baino.
- D- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 9 itemetan, neskengandik jasotako balorazioak negatiboagoak dira herriaren borrokaren batzbestekoarenak baino.
- E- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta mutilengandik jasotako datuen arabera beti ere (59. taula), balorazio positiboa 17 itemetan jaso dute eta negatiboa 3 itemetan.

- F- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta neskengandik jasotako datuen arabera (59. taula), balorazio positiboa 17 itemetan jaso dute eta negatiboa 3 itemetan.

### 6.3.3.3. Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, adinaren arabera

Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruz, eta adinaren arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek esan daitezke (61. taula):

- A- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta adinaren arabera (14-15 eta 16-19 urte) jasotako datuen balorazio ezberdinak esanguratsuak dira 3 itemetan ("beharrak eragina - behar eza" "laguntza - eraso" "eragilea - geldia").
- B- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ezberdintasun esanguratsua ematen den 3 item hauetan, 3. BBB edo 16-19 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira 1.BBB edo 14-15 urteko ikasleengandik jasotakoak baino.
- C- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 3 item hauetan, 16-19 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira herriaren borrokaren batazbestekoak baino.
- D- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 3 itemetan, 14-15 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak negatiboagoak dira herriaren borroka adierazten duten batazbestekoak baino.
- E- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta 16-19 urteko ikasleengandik jasotako datuen arabera (59. taula), balorazio positiboa 17 itemetan jaso dute eta negatiboa 3 itemetan.
- F- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta 14-15 urteko ikasleengandik jasotako datuen arabera (59. taula), balorazio positiboa 17 itemetan jaso dute eta negatiboa 3 itemetan.

#### 6.3.3.4. "ETA"ren borroka adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, ikastetxeen arabera

"ETA"ren borroka adierazten duten estimuloei buruz, eta ikastetxeen arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek azal daitezke (62. taula):

- A- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, ikastoletan eta institutoetan jasotako balorazio ezberdinak esanguratsuak dira item guztietan.
- B- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, ikastoletan jasotako balorazioak institutoetan lortutakoak baino positiboagoak dira item guztietan.
- C- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, ikastoletan jasotako balorazioak ETAREN batzbestekoarenak baino positiboagoak dira item guztietan.
- D- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, institutoetan jasotako balorazioak ETAREN batzbestekoarenak baino negatiboagoak dira item guztietan.
- E- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ikastoletan jasotako datuen arabera (59. taula), balorazio positiboa 11 itemetan jaso dute eta negatiboa 9 itemetan.
- F- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta institutoetan jasotako datuen arabera (59. taula), balorazio positiboa 4 itemetan dute eta negatiboa 16 itemetan.

### 6.3.3.5. "ETA"ren borroka adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, sexuaren arabera

"ETA"ren borroka adierazten duten estimuloei buruz, eta sexuaren arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek ager daitezke (63. taula):

- A- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta sexuaren arabera jasotako datuen balorazio ezberdinak esanguratsuak dira 10 itemetan ("atsegina - nazka" "azkarra - inozoa" "beharrak eragina - behar eza" "ona - gaiztoa" "jatorra - zitala" "laguntza - eraso" "gizatsua - torturatzaileria" "pakea - indarkeria" "begikoa - betiluna" "alaia - goibela").
- B- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ezberdintasun esanguratsua ematen dela diogun 10 item hauetan, mutilengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira neskengandik jasotakoak baino.
- C- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 10 itemetan, mutilengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira ETAREN batzbestekoarenak baino.
- D- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 10 itemetan, neskengandik jasotako balorazioak negatiboagoak dira ETAREN batzbestekoarenak baino.
- E- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta mutilengandik jasotako datuen arabera beti ere (59. taula), balorazio positiboa 11 itemetan jaso dute eta negatiboa beste 9 itemetan.
- F- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta neskengandik jasotako datuen arabera (59. taula), balorazio positiboa 8 itemetan jaso dute eta negatiboa 12 itemetan.

### 6.3.3.6. "ETA"ren borroka adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, adinaren arabera

"ETA"ren borroka adierazten duten estimuloei buruz, eta adinaren arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek esan daitezke (64. taula):

- A- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta adinaren arabera jasotako datuen balorazio ezberdinak esanguratsuak dira 4 itemetan ("ausarta - koldarra" "kemena - beldurra" "osasuna - gaisoa" "askatasuna - zapalketa").
- B- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ezberdintasun esanguratsua ematen den 4 item hauetan, 1. BBB edo 14-15 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira 3. BBB edo 16- 19 urteko ikasleengandik jasotakoak baino.
- C- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 4 itemetan, 14-15 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira ETAREN batzbestekoak baino aipaturiko 4 itemetan.
- D- ETAREN batzbestekak adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 4 itemetan, 16-19 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak negatiboagoak dira ETAREN batzbestekoak baino aipaturiko 4 itemetan.
- E- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta 14-15 urteko ikasleengandik jasotako datuen arabera (59. taulan), balorazio positiboa 9 itemetan jaso dute eta negatiboa 11 itemetan.
- F- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta 16-19 urteko ikasleengandik jasotako datuen arabera (59. taula), balorazio positiboa 7 itemetan jaso dute eta indar negatiboa 13 itemetan.



### 6.3.3.7. Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, ikastetxeen arabera

Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruz, eta ikastetxeen arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek azal daitezke (65. taula):

- A- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, ikastoletan eta institutoetan jasotako balorazio ezberdinak esanguratsuak dira 14 itemetan ("ausarta - koldarra" "atsegina - nazka" "sentibera - ezminbera" "ona - gaiztoa" "borrokalaria - menpekoa" "askatasuna - zapalketa" "jatorra - zitala" "zaintzailea - arerioa" "laguntza - eraso" "abertzalea - espainiazalea" "gizatsua - torturatzalea" "pakea - indarkeria" "begikoa - betiluna" "eragilea - geldia").
- B- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, ikastoletan jasotako balorazioak institutoetan lortutakoak baino negatiboagoak dira adierazitako itemetan (14) batetan ezik (eragilea - geldia).
- C- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, ikastoletan jasotako balorazioak poliziaren batzbestekoarenak baino negatiboagoak dira adierazitako itemetan (14) batetan ezik (eragilea - geldia).
- D- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, institutoetan jasotako balorazioak poliziaren batzbestekoarenak baino positiboagoak dira aipaturiko itemetan (14) batetan ezik (eragilea - geldia).
- E- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ikastoletan jasotako datuen arabera (59. taula), balorazio positiboa item batetan jaso dute (eragilea - geldia) eta negatiboa 19 itemetan.
- F- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta institutoetan jasotako datuen arabera (59. taula), balorazio positiboa item batetan jaso dute (eragilea - geldia) eta negatiboa 19 itemetan.

### 6.3.3.8. Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, sexuaren arabera

Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruz, eta sexuaren arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek ager daitezke (66. taula):

- A- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta sexuaren arabera jasotako datuen balorazio ezberdinak esanguratsuak dira 5 itemetan ("ausarta - koldarra" "kemena - beldurra" "borrokalaria - menpekoa" "laguntza - eraso" "eragilea - geldia").
- B- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ezberdintasun esanguratsua ematen dela diogun 5 item hauetan, mutilengandik jasotako balorazioak negatiboagoak dira neskengandik jasotakoak baino.
- C- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 5 itemetan, mutilengandik jasotako balorazioak negatiboagoak dira poliziaren batzbestekoarenak baino.
- D- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 5 itemetan neskengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira poliziaren batzbestekoarenak baino.
- E- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta mutilengandik jasotako datuen arabera beti ere (59. taula), balorazio positiborik ez da ematen inongo itemetan eta negatiboa 20 itemetan.
- F- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta neskengandik jasotako datuen arabera (59. taula), balorazio positiboa item batetan jaso da eta negatiboa 19 itemetan.

### 6.3.3.9. Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, adinaren arabera

Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruz, eta adinaren arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek adieraz daitezke (67. taula):

- A- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta adinaren arabera jasotako datuen balorazio ezberdinak esanguratsuak dira 6 itemetan ("kemena - beldurra" "osasuna - gaisoa" "borrokalaria - menpekota" "askatasuna - zapalketa" "begikoa - betiluna" "alaia - goibela").
- B- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ezberdintasun esanguratsua ematen den 6 item hauetan, 1. BBB edo 14-15 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira 3. BBB edo 16- 19 urteko ikasleengandik jasotakoak baino.
- C- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 6 itemetan, 14-15 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira poliziaren batzbestekoak baino.
- D- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 6 itemetan, 16-19 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak negatiboagoak dira poliziaren batzbestekoak baino.
- E- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta 14-15 urteko ikasleengandik jasotako datuen arabera (59. taula), balorazio positiboa item batetan (eragilea - geldia) jaso dute eta negatiboa beste 19 itemetan.
- F- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta 16-19 urteko ikasleengandik jasotako datuen arabera (59. taula), balorazio positiboa item batetan jaso dute eta indar negatiboa gainontzeko 19 itemetan.

### 6.3.4. Laburpen gisa

Bortxa politiko eta sozialak adierazten duten estimuloei buruz, eta ikastetxe, sexu eta adinaren arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek ondoriozta daitezke:

#### 6.3.4.1. T-testa delakoaren arabera

- A- Herriaren borroka, gainontzeko bortxa politiko eta sozialak baino hobeto baloratua da eta ikuspegi oso positiboa jasotzen du euskal gazteen artean.
- B- ETAREN borroka, gainontzeko bortxa politiko eta sozialen artean bigarren moduan baloratua da eta ez du ikuspegi positibo ezta negatiborik ere jasotzen euskal gazteen artean, tartekoa baizik.
- C- Poliziaren bortxa, gainontzeko bortxa politiko eta sozialen artean balorazio txarrenetakoa eta ikuspegi oso negatiboa jasotzen du euskal gazteen artean.

#### 6.3.4.2. Diskriminanteen arabera

- A- Herriaren borrokari dagokionean, ikastola, mutil eta 16-19 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira instituto, neska edota 14-15 urtekoenak baino.
- B- ETAREN bortxari dagokionean, ikastola, mutil eta 14-15 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira instituto, neska edota 16-18 urtekoenak baino.
- C- Poliziaren bortxari dagokionean, ikastola, mutil eta 16-19 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak negatiboagoak dira instituto, neska edota 14-15 urtekoenak baino.

Ikastoletan hezitako gazteek institutoetan hezitakoak baino jokaera positiboagoa azaltzea ETARI buruz, ez da ikastoletan talde armatu honen aldeko jarrera lantzen delako, baizik eta beren senitartean eta ingurunean izaniko kultura zein sendimendua delako.

Ertzaintzari dagokionean, ez da posible izan neurketa hau burutzea, gorputz hau sortu berria izanik, euskal gazteek ez bait dute onartu Ertzaintzaren irudiak gainontzeko bortxa politiko eta sozialen irudiekin batera azaltzea. Ertzaintza, dirudienez, babes-emaletzat jota dogo eta ez polizia errepresibo edota bortxagile modura.

Euskal Herrian diren bortxa politiko eta sozial ezberdinei buruz euskal gazteriak egindako balorazio garrantzitsuenak aztertu ondoren esan daiteke, Euskal Herriaren asmo eta nahikunde politikoei ongien erantzuten dietenak herri borroka erreibindikatioa eta ETA taldea lirakeela, balorazio positiboak berorienak diren neurrian. Herriagandik urrutien dagoena bestetik, edota herriari modu ezegokienean erantzuten duena, espainiar polizia zein beren arduradunak lirakeke.

## **6 (bis). EUSKAL GAZTERIAK BORTXA POLITIKO ETA SOZIAL EZBERDINEI BURUZ EGINDAKO BALORAZIOAK (1997. urtea)**

Doktore-tesi honen bigarren ikerketa, orain hamar urte (1987. urtean) egindakoaren errepikapena da eta bertan, euskal gazteriak bortxa politiko eta sozial ezberdinei dagokienean, gaur egun, egindako balorazioa jaso da. Ondorengo ikerketa, 1996 (abendua) eta 1997 (urtarrila) urteetan burutua da, eta 1987. urtean egindakoaren errepikapena izanik, Euskal Herrian gertatzen diren bortxa politiko eta sozial ezberdinen irudiak euskal gazteei agertuz, aipatu estimulo hauek gazteengan sortzen duten erreakzio afektiboa neurtzen da.

Ikerketa honetan lortutako daturik baliagarrienak, orain hamar urtekoak bezala, bortxa politiko ezberdinei dagozkienak dira nahiz eta bortxa sozialei buruzkoak ere kontutan hartzen diren, aurrekoekin gonbaraketak egiteko.

### **6.1(bis). Metodologia**

#### **6.1.2 (bis). Lagina**

49(bis). taulan ikus daitekeen bezala (III. eranskinean), 14 eta 19 urte bitarteko 1., 2. eta 3. BBBko 378 neska eta 352 mutilek osatzen dute ikerketa honetako lagina. Guztira 730 ikasle diren multzo honetako 348 gazte, Instituto publikoetan heziak dira eta 382, ikastoletan. Ikerketa burutu direnako ikastetxeen zerrenda orain hamar urteko berbera izan da.

### 6.1.3(bis). Tresna

Euskal Herrian gertatzen den bortxa politiko nahiz deliktiborik garrantzitsuenen irudiak agertzean, orain hamar urteko berberak erabili dira bi ezik. Oraingo ikerketan erabili diren hormirudi berriak Ertzaintzari dagozkionak izan dira eta berauetan ageri den garrantzitsuena, honako hau da:

**6.1.3.8. Ertzaintzaren bortxa adierazten duten irudiak:** pistola; Ertzaintza atxiloketak egiten; Ertzaintza suzko armaz erasotzen; gazteak ertzaintzagandik ihesi; aurpegia zauritua duen gazte bat; zauritua dagoen pertsona baten gorpua.

### 6.1.4(bis). Neurketa tresna edo diferentzial semantikoa

Ikerketa honetan lortu diren datu estatistikoak, diferentzial semantiko (DS) neurketa tresnaz baliaturiko galdegiaren bidez bilduak izan dira aurreko ikerketan bezala.

### 6.1.5(bis). Galdetegia

Galdetegiari dagokionez, aurreko ikerketaren baldintza guztiak errepikatu dira.

### 6.1.6(bis). Galdetegiaren aplikazioa

Aipatu galdetegia, ondoren ematen den ordu, egun eta ordenean aplikatua izan da: 1996ko abenduaren 13ean goizeko 8,00n Portugaleteko Zunzunegi Institutoan eta 10,30etan Portugaleteko Astileku Ikastolan. 1996ko abenduaren 20n goizeko 8,00etan Beasaingo Txindoki Institutoan eta 10,30etan Beasaingo Alkartasuna Ikastolan. 1997ko urtarrilaren 10ean, goizeko 11,15etan Oreretako Ikastolan eta 13,00n Oreretako K. Mitxelena Institutoan. Eta azkenik, 1997ko urtarrilaren 24an, goizeko 9,00etan Derioko Lauro Ikastolan eta 12,00etan Derioko Txorierrri Institutoan.

Galdetegiaren aplikazioari dagokionean bestetik, orain hamar urte bezala egin da.

### **6.1.7(bis). Datu estatistikoaren ikerketa**

Datuen kodifikazioa eta ikerketen prozedurei dagokienez aurrekoan bezala.

#### **6.1.7.2(bis). Ikerketen prozedurak**

1987. urtean egindakoaren berdina errepikatu da.



## **6.2(bis). Ondorioak**

### **6.2.1(bis). Batazbesteko orokorra eta bortxa politiko nahiz sozial bakoitzaren batazbestekoak**

Bortxa politiko eta sozial bakoitzaren batazbestekoak, eta hauen guztien batazbesteko orokorrak 52(bis), 53(bis), 54(bis). tauletan eta IV. eranskineko 1(bis). grafikan aztertu ondoren honako hauek esan daitezke:

#### **6.2.1.1(bis). Bortxa politikoen multzoa (Herriaren borroka, ETA, ertzaintza eta polizia)**

1- Bortxa politikoen artean (52(bis). eta 54(bis). taula, eta IV. eranskineko 1(bis) grafika), herriaren borroka da positiboan baloratua 6 itemetan ezik (Azkarra - Inozoa, Beharrak eragina - Behar eza, Laguntza - Eraso, Abertzalea - Espainiazalea, Pakea - Indarkeria, Indartsua - Goibela), bigarren lekuan ETAREN borroka eta azkenik poliziaren bortxa.

2- Herriaren borroka; eta ETAREN batazbestekoak, bortxa politiko nahiz sozial guztien batazbesteko orokorra baino positiboago baloratuak dira item guztietan.

3- Ertzaintzaren bortxaren batazbestekoak, bortxa politiko nahiz sozial guztien batazbesteko orokorra baino positiboago baloratuak dira item batetan ezik (Abertzalea - Espainiazalea).

4- Poliziaren bortxaren batazbestekoak, bortxa politiko nahiz sozial guztien batazbesteko orokorra baino negatiboago baloratuak dira item guztietan.

5- Herriaren borrokak, erdi-indarreko balorazio positiboa item batetan jaso du; indar gutxiko balorazio positiboa 5 itemetan; indar gutxiko balorazio negatiboa 10 itemetan eta erdi-indarreko balorazio negatiboa 4 itemetan. Guztira bada, indar positiboa adierazten duten balorazioa 6 itemetan eta indar negatiboa adierazten duten balorazioa 14 itemetan dago.

6- ETArek borrokak, erdi-indarreko balorazio positiboa item batetan jaso du; indar gutxiko balorazio positiboa 4 itemetan; indar gutxiko balorazio negatiboa 9 itemetan; eta erdi-indarreko balorazio negatiboa 6 itemetan. Guztira bada, indar positiboa adierazten duten balorazioa 5 itemetan eta indar negatiboa adierazten duten balorazioa 15 itemetan.

7- Poliziaren bortxak, indar gutxiko balorazio negatiboa 3 itemetan; erdi-indarreko balorazio negatiboa 15 itemetan eta indar handiko balorazio negatiboa 2 itemetan. Guztira bada, indar positiboa adierazten duen balorazioa zero itemetan eta indar negatiboa adierazten duten balorazioa 20 itemetan.

8- Ertzaintzaren bortxak, indar gutxiko balorazio positiboa 2 itemetan; indar gutxiko balorazio negatiboa 13 itemetan; eta erdi-indarreko balorazio negatiboa 5 itemetan. Guztira bada, indar positiboa adierazten duten balorazioa 2 itemetan eta indar negatiboa adierazten duten balorazioa 18 itemetan.

#### 6.2.1.2(bis). Bortxa politiko eta sozialen multzoa

1- Bortxa politiko eta sozial guztien batazbesteko orokorrak (53(bis) eta 54(bis). taulak), indar gutxiko balorazio positiboa 2 itemetan jaso du; indar gutxiko balorazio negatiboa 5 itemetan; eta erdi-indarreko balorazio negatiboa 13 itemetan; Guztira bada, indar positiboa adierazten duten balorazioa 2 itemetan du eta indar negatiboa adierazten duten balorazioa beste 18 itemetan.

2- Bortxa politiko eta sozial guztien artean ongien baloratua herriaren borroka da (6 balorazio positibo eta 14 negatibo); bigarren lekuan ETArek borroka (5 balorazio positibo eta 15 negatibo); hirugarrena liskarra (5 positibo eta 15 negatibo); laugarren ertzaintza (2 positibo eta 18 negatibo); bosgarren lekuan berdinketa ematen da lapurreta eta biolazioen artean (1 positibo eta 19 negatibo); eta seigarren lekuan azkenik, berdinketa ematen da baita polizia, babesgabeenganako bortxa eta drogaren artean (20 balorazio negatibo).

3- Bortxa sozialen artean, liskarraren batzbestekoak izan dira bortxa politiko eta sozial guztien batzbesteko orokorrak baino positiboago baloratuak; gainontzekoak, batzbesteko orokorrek baino balorazio negatiboagoa jaso dute.

### **6.2.2(bis). T-test delakoen ikerketak**

Bortxa politiko eta sozial guztien batzbesteko orokorrak, eta bortxa politiko bakoitzaren batzbestekoen ezberdintasunak aztertzean, honakoak ageri dira:

#### **6.2.2.1(bis). Batzbesteko orokorrak eta herriaren erreibindikazioen batzbestekoak (T-TESTA).**

Batzbesteko orokorra eta herriaren borrokaren estimuloei dagozkien batzbestekoen ezberdintasunak esanguratsuak dira item guztietan (55(bis). taula). Herriaren borroka, ongi bereizten da beste bortxa politiko nahiz sozialetatik eta bertan ageri diren ezberdintasunak positiborantz doaz item guztietan, herriaren erreibindikazioen aldeko joera adierazten duelarik berorrek.

#### **6.2.2.2(bis). Batzbesteko orokorrak eta "ETA" talde armatuaren erreibindikazioen batzbestekoak (T-TESTA).**

Batzbesteko orokorra eta ETA talde armatuaren estimuloei dagozkien batzbestekoen ezberdintasunak esanguratsuak dira item guztietan (56(bis). taula). ETArekin borroka ongi bereizten da beste bortxa politiko nahiz sozialetatik eta bertan ageri diren ezberdintasunak positiborantz doaz item guztietan, ETArekin aldeko joera adierazten duelarik berorrek.

### 6.2.2.3(bis). Batazbesteko orokorrak eta poliziaren bortxaren batazbestekoak (T-TESTA).

Batazbesteko orokorra eta poliziaren bortxaren estimuloei dagozkien batazbestekoen ezberdintasunak esanguratsuak dira item guztietan (57(bis). taula). Poliziaren bortxa, ongi bereizten da beste bortxa politiko nahiz sozialetatik eta bertan ageri diren ezberdintasunak negatiborantz doaz item guztietan, poliziaren aurkako joera adierazten duelarik berorrek.

### 6.2.2.4(bis). Batazbesteko orokorrak eta Ertzaintzaren bortxaren batazbestekoak (T-TESTA).

Batazbesteko orokorra eta Ertzaintzaren bortxaren estimuloei dagozkien batazbestekoen ezberdintasunak esanguratsuak dira bi itemetan ezik (Borrokalaria - menpekoa; Askatasuna - zapalketa)(69(bis). taula). Ertzaintzaren bortxa ongi bereizten da beste bortxa politiko nahiz sozialetatik eta bertan ageri diren ezberdintasunek positiborantz jotzen dute item guztietan, ETaren aldeko joera adieraziz.

### 6.2.3(bis). **Diskriminanteen ikerketak (ikastetxe, sexu eta adina)**

#### 6.2.3.1(bis). Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, ikastetxeen arabera.

Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruz, eta ikastetxeen arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek adieraz daitezke (58(bis). taula):

- A- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokionean, ikastoletan (ikastetxe pribatuak) eta institutuetan (ikastetxe publikoak) jasotako balorazio ezberdinak esanguratsuak dira 15 item guztietan.
- B- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruzkoan, ikastoletan jasotako balorazioak institutuetan lortutakoak baino positiboagoak dira item guztietan.
- C- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokionean, ikastoletan jasotako balorazioak herriaren borrokaren batazbestekoak baino positiboagoak dira item guztietan.
- D- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, institutoetan jasotako balorazioak herriaren borrokaren batazbestekoarenak baino negatiboagoak dira item guztietan.
- E- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ikastoletan jasotako datuen arabera (59(bis). taula), balorazio positiboa 9 itemetan jaso dute eta negatiboa 11 itemetan.
- F- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta institutoetan jasotako datuen arabera (59(bis). taula), balorazio positiboa 4 itemetan dute eta negatiboa 16 itemetan.

#### 6.2.3.2(bis). Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, sexuaren arabera

Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruz, eta sexuaren arabera jasotako datuak aztertu ondoren ondoko hauek ondoriozta daitezke (60(bis). taula):

- A- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta sexuaren arabera jasotako datuen balorazio ezberdinak esanguratsuak dira 5 itemetan.

- B- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ezberdintasun esanguratsua ematen dela diogun 5 item hauetan, neskengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira mutilengandik jasotakoak baino.
- C- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 5 itemetan, neskengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira herriaren borrokaren batzbestekoarenak baino.
- D- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 5 itemetan, mutilengandik jasotako balorazioak negatiboagoak dira herriaren borrokaren batzbestekoarenak baino.
- E- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta neskengandik jasotako datuen arabera beti ere (59(bis). taula), balorazio positiboa 7 itemetan jaso dute eta negatiboa 13 itemetan.
- F- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta mutilengandik jasotako datuen arabera (59(bis). taula), balorazio positiboa 6 itemetan jaso dute eta negatiboa 14 itemetan.

#### 6.2.3.3(bis). Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, adinaren arabera

Herriaren borroka adierazten duten estimuloei buruz, eta adinaren arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek esan daitezke (61(bis). taula):

- A- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta adinaren arabera (14-15 eta 16-19 urte) jasotako datuen balorazio ezberdinak esanguratsuak dira 5 itemetan.

- B- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ezberdintasun esanguratsua ematen den 5 item hauetan, 16-19 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira 14-15 urteko ikasleengandik jasotakoak baino.
- C- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 5 item hauetan, 16-19 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira herriaren borrokaren batzbestekoak baino.
- D- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 5 itemetan, 14-15 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak negatiboagoak dira herriaren borroka adierazten duten batzbestekoak baino.
- E- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta 16-19 urteko ikasleengandik jasotako datuen arabera (59(bis). taula), balorazio positiboa 6 itemetan jaso dute eta negatiboa 14 itemetan.
- F- Herriaren borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta 14-15 urteko ikasleengandik jasotako datuen arabera (59(bis). taula), balorazio positiboa 6 itemetan jaso dute eta negatiboa 14 itemetan.

#### 6.2.3.4(bis). "ETA"ren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, ikastetxeen arabera

"ETA"ren borroka adierazten duten estimuloei buruz, eta ikastetxeen arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek azal daitezke (62(bis). taula):

- A- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, ikastoletan eta institutoetan jasotako balorazio ezberdinak esanguratsuak dira item guztietan.
- B- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, ikastoletan jasotako balorazioak institutoetan lortutakoak baino positiboagoak dira item guztietan.

- C- ETArek borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, ikastoletan jasotako balorazioak ETArek batzbestekoarenak baino positiboagoak dira item guztietan.
- D- ETArek borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, institutoetan jasotako balorazioak ETArek batzbestekoarenak baino negatiboagoak dira item guztietan.
- E- ETArek borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ikastoletan jasotako datuen arabera (59(bis). taula), balorazio positiboa 8 itemetan jaso dute eta negatiboa 12 itemetan.
- F- ETArek borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta institutoetan jasotako datuen arabera (59(bis). taula), balorazio positiboa 4 itemetan dute eta negatiboa 16 itemetan.

#### 6.2.3.5(bis). "ETA"ren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, sexuaren arabera

"ETA"ren borroka adierazten duten estimuloei buruz, eta sexuaren arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek ager daitezke (63(bis). taula):

- A- ETArek borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta sexuaren arabera jasotako datuen balorazio ezberdinak esanguratsuak dira 5 itemetan.
- B- ETArek borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ezberdintasun esanguratsua ematen dela diogun 5 item hauetan, neskengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira mutilengandik jasotakoak baino.
- C- ETArek borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 5 itemetan, neskengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira ETArek batzbestekoarenak baino.
- D- ETArek borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 5 itemetan, mutilengandik jasotako balorazioak negatiboagoak dira ETArek batzbestekoarenak baino.



- E- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta neskeengandik jasotako datuen arabera beti ere (59(bis). taula), balorazio positiboa 6 itemetan jaso dute eta negatiboa beste 14 itemetan.
- F- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta mutilengandik jasotako datuen arabera (59(bis). taula), balorazio positiboa 5 itemetan jaso dute eta negatiboa 15 itemetan.

#### 6.2.3.6(bis). "ETA"ren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, adinaren arabera

"ETA"ren borroka adierazten duten estimuloei buruz, eta adinaren arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek esan daitezke (64(bis). taula):

- A- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta adinaren arabera jasotako datuen balorazio ezberdinak esanguratsuak dira item bakar batetan.
- B- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ezberdintasun esanguratsua ematen den itemean, 16-19 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira 14 - 15 urteko ikasleengandik jasotakoak baino.
- C- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko itemean, 16-19 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira ETAREN batzbestekoak baino, aipaturiko itemean.
- D- ETAREN batzbestekoak adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko itemean, 14-15 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak negatiboagoak dira ETAREN batzbestekoak baino, aipaturiko itemean.

- E- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta 14-15 urteko ikasleengandik jasotako datuen arabera (59(bis). taulan), balorazio positiboa 5 itemetan jaso dute eta negatiboa 15 itemetan.
- F- ETAREN borroka adierazten duten estimuloei dagokienean, eta 16-19 urteko ikasleengandik jasotako datuen arabera (59(bis). taula), balorazio positiboa 5 itemetan jaso dute eta indar negatiboa 15 itemetan.

#### 6.2.3.7(bis). Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, ikastetxeen arabera

Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruz, eta ikastetxeen arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek azal daitezke (65(bis). taula):

- A- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, ikastoletan eta institutoetan jasotako balorazio ezberdinak esanguratsuak dira 18 itemetan.
- B- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, ikastoletan jasotako balorazioak institutoetan lortutakoak baino negatiboagoak dira adierazitako item guztietan (18).
- C- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, ikastoletan jasotako balorazioak poliziaren batzbestekoarenak baino negatiboagoak dira adierazitako itemetan(14).
- D- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, institutoetan jasotako balorazioak poliziaren batzbestekoarenak baino positiboagoak dira aipaturiko itemetan (14).
- E- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ikastoletan jasotako datuen arabera (59(bis). taula), balorazio positiborik ez da egon eta negatiboa 20 itemetan.
- F- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta institutoetan jasotako datuen arabera (59(bis). taula), balorazio positiborik ez da egon eta negatiboa 20 itemetan.

6.2.3.8(bis). Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak,  
sexuaren arabera

Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruz, eta sexuaren arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek ager daitezke (66(bis). taula):

- A- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta sexuaren arabera jasotako datuen balorazio ezberdinak esanguratsuak dira 10 itemetan.
- B- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ezberdintasun esanguratsua ematen dela diogun 10 item hauetan, mutilengandik jasotako balorazioak negatiboagoak dira neskengandik jasotakoak baino.
- C- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 10 itemetan, mutilengandik jasotako balorazioak negatiboagoak dira poliziaren batzbestekoarenak baino.
- D- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 10 itemetan neskengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira poliziaren batzbestekoarenak baino.
- E- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta mutilengandik jasotako datuen arabera beti ere (59(bis). taula), balorazio positiborik ez da ematen inongo itemetan eta negatiboa 20 itemetan.
- F- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta neskengandik jasotako datuen arabera (59(bis). taula), balorazio positiboa item batetan jaso da eta negatiboa 19 itemetan.

### 6.2.3.9(bis). Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, adinaren arabera

Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei buruz, eta adinaren arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek adieraz daitezke (67(bis). taula):

- A- Poliziaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta adinaren arabera jasotako datuen balorazio ezberdinak ez dira esanguratsuak.

### 6.2.3.10(bis). Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, ikastetxeen arabera

Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei buruz, eta ikastetxeen arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek azal daitezke (70(bis). taula):

- A- Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, ikastoletan eta institutoetan jasotako balorazio ezberdinak esanguratsuak dira 15 itemetan.
- B- Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, ikastoletan jasotako balorazioak institutoetan lortutakoak baino negatiboagoak dira aipatu 15 itemetan.
- C- Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, ikastoletan jasotako balorazioak Ertzaintzaren batzbestekoarenak baino negatiboagoak dira 15 itemetan.
- D- Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, institutoetan jasotako balorazioak Ertzaintzaren batzbestekoarenak baino positiboagoak dira 15 itemetan.

- E- Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ikastoletan jasotako datuen arabera (59(bis). taula), balorazio positiboa 2 itemetan jaso dute eta negatiboa 18 itemetan.
- F- Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta institutoetan jasotako datuen arabera (59(bis). taula), balorazio positiboa 3 itemetan dute eta negatiboa 17 itemetan.

### 6.2.3.11(bis). Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, sexuaren arabera

"Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei buruz, eta sexuaren arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek ager daitezke (71(bis). taula):

- A- Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta sexuaren arabera jasotako datuen balorazio ezberdinak esanguratsuak dira 6 itemetan.
- B- Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ezberdintasun esanguratsua ematen dela diogun 6 item hauetan, mutilengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira neskengandik jasotakoak baino.
- C- Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 6 itemetan, mutilengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira Ertzaintzaren batazbestekoarenak baino.
- D- Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 6 itemetan, neskengandik jasotako balorazioak negatiboagoak dira Ertzaintzaren batazbestekoarenak baino.
- E- Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta mutilengandik jasotako datuen arabera beti ere (59(bis). taula), balorazio positiboa 2 itemetan jaso dute eta negatiboa beste 18 itemetan.
- F- Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta neskengandik jasotako datuen arabera (59(bis). taula), balorazio positiboa 2 itemetan jaso dute eta negatiboa 18 itemetan.

6.2.3.12(bis). "Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei buruzko emaitzak, adinaren arabera"

"Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei buruz, eta adinaren arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek esan daitezke (72(bis). taula):

- A- Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta adinaren arabera jasotako datuen balorazio ezberdinak esanguratsuak dira 2 itemetan.
- B- Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta ezberdintasun esanguratsua ematen den 2 item hauetan, 16-19 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira 14- 15 urteko ikasleengandik jasotakoak baino.
- C- Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 2 itemetan, 14-15 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak positiboagoak dira Ertzaintzaren batzbestekoak baino, aipaturiko 2 itemean.
- D- Ertzaintzaren batzbestekak adierazten duten estimuloei dagokienean, eta aipaturiko 2 itemetan, 14-15 urteko ikasleengandik jasotako balorazioak negatiboagoak dira Ertzaintzaren batzbestekoak baino, aipaturiko 2 itemetan.
- E- Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta 14-15 urteko ikasleengandik jasotako datuen arabera (59(bis). taulan), balorazio positiboa 2 itemetan jaso dute eta negatiboa 18 itemetan.
- F- Ertzaintzaren bortxa adierazten duten estimuloei dagokienean, eta 16-19 urteko ikasleengandik jasotako datuen arabera (59(bis). taula), balorazio positiboa 2 itemetan jaso dute eta indar negatiboa 18 itemetan.

## 6.2.4(bis). Laburpen gisa

Bortxa politiko eta sozialak adierazten duten estimuloei buruz, eta ikastetxe, sexu eta adinaren arabera jasotako datuak aztertu ondoren honako hauek ondoriozta daitezke:

### 6.2.4.1. T-testa delakoaren arabera

- A- Herriaren borroka, gainontzeko bortxa politiko eta sozialak baino hobeto baloratua da.
- B- ETAREN borroka, gainontzeko bortxa politiko eta sozialen artean bigarren moduan baloratua da eta orain hamar urte baino ikuspegi zertxobait negatiboagoa jaso du, oro har gainontzeko bortxak bezala.
- C- Poliziaren bortxa, gainontzeko bortxa politiko eta sozialen artean balorazio txarrenetakoa eta ikuspegi guztiz negatiboa jasotzen du euskal gazteen artean.

### 6.2.4.2. Diskriminanteen arabera

- A- Herriaren borrokari dagokionean, ikastoletan, jasotako balorazioak positiboagoak dira institutoetan jasotakoak baino.
- B- ETAREN bortxari dagokionean ere, ikastoletan, jasotako balorazioak positiboagoak dira institutoetan jasotakoak baino.
- C- Poliziaren bortxari dagokionean, ikastetxe, sexu eta adinaren arabera jasotako balorazioek ez dute ezberdintasunik eta, esan bezala, guztiz negatiboak dira.

- D- Ertzaintzaren bortxari dagokionean ere, ikastetxe, sexu eta adinaren arabera jasotako balorazioek ez dute ezberdintasunik eta, oso negatiboak dira baita.

Lehen ikerketa enpirikoaren bukaeran nioena errepikatuz, berriro diot, ikastoletan hezitako gazteek institutoetan hezitakoak baino jarrera positiboagoa azaltzea herriaren borroka erreibindikatioa eta ETArenganako, ez da ikastoletan talde hauen aldeko jarrera lantzen delako, baizik eta beren senitartean eta ingurunean jasotako kultura zein sendimendua delako.

Hamar urte hauen ondoren, bortxa politiko eta sozial guztiak oro har, era negatiboagoan baloratu izanak, Estatu espainiarra eta Euskal Herriaren arteko gatazka politikoa gainditzeko jokabide estrategikoak alderatu eta irtenbide negoziatua bilatu beharraren desioa adieraziko luke. Desio hau jakina denez, behin eta berriro agertu izan du aldeetako batek, "Alternatiba Demokratiko"aren proposamena plazaratzean; Estatu espainiarrarekiko negoziazioa etengabeki eskatzen aritzerakoan; eta aldebateko suetenak eskaini dituenen ere bai. Estatu espainiarraren aldetik ordea, konpromezu eza nabarmendu izan da gatazka konpontzeko garaian.



## 7. EUSKAL HERRIKO BORROKA ARMATUA- REKIN KONPROMETITURIK DAUDEN ZENBAIT LAGUNEN TESTIGANTZAK

### 7.1. Galdetegia

Ondoren agertuko ditugun eta bi hizkuntzetan idatziak dauden bost galdera hauek, atal honen izenburuak dioen bezala, Euskal Herriko askapen nazional eta sozialaren aldeko borrokan konprometiturik dauden sei laguni eginak izan dira. Informazio jasotze honekin, herri honetan burutzen den borroka armatuaren helburuak, bere egokitasuna, dagoen sostengua, lortu nahi diren emaitzak eta independentziari buruz diotena ere hobeto ezagutu nahi da.

1- ZEHAZKI GAUR EGUN, ZEIN DA EUSKAL HERRIAREKIKO DUZUEN HELBURUA?

Hoy en día concretamente, ¿Cuál es el objetivo que os habeis marcado para Euskal Herria?

2- GAUR EGUN EGOKITZAT JOTZEN AL DUZU BORRROKA ARMATUA ERABILTZEA HELBURU POLITIKOAK LORTZEKO?

¿Crees acertado hoy en día la utilización de la violencia en la consecución de fines políticos?

3- ZENBATERAINOKO SOSTENGUA JASOTZEN DUZUE GAUR EGUN? ALDAKETARIK SOMATU AL DUZUE?

¿Qué apoyo recibís actualmente?. ¿Habéis notado algún cambio?

- 4- NOLA ERANTZUTEN DIEZUE, EUSKAL HERRIAN DAUDEN NAZIONALISTA ETA EZNAZIONALISTA DIREN BI TALDEEI?

¿Qué tipo de respuesta planteáis ante los dos grupos -nacionalista y no nacionalista- existentes en el País Vasco?

- 5- NOLA ULERTZEN DUZU EGUN, EUSKAL HERRIAREN INDEPENDENTZIA?

¿Actualmente qué entiendes tú por Independencia del País Vasco?

## 7.2 Lehen testigantza (gizonezkoa, gazteleraz)

- 1- Gaur egun daukagun helburua lehengoko bera da, demokrazia izendatzen den oraingo diktadura hau baino lehenagotik geneukana: Euskal Herriko subiranotasun politikoa, lurraldetasuna, euskara ezagutzea herri honen hizkuntza bakartzat, autodeterminazio eskubidea gure etorkizuna erabaki ahal izateko herri aske eta subirano moduan.
- 2- Ez dugu ahaztu behar botere kapitalista espainiarrak bortxa era askotan erabiltzen duela, ejertzittoa Espainiako batasunaren berme gisa, gerra zikina bultzatuz euskal errefuxiatu politikoen aurka, preso politikoak erreprimenez gartzelen barruan, ezker abertzaleko ustezko edozein kide torturatuz. Gure bortxa defentsiboa da, armen bidez borrokatzen dugu ezin dugulako borrokatu euskaldun gehienok bere garaian atzera bota genuen marku politikoan, estatu baskongadoaren bidez ere ez diote arazo bat berari irtenbiderik eman inposiziozko hogeita zortzi urteotan. Helburu politikoak lortzeko borroka armatua guztiz zilegia dela irizten dugu eta uste osoa dugu horretan, izan ere arazo politiko hauek egiten dute ETAREN borroka armatua izateko arrazoia.
- 3- Aski da manifestazio batera edo herri ekitaldi batera joatea ETAK babesa duela ikusteko, eta sostengu hori badu Euskal Herriko bizilagun asko ordezkatzeko duelako da, borroka armatuaren bidez helburu politikoa lortzea espero duenena.
- 4- Euskal Herri libre eta independentea lortzeko euskaldun guztion parte hartzea behar dugu, beraren alde lan egiteko prest dauden guztien, Euskal herri libre, subirano, berbatu eta euskalduna egiteko. Beren buruak euskalduntzat jotzen ez dituztenek edo espainiar sentitzen direnek ez dute izateko arrazoirik Euskal Herri librean, beraiek bizi nahiko ez luketen Estatu batean bizitzera behartzea litzateke eta.
- 5- Nik independentzia, herri batek bere etorkizuna libreki erabakitzeko duen subiranotasuna dela ulertzen dut, bere hizkuntzan hitzegiteko eskubidea, bere kultura defendatzeko, bere etorkizuna herri gisa defendatu eta aukeratzeko, azken batean, ezker abertzaleko militante izateko arrazoi direnak.

Gora Euskadi Askatuta! Gora Euskadi Sozialista! Gora ETA militarra!

### 7.3. Bigarren testigantza (gizonezkoa, euskaraz)

- 1- *Gaur egun zein helburu ditugun galdetzen didazu, baina gaur egungo helburuak eta orain hamar urte genituenak, esate baterako, berdinak dira. Behar bada galdetu nahi duzuna da zein diren gure helburuak epe motz edo ertainerako.*

*Beno ba, alde batetik, negoziazio politiko bat medio, epe motz edo ertainean lortzeko helburu batzu ditugu. Negoziatio politikoaren ondorioz adibidez, Estatu espainiarrak gure herriaren izate ezberdina onartu beharko luke, eta munduko beste Estatu guztien aurrean euskal hiritarrok Estatu berri bat sortzeko dugun eskubidea ontzat eman.*

*Honetarako, Ipar eta Hegoko Euskal Herriei aplikatuko litzaiekeen autodeterminazio erreferenduma epe zehatzean prestatu eta burutzeaz aparte, Euskal Estatu independente, euskaldun eta berbatua lortzea eta iraultza sozialista burutzea litzateke gure asmoa. Aurretik jakinez hori bai, Estatu berria eraikitzea ez dela nahikoa. Aldiz, beharrezkoa litzatekeela filosofia berri eta jakin batekin eraikitzea. Gaur egun munduak jasaten dituen desberdintasunak eta injustizi sozialak gainditzeko bidea hartuz, esatebaterako: gure modelo kapitalismoaren eta inperialismoaren kontrakoa izan behar du, gizakiaren eta naturarekin errespetoan egongo den sozialismoa.*
- 2- *Ez dut egokitzat jotzen espainiar indar armatuek orohar bortxa errepresiboa erabiltzea beren helburu politikoak lortzeko. ETA-k bortxa-defentsiboa erabiltzea bere helburu politikoak lortzeko egokia iruditzen zait. Etikoki bidezkoa gainera eta politikoki beharrezkoa da, eta ikusi beharko dugu, ez bainaiz igarlea, eraginkorra izango den ala ez, nahiz eta nik hortan dudarik ez eduki.*
- 3- *Jasotzen dugun sostengua nire ustez, orokorrean esateko, betiko modukoa da, edota agian, apoio handiagoa ere somatzen da inguruan. Somatu aditzak duen esanahiarekin, noski.*
- 4- *Errealitate bat da, dudarik gabe, Euskal Herrian bi "talde" gaudela, eta asumituta daukagu errealitate horrekin bizi behar dugula talde eznazionalistaren integrazio prozesu bat eman arte. Nik denei mezu bakar bat luzatuko nieke: Herri bat gara, arlo askotan plurala (hizkuntza, ideiak, kultura, etabar.) eta gu denon artean erabaki behar dugula gure etorkizuna.*

- 5- Independentzia era bakar batez ulertu daiteke. Independentzia Estatu berri bat sortzea da, bere botere legegile, exekutibo eta judizialak izango dituen, errealitate ekonomiko eta politikoa zuzentzeko ahalmena izango duena.

#### 7.4. Hirugarren testigantza (emakumezkoa, euskaraz)

- 1- Duela berrehun urtetik hona Euskal Herriak bere nortasunaren aldeko borrokari ekin dio. Borroka honen adierazpenak anitz izan badira ere, denen amankomun puntua euskal izana eta izatea aldarrikatzea eta gauzatzea izan da. Hala ere, azken urteotan eskubide demokratikoak eskuratzean jarri dira indar guziak.

Lehen fase batetan beraz eskubideaz helburuaz baino, hitz egin beharko luke, Herri honek bere gero propio erabakitzeaz duen eskubideaz hain zuzen. Ondoren helburuari lotuko gintzaizkioke hots gizarte berri bat eraikitzeari. Zer gizarte berri? Euskal gizarte sozialista, abertzale, euskalduna eta antipatriarkala eraikitzea alegia.

Honek esan nahi du, gure esperientzian oinarrituta, baina herri bezala beste herriekin izan eta izango ditugun harremanen elkartrukatzearen ondorioz garaturiko hartuemanen emaitzetan zein esperientzietan funtsatuz eta sozialismoa erreferentzi nagusia izanik berezko eredu politiko, ekonomiko kulturala garatu beharko dugula.

- 2- Zapaldiriko herri batek bere nortasuna eta erabakitze ahalmena eskuratzeko bide oro erabil dezake.
- 3- Galdera hau ez dut bidezkoa ikusten. Gaurko demokrazia formalen sistemak zenbait parametro koantitatibo garatu du herritarren borondatea kontrolatzeko modua bailitzan. Herritarren nahiak adierazpide politikoak gainditzen ditu. Erakunde politiko militarren esistentzia horretan funtsatuta dago. Borondate horrek diktatzen du erakundearen bizitza eta intseztzioa herriaren barna.

- 4- Ezin da talde nazionalista eta eznazionalistetat mintzatu. Planteatzen den premisa faltsua da. Euskal Herriaren nortasunaren aldeko talde bakarra dago, gainerantzekoak espainol ereduaren aldeko apostua egin du. Bi ereduak aurrez aurre daude baina bi herri nortasun ere daude bata zapaltzailea, bestea askatzailea.
  
- 5- Lehen aipatu bezala Herri orok bere gogo politiko, ekonomiko eta kulturalaz erabakitzeko duen ahalmena. Bai eta berak nahi dituen herriekin libreki eta berdintasun ikuspegitik harremanak aukeratzeko eta izateko hautua. Funtsean, herri bat bere subiranotasuna izateko eta gauzatzeko bide bakarra da independentzia.

## 7.5. Laugarren testigantza (emakumezkoa, euskaraz)

- 1- Gauza garbia da. Gure helburuak aski ezagunak dira biztanleria osoan. Gure helburuak esatebaterako, Euskal biztanleria gehiengoak aspaldidanik erreibindikatu ohi dituenak besterik ez dira. Adibidez, Euskara gure hizkuntza ezagutu eta egunoroko harremanetan erabiltzea izango da bat. Hau, dakigunez, guztiz garrantzitsua da zeren eta, herri honen euskal nortasunaren ezaugarri nagusietako bat izateaz gain, elkar batzen eta besteengandik bereizten gaituen funtsezko elementua da. Beste helburu garrantzitsu bat, Euskal Herriaren independentzia lortzea da. Ipar eta Hego Euskal Herriak bat eginik Estatu berri bat osatzea.  
Honetarako jakina da, autodeterminatzeko eskubidearen aukera gauzatzea ere lortu beharko da, eta ez guretzat bakarrik baizik eta eskubide hauetaz baliatu nahi izango duten beste nazionalitateentzat ere bai.
  
- 2- Nik ez dut gogoko borroka armatua. Gu, beste edonor bezala, balore eta sendimenduen jabe gara. Arazoa, herri honi dagozkion eskubideak behin eta berriro ukatzean datza. Euskal Herriaren identitatearen adierazgarri eta oinarritzkoak zaizkion eskubideak bake bidez bideratzeari oztopoak jartzean hain zuzen ere, eta ez indarra edota armen bidea erabiliz bakarrik, baizik eta bortxa metodo hauen erabileran aintzindariak izanik baita. Gure borroka armatua bada, aurretik ematen denaren erantzuna eta defentsa da.  
Honen guztiaren aurrean, borroka armatuaren aukera aurrera eramatea ez da aldrebesa gertatzen, zeren eta ez baita uzten beste biderik dagokiguna defendatzeko. Gu pakezaleak izanik ere, armak hartzerak behartuak izan gara. ETA taldeak Euskal Herriko gehiengoarekin batera, eta hauen askatasuna lortzeko aurrera daraman borroka armatua bada, guztiz egokia da subiranotasuna lortzeko.
  
- 3- Jasotzen dugun sostengua nola ez, garrantzi handikoa da. Arerioak ongi asko dakien bezala, herriaren laguntza eman ezean ETA talde armatua aspaldi desegina zen zeren eta, borroka honetan eta hainbat urteetan jarraitzea ezinezkoa bait zatekeen. Ez dugu biztanleria gehiengoaren apoioa jasotzen dugunik esango, baina bai mugimendu emankor eta garrantzitsu batena eta hau denok, ohartzen garenez, izugarria da borroka armatuari buruz aritzean. Sostengu hau gainera, ez da Euskadin soilik ematen, baizik eta Estatu Espainol eta Frantsesean ere.

- 4- Herri bakoitza bere eskubideen alde ahalegindu behar da alboko herriarenak errespetatuz. Guk ere gauza bera, ezin baitugu onartu guri dagokiguna zanpatua izatea. Herri hau, bere eskubide historikoak lortzearren ari da aspaldidanik, herri askatua izatera iritsi nahi du, euskalduna izan, subiranoa.

Herri bakoitzak bere etorkizunaren jabe izan behar du, ez besteen aginduetara makurtua edota menderaturik bizi. Asmo hauek, errespetatu eta bidezko ikusi behar dute atzerriko kultura nahiz izate sozialaren aldeko apostua egin edota identifikatzen direnek (eznazionalistak). Espainiar edota Frantziar identifikatzen direnak esatebaterako gure kasuan. Hauek hitz batean, suertatu zaien herrian integratu eta bertako izate eta kulturaren aldeko jarrera bermatu behar dute.

- 5- Euskal Herriko independentziak zer esan nahi duen? Nik uste gauza argia dela hori. Edonork daki zer den independentzia. Esan dezagun, herri askea izatea dela. Subiranoa. Norbere herriari dagozkion erabakiak hartzeko ahalmena izango duena. Gainerako estatuekin harreman zuzenak izan eta munduan dauden gatazka edota beste arazoan aurrean egokiena deritzaigun erabakia hartzeko aukera izatea. Euskal Herriaren etorkizunaz Espainiar edota Frantziar Estatuek ez erabakitzea, geuk baizik. Ulertuz hori bai, gaur egungo Estatuek elkarren arteko erlazio, akordio, konpromezu, lotura, etab. ugari dituztela (Europar Batasunak kasu) eta honek norberaren askatasunaren nolabaiteko murrizketa suposa dezakeela elkarrekin, elkarlanean, justizian eta progresoari begira ihardutean.

*Gora ETA militarra!*

*Gora Euskadi Askatuta!*

*Gora Euskadi Sozialista!*



## 7.6. Bosgarren testigantza (gizonezkoa, gazteleraz)

- 1- Lehenbiziko galderari buruz, zeintzu helburu ditugun Euskal Herrirako eta, garrantzitsuena eta oinarritzkoena, Euskal Herri osorako, Ipar aldea eta Hego aldea barruan direlarik, Eskubide Historikoen errekonozimendua da. Eskubide hori errekonozitzeak bidea emango liguke burujabetasunera iristeko, hori galerazten ari diren Konstituzioaren artikulua aldatuz, adibidez 8.a. Gogoratu besterik ez da egin behar artikulua horrek dioena, indar armatuak direla Estatu espainiarraren bermea. Konstituzioa aldatuz gero, gainerako nazionalitateek ere eskubide bera izango lukete, hortaz, ez litzateke Euskal Herriarentzat bakarrik izango erreibindikazio hori. Bestetik, borroka honetan, Euskal Nazio Askapenerako Euskal Mugimendua osatzen dugun erakunde ezberdinetako partaide guztiok gaude konprometituta, ETA gure erakunde armatua ezezik gainerako erakunde guztietako militanteak ere bai.
  
- 2- Hemen planteatzen den kuestio honetan, ea "bortxa" erabiltzea zilegi den ala ez helburu politiko batzuk lortzeko, esan beharra daukat argi eta garbi, ETA aurrera eramaten ari den borroka armatua, "bortxa" deitzen dioten arren, Estatu espainolaren zapalkuntzari erantzutera datorrela. Azken bolada honetan gainera zapalkuntza hau areagotu egin da "bloke demokratiko"ko alderdiek babestuta. Estatuak beren indar armatu eta polizia ezberdinen bidez praktikatzen duen bortxaren aurreko erantzuna da. Baita ere nire ustez, ez da kontsideratu behar ETAREN borroka armatua zerbait isolatua balitz bezala, elementu bat besterik ez da, zeren eta beste alorretan borroka ugari egiten ari baitira erakunde ezberdinak, lan arloan, gazterian, emakumearenean. Egokia den ala ez, nire iritziz, euskal herria zapalduta jarraitzen duen bitartean, geroz eta askatasun gutxiago daukagunean, hori hala izateko kausak argiagoak dira. Borroka armatuak zalantzarik ez, jarraiki beharra dauka derrigorrez.
  
- 2- Daukagun sostenguari dagokionean, ñabardura batzuk egitea gustatuko litzaidake. Lehenik, Nazio Askapen Mugimendua martxan jarri duen Euskal Herria Askatu! kanpaina beste jarrerara zeharo diferentea da orain artean eramandakoarekin gonbaratzen badugu, ez dut esango ofentsiboa, baina bai erantzunezkoa eta Euskal Herriak dituen eskubideen bahiketa agertzearena. Jendea pilaka doa deialdi horietara, jendea erantzuten ari da, herrietan batipat, eta hau, oso oso garrantzi handikoa da. Oker deitutako "Bloke demokratiko"koek zera esaten dute, ETAREN babesaren termometroa HBK jasotzen dituen botoak direla, ba, abagadune ezin txarragoan aurkitu arren azken hauteskundeetan,

Aldaiaren "bahiketa" tarteko, ekintza armatuak, HBren kontrako kanpaina itzela, botuetan berdintsu gaude, lehen bezalaxe.

- 4- Euskal Herrian dauden talde ezberdinei begira planteatzen diren erantzun edo aportazioak, PNV, HB eta EA batetik, eta PSOE, PP eta IU bestetik, garrantzitsuenak aipatzearren, ba nik uste dut lehenbizikoek batze gune bat badutela gure hizkuntza eta kultura bizirik irauneraztea, Euskal Herriko eskubideak aldarrikatzea, eta bigarrengeok berriz, Euskal Herria nazioa dela adierazi, errarazi behar zaie, hor dagoela bizirik, eta piskanaka piskanaka asunituz joan beharko dutela, Euskal Herrian bizi badira errekonozitu beste erremediorik ez zaie geratzen Euskal Herria den errealitate honetan integratuz bukatu beharko dutela.
- 5- Independentzia zer den, zer ulertzen dudan? Edozein Estatu batek bere etorkizunaz erabakitzeke duen ahalmena adibidez. Euskal Herria esatebaterako, Espainia eta Frantziako Estatuetatik bereiztuz, Estatu berria sortzea. Agintea gure esku egotea. Subiranotasuna.

## 7.7. Seigarren testigantza (gizonezkoa, euskaraz)

- 1- Helburutzat Independentzia dago, Euskal Herriaren izaterako helburu eta oinarri. Independentzia horrek gaur egun estatu espainiar eta frantsesaren menpe dauden zazpi herrialdeen subiranotasun politikoa izan behar du, nazioarte mailan errekonozitua izan dadila Nazio eta Estatu gisa, azken batean, Euskal Herriak osotasunean bere etorkizun politikoa erabaki ahal izateko baliapide politikoak edukitzea. Etorkizun politiko horren barruan, hizkuntza, kultura, Estatuko beste herriekiko harremanak, besteak beste.
  
- 3- Gaur egun helburu politikoak lortzeko, ez da bortxa soilik erabiltzen. Batipat bortxa, baliapide politikotzat hartuta, beste zenbait elementuekin batean doa, beste borrokekin batean. Nire ustetan, borroka armatua edota helburu politikoentzako edota konkista politikoak lortzeko bortxa erabiltzea, borroka osagarria da. Instituzio borroka dago, borroka politikoa dago, masen borroka dago, mobilizazioak, herritarren parte hartzearena,...

Zenbait lekutan, praktika armatuak lortu izan ditu helburu politikoak eta beste batzutan ordea ez, esate batera, Letonia, estatu independentea izatera iritsi dena bortxa erabili gabe. Noiz gauzatzen da orduan bortxa?, adierazpiderik oinarritzkoenak ukatzen direnean, helburu batzuk lortzeko bake bidea ukatu egiten denean. Norbait badago lehendik sistema berak erabiltzen duen bortxa, zure subiranotasunera, zure erreibindikazio politikoak lortzera bakean iristeko edozein bide isten dizuna. Oso zilegi da borroka armatua helburu politikoak lortzeko.

  
- 3- Borroka armatuaren apoioa nabaria da. Apoioa halaz ere, ez da ulertu behar bakarrik ekintza bat edo beste baten aldeko zerbait bezala, baizik eta, borroka armatuak dituen helburuak, sinesgarritasuna, ekarpen politikoa, ... hori guztia kontutan hartu behar da. Nabarmentzekoa da, gazteriak hartu duen konpromezua borrokarekin, dagoen etengabeko bersortzea, horretan guztian kokatu beharko litzateke jasotzen dugun babes.
  
- 4- Gaur egungo gonbitea, klase politiko guztientzako, bai nazionalista bai eznazionalistentzako izan behar du errekonozitzea Euskal Herri moduan izateko eta bizitzeko eskubide osoa duela, nazioa izateko, estatua izateko, eta ildo horretan, Euskal Herriko eraikuntza nazionala ez da baztergarria, ez da batzuen ondarea, ez, euskal herritar guztion lana behar beharrezkoa da prozesu horretan.

- 5- Euskal Herrian klaseko interes kontrajarri batzuk badaude gaur egun, klase menperatzailea burgesia denez eta interesik haundiena agertzen dutenez Euskal Herria Estatu frantses eta espainiarraren parte izateko, nik ulertzen dudanez, independentzia nazio askapena izango da eta honek, klasearen askapena, independentzia ekonomiko eta politikoa ere ekarriko du. Nolanahi, askapen politiko horrek, independentziaren marku horretan gizarte- askapenaren sinonimo izan behar du.

## 7.8. Laburpena eta ondorioak

Euskal Herriko borroka armatuarekin konprometiturik dauden zazpi elkarrizketatuk aurreneko galderari (Zehazki gaur egun, zein da Euskal Herriarekiko duzuen helburua?) emandako erantzunen arabera (68. taula), esan daiteke, herri honenganako dituzten helburu politiko-sozialak, garai bateko berberak izaten jarraitzen dutela. Ondoren aipatzen direnak esatebaterako:

- A- Euskal Herriaren izatearen ezberdintasuna errekonozitua izatea (elkarrizketatu batek dio).
- B- Euskara (bostek diote).
- C- Autodeterminazioa (hiruk diote). Eskubide hau, Euskal Herria osatzen duten zazpi herrialdeentzat erreibindikatzen da eta herri honen etorkizun politiko, kultural, ekonomiko, etab., eraikitzeko baliabide garrantzitsu modura izendatzen da.
- D- Euskal Herriaren independentzia (guztiak diote). Helburu hau, beste honako hitzetan ere aipatzen da: estatu berri bat sortzeko eskubidea, subiranotasuna, eskubide historikoen errekonozimendua, burujabetasuna edota estatu gisa errekonozitua izatea.  
Independentziaren eskubide hau, Ipar eta Hego Euskal Herriko zazpi lurraldeentzat erreibindikatzen da baita, eta honen bidez, herri honen etorkizuna guk geuk erabakitzeko aukera izatea lortu nahi da. Herri askea izatera iristeko aukera izatea, azken batean.
- E- Euskal gizarte sozialista bultzatzea (bik diote). Helburu honekin, munduko beste zenbait lekutan gertatzen diren desberdintasun eta injustizi sozialak gainditu nahi dira.

Euskal Herrirako erreibindikatzen diren eskubide hauek azkenik, Espainiar zein Frantziar Estatuetakoko beste nazionalitateentzako ere baliagarriak liratekeela esaten da eta hauek guztiak, ez dutela hausturarik suposatuta behar elkarren arteko harremanetan.

Bigarren galderari (Gaur egun egokitzen jotzen al duzu borroka armatua erabiltzea helburu politikoak lortzeko?) buruz esandakoak honako hiru puntu hauetan laburbil daitezke:

- A- ETA talde armatuaren borroka, erantzunezkoa da (lauk diote). Espainiar indar armatu nahiz polizialen bortxa errepresiboari egiten zaion erantzuna. Espainiar botere kapitalista eta sistema bera ere diote, ETA talde armatua baino lehen hasi dira bortxa erabiltzen adierazpen oinarritzkoenak debekatuz; helburu politikoak bake bidez lortzeko aukerak ukatuz; gerra zikina bultzatuz;

errefuxiatuen aurka arituz; preso politikoak erreprimituz; ezkertze abertzaleak torturatuz, etab. Aldi berean, Espainiar indar armatuen bortizkeria errepresibo hau ez dela egokia diote.

B- ETA talde armatuaren bortxa, defentsiboa da (laurk diote).

C- Borroka armatua zilegia da (guztiak diote). Helburu politikoak lortzeko borroka armatua erabiltzea zilegia dela esaten dute beste aukerarik ematen ez denez; etikoki bidezkoa eta politikoki beharrezkoa da; borroka armatuan jarraiki beharra dago derrigorrez; Euskal Herriak zapalduta jarraitzen duen bitartean, berdin jarraitzeko arrazoiak argiagoak gertatzen dira; zapalduak dagoen herriak bide oro erabil dezake; zilegia da subiranotasuna lortzeko edota erreibindikazioak bideratzeko beste bideak itxita daudenean. Gu, esaten da baita ere, armak hartzera behartuak izan garen bakezaleak garela.

ETAren borroka armatua ez dela isolatua ere badioke, beste borroka modu batzuk badaudelako bertan horrekin batean, esate baterako, lan-arloan egiten direnak, gazterian, emakumearenean, etab. Bortxa politikoa baliabide modu bat da, helburu politikoak lortzeko beste herritar borroken osagarri bat. Aipatutako lehen eta bigarren galderak "Bortxa espirala" saileko gatazka existentzialen aferarekin dute zerikusia, ondorioen 8.2.1. puntuan azaltzen den moduan.

Hirugarren galderan (Zenbaterainoko sostengua jasotzen duzue gaur egun? Aldaketarik somatu al duzue?), elkarrizketatu guztiak bat etorriko dira ETA taldeak herritarren babesak jasotzen duela esaterakoan eta batek esaten duenez, sostengu hau Euskal Herrian ezezik, Espaini eta Frantziar Estatuetan ere badago. Babes hau, Nazio Askapen Mugimenduak antolatzen dituen manifestazio eta ekitaldietan argi geratzen dela adierazten dute (bik diote); ETA talde armatuaren existentzia bera da jasotzen den bultzadaren seinale (bik diote) zeren eta, sostengu hau eman ezean, esaten du hauetako batek, aspaldi desagertuak ginen eta azken batek berriz, gazteriak borrokari buruz duen etengabeko bersortze konpromezua bera ere sostenguaren adierazgarri argiena dela dio.

Lauugarren galderan (Nola erantzuten diezue Euskal Herrian nazionalista eta eznazionalista diren bi taldeei?), elkarrizketatu guztiak bat etorriko dira Euskal Herrian bi talde daudela onartzerakoan.

Lau elkarrizketatutak, Euskal Herri askatu, subirano, berbatu eta euskalduna lortzea oinarritzat jotzen dute. Eznazionalistei buruz emandako adierazpenetan bestetik, ez da aurreko galderetan bezalako adostasun garbirik agertzen, jaso diren zenbait erantzun nahikoa antzekoak badira ere sarri askotan. Hona hemen hauetaz diotena:

- A- Eznazionalistek, integratuz joan behar dute; ernarazi behar zaie; gonbitea luzatu Euskal Herriak Estatua izateko eskubidea duela errekonozitu eta aldeko jarrera har dezaten (hiruk diote).
- B- Errealitate hau geureganatu eta ondoren mezu bat luzatu, herri bat garela eta etorkizuna denon artean erabaki behar dugula adieraziz (batek).
- C- Ezingo dute nahi ez duten Estatuan beharturik bizi (batek).
- D- Espainol aldeko apostua egin dutenak zapaltzaileak dira (batek).

Bosgarren galderari buruz (Nola ulertzen duzu egun, Euskal Herriaren independentzia?) jasotako erantzunak ere azkenik, nahikoa argiak dira. Independentzia (guztiek diote), gure herriaren etorkizun politiko, ekonomiko, kultural etabarretaz libreki erabakitzeke subiranotasuna izatea dela esaten digute. Honetaz gainera, independentzia Estatu berri bat sortzea ere badela agertzen dute (hiruk diote). Batek, Euskal Herriaren etorkizunaz Espainiar edota Frantziar Estatuak erabaki beharrean, gu geuk erabakitzea dela esaten du. Beste batek azkenik, gaur eguneko independentziak zenbait muga edo murrizketa dituela dio, Estatu ezberdinen arteko akordioek sorturikoak hain zuzen ere. Delako bosgarren galdera helmuga-interdependentziaren gaiarekin dago lotuta, ondorioen 8.2.5. puntuan agertzen den eran.

Ondorio gisa esan daiteke, elkarrizketatuen artean adostasun osoa dagoela galdera guztietan, laugarrenari dagokionean ezik, nahiz eta honetan ere nahikoa bateratuak agertzen diren ideia nagusietan. Aipatu laugarren galdera identitate nazionalaren auziarekin loturik dago, ondorioen ataleko 8.2.3. puntuan agertzen den bezala.

Hona hemen, aipaturiko galdetegian ageri diren punturik garrantzitsuenak:

- 1- Euskal Herriko borroka armatuarekin konprometiturik dauden lagunek beren ekintza armatuak burutzeko dituzten arrazoirik garrantzitsuenak, Euskara (bostek diote) eta Euskal Herriaren independentzia lortzea liratekeela diote (guztiek diote).
- 2- Gaur egun borroka armatua erabiltzea, zilegitzat jotzen dute (guztiek diote) herriaren erreibindikazioak lortzeko beste biderik ez dagoenez alde batetik, eta daramaten borroka armatua erantzunezkoa (lauk diote) eta defentsiboa delako diote (lauk diote).
- 3- Jasotzen duten sostenguaz ere, bat etorriko dira. ETA taldeak, babesa jasotzen duela nabaria dela esaten baitute (guztiek diote).

- 4- Euskal Herrian bi talde daudela onartzen da (guztiak diote) eta herri honek, askatua, subiranoa, berbatua eta euskalduna izan behar duela baita ere (lauk diote). Eznazionalistei buruz errepikatzen den ideiarik nagusia integratzearena da (hiruk diote).
- 5- Independentziaz azkenik, gure herriak bere etorkizunaz libreki erabakitzeko subiranotasuna dela diote (guztiak diote).



## 8. ONDORIOA

### 8.1. ENAMeko aktoreen mezua

Lan honetan zehar sarreraren planteatutako bi galdereri erantzuten ahalegindu naiz:

- Nola interpretatzen du ETAk Euskal Herriaren errealitate sozial eta politikoa?
- Zein aldaketa sartu nahi du ETAk gure herriaren errealitate sozial eta politikoan?

ENAMen kanpotik interpretatzen saiatu diren autoreen iritziak jaso, Euskadiko bortxa politikoari buruzko inkesta soziologiko eta sikosozilogikoen emaitzak aztertu (tesi honetako III., IV. eta V. atalen laburpena) eta konpromezu zuzena duten ENAMeko aktoreak entzun ondoren, sarreraren planteaturiko galdereri ETAk emandako erantzunak azaltzen ahalegindu naiz:

- A- Euskal Herriak, ezaugarritzat dituen bereizgarri historiko, linguistiko eta kulturelek ondo asko definituriko izaera izateaz gain, herri kontzientzia ezberdindua sortu du, eta ondorioz, Estatu espainiar eta frantseseko herrietatik ezberdindua izan nahi du, eta hala errekonozitua izan.
- B- Euskal Herria bi Estaturen menpe aurkitzen da eta menperatze-harreman hauek arlo politiko, eta arlo sozialean ere badira. Horregatik, askatasun politikoaren aldeko borrokarekin batera talde sozialen arteko harreman berdintzaileagoak lortzeko borroka ere badago.
- C- Borroka armatuan ENAMeko kide eta beste talde nazionalista batzuk osatzen duten mugimendu politiko eta sozial zabalak hartzen du parte eta bertan, euskal biztanleriaren zati handi batek esku hartzen du. Gainontzeko talde abertzaleak ez daude ados beroriek erabiltzen dituzten bortxa-metodoei dagokienez, nahiz eta guztiak bat etorri Euskal Herriaren askatze nazionalaren helburuarekin. Eznazionalisten parte adierazgarri bat ere bat dator aurreko xede honekin.
- D- ETAREN borrokaren helburua Gobernu zentrala behartzea da Euskal Herriak autodeterminaziorako duen eskubidea ezagutzera.

- E- ETAREN bortxa defentsiboa eta erantzunezkoa da, zeren eta, Estatu espainiarrak lehenagotik eta Euskal Herriak adierazten duen askatasun interesen kontra egiten duen bortxari erantzuten baitio.
- F- ETAREN bortxa politikoki beharrezkoa da, Espainiako Estatuak ez baitio uzten Euskal Herriari negoziazioaren bidez autodeterminazioa lortzen.
- G- ENAMeko partaideetako bat den ETA erakundeak, borroka armatuan jardun, erakunde armatua bersortu eta Estatu espainiarreko instituzio zein pertsonalitateak etengabeko tentsio egoeran izateko behar hainbat babes eta sostengu jaso izan du bere historian zehar eta egun ere jasotzen segitzen du.
- H- ETAK burutzen duen borroka armatua erabakiorra izan da, hala kontzientzi herritarraren mailan (nazionalismoa berpiztea, euskal identitatea, menpekotasun-kontzientzia, euskalduntzea, erreibindikazio herritarren maila, etab.), nola erreibindikazio politiko-kultural-administratibo ezberdinak lortzerakoan (autogobernua, Autonomia- Estatutua, entzaintza, euskara legeztatzea, euskal kultura indarberritzea, etabar...).
- Borroka honen eraginez antzeko lorpenak zabaldu izan dira baita Estatu espainiarreko gainerako autonomietara ere, dagozkien autogobernuak eskuratuz. Era horretan, hobeto zaindu ahal izango baitituzte beren interesak botere ezberdinen arteko oreka haundiagoko esparruan.
- I- ETAREN bortxa ezingo da bortxa instituzionalaren testuingurutik kanpo aztertu. Bortxa instituzional honen hastapenak gutxienik gerra Karlistetan dira, Francoren garaian areagotuz eta, ondorengo gobernu "demokratiko"ek jarraitu dutena, Euskal Herrian eraginiko errepresioarekin gerra zikinaren moduko estrategiak erabiltzeraino iritsiz (GAL, Intxaurrondo, etab.) eta hau guztia Euskal Herriak onartu ez duen Konstituzio espainolaren babesean gauzatuz. Gure herrian denok sufritzen dugun bortxa espirala ezin zaio alde bati soilik edota ETARI bakarrik egotzi, botere instituzionalak horretan duen funtsezko ardura erabakiorra ahantzirik.
- J- Euskal Herriaren normalkuntza politiko eta sozialak bi epe izango lituzke: lehenbizikoan eta negoziazio politikoaren bidez, Estatu espainiarrak Euskal Herriak autodeterminatzeko duen eskubidea aitortuko luke eta bigarren fase batean bestetik, Euskal Herriak eta berak soilik erabakiko luke bere etorkizunaren eraikuntza.

## 8.2. ENAMen mezuaren interpretazioa, gatazkaren teoria estrukturalaren eta gizarte psikologian erabiltzen diren teoria soziokognitiboaren ikuspegitik

A. Tourain-ek gizarte-mugimenduak aztertzeko eta beraz hartzeko landutako metodologiari jarraikiz eta, ikerketa lan hau burutzeko ENAMen barruan sarturiko ikertzailea naizenez, ETAREN eta Euskal Nazioaren Askapenerako Mugimenduaren mezua interpretatzea dagokit, gatazkei buruzko teoria psikosozialen laguntzaz, baita hipotesia batzuk lantzea ere ENAMeko aktoreei zuzenduta, eta hauek berretsi, arbuatu edo ñabatu ditzaketelarik nik landutako hipotesiak.

### 8.2.1. Bortxa espirala

"Borroka armatuarekin konprometitua" ataleko 7.8. puntuko lehen eta bigarren galderari erantzundakoei atxikiz adierazi behar dut, Euskal Herria eta Estatu espainiarraren arteko bortxa egoerari intente negoziatua bilatzeari buruzko nire lehen hipotesia interpretatiboa honako hau dela: **"Estatu espainiarra eta Euskal Herriaren arteko gatazka existentziala da, Euskal Herriaren identitatea jokoan dagoenez"**.

Gizarte-taldeen arteko gatazka existentziala ez da interes materialak gatazkaren antzekoa, ezta taldeen autoestimari eta balorazioari eragiten dien gatazkaren modukoa ere. Gatazka existentziala izateak esan nahi du arriskuan jartzen dela talde nazional baten existentzia gainontzeko taldeetatik bereizitako taldeetat hartuz gero bederen. Euskal izaera, batez ere, bere kultura eta hizkuntzari lotua dagoela hartzen badugu abiapuntutzat, Estatu espainiar eta frantsesarekiko independentzia politikoa bide erabakiortzat jo behar da aipatu izaera defendatzeko garaian.

Era berean, independentzia eskaerak autogobernu maila haundiagoa lortzeko dagoen interesari ere erantzuten dio, era horretan, Euskal Herria eta Estatuaren arteko (espainiarra zein frantsesa) botere harremanak aldatu egiten dira. Gatazkaren alderdi honi, botere banaketarekin lotutakoa dena, gatazka errealeko teoriaren ikuspegitik ekin beharko litzaioke (Apfelbaum 1979; Sachdev eta Bourhis 1984-85).

Agid Ben Yehuda eta Auerbach-ek (1993) 6 proposizioetan formulatu dituzte gatazka existentzialen ezaugarriak. Beraiek palestinar-israeldar gatazkari buruz ari dira. Guk 6 proposiziook birformulatu egin ditugu Euskal Herriak Estatu espainiar eta frantsesarekin duen gatazkan aplikatzeko.

**Lehenbiziko proposizioa:** Gatazka existentzialetan, boterea duten negoziatzaileek aurkariak egiten duen identitate nazionalaren erreibindikazioa ukatzeko joera izaten dute.

Madrilgo gobernuak, esate batera, euskal herriaren gehiengoak bere euskal identitate nazionalista erreibindikatzen duenik ukatu egingo luke, espainolaren mesedetan.

**Bigarren proposizioa:** Gatazka existentzialetan, boterea duten negoziatzaileek zenbait ezaugarri kulturalak definitutako pertsona edo taldetzat hartutako aurkaria, identitate nazionalaren sinbolotzat hartzen den lurraldetik bereiztera jotzen dute.

Gobernu zentralak, kasu honetan, Euskal Herria mugimendu nazionalistetik bereiztera joko luke eta, mugimendu horiek euskaldunon desioak adierazten dituztenik ukatu egingo luke.

**Hirugarren proposizioa:** Gatazka existentzialetan, boterea duten negoziatzaileek honelaxe hartu ohi dute aurkaria: a) indartsutzat epe laburrean; b) bataila galtzera kondenatuta epe luzera.

Hori da arrazoietakoa bat, Estatu espainiarrak ETA erakunde armatuak egiten dizkion eraso gogorrek agoantatzeko eta ondorioz, elkar hizketa edo negoziazio oro atzeratzen du, nahiz eta jabetuta egon bide horrek aukera haundiak zabalduko lituzkeela Euskal Herria baketzeko.

**Laugarren proposizioa:** Gatazka existentzialetan, boterea duten negoziatzaileek honelaxe hartu ohi dute aurkaria: a) etsai; b) nahiak (epe luzeko helburuak) eta epe laburreko helburuak bereizteko ezgai. Ez dituzte aintzat hartzen (boterea dutenak) aurkariak epe labur, ertain eta luzera izan ditzakeen helburuak. Aurkariaren epe labur zein luzerako asmoak erabat negatiboak direla azpimarratzea da garrantzitsuena boterea dutenen ustez.

Jakina da, oro har euskal nazionalismoaren nahiak zein helburu politikoak, eta bereziki ENAMekoak, onartezintzat eta zentzugabetzat jotzen dituztela boterean dauden buruzagi politikoei, jarrera hau abertzaleen aurka aritzeko ohiko estrategia bilakatu delarik.

**Bosgarren proposizioa:** Gatazka existentzialetan, boterea duten negoziatzaileek honelako terminoetan definitutako ideologian hartu ohi dute aurkaria: a) norbere talderako biltze sikologikoan; b) posesibitate gorenean; c) oinarrizko printzipioen nagusitasunean; d) oinarrizko printzipioen eta printzipio operatiboen arteko korrespondentzia haundian.

Berorixe da, hain zuzen ere, leporatzen ari zaiona mugimendu nazionalistari oro har, eta ENAMi bereziki: fundamentalistak izatea, hala bere taldeari nola dituzten ideiei oso loturik egotea. Ahal duten etekin guztia atera nahi izatea ere bai.

**Seigarren proposizioa:** Gatazka existentzialetan, boterea duten negoziatzaileek landu ohi duten politikak honelakoak jasotzen ditu: a) gatazkarako "zero emaitza" duen konponbidea (batek irabazten duena galtzen du besteak); b) erabateko eta behin-betiko konponbidea; c) zuzeneko estrategiak; d) bitarteko militarrek.

Estatu espainiarra ez legoke ezer galtzeko prest Euskal Herriarekin duen gatazka dela eta. Alderantziz hain zuzen ere, behin-betirako izatea nahiko lukeen irtenbideari ahalik eta lorpenik haundiena atera nahiko dio. Horretarako, Estatu espainiarrak estrategia politiko, ekonomiko nahiz psikologikoa erabiliko lituzke, hala metodo poliziako-errepresiboak eta militarrek nola paramilitarrek eta gerra zikinekoak.

Irtenbide estrategiko hau izan ohi da sarri askotan Estatu espainiarra eta Euskal Herriaren arteko gatazka konpontzeko zein ENAM edota ETArekin aurkako borrokan aritzeko Estatu gobernua formulatu izan duen aterabidea.

Taldearen arteko gatazkaren ikuspuntu arrazional eta estrategikoaren aurrean gaude (Maoz, 1993).

Bi supuesto ditugu abiapuntutzat: a) supuesto motibazionala: taldeak ahalik eta gehien irabazten saiatzen dira kosto gutxien izanik (Truke Sozialaren Teoria); b) gure adimena logika arrazional bati jarraikiz aritzen da (Informazioaren Prozesamenduaren Teoria).

Testuinguru honetan darabildan arrazionalitate kontzeptuak jokoan teoriarik du sorburua (Von Neumann eta Morgenstern, 1994). **Minimax** kontzeptuak agintzen du portaera arrazionala: ahalik eta gehien irabazi kosto gutxien izanik.

Horrexegatik, gatazketan negoziazioa tratuan aritzea moduko zerbait izaten da, non alde bakoitzak ahal den gehiena irabazten saiatzen den gutxiena galduz. Negoziatzeko trebezia, finean, gizarte-gatazken erregulazio legalak ematen dituen aukerak erabiltzeko eta norberak ezkutuan dituen kartak (bakoitzaren boterea) erabiltzeko estrategien abilezia da, aurkaria dituen kartak jendearean ager ditzan behartuz.

Gatazka nazionalen saio arrazional eta estrategikoak ez dakar konponbide iraunkorrik. Talde indartsuenak irabaz dezake epe laburrean, baina gutxiengo taldeak bere eraginari eutsiko dio eta gatazka berriro azalduko da barne edo kanpoko baldintzek talde menperatzailea ahuldu bezain pronto.

Estatu espainiarra eta Euskal Herriaren arteko gatazka nahiz ETArekin aurkako borrokan, betidanik erabiltzen diren estrategia ezberdinak zein metodo poliziako-errepresiboak, ez dira baliagarri izango, zeren eta Estatu espainiarra eta Euskal Herriaren arteko gatazka behin eta berriro berrituko bait da.

Gatazka nazional existentzialetan negoziatzeko erabiltzen diren estrategiak honako hiru aldagai hauen arabera izaten dira:

### 8.2.1.1. Gatazka taldeen arteko antagonismo eta sinergia maila

#### A- Antagonismo moetak:

- 1: Adiskidetzaila: amore ematen du argudio sendoak ematen zaizkionean.
- 2: Erresistentea: eskuetan dituen presio bide guztiak erabiltzen ditu, baina, finean, adostasunera iritsi nahi du.
- 3: Oposizionista: presio bide guztiak erabiltzen ditu bere jarrera inposatzeko, baina indar koerlazioa bere aurkakoa bada, denbora batez amore ematen du, uko egin gabe berriro borrokatzeari egoerak bere aldera egiten duenean.
- 4: Ezin adiskidetzukoa: eskuetan dituen presio bide guztiak erabiltzen ditu bere jarrera inposatzeko, baina indar koerlazioa bere aurkakoa bada, nahiago du harremana apurtu.

#### B- Sinergia moetak:

- + 1: Mesfidatia: kooperatze jarrerarekin ezer lor daitekeenik zalantzak ditu.
- + 2: Interesatua: kooperatzeko prest dago, baina ez du hurbiltzeko lehen pausoa ematen.
- + 3: Kooperatzailea: kooperatzeko prest dago, eta hurbiltzeko lehen pausoa emateko ere bai.
- + 4: Konprometitua: hurbiltzeko lehen pausoa ematen du, hartutako erabakiaren ondorioak kontutan hartu gabe.

### 8.2.1.2. Gatazka taldeen arteko botere erlazioa

Boterea, testuinguru honetan, A-k B-ri bere jarrera inposatzeko dituen bitartekoen multzoa da. Botereak itxura moeta ezberdinak har ditzake: botere instituzionala, informazioa kontrolatzeko boterea, adituen boterea, saritu eta zigortzeko boterea, identifikazio boterea, botere soziala (inguru sozialaren kontrola), botere ekonomikoa, botere poliziala, etabar... Gutxiengoaren talde nazionalak botere desoreka handi horren aurrean aurkitzean, ENAM eta ETArenean bezalaxe, negoziazio mahaian beren jarrera sendotzeko, borroka armatuari heltzera behartuta ikusten dute beren burua.

Argi dago, aztertzen ari garen taldearteko gatazkari ikuspegi arrazional eta estrategikotik ekinez gero, boterean daudenak ez liratekeela batere prest izango aurkariari, negoziazio mahaian parte har dezan gutxienerako aukerarik emateko, aurretik, Estatuari berari kalte handiak eragiteko indarra agertzen ez badu (armen bidezkoa adibidez), eta masak mugiarazteko gaitasuna, aldi berean.

### 8.2.1.3. Negoiazioa lantzeko borondatea eta konpromezuaren bilatzea

Alde bakoitzaren sinergia maila konpromezu batera iristeko duen interesaren arabera da, eta hori, gatazka konpontzeko duen behararen baitan dago azken finean.

Hiru aldagai horiek kontutan hartuta, ondorengo negoiazio arauak finka ditzakegu:

1. A-k (ETA) B-k (Estatua) baino antagonismo maila apalagoa badu, A-ri oso zaila izango zaio konponbide negoziatua lortzea eta B egoera hobean egongo da beretzat onuragarriagoa den konponbidea osorik edo zati batean inposatzeko. A-k zenbat eta kontu handiagoan hartu B-ren asmo onak konponbide negoziatua lortzeko, B-k intransigentzia jarrera hartzen duen bitartean, orduan eta gehiago joko du B-k bere jarrera abantailatsuari eustera.

Honegatixe hain zuzen ere, uste dute ENAMeko zenbait partaidek ETA erakunde armatuak ez duela etekinik ateratzen Estatu espainiarrarekiko negoziazioa etengabeki eskatzen aritzen denean ezta aldebateko suetenak eskaintzen dituen ere. Jarrerok, diotenez, une jakinetan izan beharko lukete: a) negoziatzeko aukera benetakoa denean edota B) suetenaren eskaintza medio, iritzi publikoa zein

nazioartekoa konponbide negoziatuaren aldekoagoa agertzea lort daitekeenean, ikusirik Estatu espainiarrak ez duela gatazkari irtenbidea emateko konpromezua hartzeko interesik, bai ordea, euskal gutxiengoa menperatzen jarraitzeko asmoa.

2. Antagonismo handiko erlazioetan, sinergia gutxiagoko jokoa darabilenak (hau da, interes gutxiena duenak gatazka konpontzeko) aukera gehiago dauka bere jokoa inposatzeko negoziazioan.

3. Zenbat eta gehiago adierazi A-k bere intransigentzia eta gehiago aldarrikatu euskal izaera modu bereizgarrian, orduan eta gehiago handitzen da aurkari zuzenen antagonismoa. Era berean, segurtasun gutxien duten aurkariak ahultzen ditu, gatazka bideratzeko irtenbideak lausotu egiten direnez, eta gehiago ziurtatzen du aliatuen babesa.

4. A-k, negoziazioko momentu batean, B-k baino botere handiagoa duela uste badu, A-k bere antagonismoari eustera edo handiagotzera joko du. Esaterako, Gobernu sozialista GAL kasuaren ondorioz ahultzen denean, ENAM eta ETA erakunde armatuko buruek beren jarduera armatua areago lezakete negoziazio mahaian aukera sendoagoak izateko.

5. A-k B-k baino botere haundiagoa badu, A-k abantaila horretaz fidatzeko joera izango du; B-k aldiz, bere antagonismoa sendotuko du eta botere bide berriak lortzen saiatuko da (aliantza berriak eginez edo bere botere soziala haundituz komunikabideekin, adibidez). Boterea iragankorra da eta duen boterearen gozotasunean lokartzen dena azkar asko gera daiteke botere hori gabe.

Arrazoi horregatik, A (ETA) eta B (Estatua), beren botereak indarrean eustera behartuak daude eta, ahalegin horretan, hiltzerainoko bortxa edota gobernu barrendik programaturiko mehatxu eta hilketak burutuko dituen GAL moduko taldeak sortzeraino iritsi daiteke, lehenagotik gertatu izan den bezala.

6. A-k eta B-k botere maila berdina badute, bietatik antagonistena indartsuena balitz bezala azalduko da. A-k eta B-k antagonismo eta botere maila berdina badute, gatazka ezin konponduko da.

Gatazka existentzialen kasuan -gatazka nazionalak existentzialak izaten dira normalean- oso zaila da negoziatzera iristea, zeren eta negoziatzeko zaletasun gehien agertzen duen aldeak indarra galtzeko joera baitu negoziazio mahaian. Horregatik da beharrezkoa negoziazioa planteatzean aurkaria ez behartzea bere indarrari uko egitera. ETA, esaterako, ezin da negoziatzen hasi armak utzita, baldin eta Estatuak ez badu negoziatzeko benetako borondatea azaltzen euskal herriaren autodeterminazio eskubidea aitortuz.



Estrategiak gailentzen diren une honetan, jakina da Estatuak baldintzatu egiten duela negoziazio posible hori, aurretik ETA erakundeak armak utzi behar dituela eskatuz, eta areago, armak berak entregatzea exigitzen duelarik. Horrela, aurkaria ahulduko luke eta hortaz, jarrera abantailatsua lortuko, ETARI nahiz ezker abertzaleei edota abertzale guztiei oro har Estatuaren tesien aldeko aterabidea inposatzeko.

### 8.2.2. Ikuspegi soziokognitiboa gatazken konponbidean

Beraz, eta aurreko hipotesiaren ondorioz, Euskal Herria eta Estatu espainiarraren arteko bortxa egoerari irtenbide negoziatua bilatzeari buruzko nire bigarren hipotesia interpretatiboa honako hau da: "ikuspegi estrategiko batetik, ezinezkoa da aurrez aurre dauden aldeak Estatu espainiarra eta Euskal Herriaren arteko gatazkaren konponbide negoziatu batera iritsi daitezen lortzea".

ETA eta Estatu espainiarraren arteko borroka ikuspegi estrategikoan oinarritzen da, gaur egun ere oraindik. Hortaz, "zero emaitza"ko irtenbideari eusten zaio, eta ondorioz, aldeetako batek bestea mendera dezakeela uste da.

Gatazkari irtenbide negoziatua emateko, gatazken negoziatioari buruzko eredu teorikoa aldatzea beharrezkoa da: ikuspegi estrategikotik ikuspegi soziokognitibora igaro beharra dago.

Ikuspegi soziokognitibo hau izan da erabiliena psikologia sozialean (Kruglanski, Bar-Tal eta Klar, 1993; Rothbart, 1993) eta pertsonen arteko nahiz taldeen arteko gatazken sorburuan prozesu mental eta afektiboek duten garrantzia azpimarratzen du: nola jasotzen dugun errealitatea; nola erabiltzen dugun oroimena; nola prozesatzen dugun informazioa; nola gauzatzen ditugun prozesatutako informazioaren ondorioz hartutako erabakiak.

Ikuspegi soziokognitiboaren arabera, gatazkaren sorburua, pertsona eta taldeen errealitateaz egiten den pertzepzio konfliktiboan datza eta perzibitutako errealitatearen laborazio konfliktiboan ere bai, aldi berean. Arazoa benetakoa izan daiteke gatazka nazionalen kasuetan izan ohi den bezala. Gatazkari buruzko teoria errealistek hori nabarmentzen dute: gatazkaren sorburua botere-asimetriak eragiten duela eta horrek menpekotasun-egoerara bultzatzen. Baina arazoa gatazka konponezin bihurtzen da aurkako taldeek prolema objetiboari buruz zein honen ondorioz sortzen den gatazkari buruz egiten duten interpretazioagatik.

Zehazki, esan nahi dena zera da, gatazkan diren aldeek jabetu beharra dutela Estatu espainiarra eta Euskal Herriaren arteko gatazkak irauten badu bi aldeek euskal herriaren errealitatea interpretatu eta sentitzeko modu ezberdinak dituztelako dela.

Euskal errealitatea interpretatzeari buruz ari garenean, ondoko gai hauei buruz jarduten dugu:

1) Lehenik, gatazkan diren aldeek **BAKEA**ri buruz duten ikuskera anitzari dagokio. Autoreek, *Galtung-en* (1969, 1981, 1990) moduan, zera gailendu dute, bakeari dagokionean dauden ikuskera ezberdinek eragina dutela gatazketan. Reizabalek honako tankera honetan laburbiltzen ditu bere ikerketan bakeari buruz dauden iritziak Euskal Herrian: "Emaitzok aztertu ondoren, baieztatzea badugu dimentsio positibo zein negatiboetan

oinarritutako bakearen nozioa dagoela Euskal Herrian, bortxa zuzenik eza nahiz egitura-bortxarik eza daudelarik horren barrenean. Oro har, euskaldunok, galtungdarraren ildoan doan "benetako" bakea nahiko genuke, sistema birmoldatzea eskatuko lukeena esatebaterako, eta bertan, Estatuaren arteko ezberdintasun eta zapalkuntza auziek (eta Estatuaren barrenean, dauden gizarte-talde ezberdinen artean) erabakiorrak izan behar dutela nabarmenduko lukeena. Bakearen inguruko gizarte-errepresentazio honek egitura-bakea zein zuzenekoa zuritu eta legitimatzeko balioko luke, beraz, kultur bake eredia izan daiteke" (Reizabal, 1994, 268-269 or.).

2) Bigarrenik, gatazkan diren aldeek **DEMOKRAZIA**ri buruz duten ikuskera anitzez ari gara.

Hofstede-k (1991) aztertu zuen kultur dimentsioetako bat "boterearen distantzia" izan zen. Egia da boterearen distantziarik haundiena izaera unipertsonala edota oligarkikoa duten sistema autoritarioetan izaten dela. Hala ere, gutxiengoa aintzat hartu gabe, gehiengoaren nagusitasunean oinarritutako sistema demokratikoak ere boterearen goi-distantziaren kultura dakar. Demokratizazio prozesuak boterearen behe-distantziaren kulturara gerturatu beharra adierazten du, hots, gutxiengoek parte hartze askoz ere haundiagoa izan behar dutela erabakiak hartzerakoan.

3) Hirugarrenik, Euskal Herriko gatazka politikoaren jatorria eta garapena nola interpretatzen den ageri da. Batzuren ustez, **ETA**k nazionalistek dituzten subiranotasun nahikundeei buruzko eztabaida demokratikorik ez duela onartzen-eta, oinarritzen da gatazkaren sorburua. Beste aldearen iritzi ordea, eztabaida hori egiteko ez da inoiz baldintza demokratikorik egon, Estatu espainiarrak zein frantsesak ez baitute sekula errekonozitu euskal herriak bere buruaren jabe izateko duen eskubidea. Hortaz, demokrazia dagoela ezin dela esan diote, autodeterminaziorako eskubidea errekonozitzen ez den bitartean.

Gatazkaren jatorriari ikuspegi honetatik begiratu gero, esan dezakegu elkarrengandiko jarrerak ez daudela oso urrun, aski bailitzateke Estatuak autodeterminaziorako eskubidea errekonozitzea irtenbide egokira iritsi ahal izateko.

Hala ere, Estatuak hori onartzea beste arrazoirik gabe oso zaila da. Arrunt zaila da Estatuak Euskal Herriaren autodeterminaziorako eskubidea errekonozitzen dezan, izan ere errekonozimendu jakin horrek Estatuak

Euskal Herriarekin dituen harremanen ildoak aldatzea ekarriko bailuke. Horrek esan nahiko luke, Estatuak herri honen geroa erabakitzeke ahalmena galdu egingo lukeela. Berorixe, gaur egun, ezin Estatuak ez luke nolahala onartuko. Hau da, edozein Elkarte Autonomo Estatuaren gainetik egotea. Hain zuzen ere, Estatuaren lehentasuna da nagusitu nahi dena.

Gatazka, zehazki, aurrez aurre dauden aldeek arazo nazionalaz egiten duten interpretazio ezberdinetatik sortzen da eta aurkariaren asmoez eta botereaz egiten duten baloraziotik.

Ikuspegi soziokognitibotik begirata, Estatu espainiarra eta Euskal Herriaren arteko gatazka ezin bideratu da alde zuzenetik bi aldeek aldaketarik egiten ez badute, hala berean, BAKEA, DEMOKRAZIA eta euskal herriaren AUTODETERMINAZIO ESKUBIDEA moduko errealitateei buruzko interpretazio eskemetan hurbilketarik egiten ez bada.

Dena dela, gatazkak aztertzeke erabiltzen den ikuspegi soziokognitiboa zer den azaltzeke garaian ezin ahaztu da prozesu kognitiboen inguruan afektibitateak duen eragina. Horretantxe datza, hain zuzen ere, informazioaren prozesamenduari teoriarekin duen aldea teoria soziokognitiboak. Teoria soziokognitiboan garrantzi handia ematen zaio prozesu afektiboek prozesu kognitiboetan duten eraginari. Pentsatzeko era eta sentitzeke era elkarri lotuta daude estuki. Areago oraindik, taldearteko gatazkak bideratzeko orduan derrigorrezkoa da barnetaldea eta kanpotaldeari dagozkien estereotipoak aldatzea, jatorri arrazionalagoak baino afektiboagoak baitituzte estereotipook.

Arrazoi horixe izan da 6. ataleko azterlana egiteke motibua. Azterlan horretan, ez genien lagineke gazteei bortxa moeta ezberdinei buruzko balorazioaren gainean inongo galdera zuzenik egin. Soil-soilik, aurrez aurre aurkeztu zitzaizkien sinbolo ezberdinak zirela-eta gazteek izan zituzten erreakzio emozionalak jaso besterik ez genuen egin. Halatan, kale borrokari buruzko sinboloek ETA eta poliziar buruzkoak baino konnotazio afektibo positiboagoa zeukatela ohartu ginen. Era berean, ETAr buruzko sinboloek konnotazio positiboagoa zeukaten poliziarrenak baino.

Edozein gizarte-gatazkatan, oso garrantzitsuak izaten dira sinboloak, hala gatazkaren esanahia ulertzeko nola gatazka bideratzeko prozesuari aurre egiteko. Horrexegatik gizarte- gatazketan parte duten aldeak trebeak izaten dira sinboloak erabiltzerakoan, kanpotaldearen gaitzespena eta barnetaldearen atxekimendua indartzeko xedez.

Negoiazio soziokognitibora pasatzeak, bitartekari baten eskuhartzea dakar normalean. Gatazkaren konpontzea errazteko, honako helburua lortu behar du bitartekariak: aurrez aurre dauden aldeen arteko antagonismoa apaldu eta beren joko sinergikoa areagotzea. Horretarako, bitartekariak hauxe egiten du:

- A- gatazkan diren alde biek erabiltzen dituzten sinboloak aldatzea, sinbolo liskartsuak baztertuz eta interdependentzi-sentimenduak bultzatuz ditzaketen sinboloak indartuz.
- B- gatazkan dauden aldeek oinarririk gabe egiten dituzten asmo prozesuak gutxitzen saiatzen da, eta horrek moeta pertsonaleko erantzukizun atribuzioetatik atribuzio situazionala igarotzea dakar;
- C- bi aldeen joko estrategikoak berformulatzen saiatzen da horien barne logika nabarmentzeko;
- D- aurrez aurre dauden bi aldeek, gertatuak gertatu, elkarri ematen dioten sinesgarritasuna nabarmentzen saiatzen dira;
- E- aurrez aurreko aldeak sarturik dauden jokoa azpimarratzen du, azpitik eta itxurak besterik ematen duen arren;
- F- gatazkan dauden aldeei laguntza ematen die duten botere erreziprokoa egokieran neurtzeko;
- G- aldeei ulertarazten die, bitartekoak edukitzearen bidez neur badaiteke boterea, besteengan eragiteko ahalmena oso zaila dela iragartzen. Munduko herri boteretsuena ere ezgai senti daiteke gizartean babes zabala duen talde armatu baten aurrean.

Labur-labur esateko, bitartekariak taldeen arteko gatazkaren ikuspuntu arrazional eta estrategikoa ikuspuntu soziokognitibo bilakatzen du.

### 8.2.3. Identitate nazionalaren auzia

Lehenago, "Borroka armatuarekin konprometituak" ataleko 7.8. puntuan, laugarren galderari emandako erantzunetaz genionari jarraituz, Euskal Herria eta Estatu espainiarraren arteko bortxa egoerari irtenbide negoziatua bilatzeari buruzko nire hirugarren hipotesia interpretatiboa honako hau da: "Irtenbide negoziatua emateko ahalegin prozesu honetan, eta behin ikuspuntu arrazional eta estrategikoaren bidea (lehen hipotesia) alboratuta eta, bitartekariaren beharra onartuta (bigarren hipotesia), hurrengo zailtasun garrantzitsua honakoan datza: **aldeek euskal identitateak hartzen edo adierazten duenari buruz akordiora iristean**".

Tajfel eta Turner-en (1985; 1990) ustetan, eta bere gizarte-identitateari buruzko teoriari jarraituz, autoestima positiboa behar dute norbanakoek eta motibazio horrek eraginda endotaldea positiboki ezberdintzera jotzen dute, garrantzitsutzat hartzen den kanpotalde batengandik desberdinduz. Ondoko hau da beren hipotesia: Beste batzuekin alderatuz egiten den norbanakako autoebaluazioak, taldeen arteko prozesu istilutsuetara garamatza zuzenean zeren eta, bakoitza bere endotaldea definitzen duten ezaugarriak gorai patzen saiatzen baita gainontzeko kanpotaldearenak gutxietsiz. Hemendik sortzen dira kanpotaldeetako kideekiko aurriritziak, beste taldeen errepresentazio sozial gerroz eta estereotipatuagoak egiteko joera, endotaldeen aldeko joera eta kanpotaldeetako kideak baztertzea alegia.

Tajfel-en hipotesia honetan badago aurreuposizio argitugabea eta zera da: norbanakoen autoebaluazio sozial positiboa, talde jakin bateko partaide sentitzen deneko kontzientziarekin lotua dagoena. Aurreuposizio hau, Turner-en Autokategorizazioaren Teorian argitzen dena da: norbanako bakoitzak egoera jakin batean "saliente"ena zaion taldea berreraikitzen du mentalki eta talde horrekin identifikatzen da. Identifikazio prozesua guztiz kognitiboa da, unitate kognitibo bat berreraikitzea besterik ez den zentzuan edota pertzeptziozko kategoria bat berreraikitzea den neurrian. Egia da jarduera mental hau autoestima beharrak bultzatzen duela (motibazio-alderdia) eta gizarte-ingurunearen errealtatean sostengatzen dela (kategorizazio- prozesuaren alderdi soziala) baina berreraikuntzarako prozesua bera prozesu kognitiboa da, ezagutzazkoa.

Teoria honek zenbait ondorio garrantzitsu ditu taldeen arteko gatazka ulertzeko:

- a) Turner-en arabera (gizarte-identitateari buruzko teoria), taldeen arteko gatazkaren jatorria norbanakoan dago, hots, autoestimaren beharrean.

- b) Talderik ez dago beste talde baten erreferentziarik ezean. Beraz, edozein talde-gatazkak taldeen arteko gatazka bihurtzera jotzen du.
- c) Taldeen arteko harremanak oro har liskartsuak eta lehiakorrak dira.
- d) Talde barneko gatazka, kideen arteko "primus inter pares" izendatze-lehiara mugatzen da eta honek, taldekideak gehiago identifikatzea dakar nazio- taldearen ezaugarri definigarriekin. Hau da, abertzaleena nor den eta Euskal Herria ongien norik ordezkatzeko duen izango dira abertzaleen arteko barne liskargai.
- e) Norbanakako eta taldearen arteko gatazka alboratu eta batipat taldeen arteko gatazkak hartzean kontutan, taldeak sistema itxi bihurtzera jotzen du automatikoki eta norbanakoaren identitatea eta nazio-identitatea bat izatera jotzen dute.

Worchel-ek (1995) dio nazionalismo orok identitate nazional itxi eta bereizgarria osatzen duten neurrian, norbanakoaren identitatea eta nazio-identitatea elkarrekin identifikatzera jotzen dutela. Beste era batera esanda, eta gure inguruari dagokionean, nazio-taldearen aldeko borroka norberaren iraupenaren aldeko borrokaekin identifikatzeko joera du nazionalista orok (euskal nazionalistak zein espainiar nazionalistak). Era honetara talde-sistema itxi eta kolektibista sortzen dute, eta norbanakoak bere autonomia galtzen du bertan. Talde barnean, norbanakoa-taldearen arteko gatazka desagertu egingo da eta haren lekua kanpotaldearekiko gatazkak beteko du. Nazio-identitate itxi eta bereizgarri (euskal abertzaleak adibidez) horren aurka agertzen direnek beste talde nazionalista (nazionalista espainiarrak kasu) bat eratuko dute eta talde horren identitatea, aurrekoaren nazio- identifikatzearen oposizioak definituko du. Horregatik guztiagatik, endotaldea-kanpotaldearen arteko gatazka Euskal Herriaren barnean ere kokatzen dela esango genuke.

Ondorioz, Estatu espainiarra eta Euskal Herriaren arteko gatazkari irtenbide negoziatua emateak zera suposatuko luke, alde bateko zein bestekoek kontsideratua eta konpartitua izango den euskal identitateranzko hurbilpena egotea eta aldi berean, gutxiengoa osatzen duen Euskal Herriaren eskubideak errespetatzea. A. Touraine-ren iildoari jarraituz, hala nazionalistek (euskal abertzaleak) nola eznazionalistek (nazionalista espainiarrak) mugiezintzat dauzkaten gizarte-identitate eta baloreen ideiak "alde batera utzi" beharra daude eta balore zein gizarte- identitate konpartitu eta integratzaile berriak berreraiki beharra, gizarte-ekintzatik bertatik. Euskal identitate konpartituaren gizarte-errepresentazio berria berreraikitzeak esan nahi du euskal norbanakoen artean elkarbizitzeko era berriak sortzea eta

endotaldea/kanpotaldearen arteko dinamika lehiakorra etetea, beti ere, askatasun idealei eta gainerako helburu nazionaleri uko egin gabe.

#### 8.2.4. Nazionalismoa mugimendu kolektibista gisa

Norbanakoaren identitatea eta nazioarena identifikatzen diren heinean bilakatzen da nazionalismo oro mugimendu kolektibista, hau da, norbanakoaren autonomia murriztu egiten denean taldearen barnean eta taldearen aurrean kritikoki agertzeko gaitasuna galtzen denean.

Euskal Herria eta Estatu espainiarraren arteko bortxa egoerari irtenbide negoziatua bilatzeari buruzko nire laugarren hipotesia interpretatiboa honako hau da: Euskal identitateak suposatzen duen edo berorrek esan nahi duenari buruz hartu beharreko akordioari dagokion zailtasuna gainditu ondoren (hirugarren hipotesia), **"abertzale eta ezabertzaleek ontzat emango luketen euskal identitatea berreraikitze beharrezkoa da abertzale direnen jarrera kolektibistegiak eta abertzale ez direnen jarrera indibidualistegiak birplanteatzea"**.

Indibidualismoa eta kolektibismoa fenomeno soziokulturalak dira, gizarte-fenomenoak, pertsona zein taldeen arteko harremanak antolatze modu bati egiten baitio erreferentzia eta fenomeno kulturalak ere, gizarte-harreman haiek justifikatu eta argitzen dituzten sinismen eta baloreei egiten baitiete erreferentzia.

Arazoa aspaldikoa da. Ferdinand TÖNNIESEK KOMUNITATEA eta GIZARTEAREN artean ezarri zuen bereizketa, kolektibismoa eta indibidualismoaren kontzeptuei loturiko arazoaren adierazgarri da, XVIII eta XIX mendeetan gogoeta-gai nagusi izan zena.

Gaur egun Indibidualismoa/Kolektibismoa binomioa birplanteatzen da (Hofstede, 1980; Wagner eta Moch, 1986; Triandis, McKusker eta Hui, 1990; Hinkle eta Brown, 1990; Morales, López eta Vega, 1992; Kim, Triandis, KagiÇibasi, Choi Yoon, 1994); Ester, Halman eta Moor (1994); Camps (1993); Béjar (1993); Elias (1988). Ezin dut hemen indibidualismo/kolektibismoaren gaiak idatzi den literatura guztiaren errepaso egin nahiz eta kontzeptu hauek oinarritzeko direla iruditzen zaizkidan, batipat gizarte- mugimenduak, eta bereziki, gizarte-sistema irekiak eta itxiak baloratzeko orduan.

Laburbilduz: Kolektibismoa eta indibidualismoa zibilizazio prozesuaren faseak izanik, komunikaziorako elkarlaguntza fasearen aurrekoak dira, elkarlaguntza esaterakoan, talde-pentsamenduaren eraikuntza esan

nahi da, gizarte-praktiken eraikuntza mailakatu bati lotuta dagoena. Ezinezkoa da kolektibismotik elkarlaguntzara zuzenean pasatzea. Hauxe azaltzen saiatzen dira Victoria Camps eta Norbert Elias. Maila kultural zein sozialean ere kolektibismo eta elkarlaguntzatik sortzen den komunitatearen artean indibidualizazio prozesua egon behar du.

Victoria Camps-ek, "Paradojas del individualismo" (1993) izeneko bere liburuan, indibidualismo psikologikoa baztertu egin du eta autonomia etikoaren zentzuan ulerturiko indibidualismo etikoa sostengatu. "Indibidualismoa gure ustetan, anti- ideologia da, enpresa eta ideal amankomunetan sinestu edo berorien alde egiteko dagoen oztoporik haundiena hain zuzen" (13. orr.). "Gizateria bera, eta ikuspegi indibidualistatik begiratuta beti ere, badirudi bere desagertetan ahalegintzen dela, izan ere, benetako gizatasun eta duintasunezko adierazpideak oso urriak baitira" (14 orr.). "Esan beharra dago: etikak indibidualista izan behar du, norbanakoa babestu behar du, baina babespen hori eskubidea eta exigentzia da aldi berean: norbanakoak izan nahi duena eta izan behar duena erabakitzeke eskubidea, eta norbanakoak gizaki modura besteenganako erantzunkizunean duen exigentzia" (22. orr.).

Victoria Camps-ek baloreen kolektibismoa baztertu eta norbanakoen autonomia etikoa defendatzen du, baina era berean gizateriaren zerbitzutan jartzen du autonomia etikoa. Horrela, indibidualismo psikologikoa baztertzen du norbanakoak ezagutza teoriko eta praktikoa dituen mugak direla kausa. Alde batetik, autonomia etikoa ez da elkarrizketa eta komunikazioaren etsai; bestetik, norbanakoaren mugek indibidualismo psikologikoa etikoki eustezina egiten duten pertsonen arteko interdependentzia erreala eragiten dute.

### 8.2.5. Helmuga-interdependentziaren kontzientzia

Euskal Herria eta Estatu espainiarraren arteko bortxa egoerari aterabide negoziatua bilatzeari buruz gainditu beharreko egoeren prozesu honetan, nire bosgarren eta azken hipotesia interpretatiboa honako hau da: "Estatu espainiarra eta Euskal Herriaren arteko gatazkari irtenbide negoziatua emateko Euskal Herrian bizi eta lan egiten duten talde guztien arteko helmuga-interdependentziaren kontzientzia sortu beharra dago".



"Boroka armatuarekin konprometituak" ataleko 7.8. puntuko bosgarren galderari emandako erantzunen arabera, Europa Elkarteko Estatu bakoitzak beren independentzia zaintzen duen bezala, euskal abertzaleen azken helburua ere Euskal Herriaren independentzia da, nahiz eta jabetuta egon independentziaren esanahia aldatzen ari dela Europa batua eraikitzeko prozesuan sortzen ari diren baldintza politiko, ekonomiko eta kulturalen baitan.

Euskal talde desberdin guztiek hartu beharko dira kontutan Euskal Herriko independentziaren errepresentazioa eraikitzeko, izan ere beroriek izango baitira Euskal Herriaren berreraikuntzarako gizarte-aktore erabakiorrak. Horrek eramango gintuzke euskaldunok helmuga- interdependentziaren kontzientzia eraikitzera.

### **8.3. Gatazkan partaide zuzenak diren aldeei egiten diedan proposamena (ENAM, Estatu espainiar eta frantsesa)**

Euskal Herria eta Estatu espainiarraren arteko gatazkari aterabide negoziatua bilatzeari buruz eskaini ditudan nire bost hipotesia interpretatiboen gogoetaren ondoren, nire ustez, eta aurreko hipotesia interpretatiboetan aipatu diren zailtasunak gainditu ahala, Euskal Herriaren nazio berreraikuntzarako gizarte-ekintzaren gidari izan behar duten oinarritzko printzipioak agertuz bukatu nahi nuke:

#### **8.3.1. Ikuspegi prozesualaren arabera**

- A- Gutxiengoan eskubideen errekonozimendua. Demokrazia orok gizarte-taldeen arteko gatazkak negoziatu ahal izatea lortu behar du. Konstituzioa, lurralde batasuna, botoen kopurua, etabarren izenean, gehiengoak ezartzen duen inposaketa orok menpekotasun-egoera sortzen du, eta egoera horrek geroz eta denbora luzeagoan iraun, minoriak orduan eta joera haundiagoa izango du elkarbizitza-arau politikoak alboratu, eta bortxara jotzeko.

- B- Negoziazio orok, aurkariak arrazoiaren parte bat baduela errekonozitzea eta gizarte-gatazkak gainditzeko bidean jokabide estrategikoa baztertzea dakartza.
- C- Negoziazio orok esanahien mundu konpartitua sortzea dakar. Ondorioz gatazken negoziazioak alde bakoitzak aurkariaren esanahirik garrantzitsuenetara irekitzea suposatzen du.
- D- Negoziazio orok interdependentzia-kontzientziaren berrindartzera jotzen du, baita maila kulturallean, politikoan eta ekonomikoan ere.
- E- Benetako interdependentziak aurkariaren autonomia errespetatzea exigitzen du. Aldeetako batek autonomia hau ukatzean menpekotasun-prozesua martxan jartzea ekarriko du zuzenean, eta aldi berean, bortxa espirala.

### 8.3.2. Baloreen ikuspegiaren arabera

- A- Euskal Herriko mapa politikoa osatzen duten pertsonen garapena bezain garrantzitsua da taldeen arteko elkarbizitza moduen garapena.
- B- Erabateko indibidualismoa eta erabateko kolektibismoa, norbere balore, sentimendu eta jarrera ezberdinekin elkarbizitza anitz eta errespetudunaren eraikuntza eragozten duten abstrakzioak dira.
- C- Indibidualismoa eta kolektibismoa, lehiaketa- elkarlaguntza dialektika baldintzatzen duten indar osagarriak dira.
- D- Kultura kolektibista gehiegi indartzeak autonomia pertsonala galtzera garamatza, zeren eta, talde bat kolektibitate osoaren ordezkari gisa eraikiko baita eta, kolektibitatearen izenean balore eta arau jakin batzuk inposatuko norbanakoei.
- E- Kultura indibidualista gehiegi indartzeak identitate-nazionalaren galera dakar. Hori etnozidioa litzateke eta euskaldunek ez lukete bere herriaren desagerpena onartuko.

- F- Indibidualismoa eta kolektibismoaren arteko orekak elkarlaguntza eta elkarbizitza egoerataraz bideratzen ditu norbanakoak eta taldeak.
- G- Elkarbizitza nazional partehartzaileago baten bilakaerak, norbanakoengan aldaketa psikologikoak eragiten ditu identitate pertsonalak gizarte-identitatearekiko autonomia handiagoa hartzen duelarik.
- H- Elkarbizitza nazional partehartzaileago baten bilakaerak pertsonen arteko zein taldeen arteko komunikazio-sistemaren aldaketa ere badakar, baita gizarte-talde desberdinen arteko harreman berdinduagoak ere.

## BIBLIOGRAFIA

- AA.VV. (1975). *Euskadi: el último estado de excepción de Franco*. Ruedo Ibérico, Paris.
- Adams G. (1994). *Hacia la libertad de Irlanda*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Aguirre J. (1975). *Prisión de Segovia*. Mugalde, Hendaye.
- Aguirre Y. (1978). "Operación Ogro". *Cómo y por qué ejecutamos a Carrero Blanco*. Hordago, San Sebastián.
- Alberdi A. eta Caminos M<sup>a</sup>. (1993). La batalla de la prensa. Zabalza R. *¡Secuestrados! 117 días en la encrucijada vasca*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Altabizkar (1974). *Les Basques, un peuple, une nation*. Elkar, Baiona.
- Alvarez Enparantza J.L. (1994). *Euskal Herria Helburu*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Alcedo M. (1996). *Militar en ETA*. Haranburu editor, Donostia- San Sebastián.
- Amigo A. (1978, I). "Pertur ETA 71-76". Hordago, Donostia.
- Amigo A. (1978, II). "Operación poncho". *Las fugas de Segovia*. Hordago, Donostia.
- Amnistiaren Aldeko Batzordea (1987). *Euskadi 1.977-1.987. 10 años de represión. 10 urteko errepresioa*.  
Edita: Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Estella (Navarra).
- Amnistía Internacional (1976-1994). *Informe*. Editorial Amnistía Internacional (EDAI), Madrid.
- Amnistía Internacional (1985). *España, la cuestión de la tortura. Documentos intercambiados entre Amnistía Internacional y el Gobierno de España*. Secretariado Internacional, Londres.

Amnistía Internacional (1987). *Informe de Amnistía Internacional-Francia (expulsión de ciudadanos españoles de origen vasco)*. Secretariado Internacional, Londres.

Amnistía Internacional (1987). *Concerns in Western Europe abril 1987 - Spain*. International Secretariat, London.

Amnistía Internacional (1990). *Preocupaciones en Europa Occidental. Octubre 1989 - Abril 1990 "España"*. Secretariado Internacional, Londres.

Amnistía Internacional (1990). *Europa occidental - Preocupaciones. Mayo 1990 - Oct. 1990 "España"*. Secretariado Internacional, Londres.

Amnistía Internacional (1991). *Preocupaciones en Europa. Nov. 1990 - Abril de 1991*. Secretariado Internacional, Londres.

Amnistía Internacional (1991). *Preocupaciones en Europa. Mayo - octubre 1991*. Secretariado Internacional, Londres.

Amnistía Internacional (1992). *Preocupaciones en Europa. Nov. 1991 - Abril 1992*. Secretariado Internacional, Londres.

Amnistía Internacional (1993). *España. Tortura y malos tratos: Resumen de las preocupaciones de Amnistía Internacional*. Secretariado Internacional, Londres.

Apalategi J. (1977). *Nationalisme et question nationale en Pays Basque*. Elkar, Bayona.

Apalategi J. (1978). La violencia en Euskadi y pistas de negociación. *Herría 2.000 Eliza*, 85. alea, 13-16 orrialdeak.

Apalategi J. (1987). Euskadi: Algunos rasgos esenciales de su historia cultural Euskaldun. Davant J.L. *Euskadi guduan. Euskadi en gerra*. Ekin Editor, Bayona.

- Apfelbaum E. (1979). Relations of domination and movements for liberation. An analysis of power between groups. In W. G. Austin y S. Worchel (Eds). *The social psychology of intergroup relations*. Monterey, CA: Brooks/Cole.
- Arteaga F. (1971). *ETA y el Proceso de Burgos (La quimera separatista)*. Editorial E. Aguado, Madrid.
- Azurmendi J. (1971). *Hizkuntza, etnia eta marxismoa*. Euskal elkargoa, Bayonne.
- Baeza A. (1995). *ETA nació en un seminario. El gran secreto. Historia de ETA de (1952-1995)*. ABL Press ABL, España.
- Baeza A. (1995). *GAL. Crimen de Estado*. (2º parte de: ETA nació en un seminario). ABL Press ABL, España.
- Baigorri E. (1988). El P.S.O.E. al servicio del poder. *Euskadi. La renuncia del PSOE*. Txalaparta Argitaldaria, Bilbo.
- Baroja J.C. (1989). *Terror y terrorismo*. Plaza Janes-Cambio 16, Barcelona.
- Baroja J.C. (1958). *Los vascos*. Minotauro, Madrid.
- Baroja J.C. (1984). *El Laberinto vasco*. Editorial Txertoa, San Sebastián.
- Bechini A. (1986). *Técnicas de investigación social. El Diferencial Semántico. Teoría y práctica*. Editorial Hispano Europea, Barcelona.
- Béjar H. (1993). *La cultura del yo*. Alianza Universidad, Madrid.
- Beltza (1974). *El nacionalismo vasco*. Mugalde Argitaletxea, Hendaia.
- Binaburu J.A. eta Etxeberria X. (ed.) (1994). *Pensando en la violencia desde W Benjamin, H. Arendt, R. Girard y Ricoeur*. Bilbao.
- Biurrún J.M. (1993). *De cárcel y tortura. Hacia una psicopatología de la crueldad civilizada*. Txalaparta, Tafalla (Nafarroa).

- Busquets J. (1981). *El Golpe. Anatomía y claves del asalto al congreso*. Editorial Ariel, Barcelona-Caracas-México.
- Blanco Chivite M. (1991). *Operación Mendi*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Bordagaray J. (1978). *"Que se vayan"*. Hordago, Donostia.
- Burgo del J.A. (1991). *El sendero de la paz*. I.G. Castuera, Navarra.
- Bordagarai K. eta Pastor R. (1979). *Estatuto Vasco*. Ediciones Vascas, San Sebastián.
- Bruni L. (1987). *ETA. Historia Política de una lucha armada I*. Txalaparta argitaldaria, Bilbo.
- Camara H. (1970). *Espiral de violencia*. Ediciones Sígueme, Salamanca.
- Campelo J. (1994). *Nacimiento y origen de la violencia etarra*. Edita: Grupo libro, Madrid.
- Camps V. (1994). *Paradojas del individualismo*. Barcelona: Crítica.
- Castells M. (1976). *Los procesos políticos (de la cárcel a la amnistía)*. Editorial Fundamentos, Madrid.
- Castells M. (1978). *El mejor defensor el pueblo*. Ediciones Vascas Argitaletxea, San Sebastián.
- Castells M. (1982). *Radiografía de un modelo represivo*. Ediciones Vascas Argitaletxea, San Sebastián.
- Castells M. (1987). Represión generalizada en Euskadi y respuesta global. Davant J.L. *Euskadi Guduan. Euskadi en gerra*. Ekin, Bayona.
- C.E.D.R.I. (1990). *El GAL o el terrorismo de Estado en la Europa de las democracias*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Celhay P. (1976). *Consejos de guerra en España. Fascismo contra Euskadi*. Ruedo Ibérico, Paris.

- Cereceda J.L. (1987). Una situación sociopolítica particular. Davant J.L. *Euskadi gudian. Euskadi en gerra*. Ekin Editor, Bayona.
- Cereceda J.L. (1988). El P.S.O.E. contra el Movimiento Obrero. *Euskadi. La renuncia del PSOE*. Txalaparta Argitaldaria, Bilbo.
- Chamorro J.V., Muñagorri I., eta beste (1985). *Democracia y Leyes Antiterroristas en Europa. Demokrazia eta lege bereziak Europan*. Hezkuntz koaderno, 6. zka. IPES- Euskadiko Amnistiaren Aldeko Batzordea Batera. Bilbao.
- Charpentier L. (1975). *Le mystère basque*. Robert Laffont, Paris.
- Chomsky N. (1990). *Terrorismo de Estado. El papel internacional de EEUU*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Centro de Investigaciones Sociológicas (CIS) (1982). "Opinión pública sobre la policía". Estudio nº 1.206 del Banco de Datos del CIS. *Revista de investigaciones sociológicas* nº 18, abril-junio 1982, páginas 143 a 169.
- Clark R.P. (1984). *The Basque Insurgents: ETA, 1952-1980*. University of Wisconsin Press.
- Cueva De La J. (1988). *La escisión del PNV*. Txalaparta Argitaldaria, Bilbo.
- Davant J.L. (1987). Boceto para una historia del pueblo vasco. *Euskadi gudian. Euskadi en guerra*. Ekin Editor, Bayona.
- Egaña I. eta Giacopucci G. (1992). "Los días de Argel. Crónica de las conversaciones ETA-Gobierno español". Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Egibar J. (1995). *Presente y futuro de Euskadi*. Edita: Eusko pizkundera, Donostia.
- Egido J.A. (1988). La política exterior del Gobierno González. *Euskadi. La renuncia del PSOE*. Txalaparta Argitaldaria, Bilbo.
- Egido J.A. (1993). *Viaje a la nada. Principio y fin de Euskadiko Ezkerra*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).



Egin (1982-1995). *Egin urtekaria*. Ed. Orain, Hernani (Guipuzcoa).

Elias N. (1976). *Über den Prozess der Zivilisation*. Frankfurt: Suhrkamp.

Elosegui J. (1971). *Quiero morir por algo*. Bordeaux.

Elzo J. (1986). Aspectos de algunas violencias socio-políticas. J. Elzo (zuz.). *Juventud vasca 1.986. Informe sociológico sobre comportamientos actitudes y valores de la juventud vasca actual*. Departamento de Cultura y Turismo. Dirección de Juventud y Acción Comunitaria. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen-zerbitzu nagusia, Vitoria-Gazteiz.

Elzo J. eta Belaustegi L. (1990). Aspectos de algunas violencia socio-políticas. J. Elzo (zuz.). *Jóvenes vascos 1.990. Informe sociológico sobre comportamientos, actitudes y valores de la juventud vasca actual y de su evolución en los últimos cuatro años*. Departamento de Cultura y Turismo. Dirección de Juventud y Acción Comunitaria. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen-Zerbitzu Nagusia, Vitoria- Gazteiz.

Equipo D (1984). *La década del terror. 1973-1983 (Datos para una causa general)*. Ediciones Dyrsa, Madrid.

Erkizia T. (1988). El P.S.O.E. ante el problema nacional vasco. *Euskadi. La renuncia del PSOE*. Txalaparta Argitaldaria, Bilbo.

Esparza J.M. (1994). *¡Abajo las quintas! La oposición histórica de Navarra al Ejército español*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).

Ester P., Halman L. eta Moor R. de (1994). *The individualizing Society. Value change in Europa and North America*. Tilburg University Press.

Euskal Elkargoa (ed.) (1976). *Euskadi ala hil*. Euskal Elkargoa Argitaldaria, San Juan de Luz.

Eusko Pizkundea (1995). *1ª jornada sobre nacionalismo*. Edita: Eusko Pizkundea, Donostia.

Etxeberri C. (1989). GAL: La guerra sucia en claroscuro. K. Mediavilla (coor.) *Euskadi 1979-1989. Claves de una década*. Ed/ Fundación Sabino Arana, Erandio (Vizcaya).

- Etxegarai A. (1995). *Regresar a sara. Testimonio de un deportado vasco*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Facultad de Filosofía y Ciencias de Educación. *Psicología social de la violencia política. Factores psicosociales de la participación política en acciones colectivas y radicalismo político*. Universidad del País Vasco, Facultad de Filosofía y Ciencias de la Educación (Sección de Psicología), San Sebastián.
- Fernandez J. (1989). *La autovía en el espejo*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Forest E. (1977). *Diario y cartas desde la cárcel*. Hordago, Donostia.
- Forest E. (1987). *Diez 10 años de tortura y democracia*. Amnistiaren Aldeko Batzordea, Estella (Navarra).
- Gallastegi E. (1993). *Por la libertad vasca*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Garate Gotzon M. (1971). *Marx eta nazioa*. Etor, Bilbo.
- García T. (1993). *El Salvador. De la lucha armada a la negociación. La huella vasca*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- García Damborenea R. (1984). *La encrucijada vasca*. Argos Vergara, Barcelona.
- García de Cortázar F. (1995). *Historia contemporánea del País Vasco. De las cortes de Cádiz a nuestros días*. Editorial Txertoa, Donostia.
- Garfia J.J. (1995). *Adiós prisión*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Garitano M. (1988). Política policial, tortura y antiterrorismo. *Euskadi. La renuncia delPSOE*. Txalaparta Argitaldaria, Bilbo.
- Garmendia J.M. (1979). *Historia de ETA*. Itxaropena, Zarautz.

- Garmendia J.M. (1995). *Historia de ETA*. Haranburu Editor, Donostia-San Sebastián.
- Genovés S. (1986). *La violencia en el País Vasco y en sus relaciones con España*. Fontanella, Barcelona.
- Giacopucci G. (1992). *E.T.A. Historia política de una lucha armada. 2ª parte*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Girardi G. (1978). Reflexiones para elaborar una cultura de paz. *Herria 2.000 Eliza* 74. alea. 19-34 or.
- Gogortza J. (1990). *Gobernuaren helburua presoak itotzea da*. *Argia* 1.284. alea, 16 eta 17 or.
- Goihenetxe (1975). *L'opression culturelle francaise en Pays Basque*. Elkar, Baiona.
- Hetcher M. (1989). El nacionalismo como solidaridad de grupo. Pérez-Agote (Ed.). *Sociología del Nacionalismo. II Congreso Muldial Vasco. II. Euskal Mundu-Biltzarra*. Editores: Argitalpen Zerbitzua Euskal Herriko Unibertsitatea, Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco, Bilbo.
- Hinkle S. eta Brown R. (1990). Intergroup comparisons and social identity: some links and lacunae. En: D. Abrams eta M. Hogg (eds). *Social Identity Theory: Constructive and critical advances*. New York: Harvester/Wheatsheaf.
- Hiru taldea (1978). *EUSKADI: No os importe matar!* Ediciones Vascas Argitaletxea, San Sebastián.
- Hofstede G. (1991). *Culture's Consequences: Software of the mind*. London: McGraw-Hill.
- Iparragirre P. (1994). *Felix likiniano*. Ezina ekinez egina. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- IPES (1994). *Guda eta bakea Euskalerrian. Conflicto y negociación. Análisis histórico*. I.P.E.S.
- Iturralde J. (1978, I). *La guerra de Franco, los vascos y la iglesia*. Quiénes y con que fin prepararon la guerra y cómo comenzó. Tomo I. Graficas Izarra, Usurbil (guipúzcoa).
- Iturralde J. (1978, II). *La guerra de Franco los vascos y la iglesia. Cómo pudo seguir y triunfar la guerra*. Tomo II. Gráficas Izarra, Usurbil (Guipúzcoa).

- Itzaga J. (1991). *Euskadi: Aproximación política* (prolegómenos para un debate). Iruña.
- Iztueta P. (1974). *Marxismoa eta nazional arazoa Euskal Herrian*. Elkar, Bayonne.
- Jauregi R. (1994). *El país que yo quiero. Memorias y ambición de Euskadi*. Planeta, Barcelona.
- Jauregiberry F.P. (1983). *Question nationale et mouvements sociaux en Pays Basque sud*. Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales (tesi mimeografiatua), Paris.
- Jauregiberry F.P. (1989). Nacionalismo y violencia política. A. Pérez-Agote (Ed.). *Sociología del Nacionalismo. II Congreso Muldial Vasco. II. Euskal Mundu- Biltzarra*. Editores: Argitalpen Zerbitzua Euskal Herriko Unibertsitatea, Eusko Jaurlaritzza/Gobierno Vasco, Bilbo.
- Juaristi J. (1994). *El Chivo espiatorio*. El Tilo Ediciones, Bilbo.
- Kesteman F. (1991). *Morir por Palestina*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Kim, U.; Triandis, H.C.; Kagitçibasi, Ç.; S-C. Choi; Yoon, G. (1994). *Individualism and Colectivism. Theory, Method and Applications*. London: Sage.
- Klineberg O. (1981). *Psicología social*. Fondo de Cultura Económica. Buenos Aires, México.
- Kruglanski A.W., Bar-Tal D. eta Klar Y. (1993). A Social Cognitive Theory of Conflict. En: Larsen, K.S.: *Conflict and social psychology*. London: Sage.
- Landa K. eta beste (1986). *La tortura en Euskadi. En el 5º aniversario de la muerte de Joseba Arregi*. Editorial Revolución, Revista Eliza-Herria 2.000. Madrid.
- Landa K. (1987). "Durante estos diez años la detención ha sido un fenómeno constante y masivo". *Euskadi 1977- 1987. 10 años de represión. 10 urteko errepresioa*. Edita: Amnistiaren Aldeko Batzordeak, Estella (Navarra).
- Landazuri (1978). *Que se vayan ya. San Fermín-Donostia- Errenderia. Julio 78*. Editions Mugalde, Hendaye.

- Larrainzar P. (1991). *Pega, pero escucha*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Letamendia F. (1978, I). *Historia de Euskadi: el nacionalismo vasco y ETA*. Libros de Ruedo Ibérico. Ibérica de Ediciones y Publicaciones, Barcelona.
- Letamendia F. (1978, II). *Los Vascos. Síntesis de su historia*. Publicaciones Hordago, Donostia.
- Linz J.J. (1986). *Conflicto en Euskadi*. Espasa Calpe, Madrid.
- Linz J.J. eta beste (1981). *Informe sociológico sobre el cambio político en España 1975-1981*. Fundación FOESSA y Euramérica, Madrid.
- Lipuzcoa M.E. (1973). *La Iglesia como problema en el País Vasco*. Editorial Vasca EKIN, Buenos Aires.
- Lorenzo J.M. (1992). *Gudari. Una pasión útil. Eli Gallastegi (1892-1974)*. Txalaparta, Tafalla (navarra).
- Lorenzo J.M. (1993). *Txabi Etxeberrieta. Armado de palabra y obra*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Lorenzo J.M. (1995). *Historia de Euskal Herria*. Tomo III. El nacimiento de una nación. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Lorenzo J.M. (1996). *Historia de Euskal Herria*. Tomo II. Del hierro al roble. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Lurra (1978). *Burgos: Juicio a un pueblo*. Hordago, Donostia.
- Mata López J.M. (1989). Notas para un análisis del discurso nacionalista radical. A. Pérez-Agote (Ed.). *Sociología del Nacionalismo. II Congreso Mundial Vasco. II. Euskal Mundu-Biltzarra*. Editores: Argitalpen Zerbitzua Euskal Herriko Unibertsitatea, Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco, Bilbo.
- Miralles M. eta Argués R. (1989). *Amedo. El Estado contra E.T.A.* Plaza Janés, Barcelona.
- Ministerio del Interior. Dirección de la Seguridad del Estado (1983). *Plan Z.E.N. (Zona Especial del Norte)*. Ministerio del Interior, Dirección de la Seguridad del Estado, Madrid.

- Monzon T. (1969). *Kontzientziaren eboluzioa*. Jakin, Ipar Euskal Herria.
- Monzon T. (1986). *Hitzak eta idazkiak*. Jaizkibel, Hondarribia.
- Morales J.L., Toda T., Imaz M. (1988). *La trama del GAL*. Editorial Revolucion, Coleccion Nuestra Lucha, Madrid.
- Morales J.F., López M., Vega L. (1992). Individualismo, colectivismo e identidad social. *Revista de Psicología Social, Monográfico*, 49-72.
- Moraza L. eta Basterra M. (1994). *La columna infame. Tortura y represión política en Euskal Herria*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Mugica G. (1978). Para superar la violencia construyamos la paz. *Herria 2.000 Eliza*. 90. alea, 7-13 orrialdeak.
- Muñagorri X. eta beste (1983). *Represión tortura y gobierno PSOE*. Editorial: Revolución colección nuestra lucha, Madrid.
- Núñez L. (1977). *Opresión y defensa del Euskara*. Editorial Txertoa, Estella (Navarra).
- Núñez L. (1980). *Euskadi Sur electoral*. Ediciones vascas, San Sebastián.
- Núñez L. (1995). *La razón vasca*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Ortzi (1976). *Los Vascos. Ayer, hoy y mañana*. Mugalde, Hendaye.
- Ortzi (1978). *Los Vascos. Síntesis de su Historia*. Ordago, Donostia.
- Ortzi (Francisco Letamendia) (1978). *Historia de Euskadi: el nacionalismo Vasco y ETA*. Ruedo Ibérico, Bascelona.
- Perez-Agote A. (1984). *La reproducción del nacionalismo. El caso vasco*. CIS en coedición con Siglo XXI de España editores, Madrid.

- Ramírez T. (1992). *Ertzantza. ¿Héroes o villanos?*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Rei P. (1991). *La cloaca Vasca. De las razones de Estado a los sumideros de Euskadi*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Rei P. (1993). "La Red Galindo". Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Rei P. (1994). "El Jesuita" Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Reizabal A. (1993). "En estas casas ya se sabe". Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Reizabal L. (1994). *Bakearen dimentsio kulturala Euskal herriko uste sistema eta pertzepzioetan*. Doktorego tesia. Euskal Herriko Unibertsitatea, Gizarte- Sikologia Saila.
- Rekalde A. (1990). *Herrera. Prisión de guerra*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Rekalde A. (1992). *Dorregarai. La casa torre*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Rekalde A. (1995). *Sombras del alba*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Rothbart M. (1993). Intergroup Perception and Social Conflict. En: S. Worchel eta J. A. Simpson. *Conflict Between People and Groups*, Chicago: Nelson-Hall.
- Ruiz de Olabuenaga J.I. (1985). *Violencia y ansiedad en el País Vasco*. Ediciones Tarttalo S.A., Bilbao.
- Sachdev I. eta Bourhis R.Y. (1984). Minimal majorities and minorities. *European journal of social psychology*, 14, 35-52.
- Sanchez Erauskin J. (1978). *Txiki-Otaegi. El viento y las raíces*. Hordago, Donostia.
- Sachdev I. eta Bourhis R.Y. (1985). Social categorización and power differentials in groups relations. *European journal of social psychology*, 15, 415-434.

- Salaberria K. (1971). *Sumario 31/36. El proceso de Euskadi en Burgos*. Ruedo Ibérico, París.
- Sarrailh de Ihartza F. "La cuestión vasca". Norbait, Buenos Aires.
- Sarrailh de Ihartza F. (1979). *La nueva Vasconia*. Ediciones Vascas Argitaletxea, Oyarzun.
- Sanchez Erauskin J. (1978). *Txiki-Otaegi. El viento y las raíces*. Hordago, Donostia.
- Sanchez Erauskin J. (1994). *El nudo corredizo*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Scialoja M. (1994). *Renato Curcio. A cara descubierta*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Southworth Herbert R. (1977). *La destrucción de Guernika. Periodismo, diplomacia, propaganda e historia*. Ruedo Ibérico, Francia.
- Suárez A. (1976). *Libro blanco sobre las cárceles franquistas 1.939-1.976*. Editions Ruedo ibérico, Francia.
- Tajfel H., Turner J.C. (1985). La teoría de la identidad social de la conducta intergrupar. En: J.F. Morales eta C. Huici (Comps.). *Lecturas de Psicología social*. Madrid, UNED, 1989.
- Tejerina B. (1989). "Aspectos teóricos para el análisis del conflicto lingüístico. El caso vasco". A. Pérez-Agote (Ed.). *Sociología del Nacionalismo. II Congreso Muldial Vasco. II. Euskal Mundu-Biltzarra*. Editores: Argitalpen Zerbitzua Euskal Herriko Unibertsitatea, Eusko Jaurlaritza/Gobierno Vasco, Bilbo.
- Tejerina B., Fdz Sobrado JM. eta Aierdix (1995). *Sociedad civil, protesta y movimientos sociales en el País Vasco*. Eusko Jaurlaritza, Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia, Victoria-Gasteiz.
- Triandis H.C., McKusker C., Hui C.H. (1990). Multimethod probes of Individualism and collectivism. *Journal of Personality and Social Psychology*, 59 1006-1020.
- Núñez L., Egaña I. eta beste (1994). *Euskal Herria y la libertad. Euskadi eta askatasuna*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).



Turner J.C. (1990). *Redescubrir el grupo social*. Madrid: Morata.

Urkola M. (1988). Elementos de deslegitimación del poder en Euskadi. Urkola M. (Zuz.) *Legitimación deslegitimación del poder en Euskadi*. VI. Udako ikastaroak Donostian, Argitarapen zerbitzua Euskal Herriko Unibertsitatea.

Valencia Garate J.F. *Racionalidad colectiva e individual en la participación política no institucional: Aportes teóricos y estudio de campo en el contexto del País Vasco*. (Tesis doctoral). Facultad de Filosofía y Ciencias de la Educación, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

Valencia J.F. (1994). Actitudes de los jóvenes frente a la violencia política. Ayestarán S. (zuz.) (1994). *El proceso de socialización en los/las jóvenes de Euskadi. Jóvenes Vascos 1994*. Kultura saila, Gaztedi eta Kirol Sailordea, Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gazteiz.

Vazquez M.(1994). *Roldán, ni vivo ni muerto*. Editorial Planeta, Barcelona.

Vasco Press (1985-1995). *Dokumentatze eta gaurkotasun kronika-Cronica de documentación actualidad*. Agencia Vasco Press, Bilbao.

Villarreal M., (1987). *Representaciones sociales de la identidad social y factores psicosociales asociados a la participación en movimientos sociales nacionalistas*. (Tesis Doctoral). Facultad de Filosofía y Ciencias de la Educación, Sección de Psicología, Universidad del País Vasco, Euskal Herriko Unibertsitatea.

Von Neumann J. eta Morgenstern O, (1944). *Theory of Games and Economic Behavior*. Princeton: Princeton University Press.

Wagner J.A., Moch M.K. (1986). Individualism-Collectivism: Concepts and measure. *Group and organization studies*, 11, 280-304.

Weber M. (1969). *El político y el científico*. Alianza Editorial, Madrid.


Zabala F. (1971). *La historia del pueblo vasco*. Ed. Auñamendi, Donostia.

- Zabalza R. (1990). *Foz de Lumbier. Antecedentes y crónica de unas ejecuciones*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Zabalza R. (1993). *¡Secuestrados! 117 días en la encrucijada vasca*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Zalakain J.M. (1993). *Joxemiren uzta. Euskal prentsa herri proiektua da*. Txalaparta, Tafalla (Navarra).
- Zulaika J. (1990). *Violencia Vasca. Metáfora y sacramento*. Editorial Nerea, Madrid.
- Zulaika J. eta Douglass W.A. (1994). Sobre la interpretación de la violencia terrorista: ETA y el proceso político vasco. Douglass W.A. *Migración etnicidad y etnonacionalismo*. Argitarapen zerbitzua: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Zulaika R. (1980). *Euskadi-estilo*. Ordago, Donostia.




I. Eranskina: Estimuluak





1. estimuloa: ETA taldeak eragindako bortxa












3. estimuloa: Poliziak eragindako bortxa





4. estimuloa: Poliziak eragindako bortxa





5. estimuloa: Herriaren erreibindikazioek eragindako bortxa





6. estimuloa: Herriaren erreibindikazioek eragindako bortxa











8. estimuloa: Biolazioek eragindako bortxa





9. estimuloc: Biolazioek eragindako bortxa





10. estimuloa: Babesgabeenganako bortxa







11. estimuloa: Babesgabeengandko bortxc






12. estimuloa: Liskarrek eragindako bortxa





13. estimuloa: Drogek eragindako bortixa





14. estimuloa: Ertzaintzak eragindako bortxa







15. estimuloa: Ertzaintzak eragindako bortxa



## II. Eranskina: Galdetegia



A orrialdea: GALDETEGIAREN AURKEZPENA

BORTXA EUSKADIN ----- VIOLENCIA EN EUSKADI

IKASTETXEA ..... ADINA ..... SEXU .....  
CENTRO ESCOLAR ..... EDAD ..... SEXO .....

GALDERA:

Hitz bikote hauetatik zein egokitzen da eta nolake neurrian, aurrean dagoen diapositibarekin?

ARGIBIDEAK:

Orriaren eskuin eta ezker aldean agertzen dizkitzudan bi hitz hauetako bat aukeratu behar duzu. Lehen hitz bikotean adibidez, diapositiban ikusten dena MIRESGARRIA edo HIGUINGARRIA den erabaki beharko duzu ( aurrean duzun lehen adibidean, MIRESGARRIA dela esaten da eta nahiko ados jartzen duen laukia aukeratu da). Bigarrenean, ULERKORRA edo ULERGAITZA den ( agertzen dizudan bigarren adibidean ULERKORRA dela esaten da eta guztiz ados jartzen duen laukia aukeratu da). Hirugarrenean, GIZABIDEZKOA edo TRAKESKERIA adierazten duen (agertzen dizudan hirugarren adibidean iritzi gabe jartzen duen laukia aukeratu da).

Orain bada, argibideari jarraituz bete behar duzu ondorengoa.

PREGUNTA:

Cuál de las dos palabras de cada serie es la más adecuada y en qué medida para referirse a la diapositiva que tienes delante?

ACLARACIONES:

Se trata de elegir una opción de las dos que se te presentan una en la parte izquierda y la otra en la parte derecha del impreso. En el primer par de palabras por ejemplo, puedes optar por decir que lo que se expresa en la diapositiva es ADMIRABLE o ABOMINABLE (en el primer ejemplo que te presento se ha optado por decir que es ADMIRABLE y se ha marcado el cuadro donde indica el grado de bastante de acuerdo). En el segundo, que si es COMPRENSIBLE o INCOMPRENSIBLE (en el segundo ejemplo que te presento se ha optado por decir que es COMPRENSIBLE y se ha marcado el cuadro donde se dice muy de acuerdo). En el tercero, que si es EDUCADO o si indica ORDINARIEZ (en el tercer ejemplo que te presento se ha marcado el cuadro donde dice sin opinión).

Se trata por lo tanto, de que marques las siguientes hojas siguiendo las instrucciones que se han dado.

ARGIBIDERAKO ARIKETAK ----- EJERCICIOS DE ACLARACION

